



OSALAN

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

LANEKO OSASUN ETA LANEKO BALDINTZEI BURUZKO II. INKESTA

2007 urtea

EAE

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTITZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL



OSALAN

*Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea*

*Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales*

LANEKO OSASUN ETA LANEKO BALDINTZEI BURUZKO II. INKESTA 2007. urtea EAE

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Justizia, Lan eta
Gizarte Segurantzza Saila

Departamento de Justicia,
Empleo y Seguridad Social

Argitaraldia: 2008ko ekaina

Ale kopurua: 200 ale

© OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Autonomiaduna

Internet: www.osalan.net

Argitaratzailea: OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Dinamita bidea, z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)

Fotokonposizioa: HELVETICA PUBLICIDAD S.L.

Inprimaketa: Gertu (Oñate)

ISBN: 978-84-95859-52-5

D.L: SS-1510-2008

OHARRA:

Badago gaztelaniazko liburu baliokidea, eta "II Encuesta de Salud Laboral y condiciones de trabajo. Año 2007. CAE" izenburua du.

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	7
2. METODOLOGIA	9
1.1. Metodologia Kuantitatiboa: Inkesta	9
1.2. Laginketa-prozedura	10
1.3. Lagina, Datuen Tratamendu eta Analisia.....	11
3. ENPRESEI BURUZKO TXOSTENA	13
4. LANGILEEI BURUZKO TXOSTENA – INDUSTRIA, ZERBITZUAK ETA ERAIKUNTZA.....	47
5. LANGILEEI BURUZKO TXOSTENA – NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA	139
6. LANGILEEI BURUZKO TXOSTENA – ARRANTZA	177



AURKEZPENA

OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, lanean kalteak sorrarazten dituzten zergatiak eta faktoreak aztertu eta ikertzen ditu, dagozkion beste eginkizunen artean.

Horretarako, Euskadin lan-jarduera garatzeko forma ezberdinak, eta forma horien, eta langileen osasun-arazoen artean egon daitezkeen erlazioak ezagutzearen beharra ezarri da, Laneko Osasun eta Laneko Baldintzei buruzko Inkesta baten bitartez. Tresna hau poz handiz aurkezten dizut, Euskadiko langileen lan-baldintzak hobetzeko lagungarri izango delakoan.

Azterketaren helburu nagusia Laneko Osasun eta Laneko Baldintzei buruzko Inkesta bat egitea izan da, Euskadiko langileen laneko baldintzei, arazoei, arriskuei eta osasunerako kalteei buruzko informazioa lortzeko, 2004eko Inkestan hasitako parametroei eutsita.

Planteatutako helburu espezifikoa honako hauek izan ziren, nagusiki:

- Langileek sentitzen duten osasun-egoera ezagutzea.
- Langileen osasunean eragina duten lan-inguruko faktoreak aintzat hartzea.
- Langileek lanean dituzten esposiziorik ohizkoenak ezagutzea eta bereiztea.
- Enpresen prebentzio-antolakuntzaren errealitatea tipifikatzea.

Azterketa hau bi txostenetan dago bananduta. Lehenengoa, enpresetan laneko osasuna eta lan-baldintzen egoera aztertzeko txostena dugu eta, bestea, langileen egoerari buruzkoa. Azken atal hau, bere aldetik, beste hirutan zatitu da; lehenik, Industria, Zerbitzuak eta Eraikuntza sektoreetan diharduten pertsonak dira aztergai; bigarrenik, Arrantzaren sektorea eta, azkenik, Nekazaritzaren sektorea aztertzen dira.

Eta, bukatzeko, gure eskerrona adierazi nahi diegu Inkesta honetarako lankidetzaren eman duten enpresak osatzen dituztenei, eta "Murgibe, S.M." entitateari, lehiaketa publikoan esleitu eta Osalane gainbegiratu ondoren, emaitza bikaina izan delako.

Ignacio Murguía Mañas
OSALANEKO ZUZENDARI NAGUSIA



METODOLOGIA

Laneko Osasunari eta Laneko Baldintzei buruzko EA Eren II. Inkestarako alorreko lana irailaren 17a eta abenduaren 14aren bitartean egin da. 1.104 inkesta egin zaizkie enpresei, eta 1.110 inkesta langileei. Enpresek parte hartzearen aldeko oso jarrera ona azaldu dute eta, salbuespen gutxi batzuk badaude ere, euren aldetik ez da inolako errefusatzarik.

1.1 METODOLOGIA KUANTITATIBOA: INKESTA

Azterketa egiteko erabili dugun tresna, Galdera-Sorta izan da. Bi eredu erabili izan dira galdera-sorta egiteko: bata enpresei zuzendua, bestea langileei.

Enpresei zuzendutako Galdera-Sorta, enpresan laneko arriskuen prebentzioaz arduratzen den pertsonak edo, ez egotekotan, enpresako arduradunak erantzun du. Galdera-sorta diseinatzeko kontutan izan dira jarduera-sektore ezberdinak - lehen sektorea, eraikuntza, industria eta zerbitzuak, hain zuzen. Enpresa-atalean, hiru itaun-sorta egin dira: industria eta zerbitzuen sektorerako, eraikuntzaren sektorerako eta arrantzaren sektorerako, hain zuzen.

Langileen Galdera-sortari dagokionez, lau prestatu dira: industria eta zerbitzuen sektorerako, eraikuntzaren sektorerako, arrantzaren sektorerako eta nekazaritza eta abelazkuntzaren sektorerako, hain zuzen. Itaun-sorta guztiak, enpresei zein langileei zuzendutakoak, genero-ikuspuntutik berraztertu izan dira.

Enpresei zuzendutako Galdera-Sorta honela egituratu da:

1. Enpresaren ezaugarriak. Honako aspektu hauei ekin zaie, besteak beste: langile kopurua eta banaketa, plantilla osatzen duten pertsonen sexu, eginkizun edo kontratu-motaren arabera.

2. Laneko segurtasun eta osasunaren arloko prebentzioaren antolaketa. Honako gai hauek sartzen dira, besteak beste: Enpresako eta enpresatik kanpoko prebentzio zerbitzuak garatutako prebentzio jarduerak edo lan-istripuak.

Langileei zuzendutako Galdera-Sorta honela egituratu da:

1. Pertsona enpresaren identifikatzeko aldagaiak: lurralde historikoa, jardueraren sektorea edo enpresako langile-kopurua, besteak beste.

2. Laneko Baldintzak: Lan-mota, giro termikoa, eragile fisikoak, kutsatzaile kimikoak, lanpostuaren diseinua, lan-karga, autonomia, igoerak, lan-ordutegia, parte-hartzea, prebentzioaren antolakuntza, prebentzio jarduerak, segurtasun baldintzak, statusa edo prestakuntza sartzen dira, besteak beste.



3. Lan-osasuna : Atal honetan aztertzen direnen artean, norberaren osasunaren hautematea, tabako, alkohol edo beste droga batzuen kontsumoa, lan-istripuak eta lanbide gaixotasunak aipa daitezke.

4. Familia unitatearen ezaugarriak: Hemen sartzen dira, esaterako, familien osakera edo etxeke lanak eta seme-alaben zaintza.

5. Aldagai soziodemografikoak: Adina, sexua, nazionalitatea eta ikasketa maila.

1.2 LAGINKETA-PROZEDURA

Laginketa-Prozesua etapa bikoa izan da; hau da, lehendabizi, enpresak aukeratu dira eta, ondoren, enpresako langileak hautatu dira.

Enpresen lagina aukeratzeko, probabilitatezko era erabili dugu, ezaugarri askeen bidez, geruzak honako hauek izan direlarik:

- Lurralde Historikoa, hiru Lurralde Historikoetako bakoitzak duen biztanle-kopuruaren arabera.
- Ekonomia Jardueraren arabeko taldeak : Nekazaritza, Abelazkuntza eta Arrantza, Administrazio eta Banka, Merkataritza eta Ostalaritza, Eraikuntza, Manufaktura, Metalgintza, Kimika, Gizarte-Zerbitzuak, Bestelako Industriak eta Bestelako Zerbitzuak.
- Plantillaren tamaina: gehienez 20; 20-49 bitartean; 50-99 bitartean; 100-249 bitartean; 250-499 bitartean, eta 500 baino gehiago.

Ondoren, langileak era estratifikatuan eta ezaugarri askeen arabera aukeratu dira, geruzak honako hauek izan direlarik:

- Sexua , banaketa proportzionalean oinarriturik.
- Adina , 16-24; 25-44; 45-54 urte bitartean eta 55etik gora.
- Jardutea: zuzendaritzako pertsonala, erdi mailako kargudunak, langile teknikoak, administrazio-langileak, langile kualifikatuak eta kualifikazio gabekoak, Euskal Estatistika Erakundea-EUSTATEk zehaztutakoaren arabera.

Inkestetarako langileak hautatzeko irizpidea honako hau izan da: pertsona bat, 250 baino langile gutxiago duten enpresen kasuan, eta bi, 250 langile baino gehiagokoen kasuan.

Inkestagileak: Jarduteko Protokoloa

Alorreko Lanean 13 inkestagilek eman dute lankidetzak, guztira: 7 Bizkaian, 3 Araban eta 3 Gipuzkoan; esperientzia zeukaten telefono bidezko eta etxez-etxeke inkestak egiten. Trebakuntza egokia hartu dute, metodologia aspektuetan eta galdera-sortaren edukietan. Horretarako, ikastaro trinko bat eman zaie 2007ko irailaren 13 eta 14ean. Alorreko lana 2007ko irailaren 17tik 2007ko abenduaren 14era bitartean egin da.

Bi talde eratu ziren; hiru pertsonak enpresekin geratzeko orduak zehazten zituzten bitartean, gainerakoek inkestak egiten zituzten. Arduradunari eskatzen zitzaion langileak era aleatorioan aukeratzeko, eskatzen ziren sexu, adin eta jardute ezaugarrien arabera, eta bisitaldiaren egunean bertan egon behar zutela esaten zitzaion.



Alorreko lana irailaren 17an hasi zen. Inkestagileei identifikatu eta egiaztatzeko txartela bat eman zitzaion, horrela datuen konfidentzialtasuna eta azterlanaren seriotasuna bermatuz.

1.3 LAGINA, DATUEN TRATAMENDU ETA ANALISIA

1.3.1 Enpresetako lagina

Enpresen unibertsoa 164.086 izan da (EUSTAT, 2006). Horrela, konfidantza-maila %95a eta errore-marjina %3a izanda, 1.104 enpresatako arduradunei egin zaie inkesta.

Jarraian ematen diren tauletan, enpresen lagina banakatzen da, jarduera-sektore, plantilla eta lurralde historikoaren arabera.

BIZKAIA (568 ENPRESA)

PLANTILLA ENPRESA-MOTA	20 baino gutxiago	20-49	50-99	100-249	250-499	500 + edo =	GUZTIRA
Arrantza	9						9
Administrazioa eta Banka	20	2	1				23
Merkataritza eta Ostalaritza	168	14	8	6	5	5	206
Eraikuntza	54	5	3	2	1	2	67
Manufaktura	11	1					12
Metalgintza	37	4	3	1	1		46
Kimika	4				1		5
Gizarte-zerbitzuak	50	4	4	3		1	62
Bestelako industriak	42	5	3		1		51
Bestelako zerbitzuak	70	6	4	3	2	2	87
GUZTIRA	465	41	26	15	11	10	568

ARABA (134 ENPRESA)

PLANTILLA ENPRESA-MOTA	20 baino gutxiago	20-49	50-99	100-249	250-499	500 + edo =	GUZTIRA
Administrazioa eta Banka	5						5
Merkataritza eta Ostalaritza	40	3	2	1	1	1	48
Eraikuntza	13	1	1	1			16
Manufaktura	2	1					3
Metalgintza	9	1	1				11
Kimika	2						2
Gizarte-zerbitzuak	12	1	1	1			15
Bestelako industriak	10	1			1	1	13
Bestelako zerbitzuak	17	2	1	1			21
GUZTIRA	110	10	6	4	2	2	134

GIPUZKOA (402 ENPRESA)

PLANTILLA ENPRESA-MOTA	20 baino gutxiago	20-49	50-99	100-249	250-499	500 + edo =	GUZTIRA
Arrantza	6						6
Administrazioa eta Banka	14	2	1				17
Merkataritza eta Ostalaritza	118	9	7	4	4	3	145
Eraikuntza	37	4	2	2	1	1	47
Manufaktura	9						9
Metalgintza	26	2	1	1	2	1	33
Kimika	3						3
Gizarte-zerbitzuak	35	4	2	1	1		43
Bestelako industriak	29	3	2	1	2		37
Bestelako zerbitzuak	50	5	3	2	2		62
GUZTIRA	327	29	18	11	12	5	402



1.3.2 Langileen lagina

Estatistika Euskal Erakundea-EUSTATen arabera, EAEn biztanleria okupatua, guztira, 962.200 da (EUSTAT. 2007). Ondorioz, konfidantza-maila %95a eta errore-marjina %3a izanda, 471 emakumezkori eta 639 gizezkori egin zaie inkesta (guztira, 1.110 pertsonari). Jarraian ematen diren tauletan, datuak ematen dira, langileen sexu, adin eta jardutearen arabera.

EMAKUMEZKOAK ADINAREN ARABERA

LURRALDEA ADINA	BIZKAIA	ARABA	GIPUZKOA	GUZTIRA
16 - 24 urte	24	4	7	35
25 - 44 urte	136	45	99	280
45 - 54 urte	50	22	38	110
55 urte baino gehiago	27	-	19	46
GUZTIRA	237	71	163	471

GIZONEZKOAK ADINAREN ARABERA

LURRALDEA ADINA	BIZKAIA	ARABA	GIPUZKOA	GUZTIRA
16 - 24 urte	28	5	11	44
25 - 44 urte	153	53	146	352
45 - 54 urte	91	31	35	157
55 urte baino gehiago	47	8	31	86
GUZTIRA	319	97	223	639

EMAKUMEZKOAK LANBIDE-KATEGORIAREN ARABERA

LURRALDEA LANBIDE-KATEGORIA	BIZKAIA	ARABA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Zuzendaritza pertsonala	39	9	16	64
Langile teknikoak	46	10	40	96
Erdi mailako kargudunak	4	2	3	9
Administrazio-langileak	56	22	14	92
Langile kualifikatuak	64	26	64	154
Kualifikazio gabeko langileak	28	2	26	56
GUZTIRA	237	71	163	471

GIZONEZKOAK LANBIDE-KATEGORIAREN ARABERA

LURRALDEA LANBIDE-KATEGORIA	BIZKAIA	ARABA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Zuzendaritza pertsonala	46	32	42	120
Langile teknikoak	52	15	29	96
Erdi mailako kargudunak	17	5	7	29
Administrazio-langileak	7	4	19	30
Langile kualifikatuak	159	21	94	274
Kualifikazio gabeko langileak	40	20	30	90
GUZTIRA	321	97	221	639

1.3.3 Datuen tratamendu eta analisisia.

Datuak bildu ondoren, ordenagailuan sartu eta informazioa prozesatu da, SPSS 13 (Statistical Package for Social Science) izeneko aplikazioaren bidez.

ENPRESEI BURUZKO TXOSTENA

AURKIBIDEA

SARRERA.....	19
A. ERAIKUNTZA ENPRESEN TIPOLOGIA	20
B. ENPRESETAKO LANGILEAK	22
C. PARTE-HARTZE ORGANOAK.....	27
D. PREBENTZIO BALIABIDEAK.....	30
E. PREBENTZIO JARDUERAK	32
F. PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA	35
G. OSASUNERAKO KALTEAK	39
H. TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA	40
I. KALITATE ETA BERDINTASUNA	43
J. ONDORIOEN LABURPENA	44

TAULEN AURKIBIDEA

1. TAULA: JARDUERA ZENTRO GEHIAGO IZATEA, TAMAINAREN ARABERA	22
2. TAULA: ENPRESAK JARDUERA-SEKTORE, PLANTILLA ETA LURRALDEAREN ARABERA	23
3. TAULA: BESTE ENPRESETATIK ERATORRITAKO LANGILEAK EGOTEA.....	24
4. TAULA: BESTE ENPRESETATIK ERATORRITAKO LANGILEAK EGOTEA, SEKTOREAREN ARABERA	24
5. TAULA: BESTE ENPRESETATIK ERATORRITAKO LANGILEAK EGOTEA.....	24
6. TAULA: ENPRESAKO PLANTILLA, LANALDIAREN PARTERIK HANDIENA EGITEN DUEN TOKIAREN ARABERA	25
7. TAULA: ENPRESEN EHUNEKOA, EMAKUMEZKOAK EGOTEAREN ARABERA	25
8. TAULA: ENPRESEN EHUNEKOA, GIZONEZKOAK EGOTEAREN ARABERA.....	26
9. TAULA: TXANDEN INPLANTAZIOA ENPRESETAN	26
10. TAULA: ENPRESAKO PLANTILLA EGINKIZUNAREN ARABERA.....	27
11. TAULA: PREBENTZIOKO ORDEZKARIA, ENPRESAREN JARDUERA ETA TAMAINAREN ARABERA	28
12. TAULA: LANGILEEN PARTE HARTZE ORGANOA	30
13. TAULA: SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ALORREAN ERABILTZEN DEN LANALDIAREN ZATIA.....	31
14. TAULA: SEGURTASUN ETA OSASUN LANETAN DIHARDUTEN LANGILE TEKNIKOAK ERAIKUNTZAN	31
15. TAULA: ENPRESATIK KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZUAK GARATZEN DITUEN JARDUERAK	32
16. TAULA: EJSN-I JARRAIKI GARATUTAKO PREBENTZIO JARDUERAK.....	32
17. TAULA: ERAIKUNTZA. EROSI DIREN BABESERAKO NEURRI-MOTAK.....	33
18. TAULA: LANALDIAN GERTATUTAKO LAN-ISTRIPUAK	34
19. TAULA: PRESTAKUNTZA EMAN DUTEN ENTITATEAK	36
20. TAULA: NOIZ EMATEN DEN PRESTAKUNTZA.....	38
21. TAULA: KONTSULTATU ETA PARTE HARTZEKO PROZEDURAK	38
22. TAULA: TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA SEKTOREAREN ARABERA	41
23. TAULA: BEREZKO TRESNERIA BERRIA ETA HORI ERABILTZEKO ARAUAK.....	42

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. GRAFIKOA: OBRA-MOTAK	21
2. GRAFIKOA: LURRALDE-EZARPENA	21
3. GRAFIKOA: INZIDENTZIA-LIBURUA EGOTEA ETA LIBURU HORREN EDUKIA	22
4. GRAFIKOA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ORDEZKARIA	28
5. GRAFIKOA: LANTOKIKO OSASUN ETA SEGURTASUNERAKO BATZORDEA	29
6. GRAFIKOA: OPORRALDIAK	29
7. GRAFIKOA: SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO IZENDATUTAKO LANGILEA	30
8. GRAFIKOA: LANALDIAN GERTATUTAKO ISTRIPUAK.....	34
9. GRAFIKOA: ISTRIPUAK ENPRESA-MULTZOEN ARABERA.....	35
10. GRAFIKOA: LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO IKASTAROETARA JOATEA EJSN ETA PLANTILLAREN ARABERA	36
11. GRAFIKOA: LANGILEAK SEGURTASUNAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA HARTZEN DU	37
12. GRAFIKOA: ARRISKU-PROBABILITATEA LANTOKIAN	40
13. GRAFIKOA: INBERTSIOAK ETA TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA 2005 - 2007 ALDIAN.....	40
14. GRAFIKOA: TEKNOLOGIA EROSI ETA/EDO BERRITZEKO ARRAZOIAK	41
15. GRAFIKOA: TALDEA BABESTEKO BALIABIDEAK ERAIKUNTZAN.....	42
16. GRAFIKOA: KALITATEA KUDEATZEKO ISO 9.000 EZARTZEA	43
17. GRAFIKOA: BERDINTASUN LEGEAREN EZAGUTZA	44



SARRERA

Sarrera moduan, ikertutako 1.104 enpresaren ezaugarri orokorrak biltzen dituzten taula batzuk ematen dira. Aipatu behar da txosten honetan ez dela ematen nekazaritzaren sektoreari buruzko daturik, azterketaren hasierako diseinuan erabaki zelako nekazaritzan aritzen diren langile autonomoei bakarrik elkarrizketatzea.


	(%)	N Guztira
Arrantza	1,4	15
Administrazioa eta Banka	4,1	45
Merkataritza eta Ostalaritza	36,1	399
Eraikuntza	11,8	130
Manufaktura	2,2	24
Metalgintza	8,2	90
Kimika	0,9	10
Gizarte-zerbitzuak	10,9	120
Bestelako industriak	9,1	101
Bestelako zerbitzuak	15,4	170
Guztira	100,0	1104

Beste alde batetik, tipologia aurkezten da, enpresaren tamainaren arabera. Enpresa gehienek (%83,1) 50 langile baino gutxiago dituzte.

	(%)	N Guztira
20 baino gutxiago	60,8	671
20 - 49	22,3	246
50 - 99	6,7	74
100 - 249	5,1	56
250 - 499	1,6	18
500 baino gehiago	3,5	39
Guztira	100,0	1104

Txostena egiten ari zela, batzutan, estatistika kodeketaren bidez, enpresetako plantillak taldekatzeko aukera hartu zen, taldekatutako datuen arabera hobeto ulertu ahal izateko.

Elkarrizketan erantzuna eman duen pertsonaren karguaren arabera (guztira 705 gizon eta 399 emakume izanda), ehunekoetan egiten den banaketa honako hau izango litzateke:



Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, emakumeak gizonak baino gehiago dira, administrazio-ardura duten karguetan bakarrik; gainerako karguetan, portzentajea altuagoa da gizonen kasuan, eta alderik adierazgarriena Zuzendaritzako karguetan dago (%40,6, %12,8ren aurrean).

Inketa honetan, enpresei zuzendutako galdera-sorten ezarpenetik lortu den informazioa, honako atal hauetan taldekatu da:

- K. Eraikuntza enpresen tipologia
- L. Enpresetako langileak
- M. Parte-hartze organoak
- N. Prebentzio baliabideak
- O. Prebentzio jarduerak
- P. Prestakuntza eta informazioa
- Q. Osasunerako kalteak
- R. Teknologia berrikuntza
- S. Kalitatea eta berdintasuna

Atal bakoitzaren barruan taula eta grafiko ezberdinak gehitzen dira, aztertutako datuen mugak hobeto ulertzeko.


A. ERAIKUNTZA ENPRESEN TIPOLOGIA

Eraikuntzaren sektoreari buruzko azterketa espezifikoak, "ad hoc" egindako galdera-sorta baten bidez egin da; halaber, bertan, item amankomunak zeuden, gainerako sektore produktiboekin. Lehen atal horretan eraikuntzan diharduten enpresei buruzko informazioa baino ez dugu bildu.

Elkarrizketa egin zen momentuan, obra-mota arruntena, "etxebizitzak eraikitzea" da -%38,8-; hurrengoak, birgaiketa -%17- eta, hirugarrenik, "erreforma eta apainketa" dago (%15,5).



1. GRAFIKOA: OBRA-MOTAK (%) (N=130)




Bisitatu ziren obren egoerari dagokionean, %50,5 "akabera" fasean zegoen; %30,8, "instalazioak" fasean zegoen; %13,1, "lurrak mugitzea" aldian; %9,3, "itxitura bertikalak" izeneko fasean; %8,4, "saneamendu" aldian, e.a. (ehunekoak batzen badira, noski, %100etik gorakoa da emaitza, obra bera aldi berean fase bat baino gehiagotan egon daitekeelako).

Obraren sustapen-motari dagokionez, honela banatu zen: %64,6 "izaera pribatua"; %11,5 "izaera publikoa"; %10,0 "mistoa" eta %13,9tan, ez dago erantzunik. Beste alde batetik, obren %56,9tan, gutxi gora behera, urtebete bat edo gutxiago irautea aurriztatu zen.

Enpresa kontratista nagusiaren lurralde-ezarpenari dagokionean, %46,1k eremu autonomikoa du; %26,9 toki mailakoak dira; %24,6 estatu mailakoak eta, azkenik, bakarrik %0,8 dira nazioarteko mailakoak, jarraian ematen den grafikoan ikus daitekeen moduan.

2. GRAFIKOA: LURRALDE-EZARPENA (%) (N=130)




Enpresen %91,5, lan egitean "independentek" direlakoan daude; %7,7k, ordea, "aldi baterako langile-elkarte" batekoak direla dio (%0,8k ez du erantzunik ematen).



Obraren guztirako bolumen ekonomikoari dagokionez, mugak 600.000 + eta 3.000.000 + dira, gehien hartu den aukera izanik (%20,8). 6.000 - 30.000 + tartean dauden obretako 3 eta erantzuten ez duten beste 3 izan ezik, gainerakoek Laneko Segurtasun eta Higiene Plan bat daukate. "Intzidentzia liburuari" buruzko galderari dagokionean, %83,8k baieztatzen du badaukatela; %14,5ek ez dauka eta %0,8k ez du erantzunik ematen galdera honetan. Baiezko erantzuna eman duten enpresak iragazi ondoren, eta galdetu zaienean liburuan idatzita zegoen segurtasun eta higienearen alorreko betekizun, gomendio edo prebentzio-neurririk, baiezko erantzunak %49,5 ziren; horietatik, %85,2 portzentajea, 20 langile baino gutxiago dituzten enpresei dagokie.

3. GRAFIKOA: INTZIDENTZIA-LIBURUA ETA LIBURU HORREN EDUKIA (%)



B. ENPRESETAKO LANGILEAK

Ikerketa honen helburu diren enpresa guzti-guztien ezaugarriak, itaun-sortaren galdera batzuen bidez ezagutu daitezke. Lehenengoak itauntzen du ea enpresak lantoki gehiagorik duen, elkarrizketa egin den tokiaz gain. %23,7k erantzuten du beste jarduera-zentroak dituela, baina ehuneko altu batek (%63,8k) ezetz erantzuten du eta %12,5ek ez du erantzuten. EJSN jarduera sekzioaren arabera, ezezkorik gehien ematen dutenak Metalgintza (%92,2), Gizarte-Zerbitzuak (% 76,7), Manufaktura (%79,2), Merkataritza/ Ostalaritza/ Garraioa (%69,9) eta bestelako zerbitzuak (%74,1) dira.

1. TAULA: JARDUERA ZENTRO GEHIAGO IZATEA, TAMAINAREN ARABERA (%)

	Guztira (N)	20 baino gutxiago	20 - 49	50 - 99	100 - 249	250 - 499	500 baino gehiago
Bai	262	109	84	21	21	10	17
%	100	41,6	32,1	8,0	8,0	3,8	6,5

Portzentaje horizontalak

Lantoki gehiago dituzten enpresen %23,7tik (282 dira, hain zuzen ere), langile propioen kopuruaren arabera banaketa honako hau da: %41,6k dienez (109), 20 enplegatu baino gutxiago dituzte; 250 - 499 estratuak, ordea, portzentaje txikiena dauka %3,8 (10).

Aztertu diren 1.104 enpresetatik, langile propioen kopuruaren arabera banaketa, honako hau da:



2. TAULA: ENPRESAK JARDUERA-SEKTORE, PLANTILLA ETA LURRALDEAREN ARABERA (%)

		Guztira (N)	20 baino gutxiago	20 - 49	50 - 99	100 - 249	250 - 499	500 baino gehiago
BIZKAIA	Arrantza	9	2,5	-	-	-	-	-
	Administrazioa eta Banka	23	3,3	7,5	4,8	3,4	-	-
	Merkataritza eta Ostalaritza	206	35,3	40,2	28,6	37,9	27,3	52,6
	Eraikuntza	67	15	4,7	7,1	6,9	9,1	10,5
	Manufaktura- industriak	12	2,8	1,9	-	-	-	-
	Metalgintza	46	4,7	10,3	31	10,3	9,1	5,3
	Kimika	5	1,1	-	-	-	9,1	-
	Gizarte-zerbitzuak	62	11,1	13,1	-	17,2	18,2	5,3
	Bestelako industriak	51	6,7	15	16,7	10,3	-	5,3
	Bestelako zerbitzuak	87	17,5	7,5	11,9	13,8	27,3	21,1
	GUZTIRA	568	360	107	42	29	11	19
ARABA	Arrantza	-	-	-	-	-	-	-
	Administrazioa eta Banka	5	7,2	-	-	-	-	-
	Merkataritza eta Ostalaritza	48	26,1	53,5	22,2	37,5	-	50
	Eraikuntza	16	18,8	2,3	11,1	12,5	-	-
	Manufaktura- industriak	3	2,9	-	11,1	-	-	-
	Metalgintza	11	8,7	7	11,1	12,5	-	-
	Kimika	2	1,4	-	11,1	-	-	-
	Gizarte-zerbitzuak	15	8,7	16,3	-	12,5	100	-
	Bestelako industriak	13	4,3	14	22,2	-	-	50
	Bestelako zerbitzuak	21	21,7	7	11,1	25	-	-
	GUZTIRA	134	69	43	9	8	1	4
GIPUZKOA	Arrantza	6	2,5	-	-	-	-	-
	Administrazioa eta Banka	17	5	2,1	8,7	5,3	-	-
	Merkataritza eta Ostalaritza	145	30,6	51	17,4	36,8	66,7	43,8
	Eraikuntza	47	15,3	4,2	8,7	10,5	16,7	6,3
	Manufaktura- industriak	9	2,9	2,1	-	-	-	-
	Metalgintza	33	5,8	11,5	13	5,3	16,7	18,8
	Kimika	3	0,8	-	4,3	-	-	-
	Gizarte-zerbitzuak	43	12,8	8,3	8,7	5,3	-	6,3
	Bestelako industriak	37	5,4	14,6	21,7	15,8	-	12,5
	Bestelako zerbitzuak	62	19	6,3	17,4	21,1	-	12,5
	GUZTIRA	402	242	96	23	19	6	16

Portzentaje horizontalak

Hurrengo taulan ikusten da enpresa-ehuneko altu batek esaten duela ez dutela kontratatetik, azpikontratetatik edo Aldi Baterako Laneko Enpresetatik eratorritako langilerik. Horrelakoetan, langileen artean, gizonak baino emakume gehiago daude, era nabarian.



3. TAULA: BESTE ENPRESETATIK ERATORRITAKO LANGILEAK EGOTEA (%)

	Kontratak edo azpikontratak		Aldi Baterako Laneko Enpresak	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Bat ere ez	84,5	76,2	96,6	96,7
1 - 10 pertsona	14,4	18,6	3,4	2,8
11 - 50 pertsona	1,1	4,5	-	0,4
51 - 249 pertsona	-	0,5	-	0,1
250 pertsona edo gehiago	-	0,2	-	-
GUZTIRA	100	100	100	100

Portzentaje bertikalak

“Kanpoko” emakume langile gehiago dituzten sektoreak, Merkataritza eta Ostalaritza (%27) eta Gizarte Zerbitzuak (%22,6) dira; eta, beste alde batetik, “kanpoko” gizon langile gehiago dituztenak, Eraikuntza (%60) eta Merkataritza eta Ostalaritza (%15,4) dira.

4. TAULA: BESTE ENPRESETATIK ERATORRITAKO LANGILEAK EGOTEA, SEKTOREAREN ARABERA (%)

	Mujeres	Hombres
Arrantza	-	-
Administrazioa eta Banka	1,9	1,5
Merkataritza eta Ostalaritza	27	15,4
Eraikuntza	13	60
Manufaktura-industriak	1,4	-
Metalgintza	5,7	7,7
Kimika	-	-
Gizarte-zerbitzuak	22,6	1,5
Bestelako industriak	11	6,2
Bestelako zerbitzuak	17,4	7,7
GUZTIRA	100	100

Portzentaje bertikalak

Beste enpresa batzuetatik eratorritako langileen presentzia nabariagoa da 20 langile baino gutxiagoko enpresetan, bai emakumeen kasuan (%47,1) bai gizonen kasuan (%64).

5. TAULA: BESTE ENPRESETATIK ERATORRITAKO LANGILEAK EGOTEA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

	Emakumeak	Gizonak
20 baino gutxiago	47,1	64
20 - 49	19,2	23
50 - 99	7,2	6,6
100 - 249	11,5	3,6
250 - 499	3,4	1,2
500 baino gehiago	11,5	1,7
GUZTIRA	100	100

Enpresa gehienak, %88,7 hain zuzen, ETE kontzeptuaren barruan sartuko lirateke, bere jarduerazentzuan 50 langile baino gutxiago (enpresakoak zein kanpokoak) dituztelako.



Merkataritza/Ostalaritza/Garraioaren, Bestelako Zerbitzuen eta Gizarte Zerbitzuen sektoreak %88,2an kokatzen dira eta, jarraian, Eraikuntza dago, %87,7rekin.

Bai emakumezkoen kasuan, bai gizonezkoenean, lana lantokian bertan egiten da, baina azpimarra daiteke beste enpresa batzuetan diharduten gizonen ehunekoa (%7,1) eta kalean egiten dutenena (%29,2) handiagoa dela.

6. TAULA: ENPRESAKO LANGILEAK, LANALDIAREN PARTERIK HANDIENA EGITEN DUEN TOKIAREN ARABERA (%)

	PERTSONA KOP. •:	Bat ere ez	1-10	11-50	51-249	250 edo gehiago	GUZTIRA
EMAKUMEAK	Lantoki honetan	26,7	61,3	8,5	2,5	0,9	100
	Enpresaren beraren beste lantokietan	95,2	4,1	0,1	0,6	-	100
	Beste enpresa batzuetan	98	1,7	0,3	-	-	100
	Kalean	95,5	3,8	0,7	-	-	100
	Norberaren bizilekuan	99,6	0,4	-	-	-	100
GIZONAK	Lantoki honetan	29,3	53,3	12,4	3,7	1,3	100
	Enpresaren beraren beste lantokietan	96,2	3	0,2	0,5	0,1	100
	Beste enpresa batzuetan	96,6	3,1	0,3	0,1	-	100
	Kalean	85,2	11,8	1,6	1,4	-	100
	Norberaren bizilekuan	99,4	0,6	-	-	-	100
	Beste toki batzuetan	98,4	1,4	0,3	-	-	100

Enpresen %19,6k baieztatzen du ez duela emakumerik bere lan-ekipoetan. Horrela, emakumeen ehunekoa txikiagoa duten sektoreak gutxiago dira: hain zuzen ere, Arrantza (%66,6) eta Eraikuntza (%58,5). Nabaria da ere Kimika eta Administrazioa/Banka sektoreetako enpresetan ez dagoela emakumerik gabeko plantillarik.

7.TAULA: ENPRESEN EHUNEKOA, LANGILEEN ARTEAN EMAKUMEZKOAK EGOTEAREN ARABERA, ETA SEKTOREAREN ARABERA (%)

	EMAKUMERIK GABE	EMAKUMEEKIN	N guztira (emakumerik gabe)
Arrantza	66,6	33,4	10
Eraikuntza	58,5	41,5	76
Manufaktura	29,2	70,8	7
Bestelako industriak	23,8	76,2	24
Merkataritza eta Ostalaritza	13,3	86,7	53
Metalgintza	15,5	84,5	14
Bestelako zerbitzuak	11,2	88,8	19
Gizarte Zerbitzuak	10,8	89,2	13
Kimika	0	100	0
Administrazioa eta Banka	0	100	0
Ez/Ede	-	-	10
Guztira	19,6	80,4	216

Portzentaje horizontalak

Gizonezko gehiago agertzen dira, era nabarian, Manufakturan (langileen artean gizonik gabeko enpresak %0 dia), Eraikuntzan (%2,3) eta Metalgintzan (%3,3). Baina Administrazioan eta Bankan (%28,9), Gizarte Zerbitzuetan (%27,5), eta bestelako Zerbitzuetan (%20,6), gizonik gabeko enpresa kopurua argi eta garbi igotzen da.



8.TAULA: ENPRESEN EHUNEKOA, LANGILEEN ARTEAN EMAKUMEZKOAK EGOTEAREN ARABERA, ETA SEKTOREAREN ARABERA (%)

	GIZONIK GABE	GIZONEKIN	N guztira (gizonik gabe)
Administrazioa eta Banka	28,9	71,1	13
Gizarte Zerbitzuak	27,5	72,5	33
Bestelako Zerbitzuak	20,6	79,4	35
Bestelako Industriak	14,8	85,2	15
Arrantza	13,3	86,7	2
Merkataritza eta Ostalaritza	13,2	86,8	30
Kimika	10	90	1
Metalgintza	3,3	96,7	3
Eraikuntza	2,3	97,7	3
Manufaktura	0	100	0
Guztira	12,2	87,8	135

Portzentaje horizontalak

Enpresak honela banatzen dira, lan-txanda nagusien arabera:

9. TAULA: TXANDEN EZARPENA ENPRESETAN (%)

	% guztira
Lanaldi zatitua	62,5
Etengabeko lanaldia goizez	16,7
Etengabeko lanaldia arratsaldez	4,0
Etengabeko lanaldia gauzez	1,9
Txanda goizez/arratsaldez	8,4
Txanda goizez/arratsaldez/gauzez	3,8
Bestelako lanaldia	2,6
N guztira	2438

Portzentaje bertikalak

	Emakumeen %	Gizonen %	N guztira
Lanaldi zatitua	46,2	53,8	1523
Etengabeko lanaldia goizez	61,0	39,0	406
Etengabeko lanaldia arratsaldez	59,2	40,8	98
Etengabeko lanaldia gauzez	38,3	61,7	47
Txanda goizez/arratsaldez	49,5	50,5	206
Txanda goizez/arratsaldez/gauzez	41,5	58,5	94
Bestelako lanaldia	48,4	51,5	64
Guztira	49,2	50,8	2438

Portzentaje horizontalak

9. taulan ikus daitekeenez, aukeratutako enpresen %62,5k lanaldi zatituan diharduten langileak ditu. Bakarrik enpresen %3,8k dauka, bestetik, goiz, arratsalde eta gaueko txandetan diharduen pertsonala.

Aukeratutako enpresetan dauden emakume langileak kontutan izanda, euren %61ek dauka beti goizez aritzeko etengabeko lanaldirako kontratua; gizonen kasuan, ehunekoa %39 da. Aitzitik, beti gauzez aritzeko etengabeko lanaldian, emakumeen ehunekoa txikiena da (%38,3) eta gizonen kasuan, %61,7 da.



Enpresetan lan egiten duten pertsonen eginkizunari dagokionez, ezberdintasun argi eta adierazgarria dago emakumeak eta gizonak dauden "lanpostua" ikusiz gero. Zentzu horretan, gizonak zeregin guztietan banatzen diren bitartean, eta Zuzendaritzan edo Kudeaketan (%76,2), eta entitatearen berezko lanetan (%62,5) presentzia nabaria duten bitartean, emakumeen kopurua nabaria da Administrazioan, batez ere (%53).

Beste alde batetik, analisia "Inor ez" zutabearen bigarren zatian zentratzen bada, azpimarratzekoa da emakumerik ez egotea, era nabarian, Ekoizpenerako Laguntzan (%81,4) eta Zuzendaritzan edo Kudeaketan (%61,7); baina gizonik ez egotea, ordea, nabaria da Administrazioan (%72,7) eta Ekoizpeneko Laguntzan ere (%78,4).

10 TAULA: ENPRESAKO LANGILEAK EGINKIZUNAREN ARABERA (%)

	PERTSONA KOPURUA	Baten bat	Inor ez	1-10	11-50	51-249	250 edo gehiago	GUZTIRA
EMAKUMEAK	Zuzendaritza edo Kudeaketa	38,3	61,7	37,2	0,6	0,5	-	100
	Administrazioa	53	47	50,3	1,9	0,5	0,4	100
	Ekoizpenerako laguntza/Zerbitzuak	18,6	81,4	17,7	0,8	0,1	-	100
	Entitatearen berezko lanak	38,7	61,3	30,8	4,9	2,9	0,1	100
	Beste batzuk	4,3	95,7	4	0,3			100
GIZONAK	Zuzendaritza edo Kudeaketa	76,2	23,8	73,8	2,2	0,2	-	100
	Administrazioa	27,3	72,7	25,5	1,7	0,1	-	100
	Ekoizpenerako laguntza/Zerbitzuak	21,6	78,4	19,6	1,7	0,4	-	100
	Entitatearen berezko lanak	62,5	37,5	44,4	13,2	3,4	1,5	100
	Beste batzuk	4,5	95,5	3,8	0,2	0,2	0,4	100

"Prebentzioari" dagokionez, galdetzen zitzairen ea uste zuten enpresako zuzendaritzak eraginkortasunez esku har zezakeen lan-istripuen eta gaixotasunak murrizteko orduan. Enpresen %84,9k baietz erantzun zuen galdera honetan, eta portzentajerik altuena Merkataritza / Ostalaritza / Garraioaren sektoreko enpresetan aurkitzen da (%37,0). Ezezkoa lantokien %11,2k erantzun zuen, eta ezezkorik gehien ematen den sektorea Bestelak Zerbitzuak da (%33,1).


C. PARTE-HARTZE ORGANOKAK

Atalburu honi dagokion lehenengo gaia, lantokian "Prebentzioko Ordezkarria" egoteari buruzko datuak ezagutzea da. Gutxi gora behera, enpresen heren batek baieztatu erantzuna ematen du galdera honetan (%32,5) eta %44,2k adierazten dute ez dutela eginkizun hori duen langilerik.

Baina enpresak bi talde handitan sailkatuz gero -lehenengoa, 20 langile baino gutxiagoko enpresek in eta bigarrena 20 baino gehiagokoekin- bigarren talde horretako enpresen %63k ordezkarria dauka, %40,2k ez dauka eta %4,3ren kasuan, ez daki/ez du erantzuten.



4. GRAFIKOA: LAN ARRISKUEN PREBENTZIOKO ORDEZKARIA (%)



Jarraian ematen den taulak erakusten ditu, jarduera sektoreen eta enpresen tamainaren arabera lortutako emaitzak, prebentzio-ordezkarria egoteari dagokionez.

11 TAULA: PREBENTZIOKO ORDEZKARIA, ENPRESAREN JARDUERA ETA TAMAINAREN ARABERA (%)

	Kimika	Arran.	Eraik.	Metalgi ntza	Admin. Banka	Manuf. Ind.	Merkatar. Ostalar.	Beste zerb.	Gizarte zerbitz.	Beste Ind.	Guztira
BAI	70,0	60,0	44,6	44,4	35,6	33,3	32,6	24,7	25,0	18,8	359
EZ	10,0	33,3	46,9	41,1	40,0	33,3	46,6	33,5	45,8	59,4	488
EDE	20,0	6,7	8,5	14,4	24,4	33,3	20,8	41,8	29,2	21,8	257
GUZTIRA (N)	10	15	130	90	45	24	399	170	120	101	1104

Portzentaje bertikalak

	0 - 49	50 - 249	249 baino gehiago	N guztira
BAI	25,5	62,3	77,2	359
EZ	46,7	36,9	21,1	488
EDE	27,8	0,8	1,8	257


Portzentaje bertikalak

Ikus daitekeenez, Kimika eta Arrantza dira prebentzio-irudi hau kasu gehiagotan duten sektoreak (%70 eta %60, hurrenez hurren). Enpresaren tamainari buruzko taulan erreparatu daiteke prebentzio-irudi hau egotearen aukera igotzen dela enpresaren tamaina handitzen den heinean, batez ere 1-49 langile dituzten enpresetatik 50-249 langile dituztenetara pasatzen denean.


Hurrengo gaia lantokian "Segurtasun eta Batzordea" egoteari lotuta dago. "Prebentzio-Ordezkarri" bat dutela erantzun duten enpresak (359) iragazki baten bidez aukeratzen badira, baieztatzen da horietatik %33,1ek esaten duela lantokian "Segurtasun eta Batzordea" dagoela. Batzorde hori izateko joera duten sektoreak Eraikuntza (%)56,9 eta Bestelako Industriak (%42,1) dira. Enpresa txikietan aztertutako kasuen %18,8tan agertzen da, %45,7ra pasatzen da enpresa ertainetan eta langilerik gehien dituzten enpresetan, %86,4ra iristen da.



5. GRAFIKOA: LANTOKIKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO BATZORDEA (%)



6. GRAFIKOA: ENPRESAKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO BATZORDEA (%)



Segurtasun ea Osasun Batzordea dagoen lantokietan, bileren maiztasuna ere ezagutu nahi zen. %48,9k baieztatzen du gutxienez hiru hilean behin biltzen dela, eta %32,1ek dio, hiru hilean behin biltzeaz gain, gai interesgarri zehatz baten bat dagoenean ere biltzen dela.

Eskala baten bidez neurtu da informazioa ematen dutenen iritzia, prebentzio-talde honen jardueraren eraginkortasunaren inguruan hain zuzen. Inkesta egin duten pertsonen artean, inork ez du uste batzordea eraginik gabea denik (puntuazioa 1 da, 5en gainean), laneko arriskuen prebentzioari dagokionean. Eraginkortasunaren inguruko iritzirik onena 4ko bat ematen dioten enpresetan dago; hau da, eraginkortasunik handienetik gertu, baina bertara iritsi gabe. Azpimarratu beharra dago 5eko bat ematen diola -guztiz eraginkortzat jotzen duela, beraz- %27,5ek.

Langileek Segurtasun eta Osasun gaietan parte hartzeko organorik egoteari buruzko galdera, eraikuntzako enpresetan bakarrik egin zen. Sektore horretan inkesta egin duten enpresetako %2,3k bakarrik esaten du organo hori dutela; eta, horrez gain, inork ez du esaten lan-segurtasunerako batzordea dutenik. Azpimarratu behar da ere %84,6k erantzuten duela "ez" edo "ed/ede".




12. TAULA: LANGILEEK SEGURTASUN ETA OSASUN ALORREAN PARTE HARTZEKO ORGANOA ERAIKUNTZAN (%)

	(%)	N guztira
Enpresako prebentzio ordezkaria	2,3	3
Ordezkaria eta Segurtasun Batzordea	0	0
Beste batzuk	3,8	5
EZ	9,3	12
ED/EDE	84,6	110
Guztira	100,0	135

D. PREBENTZIO BALIABIDEAK.

Lantokian Segurtasun eta Osasun eginkizunak betetzeko enpresaburuak izendatutako pertsona bat dago lantokien %52an. Kimika (%80), Eraikuntza (%77,0) eta Metalgintza (%73,3) dira, hurrenez hurren, segurtasun arduradun gehien dituzten sektoreak; alderantziz, Administrazioa eta Banka (%46,7), Bestelako Zerbitzuak (%40,6) eta Manufaktura Industriak (%12,5) nabarmentzen dira arduradun gutxien izateagatik. Enpresaren tamainari dagokionez, emaitzak borobilagoak dira:

7. GRAFIKOA: ENPRESABURUAK SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO IZENDATUTAKO LANGILEA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (%)



249 langile baino gehiago dituen enpresa askok lan honetarako izendatutako pertsona bat dauka (%80,7), baina 0-49 taldean, ehunekoa %47,4 da. Enpresa guztien %52,4k badauka, gutxienez, pertsona bat eginkizun horretarako enpresaren barruan. Izendatutako pertsona horiek emakumezkoak direnean, %17,4k esperientzia zeukan prebentzioaren alorrean, baina gizonezkoen kasuan, aurreko esperientzia %43,1ek zeukan. Kontutan izan behar da izendatutako pertsonetako %35, trebakuntza jasoa zeukaten gizonak zirela, baina emakumezkoen kasuan, ehuneko hori askoz baxuagoa zen: %21,4, hain zuzen.

Kasu gehienetan (%32,4), Segurtasun eta Osasun gaiei ematen zaien denbora ez da, normalean, arduradunen lanaldiaren %10a gainditzen. Lanaldian Segurtasun eta osasunerako erabiltzen den denborak gora egiten du enpresaren tamainaren arabera.



13. TAULA: SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO ERABILTZEN DEN LANALDIAREN ZATIA, ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA(%)

	1 - 49	50 - 249	249 baino gehiago
%10 baino gutxiago	32,5	39,2	15,8
%10 - %30	9,6	23,1	21,1
%31 - %50	1,7	6,2	7,0
%51 - %70	0,4	3,1	10,5
%71 - %90	0,3	0,0	7,0
%90 baino gehiago	2,0	5,4	12,3
Ede	53,4	23,1	26,3

Portzentaje bertikalak

Goian komentatu denez, eta Eraikuntzaren sektorearen berezitasunak kontutan izanda, jarduera honetako enpresei bereziki zuzendutako galderak egin ziren. Hain zuzen ere, galderak galdetzen zuen ea obran erantzukizun espezifikoak zituen beste langilerik zegoen:

14. TAULA: SEGURTASUN ETA OSASUN LANETAN DIHARDUTEN LANGILE TEKNIKOAK ERAIKUNTZAN (%)

Zuzendaritza fakultatiboko teknikaria	37,5
Z.F.n sartzen den prebentzioko teknikaria	22,5
Enpresako segurtasun teknikaria	31,6
Beste batzuk	8,3

Portzentaje horizontalak

Berriz ere enpresa guztien multzoa hartuta, beste galdera bat egin zen prebentzio-zerbitzua, propioa (edo mankomunatua), mutualitate batekin edo beste erakunde espezializatu batekin kontratatutako prebentzio-zerbitzua ez dena, zegoen ala ez ezagutzeko.

%6,7k dio prebentzio-zerbitzu propioa dutela, eta %6,7k dio zerbitzu hori mankomunatuta daukatela (indizea altuagoa da 50 langile baino gutxiagoko enpresetan, eta altuagoa da ere Merkataritza / Ostalaritza / Garraio sektorean, %40,5ekin).

Prebentzio-Zerbitzua osatzen duten pertsonetatik, %5,6 goi-mailako zereginak dituzten emakumeak dira, eta %7,3 maila ertaineko zereginak dituzte. Maila ertaineko zereginak dituzten gizonen portzentajea altuagoa da -%7,2- eta goi-mailan, %2,8. Goi mailako eginkizunak burutu dituzten pertsonak, honako espezialitate hauek zituzten: Laneko Segurtasuna (emakumeak, %4,3; gizonak, ordea, 3,3%), Industria Higienea (%2,4, emakume zein gizonen kasuan), Ergonomia/Psikosoziologia aplikatua (emakumeak, %2,8 dira eta gizonak, %2,4), eta Laneko Medikuntza (emakumeak %1,1 dira eta gizonak, ordea, %1,4). Unibertsitateko titulua izatearen inguruan, emakumeen %4ak eta gizonen %3,4ak baietz erantzun zuten.

Prebentzio-Zerbitzua enpresa kontratista nagusitik kanpo kontratatuta zeukaten galdetu zaienean (esaterako, mutualitate edo beste entitate espezializatu batekin), %82,7k baietz erantzun du (bereziki Manufaktura Industria eta Kimika sektoreko enpresetan).

Hurrengo taulak erakusten ditu entitate horiek garatzen dituzten zerbitzu nagusiak, kanpoko kontratazioa dagoen kasuak bakarrik kontutan hartuta.



15. TAULA: ENPRESATIK KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZUAK GARATZEN DITUEN JARDUERAK (%)

Diseinua, aplikazioa	73,4
Arrisku-faktoreen ebaluaketa	80,0
Langileen osasuna zaintzea	84,6
Langileen informazioa, trebakuntza	75,3
Lehentasunak zehaztea	68,1
Lehen sorospenak ematea	65,4

Portzentaje horizontalak

Aurreko taula irakurri ondoren ikus daitekeenez, lanetik sortutako arriskuen inguruan langileen osasuna zaintzearen jardueran, eta langileen segurtasun eta osasuna eragin dezaketen arrisku faktoreen ebaluaketa jardueran, ehunekoa %80a baino altuagoa da. Gainerako kasuetan %65 - %75 tartean kokatzen da.

Prebentzio Zerbitzuak bere jardueretan emakume eta gizonen egoera ezberdinak kontutan hartzen dituen ikusterakoan, argi dago balore guztiak kokatzen direla %19,8ren inguruan (prebentzio jardueraren planen eta programen diseinuak, aplikazioak eta koordinaketak lortutako balorerik txikiena) eta %25,7ren inguruan; azken hau da balorerik altuena eta langileen osasunaren zaintzari dagokio, lanetik sortutako arriskuen inguruan

Laneko arriskuen prebentzio-sistemaren auditoria bat egin duten enpresak %31,9 dira; %7,2k aurrikusita daukate, %29,2k ez dute aurrikusi eta %25,5ek ez dute egin beharrik. Enpresak langile kopuru handiagoa duen heinean, baiezko erantzuna nabarmenagoa da. Azterketa sektorearen arabera eginez gero, Kimikan aurkitzen da baiezko erantzunaren balorerik altuena (%50); jarraian, Administrazioa eta Banka dago (%46,7). Baina ezezko erantzunean portzentajerik handiena izan duen sektorea, Bestelako Zerbitzuak izenekoa izan da, %37,6 batekin.

E. PREBENTZIO JARDUERAK

Enpresen prebentzio jarduerari buruzko lehenengo galderan, laneko segurtasun eta osasun arrazoiengatik lantokian garatu dituzten (edo garatzen ari diren) jarduerak aipatzea eskatzen zitzairen. Erantzunak zehazteko, datuak tauletan banatzen dira eta, azken zutabean, 1.104 enpresetan -guztietan, beraz-jarduera bakoitzaren batez besteko ehunekoak aurkezten dira (handienetik txikienera ordenaturik).

16 TAULA: EJSN-RI JARRAIKI GARATUTAKO PREBENTZIO JARDUERAK (%)

	Arrantza	Adm. Banka	Merk. Ostal	Eraik.	Manuf. Ind.	Met	Química	Giza. Zerb.	Best. Ind.	Best. Zerb.	Guztira %
Laneko arriskuen ebaluaketa	93,3	78,0	77,1	92,3	90,0	98,9	100,0	89,1	98,8	77,9	85,2
Segurtasunari buruzko prestakuntza	80,0	80,4	68,6	78,8	70,0	52,2	100,0	70,2	91,8	69,5	71,7
Arrisku eta neurri buruzko informazioa	53,33	78,05	65,2	63,5	80,0	51,1	55,5	67,5	83,7	62,7	65,9
Segurtasun seinaleztapena	20,0	70,7	60,1	52,5	75,0	56,6	88,8	61,2	77,9	53,4	60,2
Larrialdietarako plana	20,0	63,4	58,4	44,1	80,0	58,9	66,6	55,8	79,0	54,2	57,9
Instalakuntzen aldakuntza	33,3	46,3	48,5	34,7	60,0	61,1	11,1	45,0	58,1	51,6	48,4
Eraginkortasunezko kontrolak zehaztea	46,6	60,9	44,9	38,1	75,0	52,2	44,4	40,5	68,6	50,0	48,3



Segurtasun arauak	66,6	51,2	46,8	45,7	60,0	35,5	22,2	26,1	63,9	51,7	45,9
Arriskuei aurrea hartzeko antolakuntza	26,6	53,6	43,7	36,4	60,0	61,1	22,2	42,3	51,1	47,4	45,7
Babesteko ekipoak erostea	53,3	9,7	28,8	51,6	65,0	52,2	33,3	27,9	56,9	22,8	35,8
Ekipo eta makinak aldatzea	73,3	48,7	34,7	16,1	30,0	32,2	0,0	26,1	39,5	46,6	33,9
Azterketa medikoa sexuaren arabera	0	48,7	29,3	27,1	50,0	35,5	33,3	21,6	38,3	27,9	30,2
Lanaren antolakuntza	20,0	34,1	25,1	11,0	10,0	35,5	22,2	28,8	25,6	35,6	26,0
Gai arriskugarriak aldatzea	53,3	4,8	21,4	16,9	55,0	32,2	0,0	32,4	50,0	17,8	25,6
Hurdunentzako segurtasuna	80,0	26,8	16,9	14,4	25,0	21,1	22,2	27,0	31,4	16,1	21,0
Lan-istripuen ikerketa	46,7	4,8	6,7	11,8	25,0	13,3	11,1	3,6	15,1	8,4	9,5
N Guztira	15	45	399	130	24	90	10	120	101	170	1104

Guztizkoak ez du %100 batzen, erantzun anitzeko galdera delako

Taulan ikus daitekeenez, enpresa guztietan gehien garatzen diren hiru jarduerak honako hauek dira: Laneko arriskuen ebaluaketa (%85,2), Segurtasunari buruzko prestakuntza (%71,7) eta Arrisku eta neurriei buruzko informazioa (%65,9). Aitzitik, ezarpen-maila txikiagoa dutenak honako hauek dira: Lan-istripuen ikerketa (%9,5), Hurdunentzako segurtasuna (%21) eta Gai arriskugarriak aldatzea (%25,6).

Aipatu behar da ere aldakortasun handia dagoela jarduera batzuk agertzean, aztertzen den sektorearen arabera. Kimikaren sektoreko enpresak kontutan izan gabe -bertan ia jarduera guztiak agertzen baitira-, Hurdunentzako segurtasunaren jarduera %80an agertzen da Arrantzan, baina ehunekoa %16,9 da Merkataritza / Ostalaritza / Garraioan. Larrialdietarako planak, beren aldetik, agertzearen ehunekoa %80 da Manufaktura Industrietan, baina Eraikuntzan %44,1 da; eta, horrela, beste konparaketa posible batzuk egin daitezke.

Beste alde batetik, enpresen %6,8k adierazten du laneko arriskuen hasierako ebaluaketa egin duela enpresaren barruan, baina %51,2k dioenez, Mutualitate edo antzeko kanpoko zerbitzu bati enkargatu dio. Eraikuntzaren sektoreko enpresen kasuan, gainera, galdetzen zitzaien zeintzuk ziren erositako babes kolektiboen motak. Ondoko taulak erantzunak erakusten ditu:

17. TAULA: ERAIKUNTZA. EROSI DIREN BABESERAKO NEURRI-MOTAK (%)

Hesiak	93,3
Barandak	88,0
Balizak	60,0
Sareak	58,7
Babes elektrikoa	57,3
Pasabide edo lantokien argiztapena	52,0
Markesinak	48,0

Guztizkoak ez du %100 batzen, erantzun anitzeko galdera delako

Eraikuntzan, gehien erosten diren babes-neurriak hesiak (%93,3) dira; bigarren tokian, barandak egongo lirateke (%88,0) eta, hirugarrenean, balizak (%60,0). Markesinak, babes-neurri gisa, bakarrik agertzen dira %48,0 ehunekoan.

Obretan erosi, ordezkatu edo aldatu diren norbera babesteko baliabideei dagokienez, portzentajerik altuena duen neurri-mota, arrisku mekanikoari aurre egiteko oinetakoak dira, %76,6 ehunekoarekin.




Aitzitik, portzentajerik txikiena duten norbera babesteko baliabideak, entzumen-babesleak eta oin-jasotzaileak dira, %2,3rekin.

Horrelako neurrien inguruan, bakarrik kasuen %30ean esaten dute badauzkatela emakumeentzako taila espezifikoak.

Lantokien %36,3tan, istripuren bat gertatu da lanaldian. 8. grafikoan erantzunen aukerak laburbiltzen ditu:

8. GRAFIKOA: LANALDIAN GERTATUTAKO ISTRIPUAK (%)



Ehunekoek diotenez, baiezko erantzuna handiagoa da Arrantza eta Kimika sektoreetan, eta altuagoa da 50-249 langile dituzten enpresetan (%92,6), 249 pertsona baino gehiago dituzten enpresen aurrean (%87,7rekin).

18. taulak hobeto zehazten du lan-istripuen egoera, sektorearen arabera, ezbehar-tasa gehiago edo gutxiago izatearen arabera ordenaturik:

18. TAULA: LANALDIAN GERTATUTAKO LAN-ISTRIPUAK, EJSN ETA ENPRESA TAMAINAREN ARABERA (%)

	Kimika	Arran	Manuf . Ind.	Metal gintza	Beste ind.	Merkat. Ostalar.	Eraik.	Gizart. Zerbitz	Beste zerb.	Admin. Banka
BAI	80,0	73,3	70,8	61,1	53,5	39,3	26,2	25,8	16,5	13,3
EZ	20,0	26,7	12,5	38,9	40,6	54,4	50,8	67,5	80,0	82,2
EDE	0,0	0,0	16,7	0,0	5,9	6,3	23,1	6,7	3,5	4,4
GUZTIRA (N)	10	15	24	90	101	399	130	120	170	45


Portzentaje bertikalak

	0 - 49	50 - 249	250 baino gehiago
BAI	67,3	92,6	87,7
EZ	20,4	6,6	8,6
Ed/Ede	12,2	0,8	3,7
Guztira	401	622	81

Portzentaje bertikalak



9. GRAFIKOA: ISTRIPUAK ENPRESA-MULTZOEN ARABERA (%)




Grafikoak "industriatzat" hartzen du Arrantza, Kimika, Manufaktura Industriak, Metalgintza eta Bestelako Industriak sektoreko enpresa-taldea, euren istripuen ehunekoa %60,4 izanik, "Zerbitzuak" izeneko grafikoaren bidez izendatzen den taldearen kasuan (Gizarte-Zerbitzuak, Merkataritza / Ostalaritza / Garraioa, Bestelako Zerbitzuak eta Administrazioa eta Banka), non ehunekoa %30,2 eskasa den; dena den, azpimarratzekoa da Eraikuntzaren ehunekoa, %26,2 hain zuzen. "Ezezko" erantzunari dagozkion hiru zutabeek, logikoki, kontrako joerari jarraitzen diote eta %50,8ra iristen dira Eraikuntzan (azpimarratu beharra dago kasu honetan dagoen Ez/Ede aukeraren ehuneko altua, hain zuzen ere %23,1). Enpresen %36k lan-istripuren bat izan du. Horietatik, %57,8k ez dute erantzunik eman gertatutako lan-istripuen kostu ekonomikoari buruzko datuak izatearen inguruan galdetu zaienean. %30,8k erantzun dute ez dutela horrelako daturik eta, %11,4k, ordea, baiezkoa eman dute. Datu horiek, lehentasunez, honako hauek dira: aseguratutako kostuak (%95,9), langileek galdu duten denbora (%17,1) eta instalakuntza, ekipo eta materialetan izandako aseguratu gabeko kalteen kostuak (%14,6).

F. PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA

Enpresen %74,8k inor bidali du laneko segurtasun eta osasunari lotutako gaiari buruzko ikastaroren edo hitzaldiren batera, eta horrek adierazten du gai horrekiko sentiberatze-maila altua. Arrantza, metalgintza, Eraikuntza eta Kimika, eta enpresa ertain eta handiak agertzen dira bertaratze-indize altuenarekin. Alderantziz, Manufaktura Industria, Administrazioa eta Banka eta Bestelako zerbitzuak, eta enpresa txikia, agertzen dute indizerik baxuena.



10. GRAFIKOA: LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO IKASTAROETARA JOATEA, EJSN ETA LANGILE KOPURUAREN ARABERA



Horrelako trebakuntza hartu duten langileei dagokienez, komentatu beharra dago %9,9 segurtasun eta osasunaren alorreko eginkizun espezifikoak burutzen dituzten emakumeak direla; zeregin berbera duten gizonak, ordea, % 16,8 dira. Emakumeen %9,1 eta gizonen %21,2 zuzendaritza karguetan daude. Emakumeen %5,7 eta gizonen %10,8 erdi mailako kargudunak dira, baina emakumeen %6,4 eta gizonen %16,8 langileak dira. Begi bistan dago goian komentatu diren 4 kasuetan Ed/Ede erantzun duten pertsona ehunekoa altua dela.

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, bai enpresa txiki zein ertainetan, kasu gehienetan, mutualitatea da prestakuntza ematen duena (%63,8 eta %69,5, hurrenez hurren). Aitzitik, prestakuntza horri dagokionez, enpresa handietan portzentajerik altuena enpresak berak lortzen du, %64,3rekin, eta mutualitatea bigarren lekuan geratzen da, %57,1ekin. Enpresa txikietan portzentajerik baxuena sindikatuena da, %2,4rekin; enpresa ertainetan, elkarteena da, %1ekin, eta enpresa handien kasuan, Unibertsitateena edo beste ikastetxeena da, %5,4rekin.

19. TAULA: PRESTAKUNTZA EMAN DUTEN ENTITATEAK, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (%)


	0 - 49	50 - 249	249 baino gehiago
Enpresak berak	14,9	45,7	64,3
Herri-administrazioek	12,5	8,6	23,2
Mutualitate batek	63,8	69,5	57,1
Elkarteek	6,1	1,0	10,7
Enpresari elkarteek	6,8	16,2	25,0
Sindikatuak	2,4	8,6	17,9
Unibertsitateak	5,7	8,6	5,4
Aholkularitza batek	14,9	17,1	19,6



Galdetu denean ea lantokian edozein langilek hartzen zuen laneko segurtasun eta osasunaren arloko prestakuntza espezifikorik bere lanpostu edo eginkizunerako, enpresen %70,7k baiezkoa eman dute, eta ezezkoa, ordea, %27,2k eman dute.


Hurrengo grafikoan bereiz daitekeenez, enpresetako langile kopuruak gora egiten duen neurrian, langileek segurtasunari buruzko informazio gehiago hartzen dute, eta enpresa handietan ehunekoak %96,5era iristen da.

11. GRAFIKOA: LANGILEEK SEGURTASUNAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA HARTZEN DU, LANGILE KOPURUAREN ARABERA (%)



EJSN kontutan izanik, ezberdintasun nabariak antzematen dira enpresen artean; esaterako, Eraikuntzan, non langileen %99,2k hartzen baitu arlo horren inguruko prestakuntza, eta Kimikan, non ehunekoak %100 baita. Manufaktura Industrietan eta Bestelako Zerbitzuetan, ordea, bakarrik %41,7k eta %39,4k -hurrenez hurren- hartzen dute horrelako trebakuntza.

11. GRAFIKOA: LANGILEEK SEGURTASUNAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA HARTZEN DU, EJSN-REN ARABERA (%)





Iragazki baten bidez hautatu dira enpresak non langileak hartzen baitu bere lanposturako segurtasunikastaro espezifiko bat; ondoren, horrelako trebakuntza zein momentutan hartzen den galdetzen da. Erantzunak ondoko taulan erakusten dira:

20. TAULA: NOIZ EMATEN DEN PRESTAKUNTZA (%)

	BAI	EZ	EDE
Kontratua hasten denean	53,5	9,0	37,5
Eginkizunak aldatzen direnean	65,0	17,3	47,7
Teknologia berriak sartzen direnean edo lan-ekipoak aldatzen direnean	33,6	16,8	49,6
Beste batzuk	12,3	0	87,7

Portzentaje horizontala

Emaitza orokorretatik ondorioztatzen denez, ikus daiteke, lanpostu zehatz bat eragiten duten arrisku espezifikoak buruzko argibideak emateko, enpresek ahoz ematen dituztela (%32,2), baina %14ek onartzen dute ez dutela inolako informaziorik ematen arriskuen inguruan. Idatziz %23k egiten dute, eta aldi berean ahoz zein idatziz egiten dutenen ehunekoa, 5 puntutan igotzen da: %28,4, hain zuzen.

Ia enpresen erdiak (%49,5) onartzen du ez dutela ezagutzen euren sektorean gizon eta emakumeek dituzten arrisku espezifikoak, eta antzeko ehunekoa (%54,6) adierazten du ez duela horri buruzko informaziorik hartzen.

Langileek parte hartze praktikei dagokienez, bakarrik %32,3k erabiltzen du iradokizun-buzoia edo antzekoren bat; enpresen %59,7k komentatzen du erraztasunak ematen dituela langileak betetzen duen lanpostuaren inguruko erabakien prozesuan parte hartzeko; bakarrik %18,8k ahalbidetzen du enpresaren jabetzan parte hartzea; eta, azkenik, %44,8k egiten ditu bilera formalak, enpresaren goeraren berri emateko.

21. TAULA: KONTSULATU ETA PARTE HARTZEKO PROZEDURAK, EJSN ETA LANGILE KOPURUAREN ARABERA (%)

	Kimika	Arratnza	Manuf Ind.	Metal gintza	Beste ind.	Merkat. Ostal.	Eraik.	Gizart. Zerb.	Beste zerb.	Admin. Banka	Guztira
Lanaren plangintza	20,0	53,3	33,3	35,6	42,6	39,1	38,5	59,2	35,9	35,6	40,5
Teknologia berriak sartzea	30,0	20,0	37,5	18,9	36,6	25,6	14,6	58,3	34,7	31,1	30,2
Ekipoak aukeratzea	0,0	20,0	33,3	25,6	32,7	30,6	32,3	49,2	29,4	24,4	31,8
Lan-baldintzak zehaztea	20,0	33,3	20,8	26,7	32,7	34,6	22,3	51,7	30,6	42,2	33,4
Babesteko neurriak antolatzea	20,0	40,0	0,0	30,0	41,6	30,6	26,9	59,2	25,9	20,0	32,4
Segurtasun/osa sun arduraduna izendatzea	0,0	13,3	4,2	45,6	26,7	22,6	16,2	23,3	22,9	24,4	23,6
Antolakuntza prestakuntza	20,0	0,0	0,0	23,3	16,8	22,1	8,5	20,8	28,8	22,2	20,2

Guztizkoak ez du %100 batzen, erantzun anitzeko galdera delako



	0 - 50	51 - 250	251 baino gehiago
Lanaren plangintza	39,5	39,2	59,6
Teknologia berriak sartzea	30,5	23,8	38,6
Ekipoak aukeratzea	29,7	35,4	57,9
Lan-baldintzak zehaztea	31,8	34,6	56,1
Babesteko neurriak antolatzea	29,0	40,0	70,2
Segurtasun/osasun arduraduna izendatzea	18,6	43,8	56,1
Antolakuntza prestakuntza	17,4	26,2	50,9

Guztizkoak ez du %100 batzen, erantzun anitzeko galdera delako

Laneko segurtasun eta osasunari lotutako hainbat aspektutan, langileen edo prebentzioko ordezkarien kontsulta eta parte hartze prozedura bat ezartzeari dagokienez, %40,5ek komentatzen du lanaren plangintzan eta antolakuntzan parte hartzen duela; %33,4k dio partaidetza duela lan-baldintzak zehaztean; %31,8k, ekipoen antolakuntzan; eta parte hartzerik txikiena duen aspektua, prestakuntzaren antolakuntza da (%20,2).

Datu horiek EJSNren arabera aztertzen badira, ikus daiteke portzentajerik altuenak Gizarte Zerbitzuetako enpresetan aurkitzen direla, puntuaziorik onenak lortzen baitituzte Lanaren plangintza eta antolakuntzan (%59,2), Teknologia berriak sartzean (%58,3), Ekipoak aukeratzean (%49,2), eta Osasuna zaintzeko eta arriskuei aurrea hartzeko jardueren antolakuntzan (%51,7). Hautatutako enpresa kimikoetan, ez dago inolako prozedurarik langileei kontsultatzeko eta parte har dezaten, laneko segurtasun eta osasunaren ardura duten pertsonak izendatzeko, eta ekipoak aukeratzeko. Ez dago ere inolako kontsulta edo parte hartze prozedurarik, prestakuntza antolatzeko, Arrantzan eta Manufaktura Industrietan.

Langileen edo prebentzio-ordezkarien kontsulta eta parte hartze prozeduretan gizon eta emakumeen berdintasunezko partaidetza bermatzeari dagokionean, 10 enpresetatik 7k baiezko erantzuna ematen dute.


Enpresek baieztatzen dutenez, segurtasun eta osasunari lotutako eginkizun espezifikoak betetzen dituzten pertsona eta zerbitzuen %58,6ri, goi-mailako kargudunen %56,3ri eta kargudun zuzenen %46,7ri, eman zaiela laneko arriskuen prebentzioa jarduera eta erabaki guztietan integratzeko agindua.

G. OSASUNERAKO KALTEAK

Lantokian osasunerako kalteak izatearen probabilitatearen inguruan, laneko istripuen arriskuak dira puntuaziorik altuena lortzen dutenak (%75,1); jarraian, neke fisikoa (%56,1) eta lesio muskulueskeletikoen arriskua (%42,8); eta, azkenik, estres, depresio eta antsietatea (%35,1). Bere aldetik, inkesta egin zuten pertsonetako %10,7ren ustez, ez dago arriskurik euren lantokian. Bakarrik %2,3k dio bere lantokian sexu-jazarpena jasatearen probabilitatea dagoela. Langile-kopuruak gora egiten duen ahala, altuagoak dira baieztapen bakoitzari dagozkion ehunekoak.



12. GRAFIKOA: ARRISKU-PROBABILITATEA LANTOKIAN (%)




Elkarrizketatutako pertsonak azpimarratu dutenez, goian azaldutako istripuen hiru arrazoirik garrantzitsuenak honako hauek dira: lehenik, lan egitean konfidantza edo aztura handiegia izatea; bigarrenik, erabilitako tresna, tresneria, ekipo edo produktuen ezaugarriak; eta, hirugarrenik, jarraibideak edo ezarritako metodoak behar bezala ez betetzea. Azpimarratu behar da ere ehuneko altu batean (%29,8) ez zela galdera hau erantzun.

H. TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA

Atal honetan EAEko enpresetan egon den teknologia-aldaketa ezagutu eta neurtu nahi da; aldi berean, ekipoak berritzeko arrazoi nagusiak ikertu nahi dira.

Aurreratu daiteke, enpresek emandako erantzunak aztertu ondoren, haietako %65,1ek inbertsioak egin dituela azken bi urteetan. 238 enpresak ez du inolako inbertsiorik egin.

13. GRAFIKOA: INBERTSIOAK ETA TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA 2005 – 2007 ALDIAN (%).
N = 974





22. TAULA: TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA SEKTOREAREN ARABERA (%)

	Gizarte zerb.	Beste ind.	Metagintza	Adm. Banka	Manuf. Ind.	Merkat. Ostalar.	Beste zerb.	Arrantza	Kimika	Batez bestekoa
Bai	85,0	80,2	76,7	75,6	75,0	71,4	67,1	66,7	60,0	73,07


Taulak adierazten du zeintzuk diren inbertsio-mailaren batez bestekoa (%73,0) gainditzen duten sektoreak; Merkataritza/Ostalaritza, Bestelako Zerbitzuak, Arrantza, eta, azkenik, Kimika (%60,0rekin) dira.

Tresnerian edo lan-ekipoetan inbertsioak egin dituzten enpresak aukeratuz gero (bai, oso garrantzitsuak eta bai, nolabaiteko garrantzia izan dutenak erantzunekin. Guztizkoa = 974), ikus daiteke zein den berritu edo erosi den tresneria edo ekipoen ehunekoa. %0-%30 tartea, enpresen %25,3k betetzen du. %31-%90 tartean, enpresen %28,4 kokatzen da. Portzentajerik baxuena %90a inbertitu duten enpresei dagokie; enpresen %9,3 dira, hain zuzen. Azkenik, aukeratutako enpresen %25,2k ez du erantzunik eman galdera honetan.

Bakarrik tresneria berria erosteari dagokionean, enpresen %45,7k %90a baino gehiago inbertitu du ekipu berrien erosketan. Oraingoan ere, %25ek ez du erantzunik eman. Gainerako baremoak %4,3-%6,4 tartan daude.

Hurrengo grafikoan materiala erosi eta/edo berritzeko arrazoi nagusiak zehazten dira, arrazoiaren arabera ordenaturik.

14. GRAFIKOA: TEKNOLOGIA EROSI ETA/EDO BERRITZEKO ARRAZOIAK (%). N = 974






Aurreko grafikoan erakusten da tresneria berritzeko lehen arrazoiak produktibitatea (%27,1) eta produktu edo zerbitzuaren kalitatea (%21,1) direla. Berritzeko bigarren arrazoiak Kalitatea (%19,6) eta langileen segurtasun eta osasuna (%11) izango lirateke.

Atal honetan eraikuntzaren sektorerako galdera espezifiko batzuk sartu ziren. Lehenengoak obran kargak jasotzeko eta garraiatzeko tresneriaren gaurko erabilpena aipatzen du; enpresen %47,7k baietz erantzun du. Tresneria horretatik, %31,5 ez da eraikuntzaren ardura duen enpresarena. %46,9k ez zuten erantzunik eman galdera honetan.

Beste aspektu interesgarria da lurrak mugitzeko eta zimendatze lanetarako tresneria erabiltzeari dagokiona. Kasu horretan, erabilpena aztertutako lanen %35,4ra iristen da. Hemen, tresneria guztiaren edo ia guztiaren jabe diren enpresak baturik, %16,9ra iristen da.

%26,2k makineria erabiltzen du hormigoia egiteko. Enpresa horietako %3,9k erantzuten du horrelako makina gehienak enpresarenak direla. %70ek ez du erantzunik ematen galdera honetan. Obretako %54,6k aldarmioak eta lan-plataformak erabiltzen ditu eta, kasu honetan, %19,5 aukeratutako enpresarena da, guztiz edo gehien bat. Obretako %76,9tan ezarrita daude. taldea babesteko neurriak.

15. GRAFIKOA: TALDEA BABESTEKO BALIABIDEAK ERAIKUNTZAN (%)



Eraikuntzaren arlokoak ez diren enpresa guztietarako (974) planteatutako azken galdera, azken urteotan erositako tresneriari eta etiketa eta erabilera-eskuliburuari buruzko a zen. Erantzunak ondoko taulan laburbiltzen dira:

23. TAULA: BEREZKO TRESNERIA BERRIA ETA HORI ERABILTZEKO ARAUAK (%)

	Gehienak BAI	Gehienak EZ	ED / EDE
"EEE" markatuta zeukan	59,8	1,1	28,6
"EEE"ren deklarazioa	57,8	1,5	30,2
Erabileta-eskuliburua gazteleraz.	55,6	4,7	29,2

Argi ikusten da Ed/Ede portzentajeak oso altuak direla, informazio edo arreta faltarengatik, enpresen berezko tresneria berriaren ezaugarriei dagokienez.




I. KALITATE ETA BERDINTASUNA

Honako hau galdera-sortaren azken atala da, eta EAEko enpresen kalitateari eusten dio. Lehendabizi, ISO 9.000 seriearen arabera kalitatearen kudeaketa ezartzea planteatzen du.

Enpresa guztien (1104) %39,6k baieztatzen du, edo ezarri dutela (%26,7) edo ezarpena aztertzen ari dela (%12,9). Erdia baino gehiagok (%55,7) ez dauka eta ez du izateko aurrikuspenik.

Hurrengo grafikoan, enpresaren tamainaren arabera, portzentajeen aldakortasuna ikus daiteke.

16. GRAFIKOA: KALITATEA KUDEATZEKO ISO 9.000 EZARTZEA (%)




Kalitate-sistema honen ezarpena gorantz doa enpresako langile-kopurua igotzen den heinean.

Ekoi-zenbakiaren arabera, Kimikaren sektoreak ISO 9.000 duten enpresa-portzentajerik altuena dauka (%60); jarraian, Eraikuntza dago, %41,5ekin; portzentajerik txikiena daukana Arrantza da, %0ekin. Ez eta ez dago aurrikusita atalean, gehien agertzen diren sektoreak Arrantza (%93,3) eta Manufaktura Industriak (%70,8) dira.

Emakume eta gizonen arteko Berdintasun Planik, edo berdintasuna sustatzeko neurri espezifikorik daukaten galdetzen dugunean, %19,8k, hau da, 219 enpresak, baieztatu erantzuna eman dute. Eta gehienak zerbitzuen sektorekoak dira (%40, Merkataritza eta Ostalaritza; %10,5, Gizarte Zerbitzuak, eta %10,5, Bestelako Zerbitzuak). Manufaktura Industriak (%1,4), Kimikan (%1,4) eta Metalgintzan (%9,6), ordea, horrelako ekimenak, oraindik, hasiberriak dira. Hurrengo grafikoan erakusten denez, enpresen %42,6k ez du Berdintasun Legea ezagutzen –jakina denez, Lege horrek 250 langile baino gehiago dituzten enpresei exijitzen die Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Plana izatea-. %66,1k ez du aurrikusten ildo horretan ekintzarik burutzea.



17. GRAFIKOA: BERDINTASUN LEGEAREN EZAGUTZA (%)



J. ONDORIOEN LABURPENA

- Bisitatu ziren obren egoerari dagokionean, %50,5 "akabera" fasean zegoen; %30,8, "instalazioak" fasean zegoen; %13,1, "lurrak mugitzea" aldian; %9,3, "itxitura bertikalak" izeneko fasean; %8,4, "saneamendu" aldian, e.a. (ehunekoak batzen badira, noski, emaitza %100etik gorakoa da, obra bera aldi berean fase bat baino gehiagotan egon daitekeelako).
- Obraren sustapen-motaren inguruan galdetu zitzaizkion erantzun honela banatu zen: %64,6 "izaera pribatua"; %11,5 "izaera publikoa"; %10,0 "mistoa" eta %13,9tan, ez zen erantzunik egon. Beste alde batetik, obren %56,9tan, gutxi gora behera, urtebete bat edo gutxiago irautea aurriztatu zen.
- Enpresa kontratista nagusiaren lurralde-ezarpenari dagokionean, %46,1ek eremu autonomikoa du; %26,9 toki mailakoak dira; %24,6 estatu mailakoak eta, azkenik, bakarrik %0,8 dira nazioarteko mailakoak.
- Obraren guztirako bolumen ekonomikoari dagokionez, %20,8 ehunekoak, 600.000 € eta 3.000.000 € bitartean kokatzen da; tarte horretan dauden obrek Laneko Segurtasun eta Higiene Plan bat daukate, 3 izan ezik eta erantzuten ez duten beste 3 izan ezik. "Intzidentzia liburuari" dagokionean, %83,8k baieztatzen du badaukatelara; %14,5ek ez dauka eta %0,8k ez du erantzunik ematen galdera honetan.
- %23,7k erantzuten du beste jarduera-zentroak dituela, baina portzentaje altu batek (%63,8k) ezetz erantzuten du eta %12,5ek ez du erantzuten. EJSN jarduera sekzioaren arabera, ezezkorik gehien ematen dutenak Metalgintza (%92,2), Gizarte-Zerbitzuak (%76,7), Manufaktura (%79,2), Merkataritza/ Ostalaritza/ Garraioa (%69,9) eta bestelako zerbitzuak (%74,1) dira.
- "Kanpoko" emakume langile gehiago dituzten sektoreak, Merkataritza eta Ostalaritza (%27) eta Gizarte Zerbitzuak (%22,6) dira; eta, beste alde batetik, "kanpoko" gizon langile gehiago dituztenak, Eraikuntza (%60) eta Merkataritza eta Ostalaritza (%15,4) dira.



- Enpresa gehienak, %88,7 hain zuzen, ETE kontzeptuaren barruan sartuko lirateke, bere jarduera-zentroan 50 langile baino gutxiago (enpresakoak zein kanpokoak) dituztelako. Merkataritza/Ostalaritza/Garraioaren, Bestelako Zerbitzuen eta Gizarte Zerbitzuen sektoreak %88,2an kokatzen dira eta, jarraian, Eraikuntza dago, %87,7rekin.
- Enpresen %19,6k baieztatzen du ez duela emakumerik bere lan-ekipoetan. Horrela, emakumeen portzentaje txikiagoa duten sektoreak gutxiago dira, batez ere, Arrantzan (%66,6) eta Eraikuntzan (%58,5). Nabaria da ere Kimika eta Administrazioa/Banka sektoreetako enpresetan ez dagoela emakumerik gabeko plantillarik.
- "Prebentzioari" dagokionez, galdetzen zitzaizen ea uste zuten enpresako zuzendaritzak eraginkortasunez esku har dezakeen lan-istripuen eta gaixotasunak murrizteko orduan. Enpresen %84,9k baietz erantzun zuen galdera honetan, eta portzentajerik altuena Merkataritza / Ostalaritza / Garraioaren sektoreko enpresetan aurkitzen da (%37,0). Ezezkoa lantokien %11,2k erantzun zuen, eta ezezkorik gehien ematen den sektorea Bestelako Zerbitzuak da (%33,1).
- Lantokian "Prebentzio-Ordezkarria" egoteari buruzko galderan, gutxi gora behera, enpresen heren batek baiezko erantzuna ematen du galdera honetan (%32,5) eta %44,2k adierazten dute ez dutela eginkizun hori duen langilerik.
- Langileek Segurtasun eta Osasun gaietan parte hartzeko organorik egoteari buruzko galdera, eraikuntzako enpresetan bakarrik egin zen. Sektore horretan inkesta egin duten enpresetako %2,3k bakarrik esaten du organo hori dutela; eta, horrez gain, inork ez du esaten lan-segurtasunerako batzordea dutenik. Azpimarratu behar da ere %84,6k erantzuten duela "ez" edo "ed/ede".
- Lantokian Segurtasun eta Osasun eginkizunak betetzeko enpresaburuak izendatutako pertsona bat dago lantokien %52an. Kimika (%80), Eraikuntza (%77,0) eta Metalgintza (%73,3) dira, hurrenez hurren, segurtasun arduradun gehien dituzten sektoreak; alderantziz, Administrazioa eta Banka (%46,7), Bestelako Zerbitzuak (%40,6) eta Manufaktura Industriak (%12,5) nabarmentzen dira arduradun gutxien izateagatik.
- 249 langile baino gehiago dituen enpresa askok lan honetarako izendatutako pertsona bat dauka (%80,7), baina 0-49 taldean, portzentajea %47,4 da, soilik. Enpresa guztien %52,4k badauka, gutxienez, pertsona bat eginkizun horretarako enpresaren barruan. Enpresaburuak izendatutako pertsona horiek emakumezkoak direnean, %17,4k esperientzia zeukan prebentzioaren alorrean, baina gizonezkoen kasuan, aurreko esperientzia %43,1ek zeukan. Kontutan izan behar da ere izendatutako pertsonetako %35, trebakuntza jasoak zeukaten gizonak zirela, baina emakumezkoen kasuan, portzentaje hori askoz baxuagoa zen: %21,4, hain zuzen.
- Enpresa guztietan gehien garatu diren hiru jarduerak honako hauek dira: Laneko arriskuen ebaluaketa (%85,2), Segurtasunari buruzko prestakuntza (%71,7) eta Arrisku eta neurriak buruzko informazioa (%65,9). Aitzitik, ezarpen-maila txikiagoa dutenak honako hauek dira: Lan-istripuen ikerketa (%9,5), Haurdunentzako segurtasuna (%21) eta Gai arriskugarriak aldatzea (%25,6).



- Lantokien %36,3tan, istripuren bat gertatu da lanaldian. Portzentajeek diotenez, baiezko erantzuna handiagoa da Arrantza eta Kimika sektoreetan. Langile-kopurua kontutan izanik, portzentajea altuagoa da 50-249 langile dituzten enpresetan: %92,7, hain zuzen ere.
- Enpresen %74,8k inor bidali du laneko segurtasun eta osasunari lotutako gaietarako buruzko ikastaroren edo hitzaldiren batera, eta horrek adierazten du gai horrekiko sentiberatze-maila altua. Arrantza, metalgintza, Eraikuntza eta Kimika, eta enpresa ertain eta handiak agertzen dira bertaratze-indize altuenarekin. Alderantziz, Manufaktura Industria, Administrazioa eta Banka eta Bestelako Zerbitzuak, eta enpresa txikia, agertzen dute indize baxuena.
- Galdetu denean ea lantokian edozein langile hartzen zuen laneko segurtasun eta osasunaren arloko prestakuntza espezifikorik bere lanpostu edo eginkizunerako, enpresen %70,7k baiezkoa eman diote galera horri, eta ezezkoa, ordea, %27,2k eman dute.
- Laneko segurtasun eta osasunari lotutako hainbat aspektutan, langileen edo prebentzio-ordezkarien kontsulta eta parte hartze prozedura bat ezartzeari dagokionez, %40,5ek komentatzen du lanaren plangintzan eta antolakuntzan parte hartzen dela; %33,4k dio partaidetza dagoela lan-baldintzak zehaztean; %31,8k, ekipoen antolakuntzan; eta parte hartzerik txikiena duen aspektua, prestakuntzaren antolakuntza da (%20,2).
- Laneko arriskuen probabilitatearen inguruan, laneko istripuen arriskuak dira puntuaziorik altuena lortzen dutenak (%75,1); jarraian, neke fisikoa (%56,1) eta estres, depresio eta antsietatea (%35,1) daude. Bere aldetik, inkesta egin zuten pertsonetako %10,7ren ustez, ez dago arriskurik euren lantokian. Bakarrik %2,3k dio bere lantokian sexu-jazarpena jasatearen probabilitatea dagoela. Langile-kopuruak gora egiten duen ahala, altuagoak dira baieztapen bakoitzari dagozkion portzentajeak.
- Teknologia-inbertsioari dagokionean, inbertsio-mailaren batez bestekoa (%73,0) gainditzen duten sektoreak, Merkataritza/Ostalaritza, Bestelako Zerbitzuak, Arrantza, eta, azkenik, Kimika (%60,0rekin) dira.
- Enpresen %76,9k ezarri ditu taldea babesteko neurriak.
- Kalitatearen kudeaketa ezartzeari dagokionez, enpresa guztien (1104) %39,6ak aitortu du ezarri duela (%26,7), edo aztertzen ari direla (%12,9). Erdiak baino gehiagok (%55,7%) ez dute ez dute edukitza aurreikusten.
- Ekoizpen-sektore ezberdinen arabera, Kimikaren sektoreak ISO 9.000 duten enpresa-portzentajerik altuena dauka (%60); jarraian, Eraikuntza dago, %41,5ekin; portzentajerik txikiena daukana Arrantza da, %0rekin. Ez eta ez dago aurrikusita atalean, gehien agertzen diren sektoreak Arrantza (%93,3) eta Manufaktura Industriak (%70,8) dira.

**LANGILEEI BURUZKO
TXOSTENA
INDUSTRIA ETA ZERBITZU
ERAIKUNTZA**

AURKIBIDEA

1. INKESTA EGIN DUEN LANGILEAREN PROFILA.....	55
2. KONTRATU MOTA	60
3. LAN MOTA	62
4. TENPERATURA-GIROA.....	68
5. ERAGILE FISIKOAK.....	70
6. KUTSATZAILE KIMIKOAK.....	73
7. SEGURTASUN BALDINTZAK	75
8. LANPOSTUAREN DISEINUA	78
9. LAN-KARGA.....	79
10. KOMUNIKAZIOA.....	87
11. STATUSA.....	87
12. AUTONOMIA	89
13. MAILAZ IGOTZEA	92
14. LAN-ORDUTEGIA.....	94
15. PARTE-HARTZEA.....	101
16. PREBENTZIOA ANTOLATZEA.....	104
17. PREBENTZIO JARDUERAK	106
18. PRESTAKUNTZA.....	112
19. INDARKERIAZKO JOKABIDEAK LANEAN	114
20. OSASUNERAKO KALTEAK	116
21. ONDORIOEN LABURPENA.....	127

TAULEN AURKIBIDEA

1. TAULA: INKESTA EGIN DUTEN PERTSONEN JARDUERA-SEKTOREA.....	55
2. TAULA: INKESTA EGIN DUTEN PERTSONEN IKASKETA-MAILA.....	57
3. TAULA: INKESTA EGIN DUTEN PERTSONEN BIZIKIDETZA-EGOERA	58
4. TAULA: BIKOTEKIDEEN LANTOKIA.....	58
5. TAULA: MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK	59
6. TAULA: SEME-ALABEN ADINA	59
7. TAULA: MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONEN ZAINZA	59
8. TAULA: KONTRATU MOTA, LURRALDEAREN ARABERA.....	60
9. TAULA: KONTRATU MOTA, JARDUERAREN ARABERA.....	60
10. TAULA: LANPOSTU MOTA	62
11. TAULA: LANPOSTU IRAUNKORRA, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA	63
12. TAULA: ENPRESAN EMANDAKO URTEAK	64
13. TAULA: ERAIKUNTZAREN SEKTOREAN EMANDAKO URTEAK	64
14. TAULA: ERAIKUNTZAREN SEKTOREAN EMANDAKO URTEAK, LANBIDE-MAILAREN ARABERA	64
15. TAULA: ESKULIBURU BATEN BIDEZ HARRERA-PROZESUA EGOTEA	66
16. TAULA: ERABILTZEKO ARGIBIDEAK ETA TREBAKUNTZA.....	66
17. TAULA: LANALDIAREN ZATIRIK HANDIENEAN LAN EGITEKO TOKIA.....	68
18. TAULA: LANALDIAREN ZATIRIK HANDIENEAN LAN EGITEKO TOKIA.....	69
19. TAULA: ZARATAREN JATORRIZKO TOKIA	71
20. TAULA: ERAGILE FISIKO EZBERDINEN JAULKIPENA EGOTEA, SEKTOREAREN ARABERA	72
21. TAULA: SUBSTANTZIEN MANIPULAZIO ETA/EDO ARNASKETAREN ONDORIO KALTEGARRIAK SEKTOREAREN ARABERA.....	74
22. TAULA: LANPOSTUKO ISTRIPU ARRISKU NAGUSIAK LANTOKIAN	75
23. TAULA: ISTRIPU ARRISKU NAGUSIAK SEKTOREAREN ARABERA.....	76
24. TAULA: ISTRIPU ARRISKU NAGUSIAK, SEXUAREN ARABERA	77
25. TAULA: LANPOSTUAREN EGOERA DESEGOKIAK.....	78
26. TAULA: EGOERA DESEGOKIAK SEKTOREAREN ARABERA	78
27. TAULA: LANERAKO OHIKO JARRERA, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA	80
28. TAULA: ZENBAT DENBORA EMATEN DEN JARRERA DESEGOKIETAN	82
29. TAULA: LAN-ERRITMOA LANALDIAN.....	84
30. TAULA: LAN-KOPURUA LAN-MAILAREN ARABERA.....	84
31. TAULA: LANPOSTUAREN ESKAKIZUNAK.....	84
32. TAULA: LANA EGITEKO NORBERAREN ESKU DAUDEN NEURRIAK	85

TAULEN AURKIBIDEA

33. TAULA: HARREMANAK ERAGOZTEN EDO ZAILTZEN DITUZTEN ALDERDIAK	87
34. TAULA: HARREMANA LANKIDEAREKIN	87
35. TAULA: ZURE EZAGUTZAK APLIKATZEKO AUKERA	88
36. TAULA: LANPOSTUAREN GARRANTZIA	88
37. TAULA: AUTONOMIA LANAREN ALDERDIAK HAUTATU EDO ALDATZEKO	89
38. TAULA: ALDE EGITEKO AUKERA	91
39. TAULA: MAILAZ IGOTZEA ADINAREN ARABERA	92
40. TAULA: MAILAZ IGOTZEA IKASKETA MAILAREN ARABERA.....	93
41. TAULA: MAILAZ IGOTZEA LAN-MAILAREN ARABERA.....	93
42. TAULA: LANALDIA LUZATZEA	97
43. TAULA: TELELANA	97
44. TAULA: ETXEAN EGITEN DIREN JARDUERAK	100
46. TAULA: PARTE-HARTZEA	101
46. TAULA: BALIABIDEAK	102
47. TAULA: OSASUN AZTERKETA EGITEKO ARRAZOIAK	106
48. TAULA: OSASUN AZTERKETAREN INGURUKO IRITZIA.....	107
49. TAULA: ARRISKUEN AZTERKETAN ANALIZATUTAKO ALDERDIAK	108
50. TAULA: ARRISKUAK AZTERTU ONDOREN HARTUTAKO NEURRIAK.....	110
51. TAULA: NORBERA BABESTEKO EKIPO MOTA.....	111
52. TAULA: NORBERA BABESTEKO EKIPOEN MOLDAGARRITASUNA.....	112
53. TAULA: INDARKERIAZKO JOKABIDEAK LANTOKIAN.....	115
54. TAULA: INDARKERIAZKO JOKABIDEAK – BESTE LANKIDEEKIN	116
55. TAULA: LANTOKIAN INDARKERIAZKO JOKABIDEAK DITUZTEN PERTSONAK.....	116
56. TAULA: SINTOMAK	121
57. TAULA: ARAZOAK SEME-ALABAK IZATERAKOAN	122
58. TAULA: AZKEN BI ASTEETAN HARTUTAKO BOTIKAK	122
59. TAULA: LANBIDE-GAIXOTASUNEN BATEN AZTERKETA	125
60. TAULA: LANAREN ALDERDI DESEGOKIAK EMAKUMEENTZAT.....	125
61. TAULA: LANAREN ALDERDI DESEGOKIAK GIZONENTZAT	126

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. GRAFIKOA: INKESTA EGIN DUTEN LANGILEEN ADINA	55
2. GRAFIKOA: INKESTA EGIN DUTEN LANGILEAK LURRALDEAREN ARABERA	56
3. GRAFIKOA: INKESTA EGIN DUTEN LANGILEAK NAZIONALITATEAREN ARABERA.....	56
4. GRAFIKOA: DIRU-SARRERA HANDIENAK DITUEN PERTSONA	57
5. GRAFIKOA: BIZIKIDETZA UNITATEAN BIZI DIREN PERTSONAK	58
6. GRAFIKOA: ORDAINKETA MOTA	61
7. GRAFIKOA: ORDAINKETA MOTA PLUSAREN ARABERA	61
8. GRAFIKOA: INKESTA EGIN DUTEN PERTSONEN LAN-MAILA	62
9. GRAFIKOA: ZEIN LAN-KATEGORIATAN EGITEN DEN LANA	63
10. GRAFIKOA: LANEAN ARITZEAREN ETENA	65
11. GRAFIKOA: LANEAN JARRAITUKO DUELAKOAN KONFIDANTZA-MAILA	65
12. GRAFIKOA: TRESNEN ALDAKUNTZA AZKEN URTEOTAN	67
13. GRAFIKOA: LANPOSTUKO HEZETASUN-MAILA.....	69
14. GRAFIKOA: LANPOSTUAN ZARATA ENTZUTEA	70
15. GRAFIKOA: LANPOSTUAN BIBRAZIOAK NABARITZEA	71
16. GRAFIKOA: SUBSTANTZIA EDO PRODUKTU KALTEGARRI EDO TOXIKOAK ERABILTZEA	72
17. GRAFIKOA: HAUTSA... TOXIKOAK INHALATZEA SEKTOREAREN ARABERA	74
18. GRAFIKOA: OHIKO JARRERA LANTOKIAN	79
19. GRAFIKOA: OHIKO JARRERA LANTOKIAN, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA	81
20. GRAFIKOA: GORPUTZ-ATALAK NON ONDOEZA SENTITZEN DEN	82
21. GRAFIKOA: LAN-KOPURUA	83
22. GRAFIKOA: LANAREN MONOTONIA	85
23. GRAFIKOA: AKATSA LANTOKIAN	86
24. GRAFIKOA: ESKATUTAKO EZAGUTZAK	88
25. GRAFIKOA: LAN-ERRITMOA ZEHAZTEA	90
26. GRAFIKOA: BURUTZEN ARI DEN LANA ETETEA.....	90
27. GRAFIKOA: MAILAZ IGOTZEA	92
28. GRAFIKOA: ASTEKO LANORDUAK.....	94
29. GRAFIKOA: OHIKO ORDUTEGIA	95
30. GRAFIKOA: LARUNBATETAN LAN EGITEA.....	95
31. GRAFIKOA: IGANDE EDO JAIEGUNETAN LAN EGITEA	96
32. GRAFIKOA: ORDUTEGIA.....	96
33. GRAFIKOA: ETXEKO LANAK EGITEN DITUEN PERTSONA	97

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

34. GRAFIKOA: ETXEKO LANAK EGITEKO ERABILTZEN DEN DENBORA.....	98
35. GRAFIKOA: EGUNERO LO EGITEKO ERABILTZEN DIREN ORDUAK	99
36. GRAFIKOA: ZALETASUNETARAKO BEHAR DEN DENBORA IZATEA	101
37. GRAFIKOA: IRADOKIZUNAK.....	102
38. GRAFIKOA: IRADOKIZUNEI KASU EGITEA.....	103
39. GRAFIKOA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ORDEZKARIA.....	104
40. GRAFIKOA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ORDEZKARIAREN ERAGINKORTASUNA	105
41. GRAFIKOA: LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO BATZORDEA	105
42. GRAFIKOA: LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO BATZORDEAREN ERAGINKORTASUNA.....	106
43. GRAFIKOA: OSASUN AZTERKETA	107
44. GRAFIKOA: OSASUN AZTERKETAREN EMAITZAK JAKIN ARAZTEA.....	108
45. GRAFIKOA: LANPOSTUAN OSASUN ETA SEGURTASUNERAKO DAUDEN ARRISKUEI BURUZKO AZTERKETA	109
46. GRAFIKOA: ARRISKUEI BURUZKO AZTERKETAREN EMAITZAK JAKIN ARAZTEA	109
47. GRAFIKOA: AZTERKETAREN OSTEAN HARTUTAKO NEURRIAK	110
48. GRAFIKOA: BABES-EKIPOAREN ERABILPENA	111
49. GRAFIKOA: NORBERA BABESTEKO EKIPOEN ERABILPENA KONTROLATZEA	112
50. GRAFIKOA: PRESTAKUNTZA.....	113
51. GRAFIKOA: PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN ORIENTABIDEA	114
52. GRAFIKOA: PRESTAKUNTZAREN ANTOLAKUNTZA	114
53. GRAFIKOA: OSASUNA.....	117
54. GRAFIKOA: BAJA OSASUN ARAZOENGATIK.....	117
55. GRAFIKOA: OSASUN ARAZOAREN JATORRIA	118
56. GRAFIKOA: BAJEN IRAUPENA GUZTIRA	118
57. GRAFIKOA: JOKABIDEA TABAKOARI DAGOKIONEAN	119
58. GRAFIKOA: EGUNERO ZENBAT ZIGARRO ERRETZEN DEN	119
59. GRAFIKOA: ZENBAT ERRETZEN DEN ORAIN, ORAIN DELA SEI HILABETE ERRETZEN ZENAREKIN KONPARATUTA	120
60. GRAFIKOA: ERRETZEARI UZTEA.....	102
61. GRAFIKOA: ARTERIA-PRESIOA	121
62. GRAFIKOA: BIZITZA SEXUALAREN ARAZOAK	121
63. GRAFIKOA: KONTSULTA MEDIKOAK	122
64. GRAFIKOA: KONTSULTA MEDIKOAK LANETIK SORTUTAKO OSASUN ARAZOENGATIK	124
65. GRAFIKOA: LAN-ISTRIPUA.....	124
66. GRAFIKOA: GOGO BETETZE MAILA, LANEKO BALDINTZEI DAGOKIENE.....	126




1. INKESTA EGIN DUEN LANGILEAREN PROFILA

Atal honetan, inkestan parte hartu duten langileen ezaugarriak definituko dira. Erreferentziatzko aldagaiak adina, jarduera-sektorea eta lurraldea izango dira. Atal honetan ez dira lehen sektoreak (Arrantza eta Nekazaritza) sartu, sektore zehatz horiei buruzko atal bat egingo baita.

Inkesta erantzun duten pertsonen adinari dagokionez, %50 baino gehiagok 25 eta 44 urte bitarteko adina dauka. Desberdintasuna oso adierazgarria ez bada ere, ikus daiteke 45 urtetik aurrera, emakumeen proportzionaltasuna gizonena baino txikiagoa dela. Gertaera horren arrazoia izango litzateke emakumezkoak beranduago sartu direla lan-eremuan.

1. GRAFIKOA: INKESTA EGIN DUTEN LANGILEEN ADINA (%)



GUZTIRA: Emakumezkoak (n=467) eta Gizonezkoak (n=617)

Jarduera-sektorearen arabera, ikus daitekeenez, Merkataritzan eta Ostalaritzan biltzen dira emakumerik (%41,1) eta gizonik (%40,7) gehien; jarraian, Bestelako Zerbitzuak (%17,1) eta Gizarte Zerbitzuak (%14,3) daude, emakumeei dagokienez; eta Metalgintza (%16,5) eta Bestelako Industriak (%13,3) daude, gizonen aldetik. Emakumezkoen lan-mota eta gizonezkoena argi bereizten dira, lan-tipologiaren bereizketa historikoarengatik. Emakumezko gehiago agertzen dira zerbitzuetan eta pertsonen zaintzaren sektoreetan; bitartean, industriari gehiago lotutako sektoreetan gizonezkoak dira nagusi.


1. TAULA: INKESTA EGIN DUTEN PERTSONEN JARDUERA-SEKTOREA (%)

	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Administrazioa eta Banka	6,2	1,3
Merkataritza eta Ostalaritza	41,1	40,7
Eraikuntza	3,9	10,7
Manufaktura	1,9	1,1
Metalgintza	4,1	16,5
Kimika	1,7	0,5
Gizarte Zerbitzuak	14,3	5,0
Bestelako Industriak	9,6	13,3
Bestelako Zerbitzuak	17,1	10,9
Guztira	467	617



Lagina jarraian azaltzen den moduan banatzen da, lurraldearen arabera. Unibertsoa hautatzeko orduan, erreferentzia moduan, okupatuta zeuden langileak hartu dira, EUSTATEk 2007rako emandako datuei jarraiki.

2. GRAFIKOA: INKESTA EGIN DUTEN LANGILEAK LURRALDEAREN ARABERA (%)




GUZTIRA: Emakumezkoak (n=467) eta Gizonezkoak (n=617)

Bizkaian populazio gehiago agertzen da, gainerako probintzietan baino, eta azpimarra daiteke emakumezkoen proportzionaltasuna handiagoa da Araban eta Gipuzkoan baino, bi horietan gutxiago agertzen baitira.

Elkarrizketa erantzun duten gehienek nazionalitate espainiarra dute, eta beste herrialde batzuetatik etorritakoak daude, oso ehuneko txikian.

3. GRAFIKOA: INKESTA EGIN DUTEN LANGILEAK NAZIONALITATEAREN ARABERA (%)



GUZTIRA: Emakumezkoak (n=467) eta Gizonezkoak (n=617)




Inkesta erantzun duten pertsonen profilak, euren ikasketa-mailaren arabera, azaltzen du kontzentrazio handiena, Bigarren mailako ikasketak (Lanbide Heziketa, Moduluak, e.a.) dituzten langileengan dagoela; horren aurrean, Unibertsitate Ikasketak dituzten pertsonak daude eta, talde horretan, emakumezko gehiago agertzen dira: %45,7 emakumeak dira eta %29,5, gizonak.

2. TAULA: INKESTA EGIN DUTEN PERTSONEN IKASKETA-MAILA (%)

	Emakumeak	Gizonak
Lehen mailakoak (OHO, e.a.)	8,1	16,5
Bigarren mailakoak (LH, Moduluak, e.a.)	43,3	51,4
Diplomatura	15,8	6,2
Lizentziatura	28,7	22,3
Graduatu ondokoak	0,6	1
Doktoretzak	0,6	0
EDE	2,8	2,6
Guztira	100	100

Gizonezkoen kasuan, beraiek (%65,5) dira etxean diru-sarrera handienak dituzten pertsonak; emakumeen kasuan, ehunekoak %23,6 da. Datu horren bidez argi islatzen da gizonen eta emakumeen lan-baldintzetan dauden ezberdintasunak; kontutan izanda Unibertsitate Ikasketetan emakumezkoak gehiago direla, hori ez da gertatzen etxeko diru-sarrerez hitz egiten denean.

4. GRAFIKOA: DIRU-SARRERA HANDIENAK DITUEN PERTSONA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Bizikidetzako egoerari dagokionez, laginketaren gorrak bikotearekin bizi diren pertsonen artean dago. Jarraian, bestelako egoeretan dauden pertsonak daude; batez ere, gurasoen etxean edo pisukideekin bizi diren kasua da.



3. TAULA: INKESTA EGIN DUTEN PERTSONEN BIZIKIDETZA-EGOERA (%)

	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Bakarrik	13,1	11,7	133
Bikotearekin	66,8	69,9	743
Banandua edo Dibortziatua	1,9	2,9	27
Alarguna	1,3	0	6
Bestelakorik	16,9	15,6	175
Guztira	467	617	1.084


Bikotearekin bizi direla baieztatzen duten pertsonetatik, emakumezkoen kasuan, %92ak esaten du emakumeak kanpoan lan egiten duela; gizonen ehunekoa, ordea, %74,5 da. Dena den, azpimarratzekoa da bikotekidea langabezia dagoela baieztatzen duten gizonen ehunekoa altua dela (%19,5).

4. TAULA: BIKOTEKIDEEN LANTOKIA (%)

	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Bai	92,0	74,5	608
Ez, lanik gabe dago	3,5	19,5	95
Ez, jubilatuta dago	0,6	1,2	7
Ez, beste arrazoi batzuegatik	1,6	2,3	15
EDE	2,3	2,5	18
Guztira	312	431	743

Bizikidetzak unitateak 2 pertsonak osatzen dituzte (%35,3), emakumezkoen kasuan eta, gizonen kasuan, 3 pertsonak osatutakoak nabarmentzen dira (%31,3).

5. GRAFIKOA: BIZIKIDETZA UNITATEAN BIZI DIREN PERTSONAK (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Bizikidetzak unitatean mendekotasuna duten pertsonak izatearen inguruan, egoera hurrengo taulan isla daiteke:

**2. KONTRATU MOTA**

Atal honetan, langileen kontratu mota ikertuko da eta, ondoren, jarduera sektorearen eta adinaren arabera desberdintasunik dagoen aztertuko da.

8. TAULA KONTRATU MOTA, LURRALDEAREN ARABERA

	BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Mugagabea	75,6	78,4	73,3	75,1	77,6	83,3
Aldi baterakoa	11,3	9,3	15,3	14,3	16,2	8,4
Obrakoa	9,7	9,4	4,4	5	4,3	4,6
Praktikak	0,5	0,7	0,6	0,3	1,7	1,4
Prestakuntza	0,4	0,3	5	2	0,1	0,5
Lagatakoa edo ABLE	0,3	1	0,2	0,6	-	-
EDE	2,2	0,9	1,2	2,7	0,1	1,8
Guztira	235	304	162	217	70	96

Hiru lurralde historikoetan, nabaria da ohikoena den kontratu mota mugagabea dela, eta hurrengoia aldi baterakoa dela. Arabaren kasuan, gizonezkoen mugagabeko kontratuak %83,3ra iristen dira. Emakumeak gizonekin parekatzen ari dira: alderdi honetan, bi sexuen kasuan, inkesta erantzun duten pertsonen ehunekoa %70a baino altuagoa baita.

Datua jarduera sektorearekin (Industria eta Zerbitzuak eta Eraikuntza) gurutzatuz gero, ikus daiteke ez dagoela ezberdintasun adierazgarririk eta, era harrigarrian, eraikuntza sektoreko emakumeak direla mugagabeko kontratu gehiago dituztenak, industria eta zerbitzuak sektorearekin konparatzen bada. Aldi baterako kontratua duten emakumeen ehunekoa altua da oraindik, eta obrakoa dutenena behera doa.

9. TAULA: KONTRATU MOTA, JARDUERAREN ARABERA


	INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK		ERAIKUNTZA	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Mugagabea	75,4	79	84,1	85,6
Aldi baterakoa	13,2	10,6	12,5	10
Obrakoa	6,2	6,3	2,5	3,2
Praktikak	0,8	0,8	-	-
Prestakuntza	1,7	2,8	-	-
Lagatakoa edo ABLE	0,2	0,5	0,4	1,1
EDE	2,5	5,4	0,5	0,1
Guztira	449	551	18	66

Inkesta erantzun duten pertsona gehienak inoren konturako langileak dira, eta autonomoak oso ehuneko txikian agertzen dira (%1,3 emakumeen kasuan eta %1,4 gizonei dagokienez).

Ordainsari motari dagokionez, finkoa da nagusi eta, jarraian, ordainsari finko gehi pizgarriak mota dago.




6. GRAFIKOA: ORDAINKETA MOTA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Gehitu behar da inkesta erantzun duten langile gehienek ez dutela plusik kobratzen arriskuarengatik, gaueko lanarengatik, jaiegunetan lan egitearengatik, erantzukizun edo aginte-kargarengatik, nekagarritasunarengatik eta/edo toxikotasunarengatik. Hala ere, plusa eskuratzen den kasuetan, gizonen ehunekoak (%18,2) ia bikoizten du emakumeena (%7,9). Jarraian aurkezten dira plusen bat kobratzen duten pertsonen buruzko datuak. Bi sexuetan nagusitzen den mota gaueko lanarena da eta, ondoren, jaiegunetan lan egitearengatik hartzen dena.

7. GRAFIKOA: ORDAINKETA MOTA PLUSAREN ARABERA(%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=37) eta Gizonak (n=112)




3. LAN MOTA

Atal honetan, inkesta erantzun duten pertsonen lan-maila eta beraien lanpostuaren ezaugarri nagusiak aztertuko dira.

Zentzu horretan, lagina hautatzeko eta mozketara egiteko aldagai gisa, langilearen lanpostua edo zeregina erabili zen, eta honela islatzen da, langile kualifikatuak gehiago agertzen diren kasuetan:

8. GRAFIKOA: INKESTA EGIN DUTEN PERTSONEN LAN-MAILA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Kasu gehienetan, inkesta erantzun duen pertsonak lanpostu iraunkorra du, eta bakarrik %8,8an, emakumezkoen kasuetan, eta %11,3an, gizonezkoen kasuan, beste lanpostu batzuekin aldatzen du postu bera enpresaren barruan.

10. TAULA: LANPOSTU MOTA (%)

	Emakumeak (%)	Gizonak (%)
Iraunkorra	88,8	86,3
Beste lanpostu batekin edo batzuekin aldatzen dut enpresaren barruan	8,8	11,3
Enpresan ezarritako lan talde baten barruan aldatzen dut	1,8	1,1
EDE	0,6	1,4
Guztira	449	551

Eraikuntzaren galdeketan, galdera hau ez dago sartuta

Emaitza hau indartzen da, ekoizpen- edo muntaketa-kate batean lan egiten zen galdetzen denean: horrelakoetan, gizonen %90,4k eta emakumeen %97,6k ezetz erantzun dute.

Lanpostua "iraunkorra" erantzun duen langile-mota zein den ikusiz gero, Administrazio eta Bankako emakumeak dira, gehien bat, bere lanpostua mantentzen dutenak; eta gizonen kasuan, ordea,



Administrazio eta Bankakoak eta Kimikakoak dira hori baieztatzen dutenak. Dena den, azpimarratzekoa da, jarduera sektore guztietan, irautearen ehuneko altua.


11. TAULA: LANPOSTU IRAUNKORRA, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA (%)

	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Administrazioa eta Banka	96	100	37
Merkataritza eta Ostalaritza	89,5	94,5	443
Manufaktura industriak	60	60	16
Metalgintza	93,8	71,9	121
Kimika	83,3	100	11
Gizarte Zerbitzuak	87,5	88,9	98
Bestelako Industriak	81,3	81,5	127
Bestelako Zerbitzuak	89,9	79,6	147
Guztira	449	551	1.000

Eraikuntzaren galdeketan, galdera hau ez dago sartuta

Eraikuntzan lan egiten duten pertsonen kasuan eta, hain zuzen ere, galdera-sorta erantzuteko momentuan burutzen ari diren lanaren inguruan, ezberdintasun adierazgarri bat ikusten da emakume eta gizonen artean, emakumezkoek, Eraikuntzaren sektorean lan egin arren, Bulegoetan dihardutelako (%57,1) eta gizonezkoak, ordea, obraren eskuzko lanarekin bat etorri ohi diren gainerako jardueretan banatzen direlako.

9. GRAFIKOA: ZEIN LAN-KATEGORIATAN EGITEN DEN LANA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=18) eta Gizonak (n=66)

Enpresan eman duten denborari dagokionez, ikus daiteke emakumeek, gehien bat, 2-10 urte bitartean eman dutela gutxi gora behera; datu hori 0-1 urte bitarteko denbora eman duten emakumeen datuari gehitzen bazaio, ehunekoa emakumeen %72,4 da. Goian azpimarratu da kontratu mugagabea duten emakume eta gizonen kopurua altua dela; horren ondorioz, emakumeak nolabaiteko egonkortasuna lortzen ari dira, kontratu motaren eta enpresan emandako urteen erlazioari dagokionez. Gizonen kasuan, ez da harritzekoa ehunekoa txikiagoa izatea, historikoki, gizonak eten gabe sartu baitira lan merkatuan; aitzitik, emakumeak polikiago sartu dira.



12. TAULA: ENPRESAN EMANDAKO URTEAK (%)

	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
0-1 urte	21,2	15,9	197
2-10 urte	51,2	46,8	528
11-25 urte	20,1	28,7	271
26 urte edo gehiago	7,5	8,6	88
Guztira	467	617	1084

Eraikuntzaren galdeketa, gainera, eskatzen zen sektorean emandako urte-kopurua. Zentzu horretan, harrigarria da 11-25 urte bitarteko denbora eman duten emakume-kopurua. Beste alde batetik, gizon gehiago kontzentratzen dira 2-10 tartean; agian, hori gertatzen da lana aldatzeko joerarengatik eta sektore berean denbora-aldi luzean egon ez izanagatik. Hala ere, kasu honetan, gizonen proportzionaltasunak urte-zerrenda guztietan banatzen dira, berriz ere.

13. TAULA: ERAIKUNTZAREN SEKTOREAN EMANDAKO URTEAK (%)

	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
0-1 urte	22,2	16,6	197
2-10 urte	33,3	42,4	528
11-25 urte	44,5	24,3	271
26 urte edo gehiago	0	16,7	88
Guztira	18	66	84

Datu hau lan-kategoriarekin gurutzatzen bada, hautematen da, Eraikuntzan, emakume gehiago agertzen direla zuzendaritza eta administrazioko lanpostuetan; gizonen aldetik, ordea, gehiago agertzen dira Langile Kualifikatuaren atalean.


14. TAULA: ERAIKUNTZAREN SEKTOREAN EMANDAKO URTEAK, LANBIDE-MAILAREN ARABERA (%)

	0-1 urte		2-10 urte		11-25 urte		26 urte edo gehiago	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Zuzendaritza	1	1	4	6	1	4	-	6
Erdi mailako karguak	-	-	-	2	-	-	-	-
Teknikariak	1	-	-	1	1	-	-	1
Administrazioa	2	2	1	-	3	-	-	-
Langile kualifikatuak	-	5	-	17	3	11	-	4
Kualifikatu gabeko langileak	-	3	1	2	-	1	-	-
Guztira	4	11	6	28	8	16	-	11

Beste alde batetik, interesa zegoen jakiteko lanean aritzea momentu batean eten zen; inkesta erantzun dutenek honako hau esan dute:



10. GRAFIKOA: LANEAN ARITZEAREN ETENA (%)




GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Aurreko taulak azaltzen duenez, lehen begi-kolpean ikus daiteke "Beste arrazoi batzuk" aukeraren ehuneko oso altua dela. Emakumeen %43,5ek eta gizonen %48,9k azaltzen dute beste arrazoi batzuk izan dituztela lana eteteko; zergati horien artean nabarmentzen dira, bai emakumeen bai gizonen kasuan, "Trafiko istripua" edo "Gaixotasunarengatiko baja". Beste alde batetik, emakumeak dira, oraindik ere, amatasunarengatiko baja gehiago hartzen dutenak: %24 da bere ehuneko, eta gizonena, %4,9. Prestakuntza-arrazoietan, ordea, antzeko ehunekoak dituzte.

Garrantzitsua da ere ezagutzea langileek enpresaren barruan hautematen duten segurtasun-maila. Alde horretatik, galdetzen zitzaien ea uste zuten hurrengo hamabi hilabetetan lana gal zezaketen, edo kontratua ez zen berriz egingo. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da konfidantza-maila altua dagoela, bai langile emakumeen aldetik, bai gizonen aldetik.

11. GRAFIKOA: LANEAN JARRAITUKO DUELAKOAN KONFIDANTZA-MAILA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=449) eta Gizonak (n=551)



Beste alde batetik, interesgarritzat jo dugu galdetzea ea enpresaren aldetik, eta eskuliburu baten bidez, harrera-prozesurik dagoen ala ez.

15. TAULA: ESKULIBURU BATEN BIDEZ HARRERA-PROZESUA EGOTEA (%)

	Emakumeak	Gizonak
Bai, nahikoa	37,7	35,7
Bai, baina ez da nahikoa	1,5	2,8
Ez zen beharrezkoa, ezagutzen nuelako	27	30,5
Ez, baina konpontzen naiz	27,2	25,4
Ez, eta zailtasunak dauzkat	1,1	1,5
EDE	5,6	4,2
GUZTIRA	467	617

Zentzu horretan, adierazten da, kasu gehienetan, harrera-prozesua egon dela eta horretarako eskuliburu bat erabili izan dela, baina langile askok baieztatzen dute, eskulibururik ez izanda ere, ongi moldatzen direla enpresako barne-prozesu osoarekin.

Eguneroko lana egiteko, gero eta gehiago erabiltzen dira ekipo informatikoak, bai emakumeek (%66,7) bai gizonak (%42,3) ezinbestekotzat jotzen dituztelako. Bigarren eta hirugarren tokian, emakumeen kasuan, eskuzko tresnak (%13,3) eta Telefono finkoa (%6,5) leudeke; gizonen kasuan, ordea, eskuzko tresnak (%18,1) eta Makinak eta ekipoak (%14,3) leudeke.

Emakume eta gizon gehienek baieztatzen dute argibideak eta trebakuntza eman zaiela erabili ahal izateko, baina haietako askok bazekiten nola erabili, edo 2 urte baino gehiagotan erabili izan dute, kasu gehienetan.


16. TAULA: ERABILTZEKO ARGIBIDEAK ETA TREBAKUNTZA (%)

	Emakumeak	Gizonak
Bai, nahikoa	58,4	66,2
Bai, baina ez da nahikoa	2,4	2,2
Ez nuen behar, banekielako	31,9	25
Ez, baina konpontzen naiz	5,6	5,5
EDE	1,8	1,1
GUZTIRA	467	617

Datu hauek indartzen dira, baieztatzen dutelako lan egiteko erabiltzen duten tresnak, azken urteetan sakonki aldatzeko prozesu bat izan duela.



12. GRAFIKOA: TRESNEN ALDAKUNTZA AZKEN URTEOTAN (%)





4. TEMPERATURA-GIROA

Atal honetan lanpostuko temperatura-giroa aztertuko da, eraikuntzako langileak eta erantzuna eman duten gainerakoak bereizita. Garrantzikoa da ezagutzea lanpostuaren egoera, gai honi dagokionez, eragina izango baitu langilearen beraren errendimenduan.

Ezberdintasun argia adierazten da, lanaldiaren parterik handienean lana egiteko tokiari dagokionean, eta garatzen den lan motarengatik azaltzen da. Horrela, lehenago ikusi diren datuen arabera, egiaztatzen zen Eraikuntzaren sektorean emakume kopuru altu bat zegoela zuzendaritza eta administrazio lanpostuetan, hau da, lana bulego eta ofizinetan lan egiten dutenen postuetan (eraikuntzako emakumeen %64,3); horren aurrean, ikusten da gizonak nagusi direla aire zabalean sestra gainean burutzen diren lanetan (%47,2).

Industrian eta Zerbitzuetan, bai emakumeek bai gizonak, lana toki itxietan egiten dute, baina azpimarra daiteke, gizonen kasuan, aire zabalean (%6,6) eta estalpe edo teilapeak bezalako areto erdi itxietan (%6,9) egiten diren lanetan ere dihardutela.

17. TAULA: LANALDIAREN PARTERIK HANDIENEAN LAN EGITEKO TOKIA (%)

	INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK		ERAIKUNTZA	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Aire zabalean, kalean	1,2	6,6	-	-
Ibilgailuan: autobusa, taxia, banaketa, e.a.	0,6	4,4	-	-
Toki erdi itxian: estalpea, teilapea.	1,5	6,9	-	-
Toki itxian	95,6	78,3	64,3	22,2
Aire zabalean, sestra gainean	-	-	7,1	47,2
Kabina batean	-	-	7,1	2,8
Estalpean, itxiturarik gabe	-	-	0	2,8
Estalpean, itxiturarekin	-	-	14,3	13,9
Beste toki batean	0,9	2,7	7,1	11,1
EDE	0,3	1,1	-	-
GUZTIRA	100	100	100	100

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Inkesta egin duten pertsona gehienek baieztatzen dute lanpostua, temperaturari dagokionez, atsegina dela bai udan bai neguan. Salbuespena eraikuntzan diharduten gizonak dira, onartzen baitute kanpoko tenperaturak ez direla atseginak, ez neguan, ez udan. Ezberdintasun hau ematen da bi sektoreetan egiten den lanaren tokiarengatik eta lan motarengatik; Industrian eta Zerbitzuetan toki itxietan egiten den lana nagusi bada ere, Eraikuntzaren kasuan, lana kanpoan egiten baita, gehien bat.




18. TAULA: LANALDIAREN PARTERIK HANDIENEAN LAN EGITEKO TOKIA (%)

	INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK		ERAIKUNTZA		INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK		ERAIKUNTZA	
	UDA		UDA		NEGUA		NEGUA	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Erosoa	79,7	73,5	72,2	40,9	80,4	73,3	66,7	31,8
Ez eroso hotzarengatik	4,2	1,1	-	-	14	14,2	11,1	16,7
Ez eroso beroarengatik	12,2	17,1	5,6	7,6	2,4	5,3	-	-
Galdera ez da egokia	1,8	2,4	5,6	4,5	1,1	0,5	5,6	4,5
EDE	2	6	16,7	4,7	2	6,7	16,7	47
GUZTIRA	449	551	18	66	449	551	18	66

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Lanpostuetan daukaten hezetasun-maila ere nahiko egokia da, baina ez da alde batera utzi behar gizonen %10,5ek hezeegizat hartzen duela.

13. GRAFIKOAK: LANPOSTUKO HEZETASUN-MAILA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)




5. ERAGILE FISIKOAK

Eragile Fisikoen atalean zarata-maila, lanpostuan dauden bibrazioak eta uhin-mota ezberdinen jaulkipenak, eta horrelako eragileen eragina aztertuko dira.

Jendea, tresneria, trafikoa e.a. bezalako faktore ezberdinek sortutako giro-zarata hiri-inguruneetan garatu da eta, gaur egun, kezka-sorburua da populazioarentzat. Horrexegatik garrantzizkotzat jo zen horren gainean galdetzea, azterketan parte hartu zutenei.

14. GRAFIKOA: LANPOSTUAN ZARATA ENTZUTEA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Zentzu horretan, emakumeek, oro har, ez dute nabaritzen lanpostuan gogaikatzen dituen zaratarik dagoenik (%74,9); gizonen %28,5ek, ordea, onartzen dute zarata dagoela, gogaikarria ez bada ere. %8,1en, zarata hain altua da ezen ezin baitu uzten 3 metrotara dagoen pertsona batekin hitz egiten; eta %4,2an, zarata-maila oso altua dela baieztatzen du.

Hurrengo taula ikusten den moduan, zarataren jatorriak ezberdinak dira baina, batez ere, emakumeen kasuan gehien hautematen dena, euren lanpostutik gertu dauden lanpostuetatik eta beraien lanpostutik datorren zarata da; honelakoetan, ehunekoak % 32,5 eta %22,2 dira, hurrenez hurren. Gizonen kasuan, ekipo orokorretatik etorritako zarata ere gehitu behar da (%25,5).




19. TAULA: ZARATAREN JATORRIZKO TOKIA / SORBURUA (%)

	Emakumeak	Gizonak
Lanpostutik	22,2	33
Langilearen lanpostutik gertu dauden lanpostuetatik	32,5	32,2
Ekipo orokorretatik	16,2	25,5
Kaletik	12	2,6
Jendearengandik	6,8	3,4
Bestelakoetatik	4,3	0
EDE	6	3,4
GUZTIRA	117	267

Lanpostuan bibrazioak entzuteari dagokionean, pertsonen ehuneko altu batek ez du inolako bibraziorik hautematen, batez ere emakumeen kasuan, %94,9rekin, gizonak baino ehuneko altuagoan baitaude (gaitetik ehuneko 11 puntutan). Hala ere, azpimarratu behar da gizonen %13k (portzentaje metatua) bibrazioak sentitzen dituela eskuetan edo besoetan, edo gorputzeko beste atal batzuetan, eta bibrazio horiek, batez ere, Industria eta Zerbitzuetako enpresetan, tresna elektriko eramangarrietatik (%5,2) eta eskuko tresnetatik (% 4,4) datozela; eta Eraikuntzako enpresetan, berriz, eskuz erabiltzeko tresnetatik (%13,9) eta tresna eramangarrietatik (%11,1) datozela.

15. GRAFIKOA: LANPOSTUAN BIBRAZIOAK NABARITZEA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Aztertutako hirugarren eragile fisikoa, argi ultramoreak, infragorriak, mikrouhinak, erradiofrekuentziak, laserrak eta izpiak (X, Gamma, erradioisotopoak, e.a.) dira. Bai Eraikuntzan bai Industria eta Zerbitzuen sektorean, emakumeek onartzen dute Uhin Mikrouhinen eragina dutela, kasuen %7,1en eta %4,7an, hurrenez hurren; eta gizonen kasuan, bai industria eta Zerbitzuetan, bai Eraikuntzan, esposizio maila handiagoa da Argi Ultramoreen kasuan (hain zuzen ere, %2,8 eta %5,8 dira ehunekoak).



20. TAULA: ERAGILE FISIKO EZBERDINEN JAULKIPENA EGOTEA, SEKTOREAREN ARABERA
(%)

		Emakumeak	Gizonak
INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK	Argi ultramorea (arkuzko soldadura elektrikoa, lanpara germizidak, UVA, ...), eguzki-argia sartu gabe	2,9	5,8
	Argi azpigorria	0,6	1,4
	Mikrouhinak (lehortzeko labeak, telefonia mugikorraren antenak, ...)	4,7	2,7
	Erradiofrekuentziak (soldadura erradiofrekuentzien bidez, bainuen berotzea, ...)	0,9	1,6
	Laserra	2,1	1,4
	X izpiak, Gamma izpiak, erradioisotopoak (erradiodiagnostikoa, erradioterapia, soldaduren diagnostikoa, ...)	4,1	0,3
ERAIKUNTZA	Argi ultramorea (arkuzko soldadura elektrikoa, lanpara germizidak, UVA, ...), eguzki-argia sartu gabe	-	2,8
	Argi azpigorria	-	2,8
	Mikrouhinak (lehortzeko labeak, telefonia mugikorraren antenak, ...)	7,1	-
	Erradiofrekuentziak (soldadura erradiofrekuentzien bidez, bainuen berotzea, ...)	-	-
	Laserra	-	-
	X izpiak, Gamma izpiak, erradioisotopoak (erradiodiagnostikoa, erradioterapia, soldaduren diagnostikoa, ...)	-	-


Baiezko erantzunak bakarrik hartu dira kontuan



6. KUTSATZAILE KIMIKOAK

Substantzia edo produktu kaltegarriak edo toxikoak erabiltzeari dagokionez, emakumeek horrelako substantziak erabiltzen dituztela onartzen dute kasuen %10,9an eta gizonak, beren aldetik, %19,9an.

16. GRAFIKOA: SUBSTANTZIA EDO PRODUKTU KALTEGARRI EDO TOXIKOAK ERABILTZEA (%)




GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Gainera, galdetzen zitzaien ea substantzia edo produktu horiek kaltegarritasunaren berri emateko etiketarik zeukaten ala ez; galdera honi baiezkoko erantzuna eman zitzaion kasu gehienetan, ezezkoa eman zuten, emakumeen %7,8 eta gizonen %2,4 izan ezik. Horrek adierazten du, bi sexuen batez besteko gisa, produktuen %95ean, behar bezalako etiketa zeukatela.

Eraikuntzako gizonen %28,8k eta Industria eta Zerbitzuak sektorekoen %23,6k, kaltegarriak edo toxikoak diren hautsa, kea, gasak edo lurrinak arnasten dituztela baieztatzen dute. Zentzu horretan, ezberdintasun adierazgarria dago emakumeen egoerarekin konparatu ezker; emakumeek horrelako substantziak arnasten dituzte, %5,6 eta %8,9 ehunekoetan. Datu hau azaltzeko, emakumeek eta gizonak burutzen duten lan-mota eman daiteke arrazoi moduan.



17. GRAFIKOA: HAUTSA... TOXIKOAK INHALATZEA SEKTOREAREN ARABERA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Substantzia kaltegarriak edo toxikoak erabiliz eta/edo arnastuz gero substantzia horien osasunerako eragin kaltegarria ezagutzen duten pertsona kopurua altua bada ere, azpimarratu behar da pertsona kopuru altu batek ez duela hori ezagutzen.

21. TAULA: SUBSTANTZIEN MANIPULAZIO ETA/EDO ARNASKETAREN ONDORIO KALTEGARRIAK SEKTOREAREN ARABERA (%)

	INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK		ERAIKUNTZA	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Bai	55,9	63,9	44,4	34,8
Ez	16,5	14,3	16,7	12,1
EDE	27,6	21,8	38,9	53,1
GUZTIRA	100	100	100	100

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Hain zuzen ere, Eraikuntzako emakumeei galdetu zitzaion, substantzia kaltegarri edo toxikoak erabiliz eta/edo arnastuz gero, eta haurdun egonez gero, egon litezkeen ondorio kaltegarrien inguruan. Zentzu horretan, emakumeen %100ek esan zuen bazeukala horren inguruko informazioa.

Industria eta Zerbitzuak sektoreko enpresen kasuan, galdetu zitzaion euren lanaren izaerak eragile biologikoen agerpenik ekar lezakeen. Bai emakumeen bai gizonen kasuan, erantzuna ezezkoa izan da, %89,7 eta %87,4 ehunekoekin; baina emakumeen %5ek onartzen du nahi gabe, ohiko eran edo noizbehinka manipulatzeko direla (batez ere, osasun-jardueretan, hondakinen tratamenduan, animaliekin lan egiten denean, lur azpiko lanetan, e.a.).



7. SEGURTASUN BALDINTZAK

Atal honetan, inkesta erantzun duen pertsonaren lanpostuan dauden istripu arrisku nagusiak aztertuko dira lehendabizi, ondoren horrelakoen zergati nagusiak bilatzen saiatzeko.

Zentzu horretan, emakumeek hautematen dutenez, gehiago agertzen dira mozteko edo ziztatzeko arriskuak (%55,6) eta pertsonak maila berean erortzea (%44,4); gizonak ere, beraien aldetik, uste dute mozteko edo ziztatzeko arriskuak garrantzizkoak direla (%57,4), kolpeekin batera (%49,2).

Emakumeen kasuan gutxien agertzen diren arriskuak leherketak (%0,8), harrapatuta geratzea (%3,7) eta pusketak edo partikulak jaurtikitzea (%4,1) dira; gizonen kasuan, ordea, leherketak (%3,3), suteak (%8,8) eta lapurretak (%7) dira gutxien agertzen direnak.

Nabarmendu behar da emakumeek edo gizonak ez dituztela ikusten, lanpostuko arrisku gisa, erorketak edo eraisketak, lanaldian gertatutako trafiko istripuak, eta oinezkoak harrapatzea edo ibilgailuekin talka egitea.

22. TAULA: LANPOSTUKO ISTRIPU ARRISKU NAGUSIAK LANTOKIAN (%)

	Emakumeak	Gizonak
Pertsonak altueratik erortzea	15,8	29,2
Pertsonak maila berean erortzea	44,4	40
Objektuak, materialak edo tresnak erortzea	29,9	36
Erorketak edo eraispenak	-	-
Moztea edo ziztatzea	55,6	57,4
Kolpeak	39,8	49,2
Lanaldian gertatutako trafiko istripuak	-	-
Oinezkoak harrapatzea edo ibilgailuekin talka egitea	-	-
Pusketak edo partikulak jaurtikitzea	4,1	21,5
Harrapatuta geratzea	3,7	16,9
Zama astunak eskuz manipulatzeagatik egindako gain-ahaleginak	12,9	33,6
Erretzea	15,4	23,7
Kontaktu elektrikoak	7,5	14,5
Erradiazioen eragin pean egotea	-	-
Leherketak	0,8	3,3
Suteak	10,4	8,8
Lapurretak	12	7

Gutzizkoak ez du %100 batzen, erantzun anitzeko galdera delako

Datu berberak jarduera-sektorearen arabera banatzen badira, ikus daiteke gehien aipatzen den arriskua -Moztea eta Ziztatzea- altua dela Merkataritza eta Ostalaritzan, Manufaktura Industrietan, Kimikan, Bestelako Industrietan eta Gizarte Zerbitzuetan. Eraikuntzan, ordea, Maila berean Erortzea da gehien aukeratu den arriskua, kolpeekin batera. Eta Merkataritza eta Ostalaritzan, gehien hautatu diren arriskuak kolpeak eta mozketak dira.



23. TAULA: ISTRIPU ARRISKU NAGUSIAK, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA (%)

	Altueratik erortzea		Maila berean erortzea		Objektuak erortzea		Mozketak		Kolpeak	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
ADMINISTRAZIOA ETA BANKA	23,5	100	52,9	-	17,6	100	35,3	-	47,1	-
MERKATARITZA ETA OSTALARITZA	15,6	25	45,9	37,8	35,8	32,8	52,3	58,3	40,4	44,4
ERAIKUNTZA	28,6	60,3	78,6	48,3	57,1	46,6	28,6	50	42,9	55,2
MANUFAKTURA	-	28,6	-	57,1	-	14,3	75	85,7	75	57,1
METALGINTZA	22,2	15,1	77,8	28	22,2	33,3	55,6	63,4	66,7	57
KIMIKA	40	-	80	100	80	-	100	-	40	-
GIZARTE ZERBITZUAK	3,4	38,5	13,8	38,5	10,3	30,8	79,3	53,8	20,7	38,5
BESTELAKO INDUSTRIAK	11,1	24,6	27,8	45,9	11,1	27,9	66,7	60,7	11,1	42,6
BESTELAKO ZERBITZUAK	16,7	39	47,2	53,7	30,6	58,5	52,8	43,9	52,8	58,5

Gutzizkoak ez du %100 batzen, erantzun anitzeko galdera delako

	Jaurtikitzea		Harrapatuta geratzea		Gain-ahalegina		Erretzea		Kontaktu elektrikoa	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
ADMINISTRAZIOA ETA BANKA	-	-	-	-	5,9	-	11,8	-	11,8	-
MERKATARITZA ETA OSTALARITZA	1,8	8,3	1,8	10,6	18,3	26,7	18,3	17,8	4,6	8,9
ERAIKUNTZA	7,1	29,3	-	22,4	-	-	-	19	7,1	22,4
MANUFAKTURA	-	42,9	-	14,3	100	14,3	75	-	-	-
METALGINTZA	-	30,1	11,1	21,5	-	32,3	22,2	28	22,2	12,9
KIMIKA	-	-	-	-	-	-	60	-	40	-
GIZARTE ZERBITZUAK	3,4	30,8	-	-	6,9	15,4	3,4	15,4	10,3	15,4
BESTELAKO INDUSTRIAK	33,3	32,8	5,6	21,3	5,6	45,9	11,1	42,6	16,7	24,6
BESTELAKO ZERBITZUAK	-	26,8	13,9	26,8	8,3	24,4	11,1	26,8	-	19,5

Gutzizkoak ez du %100 batzen, erantzun anitzeko galdera delako

	Leherketak		Suteak		Lapurretak	
	E	G	E	G	E	G
ADMINISTRAZIOA ETA BANKA	-	-	5,9	-	5,9	100
MERKATARITZA ETA OSTALARITZA	1,8	1,7	6,4	5	12,8	9,4
ERAIKUNTZA	-	1,7	21,4	6,9	7,1	8,6
MANUFAKTURA	-	-	-	-	25	14,3
METALGINTZA	-	2,2	11,1	11,8	11,1	2,2
KIMIKA	-	-	40	-	40	-
GIZARTE ZERBITZUAK	-	-	-	15,4	6,9	-
BESTELAKO INDUSTRIAK	-	9,8	11,1	13,1	22,2	8,2
BESTELAKO ZERBITZUAK	-	7,3	25	14,6	8,3	2,4

Gutzizkoak ez du %100 batzen, erantzun anitzeko galdera delako

Halaber, alde batetik galdetzen zen, pertsonen ustez, zeintzuk ziren horrelako istripuen eragileak eta, beste alde batetik, egon litezkeen zergatien zerrenda ematen zen. Eta horrela, lehen momentu batean emakumeek hautatuko kausak, mota ezberdinetako uste gabeko istripuekin erlazionaturikoak dira; hala nola, behaztopak, orratz eta artazien erabilera, eskaileretatik erortzea e.a.; eta, gizonei dagokienez, "hutsagiteekin" gehiegizko konfiantzarekin, lanabesen manipulazioarekin zerikusia dutenak dira.



Eman zen zerrenda erabilia, honako hauek aukeratu ziren:

24. TAULA: ISTRIPU ARRISKUEN ARRAZOI NAGUSIAK LANTOKIAN (%)

	Emakumeak	Gizonak
Lantokia egoera txarrean dago	5	5,2
Lantokira iristeko edo sartzeko guneak egoera txarrean daude	2,3	6,2
Makina ez dago behar bezala babestuta	-	3,4
Lanerako gunea edo azalera ez da segurua	2,7	6,7
Instalakuntzak zaharrak dira	4,1	5,2
ekoizpena aurrera atera behar da, beste guztiaren gaitetik	2,3	4,9
Baliabide edo tresna egokiak falta direlako	7,7	13,5
Lanak eragiketa arriskugarriak egitera behartzen gaitu	4,5	11,8
Ahaleginengatik edo derrigorrezko jarrerengatik	24,1	18,9
Norbera babesteko ekipamendurik ez dagoelako edo egokiak ez direlako	4,5	10,3
Neke edo unadurarengatik	-	-
Gehiegizko konfiantzarengatik edo azturarengatik	-	-
Lanpostua gaizki diseinatuta dago	3,6	4,5
Lan erritmoa oso altua da	13,2	9,2
Lana egiten da behar adinako prestakuntzarik gabe	0,9	3,9
Espazioa falta da	-	-
Lan esperientzia falta da	-	-
Trafikoarekin zerikusia duten arrazoiengatik	-	-
Segurtasun neurriak ez erabiltzeagatik	-	-
Langileek ez dituztelako seriotasunez hartzen segurtasun neurriak	2,7	4,3
Prebentzio neurriak erabiltzean kontrola falta delako	-	-

Gutzitzoak ez du %100 batzen, erantzun anitzeko galdera delako

Zentzu horretan hautatu diren arrazoi nagusiak honako hauek dira: ahaleginak edo derrigorrezko jarrerak, bai gizonen kasuan (%18,9) bai emakumeen kasuan (%24,1); jarraian, eta emakumeen iritziz, oso lan-erritmo altua (%13,2) eta baliabide edo tresna egokirik ez izatea (%7,7); eta, gizonen aburuz, tresna edo baliabide egokirik ez izatea, (%13,5), eta lanak eragiketa arriskugarriak egitera behartzea (%11,8).



8. LANPOSTUAREN DISEINUA

Lanpostuan egokiak ez diren egoerei buruz galdetu zitzaizenean, gehien aukeratu zen egoera, erosotasunez lan egiteko leku gutxi izatea zen; jarraian aipatu dira oso altuak/oso baxuak diren lanabes, elementu edo bestelako lan-objektuetara, edota besoa luzatzera behartzen dutenetara iritsi behar izatea (emakumeen %23,3 hartu du), azalera ezegonkor eta irregularretan lan egin behar izatea (gizonen %30,2ren iritziz), eta lanerako oso deserosoa den aulki bat izatea (gizonen %26,9ren iritziz).

25. TAULA: EGOERA DESEGOKIAK LANPOSTUAN (%)

	Emakumeak	Gizonak
Erosotasunez lan egiteko oso leku gutxi izatea	53	57,7
Oso altuak/oso baxuak diren lanabes, elementu edo lan-objektuetara, edota besoa luzatzera behartzen dutenetara iritsi behar izatea	23	25,3
Eskuekin iristeko zailtasuna duten guneetan lan egitea	19	25,3
Lanerako oso deserosoa den aulki bat izatea	22	26,9
Egiten den lanerako egokia ez den argiztapena	20	11,5
Azalera ezegonkor edo irregularren gainean lan egitea	22	30,2
Nire tamainarekin bat ez datozen jantzi eta lanabesekin lan egitea	-	-
Aulkien altuerak ez zaizkie egokitzen pertsona ezberdinei	-	-
Lan-mahaien formak ez dira egokiak haurdunentzat	-	-
Atsedena hartzeko neurriak daude baina ez daude baimenduta (aulkiak, tabureteak, e.a)	-	-

Guztizkoak ez du %100 batzen, erantzun anitzeko galdera delako

Bakarrik gehien hautatu diren egoerak hartuta, ikusten da Administrazio eta Bankako gizonak aukeratutako egoerak direla egokia ez den argiztapena (%100) eta leku gutxi lantokian (%100), azken hau ere Gizarte Zerbitzuetako gizonak aukeratu zuten (%91,7); beste alde batetik, Kimika Sektoreko emakumeek (%80) eta Bestelako Industrietakoek (%83,3) aipatzen dituzte lanpostuko leku txikia eta eskuekin iristeko zailtasuna duten guneetan lan egitea (%60).

26. TAULA: EGOERA DESEGOKIAK LANPOSTUAN SEKTOREAREN ARABERA (%)

	Leku gutxi		Besoa luzatzea		Eskuekin iristeko zailtasuna		Aulki deserosoa		Argiztapen ezegokia		Azalera ezegonkorak	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
ADMINISTRAZIOA ETA BANKA	70	100	10	-	10	-	10	-	20	100	20	-
MERKATARITZA ETA OSTALARITZA	26,7	54	30	22	23,3	22	13,3	46	13,3	8	23,3	20
ERAIKUNTZA	50	57,1	-	39,3	-	17,9	50	3,6	-	14,3	-	39,3
MANUFATURA	100	100	-	-	-	-	-	-	-	-	-	66,7
METALGINTZA	25	61,9	-	16,7	25	26,2	-	11,9	-	7,1	50	45,2
KIMIKA	80	-	-	-	60	-	-	-	-	-	40	-
GIZARTE ZERBITZUAK	50	91,7	30	16,7	10	33,3	30	33,3	20	8,3	10	-
BESTELAKO INDUSTRIAK	83,3	41,4	8,3	37,9	8,3	37,9	50	41,4	8,3	13,8	8,3	27,6
BESTELAKO ZERBITZUAK	58,3	52,9	37,5	23,5	20,8	23,5	29,2	23,5	45,8	23,5	29,2	29,4




9. LAN-KARGA

Txostenaren atal honetan, lanari ekiteko jarrera ezberdinak, lan-erritmoa eta bi alderdi horien ondorioak aztertuko dira.

Lehendabizi, eta lanari ekiteko ohiko jarrerari dagokionez, ikusten da inkesta erantzun duten emakumeek, batez ere, eserita daudela edo maiz altxatzen direla (%51,8); gizonen kasuan, zutik egoten direla eta sarritan ibiltzen direla (%36,5), edo eserita daudela eta maiz altxatzen direla.

18. GRAFIKOA: OHIKO JARRERA LANTOKIAN (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Datu hau jarduera sektorearekin gurutzatzen bada (erreferentzia moduan Industria eta Zerbitzuak eta Eraikuntza hartuko dira, bertan egiten den lan motarengatik), ikusten da gizonezkoen kasuan, Industria eta Zerbitzuen Sektorean dihardutenak eserita egoten dira edo maiz altxatzen direla (35,4%); Eraikuntzan dihardutenak, ordea, zutik daude eta sarritan ibiltzen dira (59,1%). Emakumeen kasuan, ez da ezberdintasunik aurkitzen sektoreen artean, lana askotan bulegoetan egiten delako.



27. TAULA: LANERAKO OHIKO JARRERA, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA (%)

	INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK		ERAIKUNTZA	
	E	G	E	G
Zutik, ia ibili gabe	6,9	10,5	-	4,5
Zutik, eta sarritan oinez	23,2	33,8	16,7	59,1
Zutik, belauak pixka bat makurtuta	0,4	0,9	-	4,5
Eserita, ia inoiz altxatu gabe	16,5	12,9	27,8	1,5
Eserita, sarritan zutik jarrita	51,9	35,4	50	24,2
Belauniko	0,2	1,6	-	-
Kukubilko	-	0,2	-	-
Etzanda	0,9	4,2	-	6,1
EDE	-	0,5	-	-
GUZTIRA	449	551	18	66

Beste alde batetik, egokiak ez diren jarreretan eman behar duten denbora-kopurua ere aztertu da. Azpimarratu behar da gehienak direla, egokiak ez diren jarrerak inoiz jasan behar ez dituztela uste duten langileak. Dena den, lanaldiaren erdian zehar baino luzaragoan jarrera bera mantendu behar dute bai emakumeek, bai gizonek; halaber, esku eta besoekin oso errepikakorrek diren mugimenduak egin behar izaten dituzte.

28. TAULA: ZENBAT DENBORA EMATEN DEN JARRERA DESEGOKIETAN (%)


		Lanaldiaren □ baino gehiago	Lanaldiaren □ eta □ bitartean	Lanaldiaren □ baino gutxiago	Inoiz ez	EDE
EMAKUMEAK	Postura mingarri edo neketsuetan egotea	5,1	3,6	10,5	76,2	4,5
	Jarrera bera mantentzea	40	13,1	10,5	35,1	1,3
	Zama astunak jasotzea edo lekualdatzea	1,3	1,9	10,5	80,7	5,6
	Indar handia erabiltzea	1,1	1,1	4,9	87,4	5,6
	Esku edo besoekin oso errepikakorrek diren mugimenduak egitea	31,5	11,6	11,1	42,6	3,2
GIZONAK	Postura mingarri edo neketsuetan egotea	4,2	7	16,4	67,3	5,2
	Jarrera bera mantentzea	24,6	13,8	21,1	35,8	4,7
	Zama astunak jasotzea edo lekualdatzea	4,7	8,1	24,6	55,6	7
	Indar handia erabiltzea	3,4	8,1	21,1	61,3	6,2
	Esku edo besoekin oso errepikakorrek diren mugimenduak egitea	19,9	11,8	19,6	43,3	5,3

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Lanaldiaren erdian zehar baino luzaragoan mantentzen diren posturen artean, gehien haututakoak aukeratu gero, bi sexuetarako, "Jarrera bera mantentzea" eta "Beso edo eskuekin oso errepikakorrek diren mugimenduak egitea" lirateke; eta jarduera motarekin gurutzatzen baditugu, ez da ezberdintasun adierazgarriarik nabaritzen bi sektoreen artean.




19. GRAFIKOA: OHIKO JARRERA LANTOKIAN, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA (%)



Ustez lanaren ondorio diren postura eta ahaleginengatik ondoeza duten gorputz atalak honako hauek dira, garrantziaren arabera: gizonen kasua, Bizkarreko behealdea (%54,4), Garondoa/Lepoa (%30) eta Bizkarreko goialdea (%23,1); eta emakumeen kasuan, Garondoa edo Lepoa (%49), Bizkarreko behealdea (%39) eta Bizkarreko goialdea (%38,2). Lehen aipatu den moduan, luzaroan eserita egotearen eragin zuzena izan dezakete gorputz atal horiek.



20. GRAFIKOA: GORPUTZ-ATALAK NON ONDOEZA SENTITZEN DEN (%)



Gutzizkoak ez du %100 batzen, erantzun anitzeko galdera delako

Normalean, lana egiteko, bai emakumeek, bai gizonek, arreta-maila altua mantendu behar izaten dute lanaldi erdian zehar, eta lan-erritmo handia izan behar dute. Oso zeregin errepikakorrek eta iraupen motzeko zereginak izatea ez da kontutan hartu beharreko alderditzat hartzen, ez baitira egoera horrekin identifikatzen.



29. TAULA: LAN-ERRITMOA LANALDIAN (%)


		Lanaldiar en □ baino gehiago	Lanaldiare n □ eta □ bitartean	Lanaldiaren □ baino gutxiago	Inoiz ez	EDE
EMAKUM EAK	Arreta-maila altua edo oso altua mantentzea	57,4	18,2	9,2	11,8	3,4
	Lan-erritmo altua mantentzea	37,3	28,3	17,3	13,3	3,9
	Zeregin oso errepikakorrek eta oso iraupen motzekoak	23,1	12,8	14,8	42	7,3
GIZONAK	Arreta-maila altua edo oso altua mantentzea	56,2	19,4	10	10,9	3,4
	Lan-erritmo altua mantentzea	30,1	25,8	19,1	19,8	5,2
	Zeregin oso errepikakorrek eta oso iraupen motzekoak	17,7	11,8	18,6	44,2	7,6

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Zeregin oso errepikakorrek eta oso iraupen motzekoak burutzen dituztela esaten dutenen inguruan, emakumeei dagokienean, zeregin horiek 5 minutu baino gutxiago irauten dute (%25,3) eta, gizonen kasuan, ordea, 10 minutu edo gehiago (%25,6).

Hurrengo grafikoan ikusten denez, lan-erritmoak, emakumeen zein gizonen kasuan, eskema bera mantentzen du, eta bi sexuen ustez, azken hiru hilabeteetan izan duten lan-erritmoa "Normala" izan da. Dena den, ezin da alde batera utzi, emakumeen %28,4k eta gizonen %27,6k lan-erritmo "Altua" izan dutela.

21. GRAFIKOA: LAN-KOPURUA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Emakume eta gizonen lan kategoriarekin konparatuz gero, ikusten da, bi kasuetan ere, erdi mailako kargudunen ustez, azken 3 hilabeteetan, lan kopurua altua (emakumeen %44,4 eta gizonen %41,4) edo oso altua (emakumeen %22,2 eta gizonen %17,2) izan dela.



30. TAULA: LAN-KOPURUA LAN-MAILAREN ARABERA(%)

		ZUZENDARI TZA LANGILEAK	ERDI MAILAKO KARGUDUNA K	LANGILE TEKNIKOAK	ADMINISTRA ZIO LANGILEAK	LANGILE KUALIFIKATUAK	KUALIFIKATU GABEKO LANGILEAK
EMAKUMEAK	Oso gutxi	1,6	-	1	2,2	1,3	-
	Gutxi	1,6	-	2,1	3,3	1,3	10,7
	Normala	53,2	33,3	42,7	54,9	49	57,1
	Handia	25,8	44,4	34,4	27,5	25,5	21,4
	Oso handia	11,3	22,2	6,3	4,4	17	1,8
	Aldakorra	6,5	-	11,5	5,5	3,3	5,4
	EDE	-	-	2,1	2,2	2,6	3,6
GIZONAK	Oso gutxi	2,7	-	1,1	-	0,4	2,2
	Gutxi	3,6	-	5,3	6,7	4,6	-
	Normala	43,6	34,5	47,4	56,7	62,4	60
	Handia	33,6	41,4	29,5	20	27,8	21,1
	Oso handia	8,2	17,2	8,4	10	3,4	7,8
	Aldakorra	6,4	6,9	6,3	6,7	0,8	7,8
	EDE						

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Oro har, inkesta erantzun duten emakumeen lanari dagokionean, kasuen %50,7an, beti edo ia beti, kalitate-arau zehatzak errespetatu, euren lanaren kalitatea ebaluatu (%49,7) eta arazoak konpondu behar dituzte (%46,9); hala ere, kasuen %37,9an, batzutan lan konplexuak eta gauza berriak ikasi behar dituztela (%32,8) onartzen dute.

Beste alde batetik, gizonak ere kalitate-arau zehatzak errespetatu (%57,1) eta euren lanaren kalitatea ebaluatu (%56,6) behar dute. Bestetik, lan konplexuak burutu (%38,1), gauza berriak ikasi (%35,3) eta denbora-epe estuekin lan egin behar dutela (%35,8) onartzen dute.

31. TAULA: LANPOSTUAREN ESKAKIZUNAK (%)


		Beti edo ia beti	Sarritan	Batzuetan	Inoiz ez	Ede
EMAKUMEAK	Kalitate arau zehatzak errespetatzea	50,7	13,1	12,4	16,3	7,5
	Zuk zeuk zeure lanaren kalitatea ebaluatzea	49,7	16,7	13,5	13,5	6,6
	Zuk zeuk arazoak konpontzea	46,9	20,6	24,8	3,9	3,9
	Lan konplexuak burutzea	13,7	12,4	37,9	28,5	7,5
	Gauza berriak ikastea	30,6	25,3	32,8	6,2	5,1
	Denbora-epe estuekin lan egitea	28,1	15,8	31,7	18,2	6,2
GIZONAK	Kalitate arau zehatzak errespetatzea	57,1	13,1	10,2	16,7	2,9
	Zuk zeuk zeure lanaren kalitatea ebaluatzea	56,6	18,3	11,2	9,6	4,4
	Zuk zeuk arazoak konpontzea	50,9	24,6	20,1	2,6	1,8
	Lan konplexuak burutzea	20,7	15,2	38,1	22,4	3,6
	Gauza berriak ikastea	32,9	20,1	35,3	9,2	2,4
	Denbora-epe estuekin lan egitea	26,1	19,8	35,8	15,4	2,9

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Kasu gehienetan, lana ez da monotonoa, baina kontutan izan behar da gizonen %23,7k eta emakumeen %24,2k noizean behin egoera hori badaukatela adierazten dutela.



22. GRAFIKOA: LANAREN MONOTONIA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Lana egiteko beren esku daukaten eta gehien aipatzen den neurria, emakumei zein gizonei ongi egokitutako informatika programak dira; eta, bigarrenik, laguntza jasotzeko aukera eta argibide argi eta nahikoak. Bi kasuetan ere, behar adinako lankide-kopururik ez izatea azpimarratzen da.

32. TAULA: LANA EGITEKO NORBERAREN ESKU DAUDEN NEURRIAK (%)


		Beti edo ia beti	Sarritan	Batzuetan	Inoiz ez	Ede
EMAKUMEAK	Behar adinako denbora	40,5	30	24,2	3,4	1,9
	Argibide argi eta nahikoak	51,6	28,7	15,4	0,6	3,6
	Laguntza jasotzeko aukera	57,6	18,2	15	6	3,2
	Behar adinako lankide-kopurua	48,4	16,9	20,8	9,4	4,5
	Ongi egokitutako informatika programak*	81,9	5,5	2,7	5,7	4,2
GIZONAK	Behar adinako denbora	45,4	20,7	28,7	4,4	0,8
	Argibide argi eta nahikoak	52	25,1	18,6	2,3	1,9
	Laguntza jasotzeko aukera	52	20,7	18,8	5,3	3,1
	Behar adinako lankide-kopurua	48	20,3	19,6	10,2	1,9
	Ongi egokitutako informatika programak*	59,9	19,1	11,2	0,9	9

*Informatika ekipamenduak erabiltzen dituztela baieztatu duten pertsonen kasuan bakarrik.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, lanpostuan akatsaren bat egiten denean, normalean arazo arin bat sor dezake edo ia ez dauka ondoriorik.



23. GRAFIKOA: AKATSA LANTOKIAN (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Akatsik baldin badago, eragin ditzakeen ondorioak, batez ere, produktu edo zerbitzuen kalitatearen gaineko ondorio negatiboak dira (%42 da batz besteko ehunekoa), bi sexuen kasuan, eta pertsonen segurtasun eta osasunaren gaineko kalteak (%10,8 da batz bestekoa). Honako aukera hauek ere ematen dira: batez ere kalte ekonomikoak, mesfidantza sortzea, ezinegon pertsonala eta denbora galtzea.



10. KOMUNIKAZIOA

Lan egiten den bitartean lankideekiko harremana eragozten edo zailtzen duten alderdi posibleen artean, emakumeek "isolatuta egotea" eta "zuzendaritza" aipatzen dute; bestetik, gizonak azaltzen dutenez, "ez dute babes ekipamenduek uzten" eta "zarata handia egotea" dira aspektu horiek.

33. TAULA: LANKIDEEKIKO HARREMANAK ERAGOZTEN EDO ZAILTZEN DITUZTEN ALDERDIAK (%)

	Emakumeak	Gizonak
Eragozten duten arauak daude enpresan.	42,9	57,1
Zuzendaritza	60	40
Arreta lanetik desbideratzea ezinezkoa da	51,7	48,3
Zarata handia dago	18,2	81,8
Ez du lan erritmoak uzten	53,8	46,2
Langileen artean distantzia handia dago	33,3	66,7
Babes ekipamenduek eragozten dute	-	100
Isolatuta egotea	62,5	37,5
Beste batzuk	56,7	43,3

*Bakarrik baieztatu erantzunak (portzentaje horizontalak).

Beste pertsonetarako harremanak, oro har, onak dira nagusiekin, gizon eta emakumeen kasuan (5%9,3 eta %58,2, hurrenez hurren); baita manukoekin ere (%34,7 eta %26,6). Azpimarratzekoa da manukorik ez duten emakume eta gizonen kopuru handia (emakumeen %54,4 eta gizonen %46, hain zuzen).

34. TAULA: HARREMANA LANKIDEEKIN (%)

		Oso onak	Onak	Erdipurdikoak	Txarrak	Oso txarrak	Ez dauka	EDE
EMAKUMEAK	Nagusiekin	31,7	58,2	4,1	1,5	-	4,3	0,2
	Lankideekin	44,3	48,2	3	-	-	4,1	0,4
	Manukoekin	12,6	26,6	0,9	-	-	54,4	5,6
GIZONAK	Nagusiekin	24,1	59,3	8,1	1,9	0,5	4,9	1,1
	Lankideekin	32,9	59,6	2,8	0,3	-	2,8	1,6
	Manukoekin	11,3	34,7	1,5	0,5	0,2	46	5,8

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)


11. STATUSA

Emakumeen %24,6k eta gizonen %32,6k baieztatzen dutenez, lanpostuan aritzeko ezagutza espezifikoa edukitzea ez da beharrezkoa, eta esperientzia nahikoa da. Beste alde batetik, emakumeen %38,8k eta gizonen %43,3k dioenez, Lanbide Heziketako ikasketak edukitzea beharrezkoa da; emakumeen %34,9 eta gizonen %22,7ren ustetan, beharrezkoa da unibertsitate ikasketak -erdi edo goi mailakoak- izatea.



24. GRAFIKOA: ESKATUTAKO EZAGUTZAK

(%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Lortu dituzten ezagutzak edo gaitasunak aplikatzeko aukerari dagokionez, emakumeen %77,1ek baieztatzen du lanak asko (%36,8) edo nahiko (%40,3) aplikatzeko aukera ematen diela. Bere aldetik, gizonen %72,8ren iritziz ere, ezagutzak edo lanak asko (%34,4) edo nahiko (%38,4) aplikatzeko aukera ematen die euren lanak. Bakarrik emakumeen %5,4 eta gizonen %4,4ren ustetan, lanak ez die ematen ezagutza horiek aplikatzeko aukerarik.

35. TAULA: ZURE EZAGUTZAK APLIKATZEKO AUKERA (%)

	Emakumeak	Gizonak	Guztira (N)
Bai, asko	36,8	34,4	384
Bai, nahiko	40,3	38,4	425
Bai, erdipurdi	11,1	14,4	141
Bai, baina gutxi	4,7	3,9	46
Ez, ezer ez	5,4	4,4	52
Ede	1,7	4,5	36
Guztira (N)	467	617	1084

Inkesta erantzun duten langileek lanpostuaren garrantziaz duten iritzia aztertzen bada, emakumeen %65,5ek eta gizonen %59,8k uste du bere lanpostua garrantzitsua dela enpresan. Emakumeen %7,5en eta gizonen %13,0ren ustez, euren lanpostua enpresako inportanteenetako bat da. Beste alde batetik, emakumeen %4,3k baieztatzen du euren lanpostua garrantzi txikikoa (%5,3) edo inolako inportantziarik gabea (%0,2) dela; gizonen kasuan, ordea, %5,5en ustez, euren lana garrantzi txikikoa edo inportantziarik gabea da.

36. TAULA: LANPOSTUAREN GARRANTZIA (%)

	Emakumeak	Gizonak	Guztira (N)
Garrantzitsuenetakoa	7,5	13,0	115
Inportantea	65,5	59,8	675
Erdipurdi	21,4	20,6	227
Ez da oso inportantea	4,1	5,3	52
Ez du inolako garrantzirik	0,2	0,2	2
Ede	1,3	1,1	13
Guztira	467	617	1084



12. AUTONOMIA

Langileak enpresan duen lanpostuak statusa azpimarratzeaz gain, lanean dagoen autonomia maila zehaztu dezake. Atal honetan, hain zuzen ere, langileek bere lanpostuan duten autonomiarekin zerikusia duten alderdiei helduko diegu.

Inkesta erantzun duten langileek lanpostuan askatasun osoa ez badute ere, azpimarra daiteke galderak erantzun dituzten pertsonen nahikoa autonomia dutela hainbat alderditan; hala nola, zereginen hurrenkera, lan-metodoa, lan-erritmoa eta lanean atsedendaldien banaketa eta/edo iraupena. Dirudenez, autonomia maila handiagoa dute zereginen hurrenkera hautatzean; horrela baieztatzen dute emakumeen %94,2k (%59,7k nahi duten aldi guztietan eta %34,5ek batzuetan) eta gizonen %86k (%49,9k, nahi duten aldi guztietan eta %36,1ek batzuetan); lan-metodoa edo erritmoa bezalako alderdiak aldatzeko askatasuna, berriz, ez da hain ohikoa.

37. TAULA: AUTONOMIA, LANAREN ALDERDIAK HAUTATU EDO ALDATZEKO (%)


	Zereginen hurrenkera		Lan-metodoa		Lan-erritmoa		Atsedendaldien iraupena	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Nahi dudana bezala	59,7	49,9	50,3	42,9	43,0	38,1	55,0	47,8
Batzutan	34,5	36,1	34,9	36,0	39,8	42,3	30,4	33,2
Inoiz ez	5,6	13,0	13,5	19,9	15,8	18,8	11,6	16,0
Ede	0,2	1,0	1,3	1,1	1,3	0,8	3,0	2,9

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Lan-erritmoa, bai emakumeen kasuan (%61,7), bai gizonen kasuan (%55,6), kanpoko kausek (jendeak, bezeroek, trafikoak, e.a.) zehazten dute, batez ere. Emakumeek aipatzen dutenez, lan-erritmoa erabakitzen duen bigarren arrazoia, beste lankideen erritmoa da (%8,4) eta, jarraian, heldu beharreko mugak egongo lirarteke (%6,4). Gizonen kasuan, makinaren erritmoa (1%0,4) izango litzateke erabakitzailatzat jotzen duten bigarren arrazoia eta, jarraian, beste lankide batzuen erritmoa (%10,2) legoke. Grafikoan ikusten denez, emakume eta gizonen %11k baieztatzen du ez daukala lan-erritmorik. Inkesta erantzun duten pertsonen aipatzen dituzten beste arrazoi batzuk, aurretik zehaztutako egutegia bete behar izatea, lan-bolumena edo denboraldia izango lirarteke.



25. GRAFIKOA: LAN-ERRITMOA ZEHAZTEA (%)




GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Hurrengo grafikoan ikusten denez, inkesta erantzun duten gehienek egiten ari diren zeregina eteten dute, aurrikusita ez dauden beste lan batzuei ekiteko. Gutxi gora behera, inkesta egin duten langileen erdiak -emakumeen %58k eta gizonen %47,3k, hain zuzen- egunean zenbait aldiz geldiarazi behar du. Horrela, emakumeen %20,1ek eta gizonen %24,5ek zeregina eten behar izaten du egunean behin. Bakarrik emakumeen %9,4k eta gizonen %13,3k baieztatzen du ez dutela ia inoiz eteten lana.

Lanaren garapenean dauden etenaldi horiek izan ditzaketen ondorioei dagokienez, emakumeen %58,2k eta gizonen %60,5ek esaten du geldiarazte horiek ez dutela inolako ondoriorik euren lana egitean. Horrelako etenaldiak lanaren garapenean ondorioak dituztela adierazten duten langileen artean, emakumeen %19,1ek eta gizonen %16,0k dio ondorio horiek lanerako kaltegarriak direla; emakumeen %11,6k eta gizonen %13,5ek, ordea, positiboak direla esaten du.

26. GRAFIKOA: BURUTZEN ARI DEN LANA ETETEA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)



Lanaldian langileak behar izatekotan lana geldiaraztea edo lanpostutik alde egitea aztertuz gero, gehienek ziurtatzen dute ez dutela inolako arazorik horren inguruan. Horrela, emakumeen %64ek eta gizonen %63,5ek baieztatzen du hori egin dezakeela, beste pertsona batek ordezkatu behar izan gabe; eta emakumeen %25,7k eta gizonen %24,3k dioenez, lanpostutik alde egin ahal izango luke, beste pertsona batek ordezkatu balu. Dena den, emakumeen %8,6k eta gizonen %10ek ez dauka lana geldiarazteko edo lanpostutik irteteko aukerarik.

38. TAULA: ALDE EGITEKO AUKERA (%)

	Emakumeak	Gizonak	Guztira (N)
Bai, ordezkoarekin	25,7	24,3	270
Bai, ordezkorik behar izan gabe	64,0	63,5	691
Ez	8,6	10	102
Ede	1,7	2,1	21
Guztira (N)	467	617	1084




13. MAILAZ IGOTZEA

Inkesta erantzun duen pertsonak egun diharduen enpresaren barruan mailaz igotzearen gaia aztertuz gero, ikus daiteke gizonak emakumeak baino gehiago igotzen direla mailaz, baina ezberdintasuna ez da oso hautemangarria. Gizonen %57,4k arrakasta handiagoa izan du (%23) edo zertxobait igo da (%34,4); mailaz igo diren emakumeen ehunekoa, ordea, %48,6 izango litzateke (%18,2k arrakasta handiagoa izan du eta %30,4 zertxobait igo da). Bai emakumeek (%33) bai gizonek (%39,7) diotenez, igoeraren arrazoia, pilatu duten esperientzia izan da, batik bat. Emakumezkoen kasuan, igotzeko bigarren arrazoia gaitasun pertsonal eta sozialak dira (%7,1); gizonetzkoen kasuan, ordea, gaitasun teknikoa izango litzateke bigarren arrazoia (%10,9). Inoiz igo ez diren emakumeen %43,7k eta gizonen %36,1ek, gehien bat, esaten du inoiz ez zaiola horretarako aukerarik eman.

Adierazi behar da ere, aldi baterako laneko enpresa batean lan egiten duten elkarrizketatuen ehunekoa, industria eta zerbitzuetan kokatzen dela.

27. GRAFIKOA: MAILAZ IGOTZEA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Interesgarria da aztertzea, gaur diharduten enpresan asko edo zertxobait igo direla baieztatzen duten pertsonen alderdi batzuk. Hurrengo taulan ikusten denez, normalean 25 - 54 urte bitartean igotzen da mailaz, pilatutako esperientziari esker. Hori bat dator mailaz igo diren langileen baieztapenarekin, pilatutako esperientzia mailaz igotzeko arrazoi dela esaten zutelako.

39. TAULA: MAILAZ IGOTZEA ADINAREN ARABERA (%)

	Emakumeak	Gizonak	Guztira (N)
16-24	4,0	4,5	25
25-44	61,2	56,8	340
45-54	26,9	28,2	161
55 edo gehiago	7,9	10,5	55
Guztira (N)	227	354	581



Egungo enpresan inoiz mailaz igo diren pertsonen ikasketa-mailari dagokionez, azpimarratu behar da igoeren ehunekorik altuena, bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonena da (emakumeen %46,7 eta gizonen %55,4, hain zuzen). Nabaria da unibertsitateko prestakuntza daukaten emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea: horrelako prestakuntza duten gizonen %24,8 asko edo zertxobait igo dira euren enpresan, emakumeak %43,5 diren bitartean.

40. TAULA; MAILAZ IGOTZEA IKASKETA MAILAREN ARABERA (%)

	Emakumeak	Gizonak	Guztira (N)
Lehen mailakoak	6,2	17,8	77
Bigarren mailakoak	46,7	55,4	302
Unibertsitatekoak	43,5	24,8	187
Ede	3,5	2,0	15
Guztira (N)	227	354	581

Hurrengo taulan ikusten da mailaz gehiago igo den lanbide kategoria, langile kualifikatuena dela -%35,7 emakumeen kasuan, eta %43,5 gizonen kasuan-, eta kategoria honetan, gehienek dauzkatela bigarren mailako ikasketak. Erdi-mailako kargudunen kategoria, ordea, gutxien igo dena da (emakumeen %2,2 eta gizonen %6,5).

41. TAULA; MAILAZ IGOTZEA LAN-MAILAREN ARABERA (%)


	Emakumeak	Gizonak	Guztira (N)
Zuzendaritza-pertsonala	13,7	19,2	99
Pertsonal teknikoa	19,4	13,0	90
Erdi-mailako kargudunak	2,2	6,5	28
Administrazio-langileak	21,1	5,9	69
Langile kualifikatuak	35,7	43,5	235
Kualifikatu gabeak	7,9	11,9	60
Guztira (N)	227	354	581



14. LAN-ORDUTEGIA

Inkesta erantzun duten langile gehienek diotenez, asteko 35 eta 40 ordu bitarteko lanaldia egiten dute; horrela baieztatzen du emakumeen %67,9k eta gizonen %70,7k. Gizonen artean, 40 orduetik gora lan egitea ohikoagoa da, emakumeen artean baino. Azken hauen kasuan, berriz, 21-35 bitarteko lanaldia ohikoagoa da. Seguruenik, emakumeek 21-35 orduko lanaldia aukeratzeko arrazoia, lanaldi murriztuak gehiago hartzea da, horrela lan, familia eta norberaren bizitza bateratu ahal izateko.

28. GRAFIKOA ASTEKO LANORDUAK (%)




GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Hurrengo grafikoan ikusten denez, gehien zabaltzen den lanaldia zatitua da (emakumeen %66,6k eta gizonen %70ek dauka horrelako lanaldia). Bai gizonen artean (%15,2), bai emakumeen artean (%19,6), bigarren lanaldi-mota goizeko lanaldi jarraia da; eta langile gutxienek daukatena, gaueko lanaldia. Normalean, inkesta egin duten pertsonak bestelako ordutegiak dauzkatela erantzun dutenean, adierazi nahi dute euren lanaldia ez dagoela definiturik, aldakorra dela hain zuzen; esate baterako, lanaldi zatitua eta, batzuetan, konbinatu daiteke, goizeko, arratsaldeko edo gaueko lanaldi jarraiarekin; konbinaketa anitzak leudeke.

Inkesta egin duten langileen %90ek, gutxi gora behera, emakumeen zein gizonen kasuan, esaten du ez duela txanda aldatzen. Aldatzen dutenek diotenez, txanda astero edo hamabostero aldatzea da ohikoena.




29. GRAFIKOA: OHIKO ORDUTEGIA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Larunbat, igande eta jaiegunetan lan egitea, hurrengo grafikoetan ikusten denez, ez da oso ohikoa, batez ere, igande eta jaiegunetan lan egiteaz hitz egitekotan. Hala ere, azpimarra daiteke horrelako egunetan lan egin behar dutela dioten pertsona gehienek, merkataritzan eta ostalaritzan dihardutela. Berez, jarduera horretan lan egiten duten emakumeen %98,1ek eta gizonen %64,2k esaten du larunbatetan lan egin behar dutela; eta emakumeen %94,1ek eta gizonen %61,3k esaten du igande eta jaiegunetan lan egin behar duela.


30. GRAFIKOA: LARUNBATETAN LAN EGITEA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)




31. GRAFIKOA: IGANDE EDO JAIEGUNETAN LAN EGITEA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Beste gai interesgarria, lan ordutegiaren zurruntasuna edo malgutasuna da. Grafikoan ikus daitekeenez, enpresa gehienetan ordutegiak zurrunak dira, lanera sartu eta lanetik irteteko ordutegi finkoarekin, emakumeen %67,7k eta gizonen %60k baieztatzen duenez. Elkarrizketatuen artean, ordutegia egokitzeko aukera dutenek edo sartu eta irteteko orduak hautatzeko aukera dutenek, merkataritzan eta ostalaritzan dihardute, gehien bat (emakumeen %34,7k eta gizonen %45,4k, hain zuzen).

32. GRAFIKOA: ORDUTEGIA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Emakumeen %54,8k eta gizonen %45,4k, inkesta egin duten langileen erdiak gutxi gora behera, ez du lanaldia luzatu behar, normalean. Gainerako langileek lanaldia luzatzen dute, ohiko eran; emakumeen %24,4k ordainik gabe egingo luke; %19,9k, ordea, diru eta/edo aisialdiaren truke egingo luke. Lanaldia luzatzen duten gizonen %29,3k, diru eta/edo aisialdiaren truke egiten du; %24ek, ordea, inolako ordainik jaso gabe egiten du.

Lan-gainkarga da arrazoi nagusia, lanaldia luzatzen duten pertsonen esanetan; horrela adierazten du lanaldia luzatzen duten emakume elkarrizketatuen %34,5ek, eta gizonen %41,2k. Inkesta erantzun duten langileek emandako beste arrazoiaren artean, trafikoa, lan-bidaia, bilerak e.a. daude.



42. TAULA: LANALDIA LUZATZEA (%)

	Emakumeak	Gizonak	Guztira (N)
Bai, diru-ordainaren eta/edo aisialdiaren truke	19,9	29,3	274
Bai, ordainik gabe	24,4	24,0	262
Ez	54,8	45,4	536
Ede	0,9	1,3	12
Guztira (N)	467	617	1084


Industria eta zerbitzuen sektorean inkesta egin duten langile gehienek (emakumeen %74,9k eta gizonen %72,5ek, hain zuzen) adierazten dute euren enpresak ez duela aintzat hartzen "teleanaren" aukera. Baimentzen duten enpresek, berriz, era positiboan baloratzen dute; horrela baieztatzen du emakumeen %3,8k eta gizonen %4,7k.

43. TAULA: TELELANA (%)

	Emakumeak	Gizonak	Guztira (N)
Bai, eta balorazio positiboa egiten da	3,8	4,7	30
Bai, baina ez da ongi baloratzen	0,0	1,1	4
Ez	74,9	72,5	518
Ede	21,2	21,7	151
Guztira (N)	339	364	703

Etxeko lanak egiten dituen pertsonaz galdetzen bada, ezberdintasun adierazgarria dago emakume eta gizonen artean:

33. GRAFIKOA: ETXEKO LANAK EGITEN DITUEN PERTSONA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)


Emakume askok beraiek direla dioten bitartean (%37,5) -eta hori indartzen da kontutan hartzen bada gizonen %25,9ren ustez, bikotekidea dela-, gizonek lana partekatzen dute beste senide batzuekin



(%41,8). Grafikoan azaltzen diren beste aukerak, beste pisukide bat edo batzuekin bizi diren pertsonen erantzunak dira.

Etxeko lanetarako erabiltzen diren orduen maiztasunean igarritako ondorioak frogatzen duenez, emakumeek, oraindik ere, "lanaldi bikoitza" daukate eta etxea zaintzearen ardura bereganatzen dute.

34. GRAFIKOA: ETXEKO LANAK EGITEKO ERABILTZEN DEN DENBORA (%)




	Emakumeak	Gizonak
Hiru ordu edo gehiago egunero	9	5,8
1-3 ordu egunero	49,9	34,5
Ordu bat baino gutxiago egunero	32,3	43,9
Inoiz ez	4,5	8,8
Ede	4,3	7

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Oro har, esan daiteke inkesta erantzun duten pertsona guzti-guztiek 6-8 ordutan zehar lo egiten dutela, emakumeen zein gizonen kasuan; baina ezin da ahaztu pertsonen ehuneko batek (emakumeen %6k eta gizonen %8,1ek) 6 ordu baino gutxiagotan egiten duela lo, kontutan izanik gainera, lanaldiaren erdian arreta-maila altua mantendu behar dutela.



35. GRAFIKOA: EGUNERO LO EGITEKO ERABILTZEN DIREN ORDUAK (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Hurrengo taulan agertzen dira etxearen zaintzan sartzen diren jarduerak nagusiak. Zentzu horretan, honako hau azpimarra daiteke:

- Gehienak dira ia dena egiten dutela diotenak; honako lan hauek zehazten dituzte: Janariak prestatzea (%33), Harrikoa egitea (%25,7), Janariak erostea (%30,8), Arropa garbitzea (%37,5), Plantxatzea (%40), Arropa erostea (%52,5) eta Medikuearengana joatea (%31).
- Nabaria da emakume eta gizon kopuru altu bat kokatzen dela, jardueren "erdia" egitearen aukeran.
- Gizon kopuru altu batek, emakumeekin konparatuz gero, onartzen du ez duela "ezer" egiten, jarduerak hauei dagokienez.



44. TAULA: ETXEAN EGITEN DIREN JARDUERAK (%)

		Ia dena	Hiru laurden	Erdia	Laurden bat	Ezer ez	EDE
EMAKUMEAK	Janariak prestatzea	33	6,6	25,5	11,6	19,9	3,4
	Harrikoa egitea	25,7	8,8	31,9	13,9	16,7	3
	Etxea garbitzea	27,6	7,3	33,2	13,7	15,4	2,8
	Janariak erostea	30,8	7,1	35,5	10,5	12,6	3,4
	Arropa garbitzea	37,5	6,9	28,3	8,1	16,3	3
	Plantxatzea	40	6,6	16,7	7,5	26,3	2,8
	Arropa erostea	52,5	6,6	34,4	3,9	7,1	5,6
	Medikuarengana joatea	31	7,5	25,1	3,2	20,6	12,6
	Eskolako bilerak	16,9	2,8	12,6	0,6	29,1	37,9
	Gaixoak zaintzea	17,8	6	22,1	3,2	25,7	25,3
	Mendekotasunik duten pertsonak garbitzea	3,6	1,1	6,2	0,2	30,8	58
	Mendekotasunik duten pertsonak paseatzea	2,6	2,1	6,6	0,4	30	58,2
	Mendekotasunik duten pertsonen janaria ematea	3,9	2,1	3,2	1,9	31	57,8
	Eskolako lanetan laguntza ematea	9,4	4,7	9,4	2,1	31,3	43
GIZONAK	Janariak prestatzea	16,2	5,8	22,7	19,4	32,3	3,6
	Harrikoa egitea	14,3	7,1	27,6	16,4	30,5	4,2
	Etxea garbitzea	10,2	3,7	25,3	25,3	31,6	3,9
	Janariak erostea	16	8,1	32,6	17,5	21,9	3,9
	Arropa garbitzea	8,6	2,9	18,2	10,5	55,4	4,4
	Plantxatzea	9,2	1,3	12,6	7,5	64,7	4,7
	Arropa erostea	21,4	3,7	31,8	15,1	22,5	5,5
	Medikuarengana joatea	15,1	3,2	27,4	11	28,8	14,4
	Eskolako bilerak	2,9	1,9	15,1	4,9	33,7	41,5
	Gaixoak zaintzea	4,7	3,9	21,1	10,2	29	31,1
	Mendekotasunik duten pertsonak garbitzea	0,6	0,8	4,1	1,6	31	61,9
	Mendekotasunik duten pertsonak paseatzea	1,1	1	2,9	2,4	30,5	62,1
	Mendekotasunik duten pertsonen janaria ematea	0,8	0,8	3,2	2,1	30,6	62,4
	Eskolako lanetan laguntza ematea	2,3	4,5	14,6	5	29,7	43,9

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)


Beste alde batetik, etxean egiten ohi zuten lan kopuruari buruzko iritzia eskatu zitzaie; emakume gehienek "normala" erantzun zuten (%64); jarraian, "asko" (%14,3), "gutxi" (%12,8) eta "gehiegizkoa" (%5,4) erantzun zuten. Gizonen iritziz, ordea, egiten ohi duten lan-kopurua "normala" da (%55,6) eta, jarraian, "asko" (%33,2), "gutxi" (%5,3) eta "gehiegizkoa" (%1,8) dela diotenak egongo liriteke. Gainerako pertsonak ez dute erantzun galdera honetan.

Norberaren zaletasunetan aritzeko behar adinako denbora pertsonala izateari dagokionean, emakumeek zein gizonak adierazten dute batzutan egin ahal izan dutela; baina desberdintasuna "beti" egin ahal izatean dago: alderdi honetan, gizonak, emakumeei aurrea hartzen diete ia 10 puntutan. Horren arrazoia izan daiteke etxeko lanetarako erabiltzen zen ordu kopuruaren inguruan goian azaldutakoa, emakumeek 3 ordu gehiago ematen baitituzte.

Emakumeek aisialdia erabiltzen dute, batez ere, lagunekin egoteko (%66,7), ekintza fisikoetan (%54,7), irakurtzean (%42,7) eta irratia entzutean edo telebista ikustean. Gizonak, beren aldetik, aisialdian dituzten zaletasunak, ariketa fisikoa (%61), lagunekin egotea (%60,6) eta irratia entzutea edo telebista ikustea (%37,8) dira.



36. GRAFIKOA: ZALETASUNETARAKO BEHAR DEN DENBORA IZATEA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

15. PARTE-HARTZEA

Enpresen barruan lanari buruzko hainbat alderditan langileek duten parte-hartzea -oso anitza- aztertuko da atal honetan. Hurrengo taulan ikusten diren datuek adierazten dutenez, parte-hartze maila nabaria da, lanaren alderdi adierazgarri batzuetan. Horrela, lana planifikatu eta antolatzeko, eta bere kalitatea ikuskatzeko hartu izan dira, inkesta erantzun duten langileen iritzia, gehienbat. Oro har, horrelako datuen bitartez begizta daiteke, alde batetik, normalean enpresek baimena ematen dietela langileei lanaren zenbait alderditan parte har dezaten eta, bestetik, bai gizonak, bai emakumeek, horrelakoetan parte hartzeko interesa dutela.

45. TAULA: PARTE-HARTZEA (%)

	Bai, parte hartzen dut		Bai, ahal dut, baina ez dut parterik hartzen		Ezin dut parterik hartu		Ede	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Lanaren plangintza eta antolakuntza	86,7	76,7	3,0	8,1	8,4	12,6	1,9	2,6
Lanaren kalitatea ikuskatzea	75,4	72,6	4,7	9,9	11,6	12,8	8,4	4,7
Lanean aldaketak sartzea	68,3	61,6	6,4	8,6	17,8	25,3	7,5	4,5
Erabili beharreko ekipamenduak/lanabesak hautatzea	58,2	65,2	10,7	7,5	24,8	24,3	6,2	3,1
Lanpostuaren baldintzak egokitzea	69,0	70,2	6,0	8,6	17,1	16,0	7,9	5,2
Lanpostuan laneko arriskuei aurrea hartzeko jarduerak	58,5	71,5	13,7	12,0	19,5	10,9	8,4	5,7
Adiskidetzeko neurrietarako jarduerak	46,0	52,8	13,3	12,6	21,8	19,0	18,8	15,6

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Badira bide ezberdinak iradokizunak aurkezteko edo langileengan eragina duten erabakietan parte hartzeko; hala nola, nagusiekin zuzenean hitz egitea, iradokizunak egoteko buzoia, kalitate-zirkuluak,



langileen ordezkariak edo bilerak. Nagusiekin zuzenean hitz egitea hobekien baloratzen dena da; horrela baieztatzen du emakumeen %84,8k eta gizonen %78,1ek. Inkesta erantzun duten pertsonen erdiak aipatzen duenez, euren enpresetan ez dago iradokizunak egiteko buzoirik edo kalitate zirkulurik. Langileen ordezkariari dagokienez, emakumeen %46,9ren esanetan, ez dago horrelako ordezkariarik; gizonen %41,7k, ordea, tresna hori ongi baloratzen du. Azkenik, langileen bilerak aztertuz gero, emakumeen %40,5ek esaten du ez dagoela, baina %37,5ek baloratzen du ongi daudela. Halaber, gizonen %37,9k ongi baloratzen ditu langileen bilerak, baina %34,8ren esanetan, ez dira existitzen.


46. TAULA: BALIABIDEAK (%)

	Nagusiekin zuzenean hitz egitea		Iradokizunak egiteko buzoia		Kalitate zirkuluak		Langileen ordezkariak		Langileen bilerak	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Ona	84,8	78,1	28,7	26,1	28,3	29,8	33,8	41,7	37,5	37,9
Erdipurdi	10,1	11,8	5,1	10,4	4,5	8,8	7,5	11,5	10,3	17,2
Txarra	0,4	3,6	3,2	5,8	1,5	2,6	3,0	2,4	1,9	3,2
Ez dago	2,4	4,2	52,9	53,0	51,0	47,5	46,9	37,4	40,5	34,8
Ed	0,4	0,0	4,7	1,9	6,9	4,7	3,0	3,1	4,1	2,6
Ede	1,9	2,3	5,4	2,8	7,9	6,6	5,8	3,9	5,8	4,2

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Inkesta egin duten langileek lantokian segurtasuna eta osasuna hobetzeko iradokizunak egin duten galdetu denean, emakumeen %42,4k eta gizonen %58k baieztatzen du noiz behin egin duela; horren aurrean, emakumeen %54,6k eta gizonen %40,2k esaten du ez duela inoiz egin.

37. GRAFIKOA: IRADOKIZUNAK (%)




GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Iradokizunak aurkeztu dituela baieztatzen duen elkarrizketatuen gutxiengoaren esanetan, iradokizun horiek ez direla aintzat hartuak izan. Horri kontrajarrita, emakumeen %68,2k eta gizonen %63,5ek adierazten du bere iritziak beti (emakumeen %38,9 eta gizonen %34,4) edo sarritan (emakumeen %29,3 eta gizonen %29,1) kontutan hartu direla.



38. GRAFIKOA: IRADOKIZUNEI KASU EGITEA (%)




GUZTIRA: Emakumeak (n=198) eta Gizonak (n=358)



16. PREBENTZIOA ANTOLATZEA

Emakumeen %48,6k eta gizonen %55,8k baieztatzen dute euren enpresan laneko arriskuen ordezkariaren bat dagoela. Aitzitik, emakume eta gizonen %32,1en esanetan, enpresan ez dago horrelakorik. Azpimarra daiteke emakumeen %4,7k eta gizonen %3,1ek ez dakiela enpresan laneko arriskuen prebentzioko arduradunik dagoen.


39. GRAFIKOA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ORDEZKARIA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Laneko arriskuen prebentzioko ordezkariaren ebaluaketari dagokionez, irudi horren balorazioa nahiko positiboa dela ikusten da, bai emakumeen aldetik, bai gizonen aldetik. Ezberdintasunak nabariak ez izan arren, azpimarra daiteke emakumeek gizonak baino hobeto ebaluatzen dutela laneko arriskuen prebentzioko ordezkariaren irudia.

40. GRAFIKOA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ORDEZKARIAREN ERAGINKORTASUNA (%)




GUZTIRA: Emakumeak (n=227) eta Gizonak (n=344)



Laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat egotearen inguruan galdetu denean, emakumeen %24,0k eta gizonen %30,8k baiesten du enpresan badagoela batzorde hori. Alderantziz, emakumeen %33,6k eta gizonen %35,8k adierazten du enpresan ez dagoela horrelako batzorderik. Gainera, emakumeen %3,9k eta gizonen %3,2k ez daki enpresan laneko segurtasun eta osasun batzorderik dagoen. Aipagarria da emakumeen %38,5ek eta gizonen %30,1ek ez duela erantzuten hau galdetu zaienean.


41. GRAFIKOA: LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO BATZORDEA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Enpresan laneko segurtasun eta osasunerako batzordeak dagoela baieztatzen duten langileek, era positiboan ebaluatzen dute. Laneko prebentzioko arduradunaren balorazioan gertatzen den bezala, goian azaltzen zen moduan, ezberdintasunak adierazgarriak ez badira ere, esan daiteke emakumeek gizonek baino hobeto ebaluatzen dutela laneko segurtasun eta osasunerako batzorde hau.

42. GRAFIKOA: LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO BATZORDEAREN ERAGINKORTASUNA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=112) eta Gizonak (n=190)




17. PREBENTZIO JARDUERAK

Prebentzio jarduera atal honetan aztertuko da, hainbat faktoreen bitartez; hala nola, osasun azterketa, lanpostuan osasunerako edo segurtasunerako dauden arriskuei buruzko azterketak egitea, eta norbera babesteko ekipamenduen erabilera.

Osasun azterketari dagokionean, gizonen %80,6k eta emakumeen %61ek baieztatzen du, azken 12 hilabeteetan, enpresak osasun azterketaren bat egin diola. Beste alde batetik, gizonen %18,3k erantzun du azken urtean ez zaiola osasun azterketarik egin; emakumeen %37,3k gauza bera erantzun du.

43. GRAFIKOA: OSASUN AZTERKETA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Badira arrazoi ezberdinak, enpresetan osasun azterketak egiteko. Dena den, azterketen aldizkako izaera da arrazoi nagusia, azken 12 hilabeteetan azterketarik egin zaiela baieztatzen duten gizonen (%96,8) eta emakumeen (%92,6) esanetan. Osasun azterketa egiteko dauden beste arrazoiaren artean, estresa dago.


47. TAULA: OSASUN AZTERKETA EGITEKO ARRAZOIAK (%)

	Emakumeak	Gizonak	Guztira (N)
Lanean hasteagatik	2,8	1,0	13
Osasun arazoengatik baja luzea hartu ondoren lanera bueltatzeagatik	0,0	0,2	1
Aldizkakoa da	92,6	96,8	745
Bestelakoak	3,5	1,6	18
Ede	1,1	0,4	5
Guztira (N)	285	497	782

Osasun azterketa egin ondoren, oro har, enpresek emaitzak idatziz jakin arazten dizkiete langileei; horrela adierazten du emakumeen %69,8k eta gizonen %75,9k. Enpresak osasun azterketak egiten dizkiela aitortzen duten emakumeen %22,5ek eta gizonen %21,3k dioenez, emaitzen berri emateko jarraian dagoen erarik ohikoena, ahoz eta idatziz da. Azpimarragarria da, ehuneko txiki batek baieztatzen duenez, ez zaiela emaitza horien berririk ematen.



44. GRAFIKOA: OSASUN AZTERKETAREN EMAITZAK JAKIN ARAZTEA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=285) eta Gizonak (n=497)

Azken urtean enpresak osasun azterketa egin diela baieztatzen duten langileen ustez, osasun azterketa hori baliagarria da. Langile horietatik, emakumeen %51,2k eta gizonen %60,8k uste du, lanarekin zerikusia duen gaixotasunik daukaten jakiteko behar diren frogak egin zaizkiela. Horrez gain, azterketa egin zaien emakumeen %38,6k eta gizonen %33,8k azterketa hori, inoiz sobera ez dagoen mediku azterketa orokortzat hartzen du, baina ez dute ikusten lanpostuarekin erlazionaturik dagoenik. Aipatu behar da ere, enpresak osasun azterketa bat egiten dien emakumeen %6,3ren eta gizonen %2,4ren ustetan, emakume langileen osasun bereizgarri eta espezifikoarekin erlazionaturiko alderdiak falta direla.


48. TAULA: OSASUN AZTERKETAREN INGURUKO IRITZIA (%)

	Emakumeak	Gizonak	Guztira (N)
Alferrik da, egiten den gauza bakarria denbora galtzea da	1,4	1,2	10
Osasun azterketa orokorra da; inoiz ez dago sobera, baina nire aburuz ez dauka erlazorik nire lanpostuko arriskuekin.	38,6	33,8	278
Baliagarria da, nire ustez egin beharreko frogak egin dizkidate lanarekin erlazionaturiko gaixotasunik daukadan jakiteko.	51,2	60,8	448
Emakume langileen osasun bereizgarri eta espezifikoarekin erlazionaturiko alderdiak falta dira.	6,3	2,4	30
Ed	0,4	0,2	2
Ede	2,1	1,6	14
Guztira (N)	285	497	782

Lanpostuan osasun edo segurtasunerako arriskuak aztertzea, lantokiek egiten ohi dituzten prebentzio-jardueretako bat izaten da. Emakumeen %54,4k eta gizonen %62,9k ziurtatzen du lantokian horrelako azterketarik egin dela. Horren aurrean, emakumeen %34,3k eta gizonen %28,4 baieztatzen du lantokian ez dela egiten lantokian, osasun edo segurtasunerako arriskuei buruzko azterketarik. Gainera, emakumeen %8,8k eta gizonen %5,8k ez daki enpresan horrelako azterketarik egiten den.



45. GRAFIKOA: LANPOSTUAN OSASUN ETA SEGURTASUNERAKO DAUDEN ARRISKUEI BURUZKO AZTERKETA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Euren lantokian lanpostuko osasun edo segurtasunerako arriskuei buruzko azterketarik egin dela baieztatzen duten langileen esanetan, enpresako alderdirik aztertuenak lan-jarrerak, ahalegin fisikoak eta mugimendu errepikakorrek, zarata, lanpostuaren diseinua, instalazioen segurtasuna, giro termikoa eta makina, ekipamendu eta baliabideen segurtasuna. Eta gutxien aztertu direnak, ingurune misto berrietan emakume eta gizonen artean egon daitezkeen gatazkak eta sexu-jazarpena, mobbing-a, lanaldi bikoitza e.a. bezalako alderdi soziolaboralak.

49. TAULA: LANPOSTUAN OSASUN EDO SEGURTASUNERAKO ARRISKUEN AZTERKETAN ANALIZATUTAKO ALDERDIAK (%)


	Emakumeak	Gizonak
Zarata	64,4	75,4
Giro termikoa (tenperatura, hezetasuna)	57,7	50,8
Bibrazioak	17,2	21,3
Erradiazioak	14,6	18,3
Substantzia edo produktu kaltegarri edo toxikoak manipulatzea edo arnastea	23,0	30,6
Eragile biologikoak	23,8	23,2
Lan-jarrerak, ahalegin fisikoak eta mugimendu errepikakorrek	70,3	76,2
Makina, ekipamendu eta baliabideen segurtasuna	49,4	65,0
Instalazioen segurtasuna	64,4	66,4
Lanpostuaren diseinua (altzariak, espazioa, azalerak, argiztapena e.a.)	63,6	53,0
Buru eta antolakuntza-alderdiak (arreta-maila, ordutegia, etenaldiak, erritmoa, estresa e.a.)	23,4	27,3
Minusbalotasuna duten pertsonen egokitzeko ahalmena	17,6	10,7
Alderdi soziolaboralak (sexu-jazarpena, mobbing-a, lanaldi bikoitza e.a.)	10,5	9,6
Emakume eta gizonen artean ingurune misto berrietan sor daitezkeen gatazkak	7,1	5,2

GUZTIRA: Emakumeak (n=254) eta Gizonak (n=388)



Hurrengo grafikoan ikusten denez, lantokiek bide ezberdinak erabiltzen dituzten langileei jakin arazteko zeintzuk izan diren lanpostuan osasun edo segurtasunerako dauden arriskuei buruzko azterketen emaitzak. Gehien erabiltzen den bidea, emakumeen %31,9k eta gizonen %36,3k dioenez, idatzizkoa da. Hala ere, ezin da alde batera utzi behar emaitza horien ahozko jakinarazpena eta, ere bai, ahozko eta idatzizko jakinarazpen konbinatua. Aipagarria da emakume eta gizon langileen ehuneko batek (%20,1 bi kasuetan) baieztatzen duela ez dutela jaso azterlan horien emaitzarik.

46. GRAFIKOA: LANPOSTUAN OSASUN EDO SEGURTASUNERAKO ARRISKUEI BURUZKO AZTERKETAREN EMAITZAK JAKIN ARAZTEA (%)




GUZTIRA: Emakumeak (n=254) eta Gizonak (n=388)

Enpresan horrelako azterlanak daudela baieztatzen duten emakumeen %59,4k eta gizonen %63,7k ziurtatzen du, lanpostuetan osasun edo segurtasunerako arriskuak aztertu ondoren, nolabaiteko neurriak hartu direla. Aitzitik, emakumeen %24ek eta gizonen %22,2k ukatzen du neurririk ezarri denik. Azpimarratzekoa da badagoela emakumeen (%11,4) eta gizonen (%8,5) ehuneko bat, zeinen esanetan ez baitakite azterketen emaitzen ondoren aldaketarik egon den ala ez.



47. GRAFIKOAK: AZTERKETAREN OSTEAN HARTUTAKO NEURRIAK (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=254) eta Gizonak (n=388)

Lantokian horrelako azterlanak egiten direla ziurtatzen duten emakumeen %74,3 eta gizonen %72, bat dator esaten duenean, egindako azterlanen ondoren hartu den neurri nagusia, instalazioak, makineria, ekipamenduak edo materialak aldatzea izan dela. Horrelako azterketen berri daukaten emakume langileen %44,3ren ustez, azterlanen ondoren ezarri den neurria prestakuntza da. Euren aldetik, lanpostuan horrelako azterlanak egiten direla baieztatu diguten gizon langileen %49,2ren esanetan, norbera babesteko ekipamenduen aldaketa edo horniketa da egindako azterketen ondoren ezarri den beste neurrietako bat.

50. TAULA: LANPOSTUAN OSASUN EDO SEGURTASUNERAKO ARRISKUAK AZTERTU ONDOREN HARTUTAKO NEURRIAK (%)

	Emakumeak	Gizonak
Instalazioak, makineria, ekipamendua edo baliabideak aldatzea	74,3	72,0
Aldaketak ezartzea lan-metodoan	20,0	19,5
Egunero lanpostuan ematen den denbora murriztea.	2,9	2,0
Norbera babesteko ekipamenduak aldatzea edo hornitzea	25,0	49,2
Taldea babesteko baliabideak aldatzea edo hornitzea	12,9	36,2
Ordain ekonomikoa (plusak)	3,6	5,3
Prestakuntza	44,3	32,9

GUZTIRA: Emakumeak (n=254) eta Gizonak (n=388)

Norbera babesteko ekipamenduak ohiko babes-neurriak dira lantoki askotan. Beraien eraginkortasuna ezagutzeko, derrigorrezkotasan, kontrol eta moldagarritasuna aztertu beharra dago.

Hurrengo grafikoan ikusten denez, inkesta erantzun duten gizon gehienek (%61,9k, hain zuzen), norbera babesteko ekipamendurik erabili behar izaten dute lanpostuan; emakumeen ehunekoa, berriz, txikiagoa da (23,8%). Izatez, emakumeen %73k baieztatzen du babesteko ekipamendua erabiltzea ez dela beharrezkoa euren kasuan. Gizon gehiagok egiten du lana egunero, osasun edo segurtasunerako arriskuen eragin zuzen pean (esaterako, obretako langileak, argiketariak, mekanikariak, e.a.). Hori dela eta, gizonen ehuneko altuagoak ziurtatzen duenez, derrigorrezkoa da lantokian norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea.



5. TAULA: MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK (%)

	Emakumeak	Gizonak
Seme-alabak	40,7	48,3
65 urtetik gorakoak	8,6	8,1
Urritasunik duten pertsonak	1,5	0,6
Gaixotasun larria duten pertsonak	3,4	9,1
Guztira	467	617

Taulako zutabeek ez dute %100a batzen, bakarrik galderaren baiezkoko erantzunak hartzen baitira kontutan.

Seme-alabak dituzten pertsonen dagokienez, ikus daiteke pertsona guztiak adin-tarte guztietan banatzen direla, eta nabariak dira 7-12 urteko seme-alabak dituzten emakumeen presentzia (%37,3) eta 19 urtetik gorakoak dituzten gizonena (%34,3).

6. TAULA: SEME-ALABEN ADINA (%)

URTEAN	Emakumeak	Gizonak
0-2	18,4	21,1
3-6	27,4	23,1
7-12	37,3	25,5
13-18	19,4	30,5
19 edo gehiago	29,5	34,3
Guztira	190	298

Taulako zutabeek ez dute %100a batzen, bakarrik galderaren baiezkoko erantzunak hartzen baitira kontutan.


Hurrengo taulan ikus daiteke nork zaintzen dituen bizikidetzaren unitatean mendekotasuna duten pertsonak. 15 urtetik beherako seme-alaben zaintzari dagokionez, lana emakumeek hartzen dute bere gain, gehien bat: "nire bikotekidea" erantzuteko aukera ematen zaienean, emakumezkoen %18,9k eta gizonzkoen %25,5ek aukeratzen dute erantzun hori. Dena den, aipatu beharra dago, zaintza familiarekin partekatzen dela baieztatzen duten pertsonen ehunekoa, altua dela (%32,1 emakumeen kasuan eta %33,9, gizonen kasuan). Nolabaiteko oreka dago 65 urtetik gorako pertsonen zaintzari dagokionez, "beraiek" zaintzen dutelako euren burua.

7. TAULA: MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONEN ZAINZA (%)

Nork	15 urtetik beherakoak		65 urtetik gorakoak	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Nik	18,9	3,4	10	4
Nire bikotekideak	5,8	25,5	0	6
Zaintza familiarekin partekatzen dut	32,1	33,9	10	14
Kontratatu dugun pertsona batek	8,9	3	7,5	2
Beste pertsona batzuk	1,6	0,7	-	-
Beraiek	-	-	72,5	72
EDE	15,8	19,8	0	2
Guztira	100	100	100	100



48. GRAFIKOA: BABES-EKIPOAREN ERABILPENA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Babes-ekipamendua erabili behar duten langileek baieztatzen dute eskularruak eta oinetako bereziak erabiltzea ohikoena dela. Gizonen %62,2k begiak babesteko betaurrekoak erabili behar ditu, baina emakumeen %22,1ek bakarrik erabili behar izaten ditu. Azpimarratu behar da, babes-ekipamenduak erabili behar dituztela onartzen duten emakume langileen %1,1ek bakarrik, gerrikoak eta erorketen aurkako gailuak erabili behar dituela; horren aurrean, gizonen %18,5ek onartzen du erabiltzen dituela. Hori gertatzen da emakumeak maila txikiago batean dihardutelako, enplegatuak erortzearen arriskua duten lanetan.

51. TAULA: NORBERA BABESTEKO EKIPO MOTA (%)


	Emakumeak	Gizonak
Eskularruak (arrisku mekanikoen aurrean)	44,2	69,0
Oinetakoak (arrisku mekanikoen aurrean)	54,7	76,9
Betaurrekoak/pantailak (inpaktuen aurrean)	22,1	62,2
Kasko arrunta	23,2	29,3
Entzumenerako babesgailua	6,3	2,2
Maskarak edo mozorroak	31,6	28,0
Gerrikoak eta erorketen aurkako gailuak	1,1	18,5
Oin/hanka jasogailuak	9,5	4,9

GUZTIRA: Emakumeak (n=95) eta Gizonak (n=368)

Norbera babesteko ekipamenduak derrigorrez erabili behar izaten dituzten emakumeen %80,2k eta gizonen %83,8k baieztatzen du euren lantokian horien erabilera kontrolatu egiten dela. Baina ez da ahaztu behar emakumeen %18k eta gizonen %15,2k nolabaiteko babes erabili behar duela, eta baieztatzen duela babes horiek ez direla kontrolatzen.



49. GRAFIKOA: NORBERA BABESTEKO EKIPOEN ERABILPENA KONTROLATZEA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=95) eta Gizonak (n=368)

Inkesta erantzun duten eta norbera babesteko ekipamenduak erabili behar dituzten langile gehienek baieztatzen dute horrelako ekipamenduak euren tailuarekin bat datozela (emakumeen %89,2 eta gizonen %94,5, hain zuzen). Horrelako ekipamenduak emakume haurdunei egokitzen zaizkien galdetuz gero, emakumeen %45,9k dio egokituta daudela eta gizonen %35,6k ukatzen du horrelako egokitzapenik dagoenik. Azkenik, minusbaliotasunik duten pertsonen dagokienez, esan beharra dago horrelako ekipamenduak erabiltzen dituzten emakumeen %23,4ren esanetan, ekipamenduak minusbaliotasunik duten pertsonen egokitzen zaizkiela; horren aurrean, gizonen %35,1ek dioenez, ez daude egokituta.

52. TAULA: NORBERA BABESTEKO EKIPOEN MOLDAGARRITASUNA (%)

	Tailua		Langile haurdunak		Minusbaliotasunik duten pertsonak	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Bai	89,2	94,5	45,9	15,7	23,4	15,4
Ez	7,2	4,7	10,8	35,6	18,0	35,1
Ed	-	-	3,6	14,9	7,2	15,2
Ede	3,6	0,8	39,6	33,8	51,4	34,3


GUZTIRA: Emakumeak (n=95) eta Gizonak (n=368)

18. PRESTAKUNTZA

Emakumeen %51,4k eta gizonen %57,1ek esaten du, azken 12 hilabeteetan, gaurko edo aurreko enpresak eskaini duen ikastaro edo hitzaldi batera joan dela. Hala ere, inkesta erantzun duten langileen ehuneko altu batek baieztatzen du azken urtean ez diotela eman inolako prestakuntzarik (emakumeen %47,1 eta gizonen %41,2).



50. GRAFIKOA: PRESTAKUNTZA (%)




GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Prestakuntza jarduerak orientabide anitzak izan ditzake. Enpresaren aldetik prestakuntza hartu duten emakumeen %79,6k eta gizonen %71,3k baieztatzen duenez, lanpostuaren inguruko prestakuntza teknikoa zen. Bakarrik emakumeen %12,1ek eta gizonen %13,9k adierazten du hartu duen prestakuntza norberaren garapenera zuzenduta zegoela.

Horrelako prestakuntza hartu duten langile gehienak bat datoz baieztatzen dutenean prestakuntzaren helburua, lana egiteko beraien trebakuntza hobetzea edo eguneratzea zela. Langileen ehuneko baxu baten esanetan, prestakuntzaren helburua lan berriei ekiteko trebatzea zen. Azkenik, azpimarratu behar da gizonek, emakumeek baino gehiago, azaltzen dutenez, prestakuntza jarduera, laneko arriskuen prebentzioari buruzko ezagutzak hobetzeko edo eguneratzeko xedea zeukala. Lantokian trebakuntza hartu duten langileek aipatutako beste batzuk honako hauek dira: lehen laguntzei buruzko ikastaroak, hizkuntzak ikastekoak, ingurumenaren inguruko ikastaroa, lan arloko eskubideei buruzko hitzaldiak edo osasun eta segurtasunari buruzko prestakuntza, hain zuzen ere.




51. GRAFIKOA: PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN ORIENTABIDEA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=240) eta Gizonak (n=352)

Oro har, prestakuntza jarduera hau lan ordutegiaren barruan antolatzen da; horrela baieztatzen du enpresak antolatutako prestakuntza jardueraren batera joan diren emakumeen %72,9k eta gizonen %85,5ek. Beste alde batetik, emakumeen %22,5ek eta gizonen %12,8k ziurtatzen du enpresak eskainitako prestakuntza jarduerak lan ordutegitik kanpo antolatu direla.

52. GRAFIKOA: PRESTAKUNTZAREN ANTOLAKUNTZA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=240) eta Gizonak (n=352)

19. INDARKERIAZKO JOKABIDEAK LANEAN

Atal honetan, lan ingurunean dauden indarkeriazko jokabideak aztertuko ditugu. Indarkeriazko jokabideen sorta handia dago. Hurrengo taulan aztertuko da ea inkesta egin duten langileek horrelako jokabiderik jasan behar duten. Datuek islatzen duten moduan, bai emakume, bai gizon gehienek



ukatzen dute horrelakoen biktima izana. Hala ere, ezin dugu ahaztu behar emakumeen %5,6 eta gizonen %2,6ren esanetan, lantokian lankideen aldetik indarkeria psikikoa sofritu dutela, azken 12 hilabeteetan. Bere aldetik, emakumeen %5,8k eta gizonen %4,5ek baieztatzen du horrelako indarkeria sofritu duela, baina lan-eremutik kanpoko pertsonen aldetik. Aipagarria da, gizonen %2,9k adierazten duenez, indarkeria fisikoaren biktima izan dela, lantokitik kanpoko pertsonen aldetik. Indarkeria-motaren bat sofritu dutela baieztatzen duten pertsonen ehunekoa aski baxua bada ere, komeni da honako hau argitzea: inkesta erantzun duten langileek, lantokitik kanpoko pertsonen aldetik indarkeriazko jokabideak pairatu dituztela baieztatzen dutenean, agian, horrela, adierazten dute, galderak azaltzen duen moduan, lantokitik kanpoko pertsonengandik pairatu dituztela, edo pertsona horiek norberaren bizitzarekin identifikatzen dituztela, horrela azterlana okerra izanik.

53. TAULA: INDARKERIAZKO JOKABIDEAK LANTOKIAN (%)

		Bai	Ez	Ede
EMAKUMEAK	Lantokiko pertsonen erabilitako indarkeria fisikoa	0,0	99,1	0,9
	Lantokitik kanpoko pertsonen erabilitako indarkeria fisikoa	0,0	98,9	1,1
	Lantokiko pertsonen erabilitako indarkeria psikikoa (biraoak, irainak, mesprezuak,...)	5,6	93,4	1,1
	Lantokitik kanpoko pertsonen erabilitako indarkeria psikikoa (biraoak, irainak, mesprezuak,...)	5,8	93,1	1,1
	Nahi ez diren sexu-asmoak (sexu-jazarpena)	0,0	98,9	1,1
	Adinagatiko bereizkeria	0,2	98,7	1,1
	Nazionalitateagatiko bereizkeria	0,0	98,9	1,1
	Sexuagatiko bereizkeria	0,6	98,3	1,1
	Arraza edo etniagatiko bereizkeria	0,0	98,9	1,1
	Minusbalotasunagatiko bereizkeria	0,0	98,7	1,3
	Orientazio sexualagatiko bereizkeria	0,0	98,5	1,5
	GIZONAK		Bai	Ez
Lantokiko pertsonen erabilitako indarkeria fisikoa		0,5	97,4	2,1
Lantokitik kanpoko pertsonen erabilitako indarkeria fisikoa		2,9	94,8	2,3
Lantokiko pertsonen erabilitako indarkeria psikikoa (biraoak, irainak, mesprezuak,...)		2,6	95,0	2,4
Lantokitik kanpoko pertsonen erabilitako indarkeria psikikoa (biraoak, irainak, mesprezuak,...)		4,5	92,9	2,6
Nahi ez diren sexu-asmoak (sexu-jazarpena)		0,0	97,6	2,4
Adinagatiko bereizkeria		0,0	97,6	2,4
Nazionalitateagatiko bereizkeria		0,0	97,6	2,4
Sexuagatiko bereizkeria		0,0	97,6	2,4
Arraza edo etniagatiko bereizkeria		0,0	97,6	2,4
Minusbalotasunagatiko bereizkeria		0,0	97,6	2,4
Orientazio sexualagatiko bereizkeria		0,0	97,6	2,4

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Hurrengo taulak indarkeriazko jokabideak aztertzen ditu, inkesta egin duten langileen lankideei dagokienez; hau da, lankide horiek, azken 12 hilabeteetan, indarkeriazko jokabiderik jasan duten aztertzen du. Gizon zein emakumeen kasuan, gutxiengoak ziurtatzen du lankideei ez zaizkiela komunikatzeko zailtasunik jarri; ez dituzte mehatxatu edo ez zaiela ospea zikindu, pertsonalki edo profesionalki. Emakumeen ehuneko baxu batek (%2,4) baieztatzen du, urtean zehar, zenbaitetan, lankideren baten izena zikintzen dela, pertsonalki edo profesionalki. Beste alde batetik, gizonen %2,6k esaten du bere lankideei komunikatzeko zailtasunik jartzen zaizkiela, urtean zehar zenbait aldiz.



54. TAULA: INDARKERIAZKO JOKABIDEAK – BESTE LANKIDEEKIN (%)

EMAKUMEAK		Bai, egunero	Bai, gutxienez astean behin	Bai, batzuetan hilero	Bai, batzuetan urtean zehar	Ez	Ede
	Komunikatzeko zailtasunak jartzen dizkiote	1,7	0,4	1,7	1,5	93,6	1,1
Izena zikintzen diote, pertsonalki edo profesionalki	0,9	0,9	0,9	2,4	94,0	1,1	
Mehatxatzen dute	0,0	0,4	0,0	0,6	97,9	1,1	
Bestelako jokabideak	0,0	0,4	0,0	0,0	69,6	30,0	
GIZONAK		Bai, egunero	Bai, gutxienez astean behin	Bai, batzuetan hilero	Bai, batzuetan urtean zehar	Ez	Ede
	Komunikatzeko zailtasunak jartzen dizkiote	0,0	0,0	2,6	1,9	94,2	1,3
Izena zikintzen diote, pertsonalki edo profesionalki	0,0	0,2	0,6	1,5	96,4	1,3	
Mehatxatzen dute	0,0	0,0	0,0	0,3	98,2	1,5	
Bestelako jokabideak	0,0	0,0	0,0	0,2	64,8	35,0	

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Hurrengo taulan erakusten diren ehunekoak, baiezko erantzuna eman zuten pertsonen dagozkie, lankideak (gizonak zein emakumeak) indarkeriaz jokatu zuen galdetu zaienean.

Harrigarria da, baina lankideak berak dira lan-ingurunean indarkeriazko jokabiderik gehien izaten dutenak, bereziki emakumeen kasuan. Emakumeen %4,3k baieztatzen du beraiek edo laneko emakumeren batek pairatu dituzten indarkeriazko jokabideak, laneko beste emakumeen aldetik izan dela. Era berean, gizonen %2,3k adierazten du laneko gizonen horrelako jokabide bortitzak erabili dituztela. Ondoriozta daiteke, beraz, lan-ingurunean sortzen diren gatazka asko, sexu berekoen artean izaten direla.

Normalki, pertsona bakar bat izaten da lankide batekin indarkeriaz jokatzen duena. Arraragoa da pertsona-talde batek horrela jokatzea langile batekin.

55. TAULA: LANTOKIAN INDARKERIAZKO JOKABIDEAK DITUZTEN PERTSONAK (%)

	Emakumeak	Gizonak
Lankidea/k, gizonak	1,1	2,3
Nagusia/k, gizonak	2,1	1,8
Mendekoa/k, gizonak	0,4	1,9
Lankidea/k, emakumeak	4,3	0,6
Nagusia/k, emakumeak	0,6	1,0
Menekoa/, emakumeak	0,2	0,6

GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)


20. OSASUNERAKO KALTEAK

Osasunari dagokionez, inkesta erantzun duten langile gehienek ustetan, euren osasuna ona da; horrela baieztatzen du emakumeen %94,4k eta gizonen %90,9k. Emakumeen %4,9 eta gizonen %7,6ren ustez,



euren osasuna erdipurdikoa da. Azpimarra daiteke gutxieneko ehuneko batek, bere osasuna txartzat hartzen duela.


53. GRAFIKOA: OSASUNA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Inkesta egin duten pertsonetatik, emakumeen %20,3 eta gizonen %19,8 bajaran egon da azken 12 hilabeteetan, osasun arazoren batengatik.

54. GRAFIKOA: BAJA OSASUN ARAZOENGATIK (%)




GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617)

Azken urtean bajaran egon diren emakumeen %73,2k baieztatzen du bere baja lanarekin zerikusirik ez duten gaixotasunengatik izan dela; %12,2k, ordea, esaten du bajaran egon dela lanekoak ez diren istripuengatik. Lan arrazoengatik -lan-istripuengatik, arrazoi soziodobalengatik, lan-kargarengatik e.a.- bajaran egon direla ziurtatzen duten emakumeen ehunekoa, %18,3 da. Gizonen bajak aztertuz




gero, grafikoan ikus daitekeenez, azken urtean bajaran egon diren gizonen %55,3k baieztatzen du bere baja lanarekin zerikusirik ez duten gaixotasunengatik izan dela. Bajaran egon diren gizonen ehuneko adierazgarri baten esanetan (%21,9), lan-istripuengatik izan da. Gainera, %9,6k dioenez, lan-kargarengatik izan da.

55. GRAFIKOA: OSASUN ARAZOAREN JATORRIA (%)



Emakumeen %46,8k ziurtatzen du bere bajak aste bete baino gutxiago iraun duela; gizonen %52ren esanetan, ordea, baja aste 1 - hilabete 1 bitartekoa izan da. Ezberdintasuna dago, bajaren iraupena 3 hilabete baino gehiagokoa izan dela baieztatzen duten gizonen artean. Emakumeen ehuneko altuago batek (%7,8) adierazten du 3 hilabete baino gehiagoko baja izan duela; gizonen ehunekoa, ordea, %2,9 da. Gainera, emakumeen %24,7k esaten du bere baja hilabete 1 - 3 hilabete bitartekoa edo hiru hilabete baino gehiagokoa izan dela, gauza bera baieztatzen duten gizonen aurrean.

56. GRAFIKOA: BAJAREN/BAJEN IRAUPENA GUZTIRA (%)




Emakumeen %38,1ek eta gizonen %39,5ek baieztatzen du ez duela erretzen, eta ez duela inoiz erre. Beste alde batetik, emakumeen %23,1ek eta gizonen %19,9ek ez du gaur egun erretzen, baina lehen erretzen zuten. Erretzen duten emakumeen %37,5etik, %32,1ek egunero erretzen du eta %5,4k egunero behin baino gutxiagotan erretzen du; eta erretzen duten gizonen %39,4tik, %34,4k egunero



erretzen du, eta %5ek egunean behin baino gutxiagotan erretzen du. Ezberdintasunik txikiena bada ere, aipatu daiteke erretzen duten gizonak (%39,4) emakumeak (%37,5) baino gehiago direla, inkesta egin duten langileen artean.


57. GRAFIKOA: JOKABIDEA TABAKOARI DAGOKIONEAN (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=467) eta Gizonak (n=617))

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, inkesta erantzun duten eta erretzaileak direla dioten langileen artean, egunero erretzen ohi duten zigarro kopurua, 11-20 bitartekoa da; horrela esaten du emakumeen %32k eta gizonen %46,2k. Emakumeen %28,7k eta gizonen %20,3k erretzen dituenak, 6-10 bitartekoak dira; azkenik, emakumeen %34ek eta gizonen %24,5ek erretzen dituenak, 1-5 bitartekoak dira. Grafiko honetan ikusten denez, erretzaileen artean gizon gehiago daude, eta gizonek emakumeek baino zigarro gehiago erretzen dituzte.

58. GRAFIKOA: EGUNERO ZENBAT ZIGARRO ERRETZEN DEN (%)




GUZTIRA: Emakumeak (n=150) eta Gizonak (n=212)

Erretzen duten langileek –gizonek zein emakumeek- gaur egun erretzen dutena eta orain dela sei hilabete erretzen zutena konparatzen badute, gehienek, lehen erretzen zuten beste erretzen dute orain (gizonen %67,9 eta emakumeen %55,3). Grafiko honek aztertzen duenez, inkesta egin duten emakume erretzaileek orain dela sei hilabete baino gutxiago erretzen dutela uste dute (gizonek baino gehiago uste dute hori).




59. GRAFIKOA: ZENBAT ERRETZEN DEN ORAIN, ORAIN DELA SEI HILABETE ERRETZEN ZENAREKIN KONPARATUTA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=150) eta Gizonak (n=212)

Azken urtean inoiz erretzeari uzten saiatu diren galdetu zaienean, inkesta erantzun duten erretzaileen ehuneko baxu batek -emakumeen %24ek eta gizonen %22,4ek- esaten du saiatu egin dela. Horren aurrean, emakumeen %48,8k eta gizonen %53,8k adierazten du azken urtean ez dela horretan saiatu.

60. GRAFIKOAK: ERRETZEARI UZTEA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=283) eta Gizonak (n=366)

Azken batean, inkesta egin duten langileen artean ezberdintasun handirik ez izan arren, azpimarratu beharra dago gehiago direla erretzen duten gizonak. Gainera, gizonak emakumeek baino zigarro gehiago erretzen dituzte. Emakumeen ehuneko altuago baten ustez, orain dela sei hilabete baino gutxiago erretzen dute; horrek adierazten du emakumeak gizonak baino gehiago saiatzen direla erretzeari uzten. Izatez, azken urtean erretzeari uzten saiatu diren emakumeen ehunekoa, gizonena baino altuagoa da.

Emakumeen artean, honako sintoma hauek ohikoagoak dira: gaizki lo egitea, eten gabe nekatuta egotea, edo buruko minak edukitzea. Gizonak bat datoz emakumeekin lehenengo bi sintometan, baina gizonak gehien aipatzen duten hirugarren sintoma, buruko minak izan beharrean, begietako arazoak




dira. Emakumeek gutxien aipatzen duten sintoma kontzentrazioaren arazoa da; gizonen kasuan, ordea, gutxien ematen dena zorabioak izatea da.

56. TAULA: SINTOMAK (%)

	Emakumeak	Gizonak
Lo egitea kostatzen zaio edo gaizki egiten du lo	37,8	42,6
Eten gabe nekatuta sentitzen da	31,5	25,1
Buruko minak dauzka	32,0	22,4
Zorabioak dauzka	5,9	4,5
Kontzentratzea, arreta mantentzea kostatzen zaio	6,3	9,0
Gauzak gogoratzea kostatzen zaio, edo gauzak erraz ahazten ditu	21,2	22,0
Urduri, haserrekor dagoela somatzen du	24,3	22,4
Arazoak ditu jateko gogoekin edo digestioarekin (goragaleak, bihotzerrea, digestio neketsuak...)	19,4	17,9
Arazoak dauzka begietan (negar-jarioa, ikusmen lausoa...)	24,8	23,8
Gogo-aldarte txarra	9,9	16,1

Emakume (%91,9) eta gizon (%83,6) langileen ehuneko altu batek ziurtatzen du inoiz ez diotela diagnostikatu arteria-presio alturik. Grafikoan ikusten denez, arteria-presio altuaren diagnostikoa izan duten gizonen ehunekoa (%13,1) emakumeena (%) 7,5 baino altuagoa da.

61. GRAFIKOA: ARTERIA-PRESIOA (%)




GUZTIRA: Emakumeak (n=497) eta Gizonak (n=617)

Bizitza sexualaren arazoei dagokienez -hala nola, inpotentzia, frigidotasuna, libidoaren urritzea...- emakumeen %91,6k eta gizonen %92,7k baieztatzen du azken urtean ez duela inolako arazorik somatu.



62. GRAFIKOA: BIZITZA SEXUALAREN ARAZOAK (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=497) eta Gizonak (n=617)

Emakume langileen %44,1en eta gizonen %35en esanetan, azken 3 urteetan ez dute erabaki seme-alabarik izatea. Horretan saiatu diren langileetatik, ehuneko txiki batek aitortzen du arazoren bat izan duela; hala nola, haurdun geratzeko zailtasuna, abortuak edo denbora gabeko erditzeak, edo osasun-arazoren bat duten umeak. Galdera honi erantzunik eman ez dioten emakumeen (%54,4) eta gizonen (%63,7) ehunekoa altua izan denez, posible da horrelako portzentajeetan sartzea, bai galdera honi erantzunik ez dioten langileak, bai seme-alabak izateko erabakia hartu eta horren inguruko arazorik izan ez dutenak, hori erantzuteko aukerarik ez baitago.

57. TAULA: ARAZOAK SEME-ALABAK IZATERAKOAN (%)

	Emakumeak	Gizonak
Haurdun geratzeko zailtasunak	0,6	0,2
Abortuak edo denbora gabeko erditzeak	0,9	0,3
Osasun-arazoren bat duten umeak	0	0,8
Ez dut erabaki seme-alabak izatea	44,1	35
Ede	54,4	63,7

GUZTIRA: Emakumeak (n=497) eta Gizonak (n=617)

Minaren aurkako analgesikoak, inkesta egin duten langileek gehien hartu dituzten sendagaiak dira; emakumeen %31,5ek eta gizonen %17k azken bi asteetan hartu izan ditu. Gehien erabiltzen diren bigarrenak, antiinflamatorioak dira, arazo articular edo erreumatikoei aurre egiteko. Aipagarria da erantzunik ematen ez dutenen ehuneko altuak badaukala arrazoia: item honetan biltzen direla, bai erantzunik eman ez duten pertsonak, bai azken bi asteetan botikarik hartu ez dutenak. Azkenik, taulan ikus daiteke, azken bi asteetan, emakumeek gizonak baino sendagai gehiago hartu dituztela.

58. TAULA: AZKEN BI ASTEETAN HARTUTAKO BOTIKAK (%)


	Emakumeak	Gizonak
Minaren aurkako analgesikoak	31,5	17,0
Arazo articular edo erreumatikoen aurkako antiinflamatorioak	11,1	7,0
Lasaigarriak, aringarriak	2,1	2,3
Digestioaren arazoetarako sendagaiak	2,8	1,5
Alergiarako botikak	3,4	2,6
Bihotzerako edo arteria-presiorako sendagaiak	1,3	2,9
Ede	47,8	66,8

GUZTIRA: Emakumeak (n=497) eta Gizonak (n=617)



Azken urtean, emakumeen %37,9k eta gizonen %52,8k baieztatzen du ez zuela medikuarengana joan behar izan, inolako arazo, ondoez edo gaixotasunengatik. Aitzitik, emakumeen %13,7k eta gizonen %6,5ek adierazten du medikuarengana joan dela, gutxienez lau aldiz azken urtean. Beren aldetik, emakumeen %21,8k eta gizonen %23,5ek esaten du azken hamabi hilabeteetan behin joan dela sendagilearengana. Aipatu behar da inkesta egin duten langileen artean, emakumeak gizonak baino gehiagotan joan direla medikuarengana.

63. GRAFIKOA: KONTSULTA MEDIKOAK (%)




GUZTIRA: Emakumeak (n=497) eta Gizonak (n=617)

Azken urtean sendagilearen kontsultara joan direla esan duten emakume (%77,2) eta gizon (%76,1) gehienak, ez dira joan lanaren ondorioz sortutako arazoengatik. Hala ere, emakumeen %13k eta gizonen %12,1ek dioenez, urtean behin joan da medikuarengana, lanaren ondorioz sortutako osasun-arazoengatik.

Sendagilearen kontsultara lanaren ondorioz sortutako arazoengatik joan diren pertsonak azpimarratzen dutenez, kontsulta horien arrazoi nagusiak honakoak ziren: bizkarretako mina eta beso, ukondo, besaurre, eskumutur edo eskua bezalako goiko gorputz-adarreko mina, hain zuzen. Kontsulta eskatu arazi zieten beste arrazoietako bat, buruko mina da.




64. GRAFIKOA: KONTSULTA MEDIKOAK LANETIK SORTUTAKO OSASUN ARAZOENGATIK (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=497) eta Gizonak (n=617)

Inkesta erantzun duten emakumeen %96,6ren eta gizonen %92,5en esanetan, azken bi urteetan ez dute laneko istripurik izan. Lan-istripu bat izan dutela baieztatzen duten emakumeen %3,4ren esanetan, istripuaren edo istripuen arrazoi nagusia gehiegizko konfidantza edo aztura izan zen; jarraian ematen dituzte laneko esperientzia-falta, trafikoa eta segurtasun-neurriak behar bezala ez erabiltzea. Lan-istripua izan duten gizonen %6,3ren ustez, emakumeen kasuan bezala, istripuaren edo istripuen arrazoi nagusia gehiegizko konfidantza edo aztura izan zen. Gainera, euren ustez, horrelako istripuen arrazoiak, lanean egindako ahaleginak edo hartutako jarrera derrigortuak, eta egin behar dituzten eragiketa arriskugarriak dira.

65. GRAFIKOAK: LAN ISTRIPUA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=497) eta Gizonak (n=617)



Hurrengo taulan ikusten denez, inkesta egin duten langileen artean, gutxienak ari dira tramitatzen lanbide-gaixotasunen baten aitortpena. Nolabaiteko lanbide-gaixotasunaren diagnostikoa daukan edo aitortpena tramitatzen ari den ehunekoari dagokionez, emakume gehienek diote hezurretako, muskuluetako edo artikulazioetako gaixotasunak direla; gizon gehienek esanetan, ordea, hipoakusia/gortasuna da.

59. TAULA: LANBIDE-GAIXOTASUNEN BATEN AZTERKETA (%)

	Emakumeak	Gizonak
Bai	0,2	0,6
Ez	99,8	99,4
Ede	0	0

GUZTIRA: Emakumeak (n=497) eta Gizonak (n=617)

Beste alde batetik, eragozten zituzten lanaren alderdi ezberdinen inguruko galdera egin zitzairen. Emakumeen kasuan, alderdirik desegokienak honako hauek dira: soldata (%8,8), mailaz igotzeko aukera txikiak (%8,1), lan egiteko hartu behar duten jarrera (%7,9) eta monotonia (%7,7). Gutxi baloratzen dituzten alderdiak, ordea, langileengan eragina izan dezaketen kutsatzaile kimikoak (%83,5), istripua izateko arriskua (%77,9) eta lanpostuan egin behar den ahalegin fisikoa (%75,8).

60. TAULA: LANAREN ALDERDI DESEGOKIAK EMAKUMEENTZAT (%)

	Gutxi	Erdipurdi	Nahikoa	Asko	Ezer ez	EDE
Lanean autonomia falta izatea	66,8	16,7	6,2	3,6	3,6	3
Inposatutako erritmoa	52,5	23,6	10,9	5,6	4,9	2,6
Nagusiek ezartzen dioten kontrola	59,1	21,8	9,6	1,9	2,1	5,4
Laneko ordutegia	49	18,8	16,3	6,6	6,6	2,6
Monotonia	51,6	26,1	8,6	7,7	3	3
Beste pertsonekin komunikatzeko zailtasuna	68,1	17,1	4,5	3,4	3	3,9
Lanpostuan egin behar duen ahalegin fisikoa	75,8	10,5	5,6	2,4	2,1	3,6
Lan egiteko hartu behar duen jarrera	50,7	21,4	13,5	7,9	3,6	2,8
Lanpostuko argiztapena	70,7	14,8	6,2	3	2,6	2,8
Lanpostuan dagoen zarata	62,5	18	7,9	4,3	4,3	3
Giroko tenperatura eta hezetasuna	62,1	15,2	9,6	6,2	4,5	2,4
Eragiten duten kutsatzaile kimikoak	83,5	4,9	2,4	-	2,8	6,4
Lan-istripuren bat izateko arriskua	77,9	11,3	1,9	2,1	2,4	4,3
Enpleguaren ezegonkortasuna	72,8	12,8	4,1	3,6	3,2	3,4
Soldata	42	22,3	17,8	8,8	6,6	2,6
Gutxietsia izatea	61,9	16,3	7,9	5,1	5,1	3,6
Mailaz igotzeko aukera txikiak	55,9	13,1	15,6	8,1	4,3	3
Kutunkeriak	68,3	8,8	6,6	3,4	8,8	4,1
Lanpostu batzuen gainkualifikazioa	64,5	13,5	7,1	3,9	5,4	5,8
Barne komunikaziorik ez egotea	65,5	12,8	9,9	4,5	3,4	3,9
Lanbide aintzatespenik ez egotea	58,2	14,3	9,4	6,2	6,6	5,1

GUZTIRA: Emakumeak (n=467)

Emakumeen kasuan bezalaxe, gizonak gehien eragozten dituzten alderdiak, soldata (%10,4), lanbide aintzatespenik ez egotea (%9,7) eta mailaz igotzeko aukera txikiak (%8,3) dira. Neurri txikiagoan,



honakoak aipatzen dituzte: langileengan eragina izan dezaketen kutsatzaile kimikoak, enpleguaren ezegonkortasuna (%68,7) eta beste pertsona batzuekiko komunikaziorik ez egotea (%65,6), hain zuzen.


61. TAULA: LANAREN ALDERDI DESEGOKIAK GIZONENTZAT (%)

	Gutxi	Erdipurdi	Nahikoa	Asko	Ezer ez	EDE
Lanean autonomia falta izatea	62,6	16,5	6,2	5,5	6,2	3,1
Inposatutako erritmoa	53,6	18	13,1	7,6	5,2	2,4
Nagusiek ezartzen dioten kontrola	59,2	18,8	9,2	5,2	3,9	3,7
Laneko ordutegia	54,5	19,4	12,2	5,5	5,8	2,6
Monotonia	52,4	22	11	4,5	6,8	3,2
Beste pertsonekin komunikatzeko zailtasuna	65,6	18,2	3,7	3,4	6	3,1
Lanpostuan egin behar duen ahalegin fisikoa	62,4	16,9	9,6	4,7	3,6	2,9
Lan egiteko hartu behar duen jarrera	51,1	21,4	13,1	7,6	4,5	2,3
Lanpostuko argiztapena	65,2	16,4	5,8	3,4	6,6	2,6
Lanpostuan dagoen zarata	54	17,3	11,8	4,4	9,9	2,6
Giroko tenperatura eta hezetasuna	58,5	15,2	9,9	6	8,1	2,3
Eragiten duten kutsatzaile kimikoak	72,9	9,7	2,3	2,6	6,3	6,2
Lan-istripuren bat izateko arriskua	54,9	18,6	11,3	5,7	6,6	2,8
Enpleguaren ezegonkortasuna	68,7	13,1	4,9	3,2	7,3	2,8
Soldata	40	19,3	18	10,4	9,7	2,6
Gutxietsia izatea	57,4	15,2	8,3	7,8	8,9	2,4
Mailaz igotzeko aukera txikiak	53,8	16	10,9	8,3	8,6	2,4
Kutunkeriak	59,8	13,8	5	6,3	12,6	2,4
Lanpostu batzuen gainkualifikazioa	60,3	14,7	5,3	7	8,6	4,1
Barne komunikaziorik ez egotea	57,5	15,4	8,4	7,8	7,9	2,9
Lanbide aintzatespenik ez egotea	53,3	14,1	12	9,7	8,6	2,3

GUZTIRA: Gizonak (n=617)

Inkesta egin duten langileek euren lan-baldintzekiko duten gogobetetze-maila aztertuz gero, emakumeen %71,3 eta gizonen %70,2 nahiko pozik daude. Emakumeen %19 eta gizonen %21,2 oso pozik egongo litzateke eta, azkenik, emakumeen %6,2 eta gizonen %5,3 ez litzateke pozik egongo.

66. GRAFIKOA: GOGOBEETETZE MAILA, LANEKO BALDINTZEI DAGOKIENEZ (%)



GUZTIRA: Emakumeak (n=497) eta Gizonak (n=617)



21. ONDORIOEN LABURPENA

- Inkesta erantzun duten pertsonen adinari dagokionez, %50 baino gehiagok 25 eta 44 urte bitarteko adina dauka. 45 urtetik aurrera, emakumeen proportzionaltasuna gizonena baino txikiagoa da. Gertaera horren arrazoa izango litzateke emakumezkoak beranduago sartu direla lan-eremuan.
- Jarduera-sektorearen arabera, Merkataritzan eta Ostalaritzan biltzen da emakumerik (%41,1) eta gizonik (%40,7) gehien; jarraian, Bestelako Zerbitzuak (%17,1) eta Gizarte Zerbitzuak (%14,3) daude, emakumeei dagokienez; eta Metalgintza (%16,5) eta Bestelako Industriak (%13,3) daude, gizonen aldetik. Emakumezkoen lan-mota eta gizezkoena argi bereizten dira, lan-tipologiaren bereizketa historikoarengatik. Emakumezko gehiago agertzen dira zerbitzuetan eta pertsonen zaintzaren sektoreetan; bitartean, industriari gehiago lotutako sektoreetan gizezkoak dira nagusi.
- Bizkaian populazio gehiago agertzen da, gainerako probintzietan baino, eta azpimarra daiteke emakumezkoen proportzionaltasuna handiagoa dela Araban eta Gipuzkoan baino, bi horietan gutxiago agertzen baita.
- Elkarrizketa erantzun duten gehienek nazionalitate espainiarra dute, eta beste herrialde batzuetatik etorritakoen portzentajea oso txikia da.
- Inkesta erantzun duten pertsonen profilak, euren ikasketa-mailaren arabera, azaltzen du kontzentrazio handiena, Bigarren mailako ikasketak (Lanbide Heziketa, Moduluak, e.a.) dituzten langileengan dagoela; horren aurrean, Unibertsitate Ikasketak dituzten pertsonak daude eta, talde horretan, emakumezko gehiago agertzen dira: %45,7 emakumeak dira eta %29,5, gizonak. Gizezkoen kasuan, beraiek (%65,5) dira etxean diru-sarreraren handienak dituzten pertsonak; emakumeen kasuan, ehunekoa %23,6 da. Datu horren bidez argi islatzen da gizonen eta emakumeen lan-baldintzetan dauden ezberdintasunak; kontutan izanda Unibertsitate Ikasketetan emakumezko gehiago daudela, hori ez da gertatzen etxeko diru-sarrerez hitz egiten denean.
- Bikotearekin bizi direla baieztatzen duten pertsonetatik, emakumezkoen kasuan, %92ak esaten du emakumeak kanpoan lan egiten duela; gizonen ehunekoa, ordea, %74,5 da. Gizonen %19,5ek baieztatzen du bikotekidea langabezian dagoela. Seme-alabak dituzten pertsonen dagokionez, nabariak dira 7-12 urteko seme-alabak dituzten emakumeen presentzia (%37,3) eta 19 urtetik gorakoak dituzten gizonena (%34,3).
- 15 urtetik beherako seme-alaben zaintzari dagokionez, lana emakumeek hartzen dute bere gain, gehien bat: "nire bikotekidea" erantzuteko aukera ematen zaienean, emakumezkoen %18,9k eta gizezkoen %25,5ek aukeratzen dute erantzun hori. Dena den, aipatu beharra dago, zaintza familiarekin partekatzen dela baieztatzen duten pertsonen ehunekoa, altua dela (%32,1 emakumeen kasuan eta %33,9, gizonen kasuan). Nolabaiteko oreka dago 65 urtetik gorako pertsonen zaintzari dagokionez, "beraiek" zaintzen dutelako bere burua.



- Hiru lurralde historikoetan, kontraturik ohikoena Mugagabea da eta, jarraian, Aldi Baterakoa dago. Eraikuntza sektoreko emakumeek dituzte mugagabeko kontratu gehiago, industria eta zerbitzuak sektorearekin konparatzen bada.
- Inkesta erantzun duten gehienak inoren konturako langileak dira, eta autonomoak oso ehuneko txikian agertzen dira (%1,3 emakumeen kasuan eta %1,4 gizonen dagokienez). Ordainsari motari dagokionez, finkoa da nagusi eta, jarraian, ordainsari finko gehi pizgarriak izeneko mota dago.
- Inkesta erantzun duten langile gehienek ez dute plusik kobratzen arriskuarengatik, gaueko lanarengatik, jaiegunetan lan egiteagatik, erantzukizun edo aginte-kargarengatik, nekagarritasunarengatik eta/edo toxikotasunarengatik. Hala ere, plusa eskuratzen den kasuetan, gizonen ehunekoak (%18,2) ia bikoizten du emakumeena (%)7,9. Plus mota, batez ere, gaueko lanarena da eta, ondoren, jaiegunetan lan egiteagatik hartzen dena legoke.
- Kasu gehienetan, inkesta erantzun duen pertsonak lanpostu iraunkorra du. Administrazio eta Bankako emakumeak mantentzen dira gehien bat beraien lanpostuan eta, gizonen kasuan, ordea, Administrazio eta Bankakoak eta Kimikakoak dira hori baieztatzen dutenak. Gizonen %90,4k eta emakumeen %97,6k ez dute ekoizpen- edo muntaketa-kate batean lan egiten. Eraikuntzan lan egiten duten pertsonen kasuan, emakumezkoek Bulegoetan dihardute (%57,1) eta gizonetzkoak, ordea, obraren eskuzko lanarekin bat etorri ohi diren gainerako jardueretan, banatzen dira.
- Enpresan eman duten denborari dagokionez, emakumeek, gehien bat, 2-10 urte bitartean eman dute, gutxi gora behera. Eraikuntzaren sektorean, gizon gehiago kontzentratzen dira 2-10 tartean; agian, hori gertatzen da lana aldatzeko joerarengatik eta sektore berean denbora-aldi luzean ez egoteagatik.
- Eraikuntzan, emakume gehiago agertzen dira zuzendaritza eta administrazio lanpostuetan; gizonen aldetik, ordea, gehiago agertzen dira Langile Kualifikatuen atalean.
- Emakumeak dira, oraindik ere, amatasunarengatik baja gehiago hartzen dituztenak: %24 da bere ehunekoa, eta gizonena, %4,9.
- Kasu gehienetan, harrera-prozesua egon da eta horretarako eskuliburu bat erabili izan da, baina langile askok baieztatzen dute, eskulibururik ez izanda ere, ongi moldatzen direla enpresako barne-prozesu osoarekin.
- Eguneroko lana egiteko, gero eta gehiago erabiltzen dira ekipo informatikoak, bai emakumeek (%66,7) bai gizonek (% 42,3) ezinbestekotzat jotzen dituztelako. Bigarren eta hirugarren tokian, emakumeen kasuan, eskuzko tresnak eta telefono finkoa leudeke; gizonen kasuan, ordea, eskuzko tresnak eta makinak eta ekipoak leudeke.
- Eraikuntzaren sektorean emakume kopuru altu bat zegoen zuzendaritza eta administrazio lanpostuetan, hau da, lana bulego eta ofizinetan lan egiten dutenen postuetan (eraikuntzako emakumeen %64,3); horren aurrean, gizonak nagusi dira aire zabalean sestra gainean burutzen



diren lanetan (%47,2). Industrian eta Zerbitzuetan, bai emakumeek bai gizonek lana toki itxietan egiten dute, baina, gizonen kasuan, aire zabalean (%6,6) eta estalpe edo teilapeak bezalako areto erdi itxietan (%6,9) egiten diren lanetan ere ari dira.

- Inkesta egin duten pertsona gehienek baieztatzen dute lanpostua, temperaturari dagokionez, atsegina dela bai udan bai neguan. Salbuespena eraikuntzan diharduten gizonak dira, onartzen baitute kanpoko tenperaturak ez direla atseginak, ez neguan, ez udan. Lanpostuetako hezetasun-maila ere nahiko egokia da.
- Lanpostuan zarata entzuteari dagokionean, emakumeek ez dute nabaritzen lanpostuan gogaikatzten dituzten zaratarik dagoenik (%74,9); gizonen %28,5ek, ordea, onartzen du zarata dagoela, gogaikarria ez bada ere. %4,2k, zarata-maila oso altua dela baieztatzen du. Emakumeen kasuan zarata dator euren lanpostutik gertu dauden lanpostuetatik eta beraien lanpostutik; gizonen kasuan, ekipo orokorretatik etorritako zarata ere gehitu behar da.
- Gizonen %13k (portzentaje metatua) bibrazioak sentitzen ditu eskuetan edo besoetan, edo gorputzeko beste atal batzuetan, eta bibrazio horiek, batez ere, tresna elektriko eramangarrietatik eta eskuz erabiltzeko tresnetatik datoz.
- Bai Eraikuntzan bai Industria eta Zerbitzuen sektorean, emakumeek onartzen dute Uhin Mikrouhinen eragina dutela, kasuen %7,1ean eta %4,7an, hurrenez hurren; eta gizonen kasuan, esposizio maila handiagoa da Argi Ultramoreen kasuan (hain zuzen ere, %2,8 eta %5,8).
- Substantzia edo produktu kaltegarri edo toxikoak erabiltzeari dagokionez, emakumeek horrelako substantziak erabiltzen dituztela onartzen dute kasuen %10,9an eta gizonen, beren aldetik, %19,9an. Produktuen %95ek, behar bezalako etiketa zeukan.
- Eraikuntzako gizonen %28,8k eta Industria eta Zerbitzuak sektorekoen %23,6k, kaltegarriak edo toxikoak diren hautsa, kea, gasak edo lurrunak arnasten dituztela baieztatzen du. Emakumeek horrelako substantziak arnasten dituzte, %5,6 eta %8,9 ehunekoetan.
- Eraikuntzako emakumeen %100 informatuta zeuden, substantzia kaltegarri edo toxikoak erabiliz eta/edo arnastuz gero, egon litezkeen ondorio kaltegarrien inguruan.
- Emakumeen %5ek nahi gabe, ohiko eran edo noizbehinka manipulatzten ditu eragile biologikoak (batez ere, osasun-jardueretan, hondakinen tratamenduan, animaliekin lan egiten denean, lur azpiko lanetan, e.a.).
- Emakumeek hautematen dutenez, gehiago agertzen dira mozteko edo ziztatzeko arriskuak eta pertsonak maila berean erortzea; gizonen ustez ere, mozteko edo ziztatzeko arriskuak garrantzizkoak dira, kolpeekin batera. Emakumeen kasuan gutxien agertzen diren arriskuak leherketak, harrapatuta geratzea eta pusketak edo partikulak jaurtikitzea dira; gizonen kasuan, ordea, leherketak, suteak eta lapurretak dira gutxien agertzen direnak. Emakumeek eta gizonen ez dituzte ikusten lanpostuko arrisku gisa, erorketak edo eraisketak, lanaldian gertatutako trafiko istripuak, eta oinezkoak harrapatzea edo ibilgailuekin talka egitea.



- Gehien aipatzen den arriskua -Moztea eta Ziztatzea- altua da Merkataritza eta Ostalaritzan, Manufaktura Industrietan, Kimikan, Bestelako Industrietan eta Gizarte Zerbitzuetan. Eraikuntzan, ordea, Maila berean Erortzea da gehien aukeratu den arriskua, kolpeekin batera. Eta Merkataritza eta Ostalaritzan, gehien hautatu diren arriskuak kolpeak eta mozketak dira.
- Emakumeen iritziz, mota ezberdinetako ustekabeko istripuekin erlazonaturikoak dira arrazoi nagusiak; hala nola, behaztopak, orratz eta artazien erabilera, eskaileretatik erortzea e.a.; eta, gizonen dagokienez, "hutsegiteekin" gehiegizko konfidantzarekin, lanabesen manipulazioarekin zerikusia dutenak dira.
- Lanpostuan egokiak ez diren egoerei buruz galdetu zenean, gehien aukeratu zen egoera, erosotasunez lan egiteko leku gutxi izatea zen; jarraian aipatu dira oso altuak/osu baxuak diren lanabes, elementu edo bestelako lan-objektuetarako irisgarritasuna. Administrazio eta Bankako gizonen egokia ez den argiztapena eta lantokian leku gutxi daukate. Kimika Sektoreko eta Bestelako Industrietako emakumeek, ordea, aipatzen dituzte lanpostuko leku txikia eta eskuekin iristeko zailtasuna duten guneetan lan egitea.
- Lanari ekiteko ohiko jarrerari dagokionez, ikusten da inkesta erantzun duten emakumeek, batez ere, eserita egoten direla edo maiz altxatzen direla (%51,8); gizonen kasuan, zutik egoten direla eta sarritan ibiltzen direla (%36,5), edo eserita daudela eta maiz altxatzen direla. Gizonezkoen kasuan, Industria eta Zerbitzuen Sektorean dihardutenak eserita egoten dira edo maiz altxatzen dira (35,4%) eta Eraikuntzan dihardutenak, ordea, zutik daude eta sarritan ibiltzen dira (59,1%).
- Ustez lanaren ondorio diren postura eta ahaleginengatik ondoeza daukaten gorputz atalak honako hauek dira, garrantziaren arabera: gizonen kasua, Bizkarreko behealdea (%54,4), Garondoa/Lepoa (%30) eta Bizkarreko goialdea (%23,1); eta emakumeen kasuan, Garondoa edo Lepoa (%49), Bizkarreko behealdea (%39) eta Bizkarreko goialdea (%38,2).
- Normalean, lana egiteko, bai emakumeek, bai gizonen, arreta-maila altua mantendu behar izaten dute lanaldi erdian zehar baino luzaragoan, eta lan-erritmo handia izan behar dute. Zeregin oso errepikakorrek eta oso iraupen motzekoak burutzen dituztela esaten dutenen inguruan, emakumeei dagokienez, zeregin horiek 5 minutu baino gutxiago irauten dute (%25,3) eta gizonen kasuan, ordea, 10 minutu edo gehiago (%25,6). Erdi mailako kargudunen ustez, azken 3 hilabeteetan, lan kopurua altua edo oso altua izan da.
- Oro har, inkesta erantzun duten emakumeen lanari dagokienez, kasuen %50,7an, beti edo ia beti, kalitate-arau zehatzak errespetatu, euren lanaren kalitatea ebaluatu (%49,7) eta arazoak konpondu behar dituzte (%46,9); hala ere, kasuen %37,9an, batzutan lan konplexuak eta gauza berriak ikasi behar dituztela (%32,8) onartzen dute. Gizonen ere kalitate-arau zehatzak errespetatu (%57,1) eta euren lanaren kalitatea ebaluatu (%56,6) behar dute; eta onartzen dute ere batzuetan lan konplexuak burutu (%38,1), gauza berriak ikasi (%35,3) eta denbora-epe estuekin lan egin behar dutela (%35,8).
- Lana egiteko beren esku daukaten eta gehien aipatzen den neurria, emakumeei zein gizonen ongi egokitutako informatika programak dira; eta, bigarrenik, laguntza jasotzeko aukera eta



argibide argi eta nahikoak. Bi kasuetan ere, behar adinako lankide-kopururik ez izatea azpimarratzen da.

- Lanpostuan akatsaren bat egiten denean, normalean arazo arin bat sor dezake edo ia ez dauka ondorioz (produktu edo zerbitzuen kalitatearen gaineko ondorio negatiboak, edo pertsonen segurtasun eta osasunaren gaineko kalteak). Honako aukera hauek ere ematen dira: kalte ekonomikoak, mesfidantza sortzea, ezinegon pertsonala eta denbora galtzea.
- Lan egiten den bitartean lankideekin harremanetan jartzea eragozten edo zailtzen duten alderdi posibleak, emakumeek "isolatuta egotea" eta "zuzendaritza" aipatzen dute; bestetik, gizonak azaltzen dutenez, "ez dute babes ekipamenduek uzten" eta "zarata handia egotea" dira aspektu horiek. Beste pertsonakiko harremanak, oro har, onak dira nagusiekin, gizon eta emakumeen kasuan; baita manukoekin ere.
- Emakumeen %24,6k eta gizonen %32,6k baieztatzen duenez, lanpostuan aritzeko ezagutza espezifikoak edukitzea ez da beharrezkoa, eta esperientzia nahikoa da. Emakumeen %38,8k eta gizonen %43,3k dioenez, Lanbide Heziketako ikasketak edukitzea beharrezkoa da; emakumeen %34,9 eta gizonen %22,7ren ustetan, beharrezkoa da unibertsitate ikasketak -erdi edo goi mailakoak- izatea.
- Lortu dituzten ezagutzak edo gaitasunak aplikatzeko aukerari dagokionez, emakumeen %77,1ek baieztatzen du lanak asko edo nahiko aplikatzeko aukera ematen diela. Gizonen ehunekoak, ordea, %72,8 da. Bakarrik emakumeen %5,4 eta gizonen %4,4ren ustetan, lanak ez die ematen ezagutza horiek aplikatzeko aukerarik.
- Inkesta erantzun duten langileek lanpostuaren garrantziaz duten iritzia aztertzen bada, emakumeen %65,5ek eta gizonen %59,8k uste du bere lanpostua garrantzitsua dela enpresan. Emakumeen %7,5en eta gizonen %13,0ren ustez, bere lanpostua enpresako inportanteenetako bat da.
- Inkesta erantzun duten langileek lanpostuan askatasun osoa ez badute ere, galderak erantzun dituzten pertsonak nahikoa autonomia dute hainbat alderditan; hala nola, zereginen hurrenkera, lan-metodoa, lan-erritmoa eta lanean atsedendaldien banaketa eta/edo iraupena hautatzeko. Dirudienez, autonomia maila handiagoa dute zereginen hurrenkera hautatzean; horrela baieztatzen du emakumeen %94,2k eta gizonen %86k; lan-metodoa edo erritmoa bezalako alderdiak aldatzeko askatasuna, berriz, ez da hain ohikoa.
- Lan-erritmoa, bai emakumeen bai gizonen kasuan, kanpoko kausek (jendeak, bezeroek, trafikoak, e.a.) zehazten dute, batez ere. Emakumeek aipatzen dutenez, lan-erritmoa erabakitzen duen bigarren arrazoiak, beste lankideen erritmoa izango litzateke eta, jarraian, heldu beharreko mugak. Gizonen kasuan, ordea, makinaren erritmoa izango litzateke erabakitzailerat jotzen duten bigarren arrazoiak eta, jarraian, beste lankide batzuen erritmoa legoke.
- Inkesta erantzun duten gehienek egiten ari diren zeregina geldiarazten dute, aurrikusita ez dauden beste lan batzuei ekiteko. Gutxi gora behera, inkesta egin duten langileen erdiak egunean zenbait aldiz eten behar izaten du lanaldia.



- Lanaren garapenean dauden etenaldi horiek izan ditzaketan ondorioei dagokienez, emakumeek eta gizonak esaten dute geldiarazte horiek ez dutela inolako ondoriorik euren lana egitean. Beste alde batetik, horrelako etenaldiek lanaren garapenean ondorioak dituztela adierazten duten langileek diotenez, ondorio horiek lanerako kaltegarriak dira.
- Horrela, emakumeen %64ek eta gizonen %63,5ek baieztatzen du, lanaldian behar izatekotan, lana geldiarazi edo lanpostutik alde egin dezakeela, beste pertsona batek ordezkatu behar izan gabe; eta emakumeen %25,7k eta gizonen %24,3k dioenez, lanpostutik alde egin ahal izango luke, beste pertsona batek ordezkatzeko balu.
- Inkesta erantzun duen pertsonak egun diharduen enpresaren barruan mailaz igotzearen gaia aztertuz gero, ikus daiteke gizonak emakumeak baino gehiago igotzen direla mailaz, baina ezberdintasuna ez da oso hautemangarria. Bai emakumeek bai gizonak diotenez, igoeraren arrazoia, pilatu duten esperientzia izan da, batik bat. Emakumezkoen kasuan, igotzeko bigarren arrazoia gaitasun pertsonal eta sozialak dira; gizonzkoen kasuan, ordea, gaitasun teknikoak izango litzateke bigarren arrazoia. Inoiz igo ez diren emakumeen %43,7k eta gizonen %36,1ek, gehien bat, esaten du inoiz ez zaiola horretarako aukerarik eman.
- Adierazi behar da ere, aldi baterako laneko enpresa batean lan egiten duten elkarrizketatuen ehunekoak, industria eta zerbitzuetan kokatzen dela.
- Normalean 25 - 54 urte bitartean igotzen da mailaz, pilatutako esperientziari esker.
- Egungo enpresan inoiz mailaz igo diren pertsonen ikasketa-mailari dagokionez, azpimarratu behar da igoeren ehunekorik altuena, bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonena da. Nabaria da unibertsitateko prestakuntza daukaten emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea: horrelako prestakuntza duten gizonen %24,8, asko edo zertxobait igo dira euren enpresan, emakumeak %43,5 diren bitartean.
- Mailaz gehiago igo den lanbide kategoria, langile kualifikatuena dela -%35,7 emakumeen kasuan, eta %43,5 gizonen kasuan-, eta kategoria honetan, gehienek daukate bigarren mailako ikasketak. Erdi-mailako kargudunen kategoria, ordea, gutxien igo dena da.
- Inkesta erantzun duten langile gehienek diotenez, asteko 35 eta 40 ordu bitarteko lanaldia egiten dute; horrela baieztatzen du emakumeen %67,9k eta gizonen %70,7k. Gizonen artean, 40 ordutik gora lan egitea ohikoagoa da, emakumeen artean baino. Azken hauen kasuan, berriz, 21-35 bitarteko lanaldia ohikoagoa da.
- Gehien zabaltzen den lanaldia zatitua da. Bai gizonen artean, bai emakumeen artean, bigarren lanaldi-mota goizeko lanaldi jarraia da; eta langile gutxienean daukatena, gaueko lanaldia. Normalean, inkesta egin duten pertsonak bestelako ordutegiak daukatela erantzun dutenean, adierazi nahi dute euren lanaldia ez dagoela definiturik, aldakorra dela baizik; esate baterako, lanaldi zatitua eta, batzuetan, konbinatu daiteke, goizeko, arratsaldeko edo gaueko lanaldi jarraiarekin; konbinaketa anitzak daude.



- Inkesta egin duten langileen %90ek, gutxi gora behera, emakumeen zein gizonen kasuan, esaten du ez duela txanda aldatzen. Aldatzen dutenek diotenez, txanda astero edo hamabostero aldatzea da ohikoena.
- Larunbat, igande eta jaiegunetan lan egitea, ez da oso ohikoa, batez ere, igande eta jaiegunetan lan egiteaz hitz egitekotan. Hala ere, azpimarra daiteke horrelako egunetan lan egin behar dutela dioten gehienek, merkataritzan eta ostalaritzan dihardutela.
- Lan ordutegiaren zurruntasun edo malgutasunari dagokionez, enpresa gehienetan ordutegiak zurrunak dira, lanera sartu eta lanetik irteteko ordutegi finkoarekin. Elkarrizketatuen artean, ordutegia egokitzeko aukera dutenek edo sartu eta irteteko orduak hautatzeko aukera dutenek, merkataritzan eta ostalaritzan dihardute, gehien bat.
- Inkesta egin duten langileen erdiak gutxi gora behera, ez du lanaldia luzatu behar, normalean. Gainerako langileek lanaldia luzatzen dute, ohiko eran; emakumeen %24,4k ordainik gabe egingo luke; %19,9k, ordea, diru eta/edo aisialdiaren truke egingo luke. Lanaldia luzatzen duten gizonen %29,3k, diru eta/edo aisialdiaren truke egiten du; %24ek, ordea, inolako ordainik jaso gabe egiten du.
- Lan-gainkarga da arrazoi nagusia, lanaldia luzatzen duten pertsonen esanetan. Inkesta erantzun duten langileek emandako beste arrazoiaren artean, trafikoa, lan-bidaia, bilerak e.a. daude.
- Industria eta zerbitzuen sektorean inkesta egin duten langile gehienek adierazten dute bere enpresak ez duela aintzat hartzen "telelanaren" aukera. Baimentzen duten enpresek, berriz, era positiboan baloratzen dute; horrela baieztatzen du emakumeen %3,8k eta gizonen %4,7k.
- Etxeko lanak egiten dituen pertsonaz galdetzen bada, ezberdintasun adierazgarria dago emakume eta gizonen artean. Emakume askok beraiek direla dioten bitartean -eta hori indartzen da kontutan hartzen bada gizonen %25,9ren ustez, bikotekidea dela-, gizonek lana partekatzen dute beste senide batzuekin. Etxeko lanetarako erabiltzen diren orduen maiztasunean igarritako ondorioak frogatzen duenez, emakumeek, oraindik ere, "lanaldi bikoitza" daukate eta etxea zaintzearen ardura bereganatzen dute.
- Oro har, esan daiteke inkesta erantzun duten pertsona guzti-guztiek 6-8 ordutan zehar lo egiten dutela, emakumeen zein gizonen kasuan; baina ezin da ahaztu pertsona ehuneko batek 6 ordu baino gutxiagotan egiten duela lo, kontutan izanik gainera, lanaldiaren erdian arreta-maila altua mantendu behar duela.
- Etxean egiten ohi zuten lan kopuruari buruzko iritzia eskatu zitzaion; emakume gehienek "normala" erantzun zuten eta, jarraian, "asko", "gutxi" eta "gehiegizkoa" erantzun zuten. Gizonen iritziz, ordea, egiten ohi duten lan-kopurua "normala" da eta, jarraian, "asko", "gutxi" eta "gehiegizkoa" dela diotenak egongo lirarteke.
- Norberaren zaletasunetan aritzeko behar adinako denbora pertsonala izateari dagokionean, emakumeek zein gizonek adierazten dute batzuetan egin ahal izan dutela; baina desberdintasuna "beti" egin ahal izatean dago: alderdi honetan, gizonek, emakumeei aurrea



hartzen diete ia 10 puntutan. Horren arrazoia izan daiteke etxeko lanetarako erabiltzen zen ordu kopuruaren inguruan goian azaldutakoa, emakumeek 3 ordu gehiago ematen baitituzte.

- Emakumeek aisialdia erabiltzen dute, batez ere, lagunekin egoteko, ekintza fisikoetan, irakurtzean eta irratia entzutean edo telebista ikustean. Gizonek, beren aldetik, aisialdian dituzten zaletasunak, ariketa fisikoa, lagunekin egotea eta irratia entzutea edo telebista ikustea dira.
- Azpimarratu behar da inkesta erantzun duten langileen iritzia, gehienbat, hartzen dela, lana planifikatu eta antolatzeko, eta bere kalitatea ikuskatzeko.
- Badira bide ezberdinak iradokizunak aurkezteko edo langileengan eragina duten erabakietan parte hartzeko; hala nola, nagusiekin zuzenean hitz egitea, iradokizunak egoteko buzoia, kalitate-zirkuluak, langileen ordezkariak edo bilerak. Nagusiekin zuzenean hitz egitea hobekien baloratzen dena da. Inkesta erantzun duten pertsonen erdiak aipatzen duenez, euren enpresetan ez dago iradokizunak egiteko buzoirik edo kalitate zirkulurik. Langileen ordezkariak dagokienez, emakumeen %46,9ren esanetan, ez dago horrelako ordezkariarik; gizonen %41,7k, ordea, tresna hori ongi baloratzen du.
- Azkenik, langileen bilerak aztertuz gero, emakumeen %40,5ek esaten du ez dagoela, baina %37,5ek baloratzen du ongi daudela. Halaber, gizonen %37,9k ongi baloratzen ditu langileen bilerak, baina %34,8ren esanetan, ez dira existitzen.
- Inkesta egin duten langileek lantokian segurtasuna eta osasuna hobetzeko iradokizunik egin duten galdetu zaienean, gizonen erdiak baino gehiagok baieztatzen du noiz behin egin duela; horren aurrean, emakumeen erdiak baino gehiagok esaten du ez duela inoiz egin.
- Iradokizunak aurkeztu dituela baieztatzen duen elkarrizketatuen gehiengoak esaten duenez, iradokizun horiek aintzat hartuak izan dira.
- Emakumeen erdiak baino gutxiagok eta gizonen %55,8k baieztatzen du euren enpresan laneko arriskuen ordezkariaren bat dagoela.
- Laneko arriskuen prebentzioko ordezkariaren ebaluaketari dagokionez, irudi horren balorazioa nahiko positiboa dela ikusten da, bai emakumeen aldetik, bai gizonen aldetik. Ezberdintasunak nabariak ez izan arren, azpimarra daiteke emakumeek gizonen baino hobeto ebaluatzen dutela laneko arriskuen prebentzioko ordezkariaren irudia.
- Laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat egotearen inguruan galdetu zaienean, emakumeen %24,0k eta gizonen %30,8k baiesten du enpresan badagoela batzorde hori.
- Enpresan laneko segurtasun eta osasunerako batzordeak dagoela baieztatzen duten langileek, era positiboan ebaluatzen dute. Laneko prebentzioko arduradunaren balorazioan gertatzen den bezala, goian azaltzen zen moduan, ezberdintasunak adierazgarriak ez badira era, esan daiteke emakumeek gizonen baino hobeto ebaluatzen dutela laneko segurtasun eta osasunerako batzorde hau.



- Osasun azterketari dagokionean, gizonen %80,6k eta emakumeen %61ek baieztatzen du, azken 12 hilabeteetan, enpresak osasun azterketaren bat egin diola.
- Badira arrazoi ezberdinak, enpresetan osasun azterketak egiteko. Dena den, azterketen aldizkako izaera da arrazoi nagusia, azken 12 hilabeteetan azterketarik egin zaiela baieztatzen duten gizonen eta emakumeen esanetan. Osasun azterketa egiteko dauden beste arrazoien artean, estresa dago.
- Osasun azterketa egin ondoren, oro har, enpresek emaitzak idatziz jakin arazten dizkiete langileei; emaitzen berri emateko jarraian dagoen erarik ohikoena, ahozkoa eta idatzizkoa da.
- Azken urtean enpresak osasun azterketa egin diela baieztatzen duten langileen ustez, osasun azterketa hori baliagarria da. Lanarekin zerikusia duen gaixotasunik daukaten jakiteko behar diren frogak egin zaizkiela uste dute.
- Lanpostuan osasun edo segurtasunerako arriskuak aztertzea, lantokiek egiten ohi dituzten prebentzio-jardueretako bat izaten da. Emakumeek eta gizonak baieztatzen dute euren lantokian osasun edo segurtasunerako arriskuei buruzko azterlanak egin direla.
- Euren lantokian lanpostuko osasun edo segurtasunerako arriskuei buruzko azterlanik egin dela baieztatzen duten langileen esanetan, enpresako alderdirik aztertuenak honako hauek izango liriateke: lan-jarrerak, ahalegin fisikoak eta mugimendu errepikakorrak, zarata, lanpostuaren diseinua, instalazioen segurtasuna, giro termikoa eta makina, ekipamendu eta baliabideen segurtasuna. Eta gutxien aztertu direnak, ingurune misto berrietan emakume eta gizonen artean egon daitezkeen gatazkak, eta sexu-jazarpena, mobbing-a, lanaldi bikoitza e.a. bezalako alderdi soziolaboralak.
- Lantokiek bide ezberdinak erabiltzen dituzte langileei jakin arazteko zeintzuk izan diren lanpostuan osasun edo segurtasunerako dauden arriskuei buruzko azterlanen emaitzak. Gehien erabiltzen den bidea, idatzizkoa da. Hala ere, ezin da alde batera utzi, emaitza horien ahozko jakinarazpena eta, ere bai, ahozko eta idatzizko jakinarazpen konbinatua. Aipagarria da emakume eta gizon langileen ehuneko batek baieztatzen duela ez duela jaso azterlan horien emaitzarik.
- Emakumeak eta gizonak bat datoz esaten dutenean, egindako azterlanen ondoren hartu den neurri nagusia, instalazioak, makineria, ekipamenduak edo materialak aldatzea izan dela. Horrelako azterketen berri daukaten emakume langileen %44,3ren ustez, azterketen ondoren ezarri den neurria prestakuntza da. Euren aldetik, lanpostuan horrelako azterlanak egiten direla baieztatu diguten gizon langileen %49,2ren esanetan, norbera babesteko ekipamenduen aldaketa edo horniketa da egindako azterketen ondoren ezarri den beste neurri bat.
- Inkesta erantzun duten gizon gehienek norbera babesteko ekipamendurik erabili behar dute lanpostuan; emakumeen ehunekoa, berriz, txikiagoa da. Izatez, emakumeek baieztatzen dute babesteko ekipamendua erabiltzea ez dela beharrezkoa euren kasuan. Gizon gehiagok egiten du lana egunero, osasun edo segurtasunerako arriskuen eragin zuzen pean (esaterako, obretako langileak, argiketariak, mekanikariak, e.a.). Hori dela eta, gizonen ehuneko altuagoak ziurtatzen duenez, derrigorrezkoa da lantokian norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea.



- Babesteko ekipamendua erabili behar duten langileek baieztatzen dute eskularruak eta oinetako bereziak erabiltzea ohikoena dela, eta euren lantokian horien erabilera kontrolatu egiten dela.
- Inkesta erantzun duten eta norbera babesteko ekipamenduak erabili behar dituzten langile gehienek baieztatzen dute horrelako ekipamenduak euren tailuarekin bat datozela. Horrelako ekipamenduak emakume haurdunei egokitzen zaizkien galdetuz gero, emakumeen %45,9k dio egokituta daudela eta gizonen %35,6k ukatzen du horrelako egokitzapenik dagoenik.
- Emakume eta gizonen erdiak baino gehiagok esaten du, azken 12 hilabeteetan, gaurko edo aurreko enpresak eskaini duen ikastaro edo hitzaldi batera joan dela. Hala ere, inkesta erantzun duten langileen ehuneko altu batek baieztatzen du azken urtean ez diotela eman inolako prestakuntzarik (emakumeen %47,1 eta gizonen %41,2).
- Prestakuntza jarduerak orientabide anitzak izan ditzake. Enpresaren aldetik prestakuntza hartu duten emakumeen %79,6k eta gizonen %71,3k baieztatzen dutenez, lanpostuaren inguruko prestakuntza teknikoa zen. Bakarrik emakumeen %12,1ek eta gizonen %13,9k adierazten du hartu duen prestakuntza norberaren garapenera zuzenduta zegoela.
- Horrelako prestakuntza hartu duten langile gehienak bat datoz baieztatzen dutenean prestakuntzaren helburua, lana egiteko beraien trebakuntza hobetzea edo eguneratzea zela. Langileen ehuneko baxu baten esanetan, prestakuntzaren helburua lan berriei ekiteko trebatzea zen. Azpimarratu behar da gizonek -emakumeek baino gehiago- azaltzen dutenez, prestakuntza jarduerak, laneko arriskuen prebentzioari buruzko ezagutzak hobetzeko edo eguneratzeko xedea zeukala. Lantokian trebakuntza hartu duten langileek aipatutako beste batzuk honako hauek dira: lehen laguntzei buruzko ikastaroak, hizkuntzak ikastekoak, ingurumenaren inguruko ikastaroa, lan arloko eskubideei buruzko hitzaldiak edo osasun eta segurtasunari buruzko prestakuntza, hain zuzen ere.
- Oro har, prestakuntza jarduera hau lan ordutegiaren barruan antolatzen da; horrela baieztatzen dute enpresak antolatutako prestakuntza jardueraren batera joan diren gizon-emakumeek.
- Emakume eta gizon gehienek ukatzen dute horrelakoen biktima izana. Indarkeria-motaren bat sofritu dutela baieztatzen duten pertsonen ehunekoa aski baxua bada ere, komeni da honako hau argitzea: inkesta erantzun duten langileek, lantokitik kanpoko pertsonen aldetik indarkeriazko jokabideak pairatu dituztela baieztatzen dutenean, agian, horrela, adierazten dute, galderak azaltzen duen moduan, lantokitik kanpoko pertsonak direla, edo pertsona horiek norberaren bizitzarekin identifikatzen dituztela, horrela azterlana okerra izanik.
- Gizon zein emakumeen kasuan, gutxiengoak ziurtatzen du lankideei ez zaizkiela komunikatzeko zailtasunik jarri; ez dituzte mehatxatu edo ez zaiela ospea zikindu, pertsonalki edo profesionalki. Emakumeen ehuneko baxu batek baieztatzen du, urtean zehar, zenbaitetan, lankideren baten izena zikintzen dutela, pertsonalki edo profesionalki. Beste alde batetik, gizonen %2,6k esaten du bere lankideei komunikatzeko zailtasunak jartzen zaizkiela, urtean zehar zenbait aldiz.
- Lankideak berak dira lan-ingurunean indarkeriazko jokabideak aurkezten direnak, gehienbat, eta, batez ere, emakumeen kasuan.



- Osasunari dagokionez, inkesta erantzun duten langile gehienek ustetan, euren osasuna ona da; horrela baieztatzen du emakumeen %94,4k eta gizonen %90,9k.
- Emakumeen %20,3 eta gizonen %19,8 bajaran egon da azken 12 hilabeteetan, osasun arazoren batengatik.
- Azken urtean bajaran egon diren emakumeek baieztatzen dute bere baja lanarekin zerikusirik ez duten gaixotasunengatik izan dela; %12,2k, ordea, esaten du bajaran egon dela lanekoak ez diren istripuengatik. Lan-arrazoiengatik -lan-istripuengatik, arrazoi soziolaboralengatik, lan-kargarengatik e.a.- bajaran egon direla ziurtatzen duten emakumeen ehunekoa, %18,3 da. Bajaran egon diren gizonen ehuneko adierazgarri baten esanetan (%21,9), lan-istripuengatik izan da. Gainera, %9,6k dioenez, lan-kargarengatik izan da.
- Emakumeen %46,8k ziurtatzen du bere bajak aste bete baino gutxiago iraun duela; gizonen %52ren esanetan, ordea, baja aste 1 - hilabete 1 bitartekoa izan da. Ezberdintasuna dago, bajaren iraupena 3 hilabete baino gehiagokoa izan dela baieztatzen duten gizonen artean. Emakumeen ehuneko altuago batek (%7,8) adierazten du 3 hilabete baino gehiagoko baja izan duela; gizonen ehunekoa, ordea, %2,9 da. Gainera, emakumeen %24,7k esaten du bere baja hilabete 1 - 3 hilabete bitartekoa edo hiru hilabete baino gehiagokoa izan dela, gauza bera baieztatzen duten gizonen aurrean.
- Emakumeen %23,1ek eta gizonen %19,9ek ez dute gaur egun erretzen, baina lehen erretzen zuten. Erretzen duten emakumeen %37,5etik, %32,1ek egunero erretzen du eta %5,4k eguneari behin baino gutxiagotan erretzen du.
- Inkesta erantzun duten eta erretzaileak direla dioten langileen artean, egunero erretzen ohi duten zigarro kopurua, 11-20 bitartekoa da. Erretzen duten langileek -gizonek zein emakumeek- gaur egun erretzen dutena eta orain dela sei hilabete erretzen zutena konparatzen badute, gehienek, lehen erretzen zuten beste erretzen dute gaur egun.
- Azken urtean inoiz erretzeari uzten saiatu diren galdetu zaienean, inkesta erantzun duten erretzaileen ehuneko baxu batek esaten du saiatu egin dela.
- Emakumeen artean, honako sintoma hauek ohikoagoak dira: gaizki lo egitea, eten gabe nekatuta egotea, edo buruko minak edukitzea. Gizonak bat datoz emakumeekin lehenengo bi sintometan, baina gizonek gehien aipatzen duten hirugarren sintoma, buruko minak izan beharrean, begietako arazoak dira. Emakumeek gutxien aipatzen duten sintoma kontzentrazioaren arazoa da; gizonen kasuan, ordea, gutxien ematen dena zorabioak izatea da.
- Emakume eta gizon langileen ehuneko altu batek ziurtatzen du inoiz ez diotela diagnostikatu arteria-presio alturik.
- Bizitza sexualaren arazoei dagokienez -hala nola, inpotentzia, frigidotasuna, libidoaren urritzea...- emakume eta gizon gehienek baieztatzen dute azken urtean ez dutela inolako arazorik somatu.
- Emakume langileen %44,1en eta gizonen %35en esanetan, azken 3 urteetan ez dute erabaki seme-alabarik izatea. Horretan saiatu diren langileetatik, ehuneko txiki batek aitortzen du arazoren bat izan duela; hala nola, haurdun geratzeko zailtasuna, abortuak edo denbora gabeko erditzeak, edo osasun-arazoren bat duten umeak.



- Minaren aurkako analgesikoak, inkesta egin duten langileek gehien hartu dituzten sendagaiak dira; emakumeen %31,5ek eta gizonen %17k azken bi asteetan hartu izan dituzte. Gehien erabiltzen diren bigarrenak, antiinflamatorioak dira, arazo artikular edo erreumatikoei aurre egitekoak. Aipagarria da erantzunik ematen ez dutenen ehuneko altuak badaukala arrazoiak: item honetan biltzen direla, bai erantzunik eman ez duten pertsonak, bai azken bi asteetan botikarik hartu ez dutenak.
- Azken urtean, bai emakumeek bai gizonak baieztatzen dute ez zutela medikuarengana joan behar izan, inolako arazo, ondoez edo gaixotasunengatik.
- Azken urtean sendagilearen kontsultara joan direla esan duten emakume eta gizon gehienak, ez dira joan lanaren ondorioz sortutako arazoengatik. Hala ere, emakumeen %13k eta gizonen %12,1ek dioenez, urtean behin joan da medikuarengana, lanaren ondorioz sortutako osasun-arazoengatik. Sendagilearen kontsultara lanaren ondorioz sortutako arazoengatik joan diren pertsonak azpimarratzen dutenez, kontsulta horien arrazoi nagusiak honakoak ziren: bizkarretako mina eta beso, ukondo, besaurre, eskumutur edo eskua bezalako goiko gorputz-adarreko mina, hain zuzen. Kontsulta eskatu arazi zieten beste arrazoietako bat, buruko mina da.
- Inkesta erantzun duten emakume eta gizon gehienek esaten dutenez, azken bi urteetan ez dute laneko istripurik izan. Lan-istripu bat izan dutela baieztatzen duten emakumeen esanetan, istripuaren edo istripuen arrazoi nagusia gehiegizko konfidantza edo aztura izan zen; jarraian ematen dituzte lanean esperientzia-falta, trafikoa eta segurtasun-neurriak behar bezala ez erabiltzea. Lan-istripua izan duten gizonen ustez, emakumeen kasuan bezalaxe, istripuaren edo istripuen arrazoi nagusia gehiegizko konfidantza edo aztura izan zen. Gainera, euren ustez, horrelako istripuen arrazoiak, lanean egindako ahaleginak edo hartutako jarrera derrigortuak, eta egin behar dituzten eragiketa arriskugarriak dira.
- Nolabaiteko lanbide-gaixotasunaren diagnostikoa daukan edo aitortpena tramitatzen ari den langileen ehuneko txikiari dagokionez, emakume gehienek diote hezurretako, muskuluetako edo artikulazioetako gaixotasunak direla; gizon gehienek esanetan, ordea, hipoakusia/gortasuna da.
- Emakumeen kasuan, lantokiko alderdirik desegokienak honako hauek dira: soldata, mailaz igotzeko aukera txikiak, lan egiteko hartu behar duten jarrera eta monotonia. Gutxi baloratzen dituzten alderdiak, langileengan eragina izan dezaketen kutsatzaile kimikoak, istripua izateko arriskua eta lanpostuan egin behar den ahalegin fisikoa.
- Emakumeen kasuan bezalaxe, gizonak gehien eragozten dituzten alderdiak, soldata, lanbide aintzatespenik ez egotea eta mailaz igotzeko aukera txikiak dira. Neurri txikiagoan, honakoak aipatzen dituzte: langileengan eragina izan dezaketen kutsatzaile kimikoak, enpleguaren ezegonkortasuna eta beste pertsona batzuekiko komunikaziorik ez egotea, hain zuzen.
- Inkesta egin duten langileek lan-baldintzekiko duten gogobetetze-maila aztertuz gero, oro har, bi sexuak nahiko pozik daude.

**LANGILEEI BURUZKO
TXOSTENA
MERKATARITZA -
ABELTZAINITZA SEKTOREA**

AURKIBIDEA

1. SARRERA	145
2. AZTERLANAREN XEDE DEN LAGINAREN PROFILA.....	146
3. LAN MOTA	149
4. INSTALAZIOAK	150
5. MAKINERIA ETA ERREMINTAK	151
6. ARRISKU FISIKOAK	154
7. ARRISKU FITOSANITARIOAK.....	155
8. SEGURTASUN BALDINTZAK	157
9. LANPOSTUAREN DISEINUA.....	157
10. LAN-KARGA	159
11. KOMUNIKAZIOA	160
12. AUTONOMIA – STATUSA	160
13. PREBENTZIO JARDUERAK	162
14. PRESTAKUNTZA, INFORMAZIOA	162
15. OSASUNERAKO KALTEAK.....	163
16. BIZIKIDETZA EGOERA	166
17. ONDORIOEN LABURPENA	169

TAULEN AURKIBIDEA

1. TAULA: BIZIKIDETZA EGOERA	146
2. TAULA: NEKAZARITZA EKOIZPENA	149
3. TAULA: ABELTZAINZA EKOIZPENA	149
4. TAULA: ETXEAREN ETA LANPOSTUAREN ARTEKO GUTXI GORABEHERAKO IRAUPENA	150
5. TAULA: ABELTZAINZA ETA NEKAZARITZAKO INSTALAZIOAK	151
6. TAULA: TRAKTOREAREN EKIPAMENDUA	152
7. TAULA: NEKAZARITZAKO MAKINAK ERABILTZEA Uzta-makina autopropultsatuak	152
8. TAULA: NEKAZARITZAKO MAKINAK ERABILTZEA Motomakinak.....	152
9. TAULA: NEKAZARITZAKO MAKINAK ERABILTZEA Atoiak.....	153
10. TAULA: NEKAZARITZAKO MAKINAK ERABILTZEA Makina trakto-bultzatuak	153
11. TAULA: NEKAZARITZAKO MAKINAK ERABILTZEA Makina elektrikoak	154
12. TAULA: LANEKO ARRISKUAK.....	157
13. TAULA: LANEKO ARRISKUEN ARRAZOIAK	157
14. TAULA: LANEAN EMAN OHI DIREN EGOERAK.....	158
15. TAULA: BABES GAILUAK ERABILTZEA.....	162
16. TAULA: BANAKAKO BABES NEURRIAK	162
17. TAULA: TABAKOAREKIKO JARRERA	164
18. TAULA: ZIGARRO KOPURUA EGUNEAN	164
19. TAULA: OHIKO SINTOMAK	164
20. TAULA: BISITA MEDIKOAK.....	166
21. TAULA: LAN ISTRIPUAREN ARRAZOIAK	166
22. TAULA: ETXEAN BIZI DIREN SEME-ALABEN ADINAK.....	166
23. TAULA: ETXEKO LANAK	167

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. GRAFIKOA: AZTERLANAREN XEDE DIREN LANGILEEN SEXUA.....	146
2. GRAFIKOA: ADINA	146
3. GRAFIKOA: LANGILEEN IKASKETA MAILA	147
4. GRAFIKOA: FAMILIAREN LAGUNTZA	147
5. GRAFIKOA: ETXERA DIRU GEHIEN EKARTZEN DUEN PERTSONA	148
6. GRAFIKOA: OPORRAK.....	148
7. GRAFIKOA: NEKAZARITZAN ARITUTAKO URTE KOPURUA.....	150
8. GRAFIKOA: TRAKTOREA.....	151
9. GRAFIKOA: LANPOSTUAREN KOKALEKUA	154
10. GRAFIKOA: LANPOSTUKO HEZETASUNA	155
11. GRAFIKOA: PRODUKTU KIMIKOAK.....	156
12. GRAFIKOA: LAN OHIKOENETAKO JARRERAK	159
13. GRAFIKOA: KOMUNIKAZIOA OZTOPATZEN DUTEN ALDERDIAK.....	160
14. GRAFIKOA: TABAKOAREKIKO JARRERA	161
15. GRAFIKOA: IKASTAROAK EGITEA	163
16. GRAFIKOA: OSASUN EGOERA SUMATZEA	163
17. GRAFIKOA: SENDAGAIK HARTZEA	165



1. SARRERA

Lehenik eta behin, adierazi behar da 2 emakumezko eta 10 gizonzko osatzen zuten laginaz lan egin dugula. Kopurua txikia da, izan ere, beren mundua oso txikia da berez, gainerako sektoreekin alderatuta.

Hala ere, sektore horretan lan egiten duten langileek bere lanpostuan dituzten laneko baldintza, arrisku eta arazoei buruzko ideia egin dezagun ahalbidetzen du lagin horrek. Lagina, ere berean dago banatuta Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban.

Nekazaritza eta abeltzaintzaren kasuan, langilearentzako galdeketa bakarra egin dugu, gehienetan, langilea bera baita enpresaburuaren edo langilearen zeregina betetzen duena.


Galdeketak hamaika dimentsio ditu, eta dimentsio horien azpian laneko alderdirik garrantzitsuenen eta langileek garatzen dituzten jardueretatik eratorritako arriskuen inguruan sakontzen saiatu gara. Dimentsio horien arabera garatu dugu txostena.




2. AZTERLANAREN XEDE DEN LAGINAREN PROFILA

10 gizonezko eta 2 emakume esku hartu dute. 5 gizon 16 eta 24 urte bitartekoak ziren, eta gainerakoak, 25 urtetik gorakoak. Emakumezkoak, ordea, 25 eta 44 urte bitartekoak ziren.

1. GRAFIKOA: AZTERLANAREN XEDE DIREN LANGILEEN SEXUA



2. GRAFIKOA: ADINA



Bizikidetza-egoerari dagokionez, emakume guztiak bikotearekin bizi dira, eta berdin 6 gizonezko, baina gainerako gizonak gurasoekin bizi dira.

1. TAULA: BIZIKIDETZA EGOERA


	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Bikotearekin	2	6
Beste batzuk	-	5
Guztira	2	10



Baliteke sektore honetan lan egiten duten langile gehienak ikasketarik ez duten pertsonak direla pentsatzea, baina emaitzek, ez diote gauza bera. Gizonezko hiru langilek eta emakumezko batek baino ez dute onartu ikasketarik ez dutela.


Bestalde, gainerako zortzi langileek batxilergo edo LH II mailako ikasketak egin dituzte.

3. GRAFIKOA: LANGILEEN IKASKETAK MAILA



Langileetatik bederatzik normalki lanean familiaren laguntza izan ohi duela baieztatu du. Horretaz gainera, langile horiek ez dute soilik familia kide 1 edo 2, baizik eta 3 edo gehiago izan ohi dute beraiekin zereginik gogorrenak banatzeko, adina alde batera utzita. Egiaztatu da, egiaztatu, askotan emakumea edo seme-alabak (berdin batzuk ala besteak) direla izaten direla zeregin hauetan laguntzen dutenak. Izan ere, inkesta gehienetan gizonezkoak erantzun badu ere (hamabi langileko laginean hamar gizonezko), azpimarratzekoa da emakumezkoak soroan zeregin kopuru handian laguntzaile gisa duten zeregina.


4. GRAFIKOA: FAMILIAREN LAGUNTZA






Inkesta erantzun duten pertsonen artean, emakume biek onartzen dute beraiek direla, beste pertsona batekin, etxera diru-sarrerak erdibana ekartzen dituztenak, eta gizonezkoen kasuan, guztietatik lauk beste pertsona batek ekartzen duela erantzun dute, eta gainerako seiak eurak direla diru gehien ekartzen dutenak.

5. GRAFIKOA: ETXERA DIRU GEHIEN EKARTZEN DUEN PERTSONA



Inkesta erantzun duten pertsonak jakitun dira beren egoera ezberdina dela beste sektoreekin alderatuz, egunean lanean ematen duten ordu-kopurua oso handia baita. Gainerako sektoreetan ez bezala, ez dute alde aurretik ezarritako eguneko 8 orduko lanaldia eta sarritan gauzez eta egunez aritzen dira lanean. Gaineratu behar da, halaber, gehienek ez dutela oporrik izaten (oporrak ohiko etxebizitzetatik irtetea bezala ulertuta) eta oporrak edukitzeko aukera izan duten hiru langileetatik batek baino ez ditu izan 20 egunetik gorako oporrak.

6. GRAFIKOA: OPORRAK





3. LAN MOTA

Aztertu beharreko bi jarduera nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza dira, baina abeltzain baina nekazari gehiago dago. Langile guztiek ez dute ustiapen azalera bakarra erabiltzen, izan ere, ekoizpenaren arabera, bat edo gehiago erabiltzen dituzte.

2. TAULA: NEKAZARITZA EKOIZPENA

	< 1 Ha		1-5		> 5 Ha		EE	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Zerealak, larreak, bestelakoak		4	1	2			1	4
Barazkiak		1					2	9
Negutegiak (Barazkiak, loreak, mintegiak)			1	3			1	7
Mahatsondoa				1			2	9
Olibondoa	1	1					1	9
Fruta-arbolak	1	2					1	8

Olibondoak, fruta-arbolak, baratzekoak... ekoizteko hektarea batetik beherako azalera txikiak erabiltzeko dituzte; baratzekoak, haztegiak, laboreak eta larreak... ekoizteko, ordea, hektarea batetik gorako azalera behar dira.

Abeltzaintzako langile gehienek 20 burutik beherako abelgorri taldeak hazten dituzte, emakumeetako batek 20 burutik beherako ardi-azienda hazten du, eta gizonen arteko bik 1.000 burutik beherako hegazti-hazkuntza daukate.

3. TAULA: ABELTZAINZA EKOIZPENA


	EKOIZPENA		EE	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Esne-behiak		4 (<20b)	2	6
Haragitarako abelgorriak		2 (<20bc)	2	8
Ardi-azienda	1 (<20b)		1	10
Loditzeko hegazti-hazkuntza		1 (<1.000b)	2	9
Erruteko hegazti-hazkuntza		2 (<1.000b)	2	8

Langileek ustiapen bakarrean egiten dute lan, eta inkesta erantzun duten hamabi langileetatik hamarrek ustiapen horri eskaintzen diote arreta osoa, horietatik batek, berriz, noizean behin beste ustiapenetan lan egiten duela onartu du. Pertsona guztiek onartu dute nekazaritza edo abeltzaintzan soilik jarduten duela.

Ez emakumezkoek, ezta gizonzkoek ere ez diote inoiz jardueran lan egiteari utzi. Emakumeek 15 urte baino gehiago daramate sektorean lanean, eta gizonen artean, ordea, 4k adierazten dute 5 urte baino gutxiago daramatela, eta gainerakoek, urte gehiago (15 urte baino gehiago).



7. GRAFIKOA: NEKAZARITZAN ARITUTAKO URTE KOPURUA



Inkesta erantzun duten langileetatik ia erdia dago afiliatuta langile bezala dituzten interesak defendatzen dituzten entitateetan. Horietatik bost kooperatiba, LTZ sozietate eta bestelakoetan afiliatuta daude, eta erdiak baino gehiagok, berriz, ez du ordezkapenik inolako erakundetan.

4. INSTALAZIOAK

Nekazaritza eta abeltzaintzako lanpostuak, normalean, langileen etxeetatik oso gertu izan ohi dira. Azterlanean esku hartu duten pertsonen galdera hau egin zitzaizenez, emakume guztiak adierazi zuten etxetik 20 minutuko distantzia ere ez zegoela. Gizonezkoen artean, ordea, bik 20 minutu baino gehiago zegoela erantzun zuten, eta gainerako guztiak, 20 minutu baino gutxiago. Abeltzaintza-sektorean, eskuarki, etxe kanpoan izaten dituzten animalien barrutiak, eta ez dira beste leku batzuetara joaten; izan ere, inkesta erantzun duten hiru pertsonen esaten dutenez, 10 minutu ere ez dute behar heltzeko.

4. TAULA: ETXEAREN ETA LANPOSTUAREN ARTEKO GUTXI GORABEHERAKO IRAUPENA

	Emakumeak	Gizonak
10 minututik behera	1	2
10 eta 19 minutu bitartean	1	6
20 minututik gora		2

Kasu gehienetan (4 gizonezko eta emakumezko 1ek) autoa erabili ohi dute, ondoren traktorea (5 gizonezkoek) eta gainerakoak (emakume 1 eta gizon 1) oinez joaten dira. Beraz, askotan, etxean bertan dute lanlekua.

Langileen etxebizitza bera bihurtzen da. Kasu gehienetan etxeetako etxabeak laneko makineria eta tresnak gordetzeko erreminten "tailer" bihurtzen dira. Etxabeen azalera etxearen araberakoa izan ohi da, kasu gehienetan 100 m²tik beherakoa izaten dela. Bazka zein pentzuak biltegitratzeko erabiltzen diren siloei dagokienez, bertikalean daude biltegitratuta.



5. TAULA: ABELTZAINZTA ETA NEKAZARITZAKO INSTALAZIOAK

		MAIZTASUNAK		EE	
		Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
BILTEGIA, MAKINERIA ETA ERREMINTAK	Etxebizitzetako etxabeak	1	5	1	5
	Bestelakoak				
ABELTZAINZAKO INSTALAZIOAK	Etxebizitzetako etxabeak			1	5
	Bestelakoak	1	5		
SILOAK	Bazka bertikalean		1		
	Bazka zangetan			2	9
	Bazka ganbaretan				
	Pentzuak bertikalean	1	1		
	Pentzuak zangetan			1	9
	Pentzuak ganbaretan				


Abeltzaintzako instalazioekin gauza bera gertatzen da. Inkesta erantzun duten abeltzaintzako bik 200 m²tik gorako eremu edo barrutiak erabiltzen dituzte ukuilu bezala. Gainerakoek, 101 eta 200 m² bitartekoak. Eraikin horietatik asko 2001etik aurrekoak dira, bai makineria eta erreminta biltegiei, bai instalazioei dagokienez, eta gehien aipatutako eraikuntza-data 1988 da.

5. MAKINERIA ETA ERREMINTAK

Nekazaritza-sektoreko pertsonen artean traktorea izan ohi da gehien erabiltzen den makineria-mota, eta ez soilik laneko tresna gisa, baita, gorago ikusi bezala, etxetik lanera joateko garraiobide gisa ere.

Gehienetan traktore bakar bat erabiltzen da lana egiteko, eta oso gutxi dira bat baino gehiago erabiltzen dutenak.

8. GRAFIKOA: TRAKTOREA



Traktorea duten zortzi langileek 600 kilotik beherakoak izan ohi direla adierazi dute, eta 600 kilotik gorakoak badira, portale, kabina edo segurtasun-arkua izan ohi dute.



6. TAULA: TRAKTOREAREN EKIPAMENDUA

	Traktore 1	2 traktore baino gehiago	ED/EE
Bai, 600 kg-tik beherakoa da	1		9
600 kg-tik gorakoa, portalearekin	4		6
600 kg-tik gorakoa, kabina edo segurtasun-arkuarekin		2	8
600 kg-tik gorakoa, homologatu gabeko kabinarekin			-
600 kg-tik gorakoa, kabinarik gabe	1		9

Traktore horiek erosteko orduan, amortizatuko dituzten ala ez izan ohi dute kontuan. Azalera txikietarako eta dedikazio erabatekoa edo egunerokoa ez denean, normalean erabilitako traktoreak erosi ohi dituzte langileek; ustiapen azalera handietarako bada eta bertan traktorea egunera erabiltzen den tresna bada, ordea, traktore berriak erosi ohi dituzte, hobeto amortizatu ahal izateko.

Traktoreez gain, lehen sektorean erabili ohi diren hainbat makina eta erreminta daude. Bost taldetan sailka ditzakegu: Uzta-makina autopropulsatuak, Motomakinak, Atoiak, makina trakto-bultzatuak eta Makina elektrikoak.

Langile bakoitzak ez du zertan makineria-mota bakarra erabili behar, alderantziz, normalean askotariko makinak izan ohi dira, horietako batzuk besteak baino gehiago edo sarriago erabili arren.

Uzta-makina autopropulsatuen artean, zerealetarakoak erabiltzen omen dira gehien, gizonezkoen kasuan.

7. TAULA: NEKAZARITZAKO MAKINAK ERABILTZEA

Uzta-makina Autopropulsatuak

	Emakumeak	Gizonak	EE
Zerealak	-	5	7
Bazka	-	-	12
Bestelakoak	-	-	12

Bigarrenik, berriz, motomakinen artean, erabiltzeko makinan aniztasun handiagoa dago, esaterako: motokultorea, motoaitzurra, motozerra, motoponpa eta ekipo elektrogenoa. Batez ere nekazaritza-ustiapen txikietan erabiltzen diren makinak dira.

8. TAULA: NEKAZARITZAKO MAKINAK ERABILTZEA

Motomakinak

	Emakumeak	Gizonak	EE
Motokultorea	1	8	3
Motoaitzurra	2	6	4
Motosega	2	10	-
Motozerra	2	10	-
Motoponpa	2	9	1
Ekipo elektrogenoa	1	9	2

Atoien kasuan, gehien erabiltzen direnak, ardatz batekoak edo bikoak eta, ardatz baskulagarri batekoak edo bikoak dira.



9. TAULA: NEKAZARITZAKO MAKINAK ERABILTZEA

Atoiak

	Unitate 1	2 unitate
Ardatz-zenbaki bat	5	8
Ardatz baskulagarri bat	2	10
Bi ardatz-zenbaki	3	9
Bi ardatz baskulagarri	2	10

Makina trakto-bultzatuei dagokienez, rotabatorea, ongarrizeko makina eta iraultzeko eskuarea, sega-makina birakaria edo haga eta tratamendu-andela, siloratzeko makina, paketatze makina eta zisterna dira gehien erabiltzen diren tresnak.

10. TAULA: NEKAZARITZAKO MAKINAK ERABILTZEA

Makina trakto-bultzatuak

	Emakumeak	Gizonak
Ongarrizeko makina	2	4
Tratamendu-andela	1	3
Ereiteko makina	-	-
Rotabatorea	1	4
Sega-makina birakaria edo haga	-	2
Bazka egokitzeko makina	-	-
Iraultzeko eskuarea	1	3
Errenkadak egiteko eskuarea	-	-
Siloratzeko makina	-	1
Paketatzeko makina	-	3
Errota	-	-
Errota – Nahasgailua	-	-
Prepodadota	-	-
Konpresorea	-	-
Zulatzeko makina	-	-
Zisterna	-	1
Almendrak zuritzeko makina	-	-
Egurra txikitze makina	-	-

Azkenik, langile horiek gehien erabiltzen dituzten makina elektrikoak, konpresorea, ekipo elektrogenoa, jezteko makina eta hozteko andela dira.



11. TAULA: NEKAZARITZAKO MAKINAK ERABILTZEA

Makina elektrikoak

	Emakumeak	Gizonak
Konpresorea	1	3
Ekipo elektrogenoa	-	3
Jezteko makina	-	3
Hozteko andela	1	1
Errota	-	-
Errota nahasgailua	-	-
Hautagailua	-	-
Kate amaigabea	-	-
Uhal garraiatzailea	-	-
Lehorgailua	-	-
Garia garbitzeko makina	-	-
Zikloi jasotzailea	-	-
Paka-jasogailua	-	-
Zulagailua	-	3
Esmerila	-	2
Desbarbadota	-	-
Soldagailua	-	4


Oro har, ikus daiteke gehienbat gizonetzkoek erabiltzen dituztela makina hauek.

6. ARRISKU FISIKOAK

Langilea zein arrisku fisikoren eraginpean dagoen, sektorearen arabera izango da. Aurreko txostenetan ikusi den legez, sektore bakoitzak eguneroko jardunean berezkoak diren zenbait laneko arrisku izatea du ezaugarri. Lanpostuaren arabera aldatu egiten dira.

Kasu honetan, nekazaria edo abeltzaina eguneroko jardunean zein arriskuren eraginpean dagoen jakin nahi izan dugu eta, neurririk badago, zein diren ere jakina nahi izan dugu.

9. GRAFIKOA: LANPOSTUAREN KOKALEKUA






Kasu gehienetan leku erdi itxietan lan egiten dute. Izan ere, bi emakumeek eta 7 gizonak lokal erdi itxietan lan egiten dute, eta gainerako 3 gizonak, normalean, aire zabalean edo kanpoan.

Temperatura, berriz, lanpostuaren araberakoa da. Neguan, kanpoan lan egiten dutenek, hotza dela-eta, lana egin behar izatea oso ezerosoa dela uste dute (3); udaran ere gauza bera gertatzen da, baina kasu horretan beroagatik da ezerosoa lan egitea. Hala ere, inkesta erantzun duten pertsona guztiek adierazi dute atseginagoa dela udan lan egitea, neguan baino. Gainerakoak, ziurrenik, erdizka itxitako lokaletako langileak dira, eta eroso daude bai neguan eta bai udan.

Hezetasun-mailari dagokionez, erantzunak honako bien artean daude banatuta: "gehiegizko hezetasuna" eta "orokorrean, nahiko egokia".

10. GRAFIKOA: LANPOSTUKO HEZETASUNA



Oro har, ez da uste lanpostua bestelako arrisku fisikoren eraginpean dagoenik, baina kasu gehienetan, hala emakumezkoek, nola gizonzkoek adierazten dute gehiegizko ahaleginek eta jarrera txarrek eragin diezaieketela.


Inork ez du erantzun bibrazioak edo gehiegizko zarata beraientzat arriskutsua izan daitekeela.

7. ARRISKU FITOSANITARIOAK

Inkesta erantzun duten langileen gehiengoak lanpostuan produktu kimikoak erabiltzen dituela onartu du.



11. GRAFIKOA: PRODUKTU KIMIKOAK



Produktu horiek erabiltzen dituztenen artean, erdiak baino gutxi batzuk gehiagok (3) produktu horietarako erreserbatutako lokal espezifiko batean edo lokal edo biltegi osagarri batean biltegitzen ditu. Hala ere, horietatik bik baino ez dituzte gordetzen erabilera espezifiko armairu batean; gainerako hiruek, berriz, horrelakorik egiten ez duela onartzen du.

Gehien aipatutako produktu kimikoen artean, honako hauek dira azpimarratzekoak:

Belar-pozoiak 9-150 litro artean kontsumitzen dira, hektareen azalaren arabera. Hornien hornitzaile nagusiak kooperatibak, dendak eta banatzaileak dira. Bigarrenik, fungizidak daude; horietatik 40 unitate inguru kontsumitzen dira eta hornitzaile nagusia Kooperatibak dira. Intsektizideetatik 70 unitate ere kontsumitzen dira eta hornitzaile nagusiak kooperatibak eta banatzaileak daude. Azkenik, arratoi-pozoiak daude; hauetatik, gutxi gorabehera, 6 unitate kontsumitzen dira eta hornitzaileak kooperatibak dira.

Tratamenduak lursailen azalaren arabera egiten dira, hori dela-eta, ustiapenak egiten diren egun kopuruari dagokionez, erantzunak askotarikoak dira ezin baita batez besteko zenbaki bat identifikatu. Hala ere, zera adierazi dezakegu, produktu guztiek ez dute arriskugarritasunari buruzko informazioa eskaintzen duten etiketa (bai tratamenduak egiteko erabiltzen direnak, bai erabilera arruntekoak).

Emakume batek eta hiru gizonek bakarrik onartu dute jarraibideak eta erabiltzeko modua erabiltzen; gainerakoek, ordea, ez dute egiten, substantzia horien ondorio kaltegarriak ezagutzen ez dituztela onartu arren.

Lau dira, produktu horiek manipulatzeko zein ondorio kaltegarriaren eraginpean dauden jakiteko jarraibideak irakurri dutela onartu dutenak.



8. SEGURTASUN BALDINTZAK

Idazpuru honetan, langileek egiten duten jardueratik eratorritako arriskuak aztertuko ditugu. Adierazi diren arrisku nagusiak lurrera erotzea, moztea, kolpeka hartzea, traktorea iraultzeagatik harrapatuta gertatzea eta altueratik erotzea dira, eta jarraian, abeltzainen kasuan, animaliek eragindako kalteak daude.

12. TAULA: LANEKO ARRISKUAK

	Emakumeak	Gizonak
Altueratik erortzea	1	3
Lurrera erotzea	1	2
Moztea	2	5
Kolpeak	2	1
Traktorea iraultzeagatik harrapatuta geratzea	-	3
Kontaktuagatiko erredurak	-	-
Kontaktu elektrikoa	-	1
Substantzia toxikoak erabiltzea	-	-
Animaliek eragindako kalteak	1	1

Langileek jasaten dituzten arriskuen arrazoiak sortu den arriskuaren arabera dira. Langileen gehiengoak jasaten dituen arriskuak edo arriskuen eraginpean egotearen arrazoiak, gehienbat, langileek beraien eguneroko lanaren aurrean gehiegizko konfiantza izan daitekeela onartu dute, eta ondoren, jarduera bat baino gehiago egitea, eta jarraian lan-ordu gehiegi sartu behar izatea.

13. TAULA: LANEKO ARRISKU HAUEN ARRAZOIAK

	Emakumeak	Gizonak
Makinaren babesa ez da nahikoa	-	2
Betaurrekoak, eskularruak, bota... ez erabiltzea	1	-
Lana, halabeharrez, amaitu behar izatea	-	-
Lanak eragiketarako arriskutsuak egitea eskatzen du	-	-
Gehiegizko konfiantza edo ohituragatik	2	6
Segurtasun-kabinarik ez egotea	-	-
Dagoen kasuetan, kabina ez erabiltzea	-	-
Jarraian lan-ordu gehiegi egitea	-	2
Aldi berean jarduera bat baino gehiago egitea	1	3

9. LANPOSTUAREN DISEINUA

Atal honetan, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorean aritzen diren pertsonen lanpostuaren diseinua nolakoa den jakitea da helburua.



14. TAULA: LANEAN EMAN OHI DIREN EGOERAK

	Emakumeak	Gizonak
Segurtasunez lan egiteko oso leku gutxi izatea	-	2
Oso altuera handian/txikian dauden tresnak, elementuak eta bestelako lanabesak hartzeko, besoa gehiegi luzatu behar izatea	1	1
Eskuak sartzeko zailtasuna erakusten duten lan-eremuetan lan egitea	-	2
Laneko aulkia oso ezerosoa izatea	-	-
Argiztapen desegokia, egiten den lanerako	-	1
Azalera ezegonkor edo irregularren gainean lan egitea	1	1
Neure neurrietara egokitu gabeko jantzi eta lanabesez lan egitea	-	-
Aulkien altuerak pertsona ezberdinen altueretara ez egokitzea	-	-


Taulan ikus daitekeenez, emakumeen artean lanpostuan ematen diren egoerarik ohikoenak dira, oso altuera handian/txikian dauden tresnak, elementuak eta bestelako lanabesak hartzeko, beso gehiegi luzatu behar izatea eta azalera ezegonkor edo irregularren gainean lan egitea; gizonezkoen artean, ordea, segurtasunez lan egiteko os leku gutxi izatea eta eskuak sartzeko zailtasuna erakusten duten lan-eremuetan lan egitea.



10. LAN KARGA

Langileen erdiak eguneroko lanean mantendu behar duten jarrera zutik egotea eta sarritan ibiltzea da; emakumezkoentzat, berriz, jarrera ohikoena zutik eta belaunak apur bat tolestuta eta makurtuta egotea da.

12. GRAFIKOA: LAN OHIKOENETAKO JARRERAK



Jarrera horiek ohikoak dira bai nekazariarentzat, bai abeltzaintzat, talde bati zein besteari dagokion zehaztu gabe. Bi taldeek mantentzen dituzte jarrera nekagarriak lanaldi erdian baino denbora luzeagoan eta, jarrera bera, lanaldiaren laurdenean baino denbora gutxiagoan mantentzen dutela esatean bat etorri dira langileak. Hala ere, langileek lanaldiaren laurdena baino gehiago ematen dute zama astunak altxatzen edo deskargatzen.

Gainera, laneko jarrera horiek mantendu behar izateagatik, gehien mintzen diren gorputz-atalak honakoak dira: lehenik eta behin, lepoa eta garondoa, jarraian, bizkarraren goialdea eta izterrak edo hankak daude.

Oro har, azken hiru hilabeteetan izandako lan-zama ohikoa izan da bai emakumezkoentzat, zein gizonezkoentzat; izan ere, emakume biek eta 10 gizonetatik 7k hori erantzun baitute.

Bestalde, orokorrean, inkesta erantzun duten pertsona guztientzat, lanak nork bere egitekoa ebaluatzea eskatzen du, bai eta norberaren arazoak konpontzea ere, akatsen bat egiten denean, arazo arina sor dezakeelako. Arazo honek, diru-galera garrantzitsuak ekar ditzake.




11. KOMUNIKAZIOA

Atal honetan aztertuko da pertsona hauen eta hauekin lan egiten duten lankideen, nagusien edo beren menpe lan egiten dutenen artean zer-nolako komunikazioa dagoen.

Aurrena, lankideekiko komunikazioa zela-eta deseroso izan zitezkeen hainbat alderdiren inguruan galdetu zen:

13. GRAFIKOA: KOMUNIKAZIOA OZTOPATZEN DUTEN ALDERDIAK



Bai gizonezkoentzat, zein emakumezkoentzat, gehien gogaitzen dituzten alderdiak dira, lanarekiko arreta ezin baztertzea eta lan-erritmoa oso bizia izatea, elkarrekin erraztasunez komunikatzea oztopatzen baitute.


Oro har, lankideekiko, hala nagusiekiko nola gainerako langileekiko, harremana ona da. Inkesta erantzun duten pertsonen artean batek ere ez zeukan langilerik bere kargupean.

12. AUTONOMIA - ESTATUSA

Azterlanaren xede diren pertsonen egungo lanarekiko azaltzen duten gogobetetasun-mailaz galdetuta, bost gizonezko eta bi emakumeak, hau da zazpi langile, pozik azaltzen dira, hiru ez pozik ezta gaizki ere, eta bik, lanean batere pozik ez daudela adierazten dute.



14. GRAFIKOA: LANAREKIKO JARRERA



Izan ere, 5 langile lanez aldatzeko prest egongo lirateke, baina lana bilatzeko zailtasunak izango lituzketela uste dute. 3 Gizonezkoak eta bi emakumezkoek beste aukera batengatik aldatu nahi ez dutela onartzen dute.

Langileen erdiak baino gehiagok ikuspegi pesimista dute, batzuek lana aldatzea oso zaila izango litzatekeela uste baitute. Langile batek berriro lanean jardutea ezinezkoa litzatekeela uste du.



13. PREBENTZIO JARDUERAK

Erabiltzen diren makinek babes-gailuak dituzte (uhalak, transmisioak, kardama, etab. babesteko gailuak), izan ere, 10 gizonetatik 7k eta emakume biek erabili ohi dituztela adierazi dute.

15. TAULA: BABES GAILUAK ERABILTZEA

	Emakumeak	Gizonak
Ez dago babesik	-	2
Bai, sarritan	2	7
Bai, gutxitan	-	1
Ez, inoiz ez	-	-

Bestalde, norbera babesteko jantziak erabiltzen dituztela onartzen duten pertsonak, eskularru, betaurreko, bota eta maskarez ari dira, eta ezerosoak direla uste dute.

16. TAULA: BANAKAKO BABES NEURRIAK

	Emakumeak	Gizonak
Eskularruak	1	3
Betaurrekoak	2	4
Maskarak	-	2
Botak	1	2

Erabiltzen dituzten jantzien neurriari dagokionez azpimarratu behar da, emakume batek egokituta daudela uste duela, eta besteak, ordea, ukatu egiten duela.

Neurri horien aurrean, produktu fitosanitarioak aplikatu ostean, langileetatik 3 baino ez dira dutxatzen; gainerakoak ez dira dutxatzen produktu horiek aplikatzen aritu badira ere. Gauza bera gertatzen da lan-jantziaren erabilerarekin eta produktuak aplikatu ostean arropa garbitzarekin: badirudi hiru langile horiek direla neurri horiek hartzen dituzten bakarrak.

14. PRESTAKUNTZA, INFORMAZIOA


Prestakuntza funtsezkoa da edozein sektoretan lan egiten duten langileentzat. Langileak etengabe ezagutu behar ditu bere lanpostuan izan daitezkeen aurrerabideak, neurriak eta arriskuak. Atal honetan, Euskal Herriko nekazari eta abeltzainek azken bi urteotan egin dituzten prestakuntza-ikastaroak eta langileen ebaluazioa aztertuko ditugu.

Nekazaritza eta abeltzaintzan aztertu ditugun hamar langileko langinetik zazpik ez du inolako prestakuntza-ikastarorik egin, baina gainerako hiruek eta bi emakumeek egin, egin dituzte.

Ikastaroak egin dituzten langileek, 1 eta 3 ikastaro bitartean esku hartu dute, eta gehienek gaiak honako hauek ziren: segurtasun eta higienez, hizkuntza, nekazaritzari buruzko gaiak eta beren nekazaritza eta abeltzaintza jarduerako beste hainbat alderdi orokorren gainekoak.



15. GRAFIKOA: IKASTAROAK EGITEA



Langile horiei prestakuntza eskaini dieten entitateak, lehenik eta behin, Nekazaritza Ganberak dira, ondoren Osalan eta sindikatuak, eta hirugarrenik, beste erakunde batzuk.


Entitate horiek, aldizka, langile horiei zuzendutako aldizkari eta buletinak argitaratzen dituzte. Argitalpen horietan, langile horientzat interesagarriak diren gaien berri ematen diete.

15. OSASUNERAKO KALTEAK

Atal honetan, inkesta erantzun duen pertsonak zer-nolako osasun-egoera sentitzen duen aztertuko da.

Gehienek osasun-egoera ona dutela sentitzen dute, baina esan behar da, batzuek hala-moduzkoa sentitzen dutela.

16. GRAFIKOA: OSASUN EGOERA SUMATZEA





Bestalde, tabakoarekiko portaera dela-eta, 2 emakumek eta 3 gizakumek ez dute erretzen, eta ez dute inoiz erre, gizonetzko batek orain ez du erretzen, eta 6 gizakumek erretzen dutela onartzen dute, baina horietako bate, egunean behin baino gutxiagotan.

17. TAULA: TABAKOAREKIKO JARRERA

	Emakumeak	Giznoak
Ez dut erretzen eta ez dut inoiz erre	2	3
Ez dut erretzen, baina lehen erretzen nuen		1
Gaur egun, egunean behin baino gutxiagotan erretzen dut		1
Gaur egun, egunero erretzen dut		5
EE		

Egunean erretzen duten zigarro-kopurua aldakorra da: batek, 5 zigarro baino gutxiago erretzen du, bik 5 eta 10 zigarro artean egunean, eta bik, 19 zigarro, hots, zigarro-kaxa bat baino gehiago erretzen dutela onartzen dute.

18. TAULA: ZIGARRO KOPURUA EGUNEAN

	Gizonezkoak
5 baino gutxiago	1
5 eta 10 zigarro bitartean	2
19 baino gehiago	2
EE	1

Bi pertsonak adierazten dute gaur egun egunero erretzen badute ere, kopuru hau ez dela azken urtean handitu, are gehiago, gutxiago erretzen dutela uste dutela. Nolanahi ere, batek ere ez da azken urtean erretzeari uzten saiatu.

19. TAULA: OHIKO SINTOMAK

	Emakumeak	Gizonak
Nekez edo gaizki egiten duzu lo	1	2
Uneoro nekatuta zaudela sentitzen duzu	-	1
Buruko mina izaten duzu	1	-
Zorabiatu egiten zara	-	-
Kostata kontzentratzen zara edo arretari eusten diozu	-	-
Kostata gogoratzen zara gauzetaz edo erraz ahazten dituzu	-	2
Estu, larri, haserrekor sentitzen duzu zure burua, gose- edo digestio-arazoak (goragalea, bihotzerrea, digestio astunak...) dituzu.	-	-
Begietan arazoak dituzu (malko-jarioa, ikusmen iluna...)	-	1
Gogo-aldarte goibela	-	-
Beste batzuk	-	-

Bestalde, beste sintoma batzuk ere aurkeztu zitzaizkien, horietakoren bat jasan ohi zuten adierazteko. Zentzu honetan, emakumeentzako sintomak lo egiterakoan arazoak izan dira, lo hartzea kostatzen




zaielako edo gaizki lo egiten dutelako, eta bestalde, buruko mina ere izaten dute. Gizonezkoen artean, lo-faltaren sintoma ere sumatzen dute, eta horrekin batera, etengabe nekatuta sentitzea, gauzak erraz ahaztea eta begietako arazoak (malko-jarioak, ikusmen iluna, etab.). Emakume bati eta bi gizonezkori arteria-presio altua diagnostikatu zaie.

Pertsona batek ere ez du azken hamabi hilabeteetan aldaketarik sumatu sexu-bizitzan, eta seme-alabak izaterakoan ere ez du inolako arazorik izan.

Sendagaiak hartzeari dagokionez, azken bi asteetan ondorengo sendagaien bat hartu zuten galdetu zitzaien:

17. GRAFIKOA: SENDAGAIK HARTZEA



Aurreko grafikoan ikusten den bezala, gizonezkoek, behinik behin, minaren aurkako analgesikoak, hezur-junturetako edo erreumako arazoetarako hantura aurkakoak eta bihotzerako sendagaiak hartu dituzte. Emakume batek, buruko mina kentzeko analgesikoak hartu ditu. Lagina adierazgarria ez izan arren, kasu honetan ikus daiteke inkesta erantzun duten pertsonen artean gizonezkoek hartzen dituztela sendagai gehiago.

Azken urtean zehar, emakume batek eta bi gizonezkoek medikuarengana joan behar izan dute, arazoak, molestiak edo gaixotasunen bat izateagatik, eta gizonetako bat, bitan ere joan da kontsultara. Bestalde, emakume batek eta hiru gizonezkoek ez dute medikuarengana behin ere joan behar izan, eta lau gizakumek ez diote galderari erantzun. Behin ere ez dute pentsatu beren osasun-arazoak lanak eragindakoak direnik, eta ez zaie ere gaixotasun profesionalik diagnostikatu eta horretarako bidean ere ez daude.



20. TAULA: BISITA MEDIKOAK

	Emakumeak	Gizonak
Behin	1	2
Bitan		1
Hirutan		
Hiru baino gehiagotan		
Behin ere ez	1	3
EE		4

Azken urteetan, emakume batek eta bi gizonezko lan-istripuren bat jasan izana onartu dute. Emakumearentzat, arrazoi nagusia, nekea izan zen, eta gizonezkoentzat, berriz, lanlekurako sarbidea egoera txarrean egotea, banakako babes ekipamendurik ez eramatea edo egokiak ez izatea eta lan horretan esperientziarik ez izatea.

21. TAULA: LAN ISTRIPUEN ARRAZOIAK

	Emakumeak	Gizonak
Lanlekua egoera txarrean dago	-	-
Lanlekurako sarbideak egoera txarrean daude	-	1
Makinak ez daude behar bezain babestuta	-	-
Lan-eremua edo -azalera ez da segurua	-	-
Instalazioak zaharrak dira	-	-
Ezer baino lehen, ekoizpena aurrera atera behar da	-	-
Baliabide edo tresna egokiak ez izateagatik	-	-
Lanak eragiketa arriskutsuak egitea eskatzen du	-	-
Gehiegizko esfortzu edo jarrera behartuengatik	-	-
Banakako babes-ekipamendurik ez izateagatik edo horiek desegokiak izateagatik	-	1
Nekeagatik	1	-
Konfiantza gehiegi izateagatik edo ohituragatik	-	-
Lanpostua gaizki diseinatuta dago	-	-
Nahikoa prestakuntza izan gabe lan egiten da	-	-
Nahikoa leku ez izatea	-	-
Lanean esperientziarik ez izatea	-	1

16. BIZIKIDETZA EGOERA.

Azterlanaren xede den laginaren profilari buruzko atalean adierazi den bezala, ez da ahaztu behar 12 langilek osatzen dutela, emakumezko bik eta gizonezko hamarrek. Emakume guztiak eta sei gizon bikotearekin bizi dira, eta gainerako gizakumeak gurasoekin bizi dira.

Bi emakumeek lau pertsonako familia-unitatea dute, eta gizonen artean, bat emaztearekin bizi da, bi ematearekin eta seme-alabekin, eta beste bat, gainera, aitagarrebarekin.

22. TAULA: ETXEAN BIZI DIREN SEME-ALABEN ADINAK

	Emakumeak	Gizonak
0 eta 2 urte bitartekoak		1
3 eta 6 urte bitartekoak		
7 eta 12 urte bitartekoak		
13 eta 18 urte bitartekoak	1	2
19 urte edo gehiagokoak	3	4



15 urtetik beherako seme-alabak dituela adierazten duen gizonezko langileak esaten du, bereziki bere emazteak zaintzen dituela.

Bestalde, 65 urtetik gorako pertsonekin bizi dela adierazten duen pertsonak esaten du, berak bere buruaz arduratzen dela, beraiekin bizi arren. Ez dago familia-unitatean oso gaixo dagoen edo minusbaliatua den kideak dituela adierazten duen pertsonarik.

Etxeko lanei dagokienez, gizonezko langile gehienek ez dute batere denborarik ematen edo oso denbora gutxi ematen dute horietan, eta bereziki, sukaldari-lanetan, lisatzen, arropa garbitzen eta etxea garbitzen, eta emakumezko langileek, ordea, egiten dituzte, eta bereziki, sukaldari-lanak, harrikoa, garbitu, lisatu eta etxea garbitu.

23. TAULA: ETXEKO LANAK

	Ia guztia □	Erdia	□ ezer ez/Ia ezer ez	EE	
EMAKUMEZKOAK	Sukaldari-lanak	2	-	-	-
	Garbitu	2	-	-	-
	Harrikoa egin	1	1	-	-
	Etxea garbitu	1	1	-	-
	Janaria erosi	-	1	1	-
	Arropa ikuzi	2	-	-	-
	Lisatu	2	-	-	-
	Arropa erosi	2	-	-	-
	Medikuarengana joan	2	-	-	-
	Eskolako bilerak	1	1	-	-
	Zaintzak, gaixotasun-egoeran	-	1	-	1
	Mendekotasunean bizi diren pertsonak garbitzea	-	-	-	-
	Mendekotasunean bizi diren pertsonen jaten ematea	-	-	-	-
	Eskolako lanetan laguntzea	-	1	-	-
	GIZONEZKOAK	Sukaldari-lanak	-	-	9
Garbitu		-	3	6	1
Harrikoa egin		1	3	5	1
Etxea garbitu		-	-	8	2
Janaria erosi		-	2	-	8
Arropa ikuzi		1	-	7	2
Lisatu		-	1	9	-
Arropa erosi		3	1	5	1
Medikuarengana joan		5	-	-	5
Eskolako bilerak		3	-	-	7
Zaintzak, gaixotasun-egoeran		-	-	-	-
Mendekotasunean bizi diren pertsonak garbitzea		-	-	-	-
Mendekotasunean bizi diren pertsonen jaten ematea		-	-	-	-
Eskolako lanetan laguntzea		3	-	-	7

Hala ere, emakumezkoek zein gizonezkoek "normaltzat" jotzen dute egiten duten lana.

Aisialdiari dagokionez, langileen erdiak bere zaletasunei eskaintzeko denbora librea beti (1), noizean behin (3) duela dio; gainerako langileek berriz, ez du egun liberrik inoiz (5) edo gutxitan ditu egun liberrik (1). Emakumezkoek diote, noizbehinka, eduki badutela denbora liberrik.



Oso bestelakoak dira emakumezkoek eta gizonezkoek astialdian egiten dituzten jarduerak. Gizonezkoak irakurri, ikuskizunetara joan, eskulanak egin edo lagunekin elkartzen badira, emakumezkoek, ordea, irratia entzun, telebista ikusi, lagunekin elkartu edo jarduera fisikoren bat egiten dute.



17. ONDORIOEN LABURPENA

- 10 gizonezko eta 2 emakume esku hartu dute. 5 gizon 16 eta 24 urte bitartekoak ziren, eta gainerakoak, 25 urtetik gorakoak. Emakumezkoak, ordea, 25 eta 44 urte bitartekoak ziren.
- Bizikidetzaren egoerari dagokionez, emakume guztiak bikotearekin bizi dira, eta berdin 6 gizonezko, baina gainerako gizonak gurasoekin bizi dira.
- Gizonezko hiru langilek eta emakumezko batek baino ez dute onartu ikasketarik ez dutela. Bestalde, gainerako zortzi langileek batxilergo edo LH II mailako ikasketak egin dituzte.
- Langileetatik bederatzik normalki lanean familiaren laguntza izan ohi duela baieztatu du. Horretaz gainera, langile horiek ez dute soilik familia kide 1 edo 2, baizik eta 3 edo gehiago izan ohi dute beraiekin zereginik gogorrenak banatzeko, adina alde batera utzita. Egiaztatu da, egiaztatu, askotan emakumea edo seme-alabak (berdin batzuk ala besteak) direla izaten direla zeregin hauetan laguntzen dutenak. Izan ere, inkesta gehienetan gizonezkoak erantzun badu ere (hamabi langileko laginean hamar gizonezkoak), azpimarratzekoa da emakumezkoak soroan zeregin kopuru handian laguntzaile gisa duten zeregina.
- Inkesta erantzun duten pertsonen artean, emakume biek onartzen dute beraiek direla, beste pertsona batekin, etxera diru-sarrerak erdibana ekartzen dituztenak, eta gizonezkoen kasuan, guztietatik lauk beste pertsona batek ekartzen duela erantzun dute, eta gainerako seiak eurak direla diru gehien ekartzen dutenak.
- Inkesta erantzun duten pertsonen egunean lanean ematen duten ordu-kopurua oso handia da. Gainerako sektoreetan ez bezala, ez dute alde aurretik ezarritako eguneko 8 orduko lanaldia eta sarritan gauzez eta egunez aritzen dira lanean. Gaineratu behar da, halaber, gehienek ez dutela oporrik izaten (oporrak ohiko etxebizitzetatik irtetea bezala ulertuta).
- Olibondoak, fruta-arbolak, baratzeak... ekoizteko hektarea batetik beherako azalera txikiak erabiltzeko dituzte; baratzeak, haztegiak, laboreak eta larreak... ekoizteko, ordea, hektarea batetik gorako azalera behar dira.
- Abeltzaintzako langile gehienek 20 burutik beherako abelgorri taldeak hazten dituzte, emakumeetako batek 20 burutik beherako ardi-azienda hazten du, eta gizonen arteko bik 1.000 burutik beherako hegazti-hazkuntza daukate.
- Langileek ustiapen bakarrean egiten dute lan, eta inkesta erantzun duten hamabi langileetatik hamarrek ustiapen horri eskaintzen diote arreta osoa, horietatik batek, berriz, noizean behin beste ustiapenetan lan egiten duela onartu du. Pertsona guztiek onartu dute nekazaritza edo abeltzaintzan soilik jarduten duela.
- Ez emakumezkoek, ezta gizonezkoek ere ez diote inoiz jardueran lan egiteari utzi. Emakumeek 15 urte baino gehiago daramate sektorean lanean, eta gizonen artean, ordea, 4k adierazten dute 5 urte baino gutxiago daramatela, eta gainerakoek, urte gehiago (15 urte baino gehiago).



- Inkesta erantzun duten langileetatik ia erdia dago afiliatuta langile bezala dituzten interesak defendatzen dituzten entitateetan. Horietatik bost kooperatiba, LTZ sozietate eta bestelakoetan afiliatuta daude, eta erdiak baino gehiagok, berriz, ez du ordezkapenik inolako erakundetan.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako lanpostuak, normalean, langileen etxeetatik oso gertu izan ohi dira. Azterlanean esku hartu duten pertsonen galdera hau egin zitzaienean, emakume guztiek adierazi zuten etxetik 20 minutuko distantzia ere ez zegoela. Gizonezkoen artean, ordea, bik 20 minutu baino gehiago zegoela erantzun zuten, eta gainerako guztiek, 20 minutu baino gutxiago. Abeltzaintza-sektorean, eskuarki, etxe kanpoan izaten dituzten animalien barrutiak, eta ez dira beste leku batzuetara joaten; izan ere, inkesta erantzun duten hiru pertsonen esaten dutenez, 10 minutu ere ez dute behar heltzeko. Kasu gehienetan autoa erabili ohi dute, ondoren traktorea eta, gainerakoak oinez joaten dira.
- Langileen etxebizitza bera bihurtzen da. Kasu gehienetan etxeetako etxabeak laneko makineria eta tresnak gordetzeko erreminten "tailer" bihurtzen dira. Etxabeen azalera etxearen araberakoa izan ohi da, kasu gehienetan 100 m²tik beherakoa izaten dela. Bazka zein pentzuek biltegitratzeko erabiltzen diren siloek dagokienez, bertikalean daude biltegitratuta.
- Abeltzaintzako instalazioekin gauza bera gertatzen da. Inkesta erantzun duten abeltzaintzako bik 200 m²tik gorako eremu edo barrutiak erabiltzen dituzte ukuilu bezala. Gainerakoek, 101 eta 200 m² bitartekoak. Eraikin horietatik asko 2001etik aurrekoak dira, bai makineria eta erreminta biltegiei, bai instalazioei dagokienez, eta gehien aipatutako eraikuntza-data 1988 da.
- Nekazaritza-sektoreko pertsonen artean traktorea izan ohi da gehien erabiltzen den makineria-mota, eta ez soilik laneko tresna gisa, baita, gorago ikusi bezala, etxetik lanera joateko garraio bide gisa ere.
- Gehienetan traktore bakar bat erabiltzen da lana egiteko, eta oso gutxi dira bat baino gehiago erabiltzen dutenak.
- Traktorea duten zortzi langileek 600 kilotik beherakoak izan ohi direla adierazi dute, eta 600 kilotik gorakoak badira, portale, kabina edo segurtasun-arkua izan ohi dute.
- Traktore horiek erosteko orduan, amortizatuko dituzten ala ez izan ohi dute kontuan. Azalera txikietarako eta dedikazio erabatekoa edo egunerokoa ez denean, normalean erabilitako traktoreak erosi ohi dituzte langileek; ustiapen azalera handietarako bada eta bertan traktorea egunera erabiltzen den tresna bada, ordea, traktore berriak erosi ohi dituzte, hobeto amortizatu ahal izateko.
- Traktoreez gain, lehen sektorean erabili ohi diren hainbat makina eta erreminta daude. Bost taldetan sailka ditzakegu: Uzta-makina autopropulsatuak, Motomakinak, Atoiak, makina trakto-bultzatuak eta Makina elektrikoak.
- Langile bakoitzak ez du zertan makineria-mota bakarria erabili behar, alderantziz, normalean askotariko makinak izan ohi dira, horietako batzuk besteak baino gehiago edo sarriago erabili arren.



- Uzta-makina autopropultsatuen artean, zerealetarakoak erabiltzen omen dira gehien, gizonezkoen kasuan.
- Bigarrenik, berriz, motomakinen artean, erabiltzeko makinen aniztasun handiagoa dago, esaterako: motokultorea, motoaitzurra, motozerra, motoponpa eta ekipo elektrogenoa. Batez ere nekazaritza-ustiapen txikietan erabiltzen diren makinak dira.
- Ataien kasuan, gehien erabiltzen direnak, ardatz batekoak edo bikoak eta, ardatz baskulagarri batekoak edo bikoak dira.
- Makina trakto-bultzatuei dagokienez, rotabatorea, ongarrizeko makina eta iraultzeko eskuarea, sega-makina birakaria edo haga eta tratamendu-andela, siloratzeko makina, paketatzeko makina eta zisterna dira gehien erabiltzen diren tresnak.
- Langile horiek gehien erabiltzen dituzten makina elektrikoak, konpresorea, ekipo elektrogenoa, jezteko makina eta hozteko andela dira.
- Oro har, ikus daiteke gehienbat gizonezkoek erabiltzen dituztela makina hauek.
- Langilea zein arrisku fisikoren eraginpean dagoen, sektorearen arabera izango da. Aurreko txostenetan ikusi den legez, sektore bakoitzak eguneroko jardunean berezkoak diren zenbait laneko arrisku izatea du ezaugarri. Lanpostuaren arabera aldatu egiten dira.
- Kasu honetan, nekazaria edo abeltzaina eguneroko jardunean zein arriskuren eraginpean dagoen jakin nahi izan dugu eta, neurririk badago, zein diren ere jakina nahi izan dugu.
- Kasu gehienetan leku erdi itxietan lan egiten dute. Izan ere, bi emakumeek eta 7 gizonen lokal erdi itxietan lan egiten dute, eta gainerako 3 gizonen, normalean, aire zabalean edo kanpoan.
- Temperatura, berriz, lanpostuaren arabera da. Neguan, kanpoan lan egiten dutenek, hotza dela-eta, lana egin behar izatea oso ezerosoa dela uste dute (3); udaran ere gauza bera gertatzen da, baina kasu horretan beroetatik da ezerosoa lan egitea. Hala ere, inkesta erantzun duten pertsona guztiek adierazi dute atseginagoa dela udan lan egitea, neguan baino. Gainerakoak, ziurrenik, erdizka itxitako lokaletako langileak dira, eta eroso daude bai neguan eta bai udan.
- Hezetasun-mailari dagokionez, erantzunak honako bien artean daude banatuta: gehiegizko hezetasuna eta orokorrean, nahiko egokia.
- Oro har, ez da uste lanpostua bestelako arrisku fisikoren eraginpean dagoenik, baina kasu gehienetan, hala emakumezkoek, nola gizonezkoek adierazten dute gehiegizko ahaleginek eta jarrera txarrek eragin diezaieketela.
- Inork ez du erantzun bibrazioak edo gehiegizko zarata beraiantzat arriskutsua izan daitekeela.
- Inkesta erantzun duten langileen gehiengoak lanpostuan produktu kimikoak erabiltzen dituela onartu du.



- Produktu horiek erabiltzen dituztenen artean, erdiak baino gutxi batzuk gehiagok (3) produktu horietarako erreserbatutako lokal espezifiko batean edo lokal edo biltegi osagarri batean biltegitzen ditu. Hala ere, horietatik bik baino ez dituzte gordetzen erabilera espezifikoko armairu batean; gainerako hiruek, berriz, horrelakorik egiten ez duela onartzen du.
- Gehien aipatutako produktu kimikoen artean, honako hauek dira azpimarratzekoak: Belar-pozoiak 9-150 litro artean kontsumitzen dira, hektareen azalaren arabera. Hornien hornitzaile nagusiak kooperatibak, dendak eta banatzaileak dira. Bigarrenik, fungizidak daude; horietatik 40 unitate inguru kontsumitzen dira eta hornitzaile nagusia Kooperatibak dira. Intsektizideetatik 70 unitate ere kontsumitzen dira eta hornitzaile nagusiak kooperatibak eta banatzaileak daude. Azkenik, arratoi-pozoiak daude; hauetatik, gutxi gorabehera, 6 unitate kontsumitzen dira eta hornitzaileak kooperatibak dira.
- Tratamenduak lursailen azalaren arabera egiten dira, hori dela-eta, ustiapenak egiten diren egun kopuruari dagokionez, erantzunak askotarikoak dira ezin baita batez besteko zenbaki bat identifikatu. Hala ere, zera adierazi dezakegu, produktu guztiek ez dute arriskugarritasunari buruzko informazioa eskaintzen duten etiketa (bai tratamenduak egiteko erabiltzen direnak, bai erabilera arruntekoak).
- Emakume batek eta hiru gizonak bakarrik onartu dute jarraibideak eta erabiltzeko modua erabiltzen; gainerakoek, ordea, ez dute egiten, substantzia horien ondorio kaltegarriak ezagutzen ez dituztela onartu arren.
- Lau dira, produktu horiek manipulatzeko zein ondorio kaltegarriaren eraginpean dauden jakiteko jarraibideak irakurri dutela onartu dutenak.
- Adierazi diren arrisku nagusiak lurrera erortzea, moztea, kolpeka hartzea, traktorea iraultzeagatik harrapatuta gertatzea eta altueratik erortzea dira, eta jarraian, abeltzainen kasuan, animaliek eragindako kalteak daude.
- Langileek jasaten dituzten arriskuen arrazoiak sortu den arriskuaren arabera dira. Langileen gehiengoak jasaten dituen arriskuak edo arriskuen eraginpean egotearen arrazoiak, gehienbat, langileek beraiek eguneroko lanaren aurrean gehiegizko konfiantza izan daitekeela onartu dute, eta ondoren, jarduera bat baino gehiago egitea, eta jarraian lan-ordu gehiegi sartu behar izatea.
- Emakumeen artean lanpostuan ematen diren egoerarik ohikoenak dira, oso altuera handian/txikian dauden tresnak, elementuak eta bestelako lanabesak hartzeko, beso gehiegi luzatu behar izatea eta azalera ezegonkor edo irregularren gainean lan egitea; gizonen artean, ordea, segurtasunez lan egiteko os leku gutxi izatea eta eskuak sartzeko zailtasuna erakusten duten lan-eremuetan lan egitea.
- Langileen erdiak eguneroko lanean mantendu behar duten jarrera zutik egotea eta sarritan ibiltzea da; emakumezkoentzat, berriz, jarrera ohikoena zutik eta belaunak apur bat tolestuta eta makurtuta egotea da.
- Jarrera horiek ohikoak dira bai nekazarientzat, bai abeltzaintzat, talde bati zein besteari dagokion zehaztu gabe. Bi taldeek mantentzen dituzte jarrera nekagarriak lanaldi erdian baino



denbora luzeagoan eta, jarrera bera, lanaldiaren laurdenean baino denbora gutxiagoan mantentzen dutela esatean bat etorri dira langileak. Hala ere, langileek lanaldiaren laurdena baino gehiago ematen dute zama astunak altxatzen edo deskargatzen.

- Gainera, laneko jarrera horiek mantendu behar izateagatik, gehien mintzen diren gorputz-atalak honakoak dira: lehenik eta behin, lepoa eta garondoa, jarraian, bizkarraren goialdea eta izterrak edo hankak daude.
- Oro har, azken hiru hilabeteetan izandako lan-zama ohikoa izan da bai emakumezkoentzat, zein gizonezkoentzat; izan ere, emakume biek eta 10 gizonetatik 7k hori erantzun baitute.
- Orokorrean, inkesta erantzun duten pertsona guztientzat, lanak nork bere egitekoa ebaluatzea eskatzen du, bai eta norberaren arazoak konpontzea ere, akatsen bat egiten denean, arazo arina sor dezakeelako. Arazo honek, diru-galera garrantzitsuak ekar ditzake.
- Bai gizonezkoentzat, zein emakumezkoentzat, gehien gogaitzen dituzten alderdiak dira, lanarekiko arreta ezin baztertzea eta lan-erritmoa oso bizia izatea, elkarrekin erraztasunez komunikatzea oztopatzen baitute.
- Oro har, lankideekiko, hala nagusiekiko nola gainerako langileekiko, harremana ona da. Inkesta erantzun duten pertsonen artean batek ere ez zeukan langilerik bere kargupean.
- Lanarekiko azaltzen duten gogobetetasun-maila dela-eta, bost gizonezko eta bi emakumeak, hau da zazpi langile, pozik azaltzen dira, hiru ez pozik ezta gaizki ere, eta bik, lanean batere pozik ez daudela adierazten dute.
- Izan ere, 5 langile lanez aldatzeko prest egongo lirateke, baina lana bilatzeko zailtasunak izango litzuketela uste dute. 3 Gizonezkoak eta bi emakumezkoek beste aukera batengatik aldatu nahi ez dutela onartzen dute.
- Langileen erdiak baino gehiagok ikuspegi pesimista dute, batzuek lana aldatzea oso zaila izango litzatekeela uste baitute. Langile batek berriro lanean jardutea ezinezkoa litzatekeela uste du.
- Erabiltzen diren makinek babes-gailuak dituzte (uhalak, transmisioak, kardama, etab. babesteko gailuak), izan ere, 10 gizonetatik 7k eta emakume biek erabili ohi dituztela adierazi dute.
- Norbera babesteko jantziak erabiltzen dituztela onartzen duten pertsonak, eskularru, betaurreko, bota eta maskarez ari dira, eta ezerosoak direla uste dute.
- Erabiltzen dituzten jantzien neurriari dagokionez azpimarratu behar da, emakume batek egokituta daudela uste duela, eta besteak, ordea, ukatu egiten duela.
- Neurri horien aurrean, produktu fitosanitarioak aplikatu ostean, langileetatik 3 baino ez dira dutxatzen; gainerakoak ez dira dutxatzen produktu horiek aplikatzen aritu badira ere. Gauza bera gertatzen da lan-jantziaren erabilerarekin eta produktuak aplikatu ostean arropa garbitzarekin: badirudi hiru langile horiek direla neurri horiek hartzen dituzten bakarrak.



- Nekazaritza eta abeltzaintzan aztertu ditugun hamar langileko langinetik zazpik ez du inolako prestakuntza-ikastarorik egin, baina gainerako hiruek eta bi emakumeek egin, egin dituzte.
- Ikastaroak egin dituzten langileek, 1 eta 3 ikastaro bitartean esku hartu dute, eta gehienek gaiak honako hauek ziren: segurtasun eta higiezez, hizkuntza, nekazaritzari buruzko gaiak eta beren nekazaritza eta abeltzaintza jarduerako beste hainbat alderdi orokorren gainekoak.
- Langile horiei prestakuntza eskaini dieten entitateak, lehenik eta behin, Nekazaritza Ganberak dira, ondoren Osalan eta sindikatuak, eta hirugarrenik, beste erakunde batzuk. Entitate horiek, aldizka, langile horiei zuzendutako aldizkari eta buletinak argitaratzen dituzte. Argitalpen horietan, langile horientzat interesagarriak diren gaien berri ematen diete.
- Gehienek osasun-egoera ona dutela sentitzen dute, baina esan behar da, batzuek hala-moduzkoa sentitzen dutela.
- Tabakoarekiko portaera dela-eta, 2 emakumek eta 3 gizakumek ez dute erretzen, eta ez dute inoiz erre, gizonezko batek orain ez du erretzen, eta 6 gizakumek erretzen dutela onartzen dute, baina horietako bate, egunean behin baino gutxiagotan. Egunean erretzen duten zigarrokopurua aldakorra da: batek, 5 zigarro baino gutxiago erretzen du, bik 5 eta 10 zigarro artean egunean, eta bik, 19 zigarro, hots, zigarro-kaxa bat baino gehiago erretzen dutela onartzen dute.
- Bi pertsonak adierazten dute gaur egun egunero erretzen badute ere, kopuru hau ez dela azken urtean handitu, are gehiago, gutxiago erretzen dutela uste dutela. Nolanahi ere, batek ere ez da azken urtean erretzeari uzten saiatu.
- Bestalde, beste sintoma batzuk ere aurkeztu zitzaizkien, horietakoren bat jasan ohi zuten adierazteko. Zentzu honetan, emakumeentzako sintomak lo egiterakoan arazoak izan dira, lo hartzea kostatzen zaielako edo gaizki lo egiten dutelako, eta bestalde, buruko mina ere izaten dute. Gizonezkoen artean, lo-faltaren sintoma ere sumatzen dute, eta horrekin batera, etengabe nekatuta sentitzea, gauzak erraz ahaztea eta begietako arazoak (malko-jarioak, ikusmen iluna, etab.). Emakume bati eta bi gizonezkoen arteria-presio altua diagnostikatu zaie.
- Pertsona batek ere ez du azken hamabi hilabeteetan aldaketarik sumatu sexu-bizitzan, eta seme-alabak izaterakoan ere ez du inolako arazorik izan.
- Sendagaiak hartzeari dagokionez, gizonezkoek, behinik behin, minaren aurkako analgesikoak, hezur-junturako edo erreumako arazoetarako hantura aurkakoak eta bihotzerako sendagaiak hartu dituzte. Emakume batek, buruko mina kentzeko analgesikoak hartu ditu. Lagina adierazgarria ez izan arren, kasu honetan ikus daiteke inkesta erantzun duten pertsonen artean gizonezkoek hartzen dituztela sendagai gehiago.
- Azken urtean zehar, emakume batek eta bi gizonezkoek medikuarengana joan behar izan dute, arazoak, molestiak edo gaixotasunen bat izateagatik, eta gizonetako bat, bitan ere joan da kontsultara. Bestalde, emakume batek eta hiru gizonezkoek ez dute medikuarengana behin ere joan behar izan, eta lau gizakumek ez diote galderari erantzun. Behin ere ez dute pentsatu



beren osasun-arazoak lanak eragindakoak direnik, eta ez zaie ere gaixotasun profesionalik diagnostikatu eta horretarako bidean ere ez daude.

- Azken urteetan, emakume batek eta bi gizonezko lan-istripuren bat jasan izana onartu dute. Emakumearentzat, arrazoi nagusia, nekea izan zen, eta gizonezkoentzat, berriz, lanlekurako sarbidea egoera txarrean egotea, banakako babes ekipamendurik ez eramatea edo egokiak ez izatea eta lan horretan esperientziarik ez izatea.
- Emakume guztiak eta sei gizon bikotearekin bizi dira, eta gainerako gizakumeak gurasoekin bizi dira.
- Bi emakumeek lau pertsonako familia-unitatea dute, eta gizonen artean, bat emaztearekin bizi da, bi ematearekin eta seme-alabekin, eta beste bat, gainera, aitagarrebarekin.
- 15 urtetik beherako seme-alabak dituela adierazten duen gizonetzko langileak esaten du, bereziki bere emazteak zaintzen dituela.
- 65 urtetik gorako pertsonekin bizi dela adierazten duen pertsonak esaten du, berak bere buruaz arduratzen dela, beraiekin bizi arren. Ez dago familia-unitatean oso gaixo dagoen edo minusbaliatua den kideak dituela adierazten duen pertsonarik.
- Etxeko lanei dagokienez, gizonetzko langile gehienek ez dute batere denborarik ematen edo oso denbora gutxi ematen dute horietan, eta bereziki, sukaldari-lanetan, lisatzen, arropa garbitzen eta etxea garbitzen, eta emakumezko langileek, ordea, egiten dituzte, eta bereziki, sukaldari-lanak, harrikoa, garbitu, lisatu eta etxea garbitu.
- Aisialdiari dagokionez, langileen erdiak bere zaletasunei eskaintzeko denbora librea beti edo noizean behin duela dio; gainerako langileek berriz, ez du egun liberrik inoiz edo gutxitan ditu egun libreak. Emakumezkoek diote, noizbehinka, eduki badutela denbora liberrik.
- Oso bestelakoak dira emakumezkoek eta gizonetzkoek astialdian egiten dituzten jarduerak. Gizonetzkoak irakurri, ikuskizunetara joan, eskulanak egin edo lagunekin elkartzten badira, emakumezkoek, ordea, irratia entzun, telebista ikusi, lagunekin elkartu edo jarduera fisikoren bat egiten dute.

**LANGILEEI BURUZKO
TXOSTENA
ARRANTZA**

AURKIBIDEA

1. SARRERA	183
2. AZTERLANAREN XEDE DEN LAGINAREN PROFILA.....	184
3. KONTRATU MOTA	185
4. LAN MOTA	185
5. INGURUNE TERMIKOA	188
6. ZARATAK ETA DARDARAK.....	189
7. KUTSATZAILE KIMIKOAK.....	190
8. SEGURTASUN BALDINTZAK	190
9. LANPOSTUAREN DISEINUA.....	191
10. LAN-KARGA	192
11. KOMUNIKAZIOA	195
12. STATUSA	196
13. AUTONOMIA	198
14. SUSTAPENA	199
15. LAN-ORDUTEGIA	200
16. PARTE-HARTZEA	201
17. PREBENTZIOA ANTOLATZEA.....	203
18. PREBENTZIO JARDUERAK	204
19. PRESTAKUNTZA	207
20. INDARKERIAZKO JOKABIDEAK LANEAN.....	208
21. OSASUNERAKO KALTEAK.....	208
22. BIZIKIDETZA EGOERA	211
23. ONDORIOEN LABURPENA	215

TAULEN AURKIBIDEA

1. TAULA: BIZIKETZA EGOERA	184
2. TAULA: IKASKETA MAILA.....	184
3. TAULA: ARRANTZA SEKTOREAN ETA ORAINGO ONTZIAN DARAMATZATEN URTEAK	187
4. TAULA: LANEAN ERABILITAKO LANABESAK.....	187
5. TAULA: ARRANTZA APARAILUEN ERABILERA.....	187
6. TAULA: LANTOKIKO TENPERATURARI BURUZKO IRITZIA	189
7. TAULA: ZARATA MAILA.....	190
8. TAULA: ISTRIPU ARRISKUAK	190
9. TAULA: ISTRIPUEN ERAGILEAK	191
10. TAULA: LANPOSTUAREN KOKALEKUA	192
11. TAULA: JARRERA DESEGOKIETAN EMANDAKO DENBORA TARTEA.....	193
12. TAULA: LANALDIAN EGINDAKO LANA.....	194
13. TAULA: LANPOSTUAREN BALDINTZAK	195
14. TAULA: LANA EGITEKO DITUZTEN NEURRIAK.....	196
15. TAULA: LANEAN ARITU BEHARREKO PERTSONEKIKO HARREMANA	197
16. TAULA: EZAGUTZAK APLIKATZEKO AUKERA	198
17. TAULA: LANEKO ALDERDIK AUKERATU EDO ALDATZEKO AUTONOMIA	199
18. TAULA: LANEAN EZ EGOTEKO AUKERA	200
19. TAULA: LANORDUAK ARRANTZATUTAKO ETA ARRANTZATU GABEKO EGUNETAN	202
20. TAULA: PARTE-HARTZEA (%).....	202
21. TAULA: BALIABIDEAK (%).....	202
22. TAULA: AZTERKETA MEDIKUARI BURUZKO IRITZIA.....	205
23. TAULA: OSASUN ETA SEGURTASUNERAKO LANPOSTUKO ARRISKUEN AZTERLANEAN AZTERTUTAKO ALDERDIK	206
24. TAULA: OHIKO SINTOMAK	209
25. TAULA: MEDIKUARENGANA JOATEA	210
26. TAULA: LANEKO ALDERDIRIK DESATSEGINENAK (%).....	211
27. TAULA: ETXEAN BIZI DEN PERTSONA KOPURUA (%).....	211
28. TAULA: ETXEAN BIZI DIREN SEME-ALABEN ADINAK.....	211
29. TAULA: ETXEKO JARDUERAK.....	213
30. TAULA: ASTIALDIAN EGINDAKO JARDUERAK.....	214

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. GRAFIKOA: LURRALDEAREN ARABERAKO INKESTAKO LANGILEAK	183
2. GRAFIKOA: ADINA	184
3. GRAFIKOA: ORDAINTZEKO MODUA	185
4. GRAFIKOA: LANLEKU BARRUKO LANPOSTUA	185
5. GRAFIKOA: LAN MOTA	186
6. GRAFIKOA: ARRANTZA SEKTOREA	186
7. GRAFIKOA: ENPRESAN HARTZEKO PROZESUA	188
8. GRAFIKOA: LANALDIKO LANLEKUA.....	188
9. GRAFIKOA: HEZETASUNA.....	189
10. GRAFIKOA: LANALDIAN ZEHARKO JARRERAK.....	192
11. GRAFIKOA LAN KOPURUA	193
12. GRAFIKOA LANAREN MONOTONIA	194
13. GRAFIKOA: LANPOSTUAN EGINDAKO AKATSA	195
14. GRAFIKOA: ESKATZEN DIREN EZAGUTZAK	196
15. GRAFIKOA: LANPOSTUAREN GARRANTZIA	197
16. GRAFIKOA: LAN ERRITMOA EZARTZEA	198
17. GRAFIKOA: EGITEN ARI DEN LANA ETETEA.....	199
18. GRAFIKOA: SUSTAPENA	200
19. GRAFIKOA: LANALDIA LUZATZEA	201
20. GRAFIKOA: IRADOKIZUNAK.....	203
21. GRAFIKOA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ORDEZKARIA.....	203
22. GRAFIKOA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ORDEZKARIAREN ERAGINKORTASUNA (%).....	204
23. GRAFIKOA: OSASUN ETA SEGURTASUNERAKO LANPOSTUKO ARRISKUEN AZTERLANA	205
24. GRAFIKOA: OSASUN ETA SEGURTASUNERAKO LANPOSTUKO ARRISKUEN AZTERLANEKO EMAITZAK JAKINARAZTEA	206
25. GRAFIKOA: BABES EKIPOEN ERABILERA	207
26. GRAFIKOA: PRESTAKUNTZA.....	208
27. GRAFIKOA: TABAKOAREKIKO JARRERA	209
28. GRAFIKOA: LAN ISTRIPUA.....	210
29. GRAFIKOA: ETXEKO LANETAZ ARDURATZEN DEN PERTSONA	212
30. GRAFIKOA: ASTIALDIA	214



1. SARRERA

Arrantzak garrantzi berezia du Euskal Herriko kostaldeko eremuetan, izan ere, ehunka pertsonak egiten dute lan arrantzari esker.

9 langilez (emakumezko 1 eta 8 gizonetzko) osatutako langinarekin egin da lana. Kopurua oso txikia da, unibertsoa bera ere, gainerako sektoreekin alderatuta, txikia baita.

Arrantzaren sektorean, langileentzat eta enpresarentzat galdetegi bana erabili ditugu. Galdeketak hamaika dimentsio ditu, eta horietan lanaren eta langileek garatzen dituzten jardueretatik eratorritako arriskuen alderdirik garrantzitsuenetan sakontzen saiatu gara.


Gainerako sektoreekin alderatuta langileen ehuneko txikia badu ere, arrantzaleek egunero jasan behar dituzten lan-baldintzen egoera panoramikoaren eta arrantzaleek aurre egin beharreko arrisku eta arazoaren ikuspegia eskaintzen duen atal berezia diseinatu dugu.

Ez da erraza izan hori egitea, beste zailtasunen artean, goizetik gauera arte joaten zirelako lanera, eta horrek langileak aurkitzeko lana zaildu zuen.

Azterlanerako arreta, bi gunetan jarri dugu nagusiki: Pasaian eta Donostian (Gipuzkoa) eta Santurtzi eta Bilbon (Bizkaia). Emakumezko langilea gipuzkoarra da eta baita inkesta erantzun duen gizonetzko beste bat ere; inkesta erantzun duten gainerako langileak bizkaitarrak dira.

Aipatzekoa da enpresa gehienek 20 langiletik behera dutela.

1. GRAFIKOA: LURRALDEAREN ARABERAKO INKESTAKO LANGILEAK




GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)



2. AZTERLANAREN XEDE DEN LAGINAREN PROFILA

Azterlan honetan esku hartu duten pertsonak, 8 gizon eta emakume 1 dira. Emakumea 30 eta 44 urte bitartekoa da, eta gizakumeen arteko bat 25 eta 29 urte bitartekoa da, bi 30 eta 44 urte bitartekoa eta gainerakoak 45 urtetik beherakoak.

2. GRAFIKOA: ADINA



Bizikidetza-egoerari dagokionez, gizon bat eta emakume bat bakarrik bizi dira, eta zazpi gizonek bikotekidea dute, eta horiek etxetik kanpo lan egiten dute.

1. TAULA: BIZIKIDETZA EGOERA

	Emakumeak	Gizonak
Bikotekidearekin		7
Bakarrik	1	1
Guztira	1	8

Kasu gehienetan, pertsona gehienak dira etxera diru gehien ekartzen dutenak, gizonezko kasu batean izan ezik, erdibana ekartzen dutela adierazi baitu.

Pertsonen ikasketa-mailari dagokionez: emakumezkoak bigarren mailako ikasketak ditu, bi gizonek lehen mailakoak eta 4k unibertsitate-ikasketak.

2. TAULA: IKASKETA MAILA

	Emakumeak	Gizonak
Lehen mailakoak	-	2
Bigarren mailakoak	1	2
Diplomatura	-	1
Lizentziatura	-	3




3. KONTRATU MOTA

Inkesta erantzun duten langileen artean langile autonomo bakarra dago, gainerako pertsonak (emakume 1 eta 7 gizonetzko). Inkesta erantzun duten langile guztiek lanaldi osoko kontratu mugagabea dute.

Ordaintzeko moduari dagokionez, gizonetzko bi langilek eta emakumezko langileak soldata finkoa jasotzen dute; beste bi gizonetzkoak, ordea, taldearen errendimenduaren arabera soldata aldakorra jasotzen dute, eta 3 gizonetzkoak banakako errendimenduaren arabera soldata aldakorra. Soldatapeko bi gizonetzkoak (guztira 8 pertsonatik) bakarrik jasotzen dute gehigarriren bat. Biek adierazten dute jasotzen duten gehigarri hori duten erantzukizun- eta aginte-mailagatik dela. Beraz, inkesta erantzun duten langileen arteko batek ere ez du arrisku, toxikotasun, nekagarritasun edo gaueko lanagatik gehigarririk jasotzen.

3. GRAFIKOA: ORDAINTZEKO MODUA




GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (7)

4. LAN MOTA

Inkesta erantzun duen emakumeak arrantza sektoreko administrazio-lanpostua betetzen du. Gizonezkoen artean, 5 bitarteko agintariak dira eta 3 langile kualifikatuak.

4. GRAFIKOA: LANLEKU BARRUKO LANPOSTUA




GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)



Inkesta erantzun duten langile-taldea osatzen duten 8 gizonetatik 2k ontzia garbitzen dute, eta beste hiru, administrazio- eta kudeaketa-lanetan aritzen dira. Emakumea, bere aldetik, administrazio- eta kudeaketa-lanak egiten ditu.


5. GRAFIKOA: LAN MOTA



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Inkesta erantzun duen emakumeak arrasteko arrantza-sektorean lan egiten du. Langile gehienek (gizonezkoak) baxurako arrantzaz lan egiten dute. Arraste-arrantzaz inkesta erantzun duten bi langilek baino ez dute lan egiten, eta gainerako sektoreetan langile bakarra dago.

6. GRAFIKOA: ARRANTZA SEKTorea



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Ondorengo taulan ikusten den bezala, inkesta erantzun duten langileek denbora luze daramate arrantza-sektorean lanean. Azpimarratzekoa da, langile hauetatik 3k 31 eta 40 urte bitartean daramatela arrantza-sektorean lanean, eta baita, 5 gizonezkoak, oraingo ontzian 11 eta 20 urte bitartean eramatea.



3. TAULA: ARRANTZA SEKTOREAN ETA ORAINGO ONTZIAN DARAMATZATEN URTEAK

	Arrantza-sektorea		Ontzia	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
0 - 10 ur	1	1	1	1
11 - 20 urte	0	1	0	5
21 - 30 urte	0	2	0	1
31 - 40 urte	0	3	0	1
41 urte edo gehiago	0	1	0	0
Guztira (K)	1	8	1	8

GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Datozen hamabi hilabeteetan lana galdu ahal duten edo kontratua berrituko dieten galdetu zaienean, inkesta erantzun duten langile gehienek onartu dute litekeena enpresa horretan jarraitzea dela. Beraz, ondoriozta daiteke sektore honetako lana nahiko egonkorra dela.

Inkesta erantzun duen emakumezko langilea da ordenagailua eta telefono finkoa gehien erabiltzen duen langilea. Beste bi gizonazko ere ordenagailua eta telefono finkoa erabiltzen dute. Langile hauek gehien erabiltzen dituzten lanabesak honako hauek dira: ingurasarea, ezpeletak, txirrikak eta hondoko arraste-sarea.

4. TAULA: LANEAN ERABILTZEN DIREN LANABESAK

	Emakumeak	Gizonak
Ingurasarea	0	3
Kainabera	0	0
Azaleko tretza	0	1
Hondoko tretza	0	1
Ezpeletak eta txirrikak	0	2
Arraste-sare pelagikoa	0	0
Hondoko arraste-sarea	0	2
Trebes-sare pelagikoak	0	0
Ordenagailua	1	2
Telefono finkoa	1	2
Sakelako telefonoa	0	1
Guraizeak/orratzak/hortzak	0	0
Guztira (K)	1	8

GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Tresna arruntak erabiltzeari buruz eman zaien informazio eta prestakuntzari dagokienez, inkesta erantzun duten 8tik 7k esan du nahikoa informazio eta prestakuntza eman zaizkiela eta emakumeak adierazi du ez duela faltan bota lehendik erabiltzen zekielako. Ondorengo taulan ikus daitekeenez, gizonazkoek bezala, emakumezkoak nahikoa denbora darama tresnak erabiltzen.

5. TAULA: ARRANTZA APARAILUEN ERABILERA


	Emakumeak	Gizonak
0 - 10 urte	1	1
11 - 20 urte	0	1
21 - 30 urte	0	2
31 - 40 urte	0	3
41 urte edo gehiago	0	1
Guztira (K)	1	8



Inkesta erantzun duten gizonzkoen erdiak lana eten behar izan du momenturen batean, baina batek bakarrik adierazten du horren arrazoia zein izan den: soldaduska.

Enpresan hartzeko prozesua nahikotzat jo dute 5 gizonzkoek. Batek bakarrik esaten du harrera-prozesua izan bazuen ere, ez zitzaiola nahikoa iruditu. Emakumezko langileak dio ez zuela harrera-prozesurik izan, baina ondo konpontzen dela.

7. GRAFIKOA: ENPRESAN HARTZEKO PROZESUA




GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Esan daiteke langile guztiek adierazten dutela azken bi urteetan arrantza-aparailuak ez direla sakonki aldatu.

5. INGURUNE TERMIKOA

Arrantza-sektorean hainbat dira lana garatzeko dauden lekuak. Inkesta erantzun duten langileen arteko 4k adierazten dute zubian lan egiten dutela eta 2k bizkarrean. Emakumeak eta bi gizonzkoek, ordea, bulegoan lan egiten dute.

8. GRAFIKOA. LANALDIAN ZEHARKO LANLEKUA



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)




Udaran eta neguan lanpostuan dagoen tenperaturari dagokionez, emakumezko langileak eta 5 gizonazko atsegina dela diote. Inkesta erantzun duten 9 pertsonetatik batek adierazten du lanpostuko tenperatura ez dela atsegina, udaran bero egiten duelako, eta neguan, berriz, hotz.

6. TAULA: LANTOKIKO TENPERATURARI BURUZKO IRITZIA

	Uda		Negua	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Atsegina	1	5	1	5
Desatsegina, hotza dela-eta	0	0	0	1
Desatsegina, beroa dela-eta	0	1	0	0
Ez dagokio	0	2	0	2
Guztira (K)	1	8	1	8

Hezetasunari dagokionez, gizonazkoen artean iritziak banatuta daude. Lauk uste dute lanpostuan duten hezetasun-maila nahiko egokia dela, beste hiruk, ordea, gehiegizko hezetasuna dagoela uste dute. Inkesta erantzun duen emakumeak uste du bulegoko hezetasun-maila egokia dela.

9. GRAFIKOA: HEZETASUNA



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

6. ZARATA ETA DARDARAK

Zarata-maila lanpostuaren araberakoa da. Zenbait langilek oso altua ez dela diote eta beste batzuek, ordea, zarata-maila nahiko altua dela, eta zenbait kasutan lankideekin 3 metrora hitz egitea ezinezkoa dela diote. Emakumezko langileak, berriz, bere lanlekuan zaratarik ez dagoela adierazi du.



Langileetako batek adierazi du lanpostuan dardarak sumatzen dituela eskuak, besoak edo hankak ez diren beste gorputz-atal batzuetan. Langile honen arabera, makinek sortzen dituzte dardarak.

7. TAULA: ZARATA MAILA

	Emakumeak	Gizonak
Oso maila txikia, ia ez dago zaratarik	1	5
Ez da oso altua, baina desatsegina da	0	2
Zarata-maila handia da, eta 3 metrora dagoen beste lankide batekin ezin da hitz egin	0	1
Zarata-maila handia da, eta 3 metrora dagoen beste lankide batekin ezin da berba egin ozenki hitz eginda ere	0	0
Guztira (K)	1	8

7. KUTSATZAILE KIMIKOAK

Lan-motaren araberakoa da kutsatzaile ezberdinen eragin-maila. Kasu honetan, inkesta erantzun duten arrantza-sektoreko langileek adierazten dute ez dituztela gai edo produktu kaltegarri edo toxikorik manipulazten, ezta hauts, gas, ke, edo lurrun kaltegarri edo toxikorik ere.

8. SEGURTASUN BALDINTZAK

Langileek berez lanpostuarenak diren arriskuren eraginpean daudela onartzen dute. Kolpeak dira langileen artean ezkutukoaren diren arriskuetao bat (6), eta jarraian, eta taulan agertzen direnen artean, amuekin edo labanekin moztea edo zizt egitea (5) edo ontzitik erortzea (4). Istripu hauen arrazoietao batzuk eguraldia, ura, nahastea... Emakumezkoak, aitzitik, ez du istripu-arriskurik adierazi.

8. TAULA: ISTRIPU ARRISKUAK

	Emakumeak	Gizonak
Pertsonak altueratik erortzea	0	2
Pertsonak maila berean erortzea	0	4
Pertsonak ontzitik erortzea	0	3
Objektuak, materialak edo erremintak erortzea	0	0
Moztea edo zizta egitea (amu, laban, sareetarako orratz arraina ebakitzeko makinekin,...)	0	5
Kolpeak	0	6
Produktu kimikoak arnastea	0	0
Zatiak edo partikulak proiektatuta jotzea	0	0
Harrapatuta geratzea (sareak, kableak, sokak...)	0	0
Zama astunak erabiltzeagatik ahalegin handiegia egitea	0	1
Erredurak	0	0
Kontaktu elektrikoak	0	0
Leherketak	0	0
Suteak	0	0
Ontzia hondoratzea	0	3
GUZTIRA (K)	1	8

Guztiak ados daude istripu-eragile nagusia itsasoan daudela enbat batek harrapatzea dela. Besteak beste, gehiegizko konfiantza, segurtasun-neurriak seriotasunez ez hartzea edo lanean eragiketa arriskutsuak ezinbestez egin behar izatea aipatzen dituzte, beste arrazoiaren artean.



9. TAULA: ISTRIPUEN ERAGILEAK

	Emakumeak	Gizonak
Lanlekua baldintza txarretan dago	0	1
Lanlekurako sarbideak (eskailerak, ateak) egoera txarretan daude	0	0
Makina ez dago behar bezain babestuta	0	0
Lan-eremua ez da segurua	0	1
Instalazioak zaharrak dira	0	0
Edozeren gaintik arrantzatu egin behar da	0	0
Baliabide edo erreminta egokiak ez izatea	0	0
Lana dela-eta, eragiketa arriskutsuak egin behar izatea	0	1
Esfortzuak edo jarrera behartuak	0	0
Banakako babes-ekipoak ez edukitzea edo egokiak ez izatea	0	1
Nekea	0	0
Gehiegizko konfiantza edo ohitura	0	1
Lanaldi luzeegiak	0	0
Lanpostuaren diseinua desegokia izatea	0	0
Lan-erritmo azkarra	0	1
Behar beste prestakuntzaz lan egitea	0	0
Leku falta	0	0
Lanean esperientziarik ez izatea	0	0
Oso denborale gogorra	0	3
Trafikoari lotutako arrazoiak	0	0
Segurtasun-neurriak ez erabiltzea	0	0
Langileek segurtasun-neurriak seriotasunez hartzen ez dituztelako	0	1
Prebentzio-neurrien erabileraren inguruko kontrola falta delako	0	0
"Lehorrarekiko" komunikazio egokiaren falta	0	0
Guztira (K)	1	8

9. LANPOSTUAREN DISEINUA

Aldatu egiten da lanpostu bakoitzaren diseinua. Besteak beste, lantokietako argiztapen egokia bezalako egoera positiboak daude, jarrera deserosoak galarazteko altuera egokiko eremuetan lan egiten da.

Hala ere, inkesta erantzun duten gizakumeek hain positiboak ez diren beste egoera batzuk adierazi dituzte, hala nola: lanabes asko gaizki kokatuta egon eta besoa gehiegi luzatu behar izatea, azalera ezegonkor eta irregularretan lan egin behar izatea edo etengabe gehiegizko hezetasunaz lan egin behar izatea.

10. TAULA: LANPOSTUAREN KOKALEKUA

	Emakumeak	Gizonak
Erosotasunez lan egiteko leku gutxi izatea	0	0
Oso altu edo oso baxu kokatutako lanabesak, elementu edo objektuak hartzeko besoa gehiegi luzatu behar izatea	0	1
Eskuak sartzeko zailtasuna erakusten duten lan-eremuetan lan egitea	0	0
Lanerako oso aulki deserosoa edukitzea	0	0
Argiztapen desegokia egiten den lanerako	0	0
Azalera ezegonkor edo irregularretan lan egin behar izatea	0	1
Etengabe gehiegizko hezetasunarekin lan egin behar izatea	0	1
Zamak jasotzen dituen makinarik ez izatea	0	0
Ekipamendu egokia (jantziak, oinetakoak) ez izatea	0	0
Guztira (K)	1	8




10. LAN-KARGA

Atal honetan honelako alderdiak barne hartzen ditu: lanpostuak izaten diren jarrera ezberdinak, lan-erritmoa eta bi horien ondorioak.

Langileen jarrerarik ohikoenak dira ia ibili gabe zutik egotea, eta zutik egotea sarritan ibiliz, edo eserita egotea sarritan altxatuz. Inkesta erantzun duen emakumeak adierazi du bere ohiko jarrera eserita egotea dela, eta ez dela ia inoiz altxatzen.

10. GRAFIKOA: LANALDIAN ZEHARKO JARRERAK



Bestalde, jarrera desegokietan egon behar duten denbora aztertu da. Emakumeak onartzen du, lanaldi erdi baino gehiago jarrera berberean egon behar izaten duela eta lanaldi erdian edo laurdenean zehar esku eta besoekin oso mugimendu errepikakorrek egin behar izaten dituela. Gizonezkoek adierazten dute lanaldiaren erdia baino gehiago jarrera berberean egon behar izaten dutela eta esku eta besoekin oso mugimendu errepikakorrek egin behar izaten dituztela.

11. TAULA: JARRERA DESEGOKIETAN EMANDAKO DENBORA TARTEA

		Lanaldi erditik gora	Lanaldiaren erdia eta laurdenaren artean	Lanaldiaren laurdena baino gutxiago	Inoiz ez	EE
EMAKUMEAK	Jarrera mingarri edo nekagarrietan egotea	0	0	0	1	0
	Jarrera bera mantentzea	1	0	0	0	0
	Zama astunak altxatzea edo lekualdatzea	0	0	0	1	0
	Indar handia egitea	0	0	0	1	0
	Eskuak edo besoak era errepikakorrean errepikatu behar izatea	0	1	0	0	0
GIZONAK	Jarrera mingarri edo nekagarrietan egotea	0	1	1	4	2
	Jarrera bera mantentzea	3	1	2	2	0
	Zama astunak altxatzea edo lekualdatzea	0	1	0	5	2
	Indar handia egitea	0	1	0	5	2
	Eskuak edo besoak era errepikakorrean errepikatu behar izatea	3	1	1	3	0

GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)



Jarrera desegoki hauek hainbat gorputz-ataletan molestiak sortarazten dituzte. Inkesta erantzun duen emakumearengan eragindakoen artean, garrantziaren hurrenkeran: bizkarraren goialdea eta hankak; eta gizonezkoengan: besoak/besaurreak, bizkarraren behealdea eta eskuak/eskumuturrak.

Orokorrean, inkesta erantzun duten langileek arreta-maila altua edo oso altua mantendu behar izaten dute lanaldi erditik gora. Gainera, gizonen erdiak baino gehiagok lan errepikakorrak eta oso iraupen txikikoak egin behar izaten dituzte, eta emakumeak, berriz, lanaldiaren erdian edo laurdenean egin behar izaten ditu.

Emakumeak egin behar izaten dituen iraupen txikiko lan errepikakor hauek bost minutu baino gutxiago irauten dute. Gizonezkoen kasuan, ordea, horien ia erdiak adierazten hamar minutu luze irauten dutela.


12. TAULA: LANALDIAN EGINDAKO LANA

		Lanaldi erditik gora	Lanaldiaren erdia eta laurdenaren artean	Lanaldiaren laurdena baino gutxiago	Inoiz ez	EE
EMAKUMEAK	Arreta-maila handia edo oso handia mantentzea	1	0	0	0	0
	Lan-erritmo altua mantentzea	0	1	0	0	0
	Iraupen txikiko oso lan errepikakorrak egin behar izatea	0	1	0	0	0
GIZONAK	Arreta-maila handia edo oso handia mantentzea	5	1	1	1	
	Lan-erritmo altua mantentzea	2	1	1	2	2
	Iraupen txikiko oso lan errepikakorrak egin behar izatea	5	1	0	2	0

GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Azken hiru hilabeteetan egin behar izan duten lan-kopuruari dagokionez, emakumeak adierazten du oso aldakorra izan dela, eta gizon gehienek (9 gizonetatik 7k), ordea, ohiko lan-kopurua izan dutela.

11. GRAFIKOA: LAN KOPURUA



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Orokorrean, emakumearen lanari dagokionez, inoiz ez ditu kalitate-arau zehatzak errespetatu behar, baina beti edo ia beti ebaluatu behar izaten du berorrek egindako lana, berorrek konpondu behar izaten



ditu arazoak, lan konplexuak egin behar izaten ditu eta gauza berriak ikasi behar izaten ditu. Gizonezkoek, bestalde, beti edo ia beti konpondu behar izaten dituzte arazoak. Gainera, horietako askok, besteak beste, lan konplexuak egin, gauza berriak ikasi eta eurak egindako lanaren kalitatea ebaluatu behar izaten dute.


13. TAULA: LANPOSTUAREN BALDINTZAK

		Beti edo ia beti	Sarritan	Noizbehinka	Inoiz ez	EE
EMAKUMEAK	Kalitate-arau zehatzak errespetatzea	0	0	0	1	0
	Zerorrek egindako lana zuk zeuk ebaluatu behar izatea	1	0	0	0	0
	Zerorrek arazoak konpontzea	1	0	0	0	0
	Jarduera konplexuak egin behar izatea	1	0	0	0	0
	Gauza berriak ikastea	1	0	0	0	0
	Epe laburrekin lan egin behar izatea	0	0	1	0	0
GIZONAK	Kalitate-arau zehatzak errespetatzea	3	2	2	1	0
	Zerorrek egindako lana zuk zeuk ebaluatu behar izatea	3	1	2	0	2
	Zerorrek arazoak konpontzea	4	2	2	0	0
	Jarduera konplexuak egin behar izatea	3	0	2	1	2
	Gauza berriak ikastea	3	0	2	1	2
	Epe laburrekin lan egin behar izatea	2	2	3	1	0

GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Kasu gehienetan lana ez da monotonoa izaten, baina ezin da baztertu bi gizonazko adierazten dutela bere lana, sarritan, monotonoa izaten dela eta batek, berarentzat beti monotonoa dela esaten duela.

12. GRAFIKOA: LANAREN MONOTONIA



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Emakumezko langileak beti edo ia beti izaten ditu informazio argi edo nahikoak, laguntza izateko aukera eta nahikoa laguntzaile. Gizonezkoen kasuan, ordea, neurri hauek ez ezik, lana egiteko nahikoa denbora izan ohi dute.




14. TAULA: LANA EGITEKO DITUZTEN NEURRIAK

		Beti edo ia beti	Sarritan	Noizbehinka	Inoiz ez	EE
EMAKU KEMAK	Nahikoa denbora	0	0	1	0	0
	Informazio argi eta nahikoak	1	0	0	0	0
	Laguntza izateko aukera	1	0	0	0	0
	Nahikoa laguntzaile	1	0	0	0	0
GIZON AK	Nahikoa denbora	4	3	1	0	0
	Informazio argi eta nahikoak	5	2	1	0	0
	Laguntza izateko aukera	4	2	2	0	0
	Nahikoa laguntzaile	4	2	1	1	0

GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Hurrengo grafikoan ikusi ahal denez, lanpostuan akatsen bat egiten denean, honek, normalean, arazo arina sor dezake edo ia ez du ondorioarik. Inkesta erantzun duten langileen arteko batek ere ez du uste beren lanpostuan egin daitezkeen akatsek ondorio larriak izan ditzaketarik.

13. GRAFIKOA: LANPOSTUAN EGINDAKO AKATSA



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Inkesta erantzun duen emakumeak egin ditzakeen akatsek, berak dioenez, enpresaren fakturazioari eragin diezaioke. Gizonezkoen arabera, ordea, akatsen bat egitekotan egon daitezkeen ondorioak dira, bereziki, zigor ekonomikoak edo kalteak instalazioetan, ekipoetan eta materialetan. Aipatu ere, aipatzen dituzte, pertsonen segurtasun eta osasunean kalteak sortzeko aukera.

11. KOMUNIKAZIOA

Lan egiten duten bitartean bere lankideekin harremanak izatea galarazten edo zailtzen dituzten alderdien artean, hau da, zarata, lankideak urruti edukitzea, enpresak debekatuta edukitzea, babes-



ekipoak, edo isolatuak egotea... direla-eta, gizonzkoek adierazten dute ez dela horrelakorik gertatzen. Emakumezkoak, aitzitik, lan-erritmoak lankideekin harremanak izatea galarazten diola adierazten du.

Gainerako pertsonetik harremanei dagokienez, inkesta erantzun duten guztiek harreman ona dute nagusiekin. Emakumezkoak, halaber, lankide eta menpekoekin harreman onak dituela adierazten du. Gizonzkoen erdiak onartzen du harreman onak dituztela gainerako lankideekin, baina beste erdiak, hala-moduzkoak edo txarrak direla esaten du. Menpeko langileei dagokienez, gizonzkoen erdiak (4) adierazten du harremanak onak direla, eta horietako batek baino ez du esaten txarrak direla. Nabarmendu behar da gizonzkoen zati handi batek ez duela menpeko langilerik.

15. TAULA: LANEAN ARITU BEHARREKO PERTSONEKIKO HARREMANA


		Oso onak	Onak	Hala-moduzkoak	Txarrak	Oso Txarrak	Ez dauka	EE
EMAKUMEAK	Nagusiekin	0	1	0	0	0	0	0
	Lankideekin	0	1	0	0	0	0	0
	Menpekoekin	0	1	0	0	0	0	0
GIZONAK	Nagusiekin	0	6	0	0		1	1
	Lankideekin	3	1	2	2	0	0	0
	Menpekoekin	0	4	0	1	0	3	0

GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

12. ESTATUSA

Lanpostua betetzeko ezagutzak izatea beharrezkoa den galdetu zaienean, 3 gizonzkoek erantzun dute lanpostua betetzeko ez dela beharrezkoa ezagutza bereziak izatea, esperientziarekin nahikoa dela, baina beste 3 gizonzkoek uste dute erdi- zein goi-mailako unibertsitate-prestakuntza izatea beharrezkoa dela. Emakumeak, bi gizon bezala, lanpostua betetzeko lanbide-heziketako prestakuntza-ikasketak izatea nahikoa dela esaten du.

14. GRAFIKOA: ESKATZEN DIREN EZAGUTZAK



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)




Bereganatu dituzten ezagutza edo gaitasunak aplikatzeko aukerari dagokionez, oro har, ondoriozta daiteke, langile hauek aukera hori ematen zaiola. Izan ere, 5 gizonezko esaten dute horretarako aukera handia ematen zaiela, eta 3k, emakumeak bezala, nahikoa ematen zaiela.

16. TAULA: EZAGUTZAK APLIKATZEKO AUKERA

	Emakumeak	Gizonak
Bai, handia	0	5
Bai, nahikoa	1	3
Bai, hala-moduz	0	0
Bai, baina txikia	0	0
Ez, bat ere ez	0	0
Ee	0	0
Guztira (K)	1	8

Inkesta erantzun duten langileen lanpostuaren garrantziari dagokionez, emakumeak eta gizonen erdiak uste dute beren lanpostua enpresan garrantzitsua dela. 3 gizonezko uste dute beren lanpostua enpresako garrantzitsuenetako bat dela.

15. GRAFIKOA: LANPOSTUAREN GARRANTZIA



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

**13. AUTONOMIA**

Enpresa betetzen den lanpostuak, statusa zehazteaz gain, autonomia-maila ere ezar dezake. Atal honetan, langileek beren lanpostuan duten autonomiari buruzko hainbat alderdi jorratuko dira.

Emakumeak zein gizonen erdiak autonomia osoa dute hainbat alderditan, hala nola, lanen hurrenkeran, lan-metodoan, lan-erritmoan eta etenaldien iraupenean. Nabarmendu behar da gizonen batek baino ez duela esaten inoiz ez duela autonomiarik.


17. TAULA: LANEKO ALDERDIAK AUKERATU EDO ALDATZEKO AUTONOMIA

	Jardueren hurrenkerak		Lan-metodoa		Lan-erritmoa		Etenaldien iraupena	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Nahi dudanean	1	4	1	4	1	4	1	5
Batzuetan	0	1	0	3	0	3	0	3
Inoiz ez	0	1	0	1	0	1	0	0
Ee	0	2	0	0	0	0	0	0

GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Arrantzak ezarri ohi du langile gehienek lan-erritmoa. Adierazten dituzten gainerako arrazoiak, eguraldi-baldintzak eta lortu beharreko goi-mailak dira. Langileen arteko gizonen batek baino ez du onartzen bere lanean ez dagoela erritmorik.

16. GRAFIKA: LAN ERRITMOA EZARTZEA




GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, langileen zati handi batek egiten diharduen jarduerak eten egiten ditu egunean behin baino gehiagotan, aurreikusita ez zeuden beste batzuk egiteko. Gizonen beste zati handi batek onartzen du ez duela ia inoiz egiten ari den jarduerak eten behar izaten.



Etenaldi hauek lanaren garapenean izan ditzaketen ondorioei dagokienez, emakumeak adierazten du kaltegarriak direla, eta gauza bera esaten dute bere jarduera eten behar izaten duten bi gizonaz. Bere jarduera eteten duten gainerako gizonazkoek adierazten dute etenaldiak ez dute bere lanaren garapenean ondoriorik.

17. GRAFIKOA: EGITEN ARI DEN LANA ETETEA



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Lana eteteari edo langileak behar duenean lanaldian zehar lanlekutik alde egin behar izateari dagokienez, langile gehienek esaten dute ez dutela inolako arazorik hori egiteko. Izan ere, 5 gizonaz esaten dute bere ordez inor jarri gabe egin ahal dute, baina emakumeak eta gizonazko batek onartzen dute, ordezkoa beharko luketela. Nolanahi ere, langileen arteko 2 gizonazkoek ez dute lana eten edo lanean ez egoteko aukerarik.

18. TAULA: LANEAN EZ EGOTEKO AUKERA

	Emakumeak	Gizonak	Guztira (K)
Bai, ordezkatuta	0	5	5
Bai, ordezkorik gabe	1	1	2
Ez	0	2	2
Guztira (K)	1	8	9


14. SUSTAPENA

Enpresa barruan mailaz igotzeko edo sustatzeko aukerari dagokionez, ikusi da langile gehienek ez dutela inoiz mailaz igo. Gizonazko bik baino ez dute mailaz igo. Kontuan izan behar da, lehenago ikusten zenez, inkesta erantzun duten langileek urte dezente daramatzatela enpresa berean lanean, eta honek esan nahi, arrantza-sektorean beste sektoreetan baino zailagoa dela mailaz igotzea.



Egungo enpresan mailaz pixka bat igo dutela onartu duten langileek adierazi dute, pilotutako esperientziagatik izan dela. Emakumeak adierazi du ezin izan duela inoiz mailaz igo, ez zaiolako inoiz aukera hori eman, eta beste gizonezko batek onartu du interes faltagatik ez duela mailaz igo.

18. GRAFIKOA: SUSTAPENA



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

15. ORDUTEGIA

Arrantzan lan egiteak dedikazio eta ahalegin handia eskatzen du. Funtsezko alderdietako bat laneko ordutegia eta lanegunak dira. Lan-mota honetan, normalean, ez dago astebururik, ez jaiegunik, ezta oporrik ere. Inkesta erantzun duen emakumeak, aitzitik, ez du larunbat, igande eta jaiegunetan lan egin behar izaten, administrazioan lan egiten dutelako. 3 gizonezkoek, ordea, egin behar dutela adierazi dute. Gainera, langile gehienek gauzez lan egin behar izaten dute.

Lan egindako orduei dagokienez, langile hauek 35 eta 40 ordu bitartean lan egiten dute astean. Sektore honetan lan egiten duten pertsonen egunaren eta arrantzatzearen arabera ordu-kopurua sartzen dute. Arrainik arrantzatzen ez duten egunetan, lanordu gutxiago sartzen dituzte langileek, arrainik arrantzatzen diren egunetan baino. Emakumeak sartzen duen ordu-kopurua ez da arrantzatzearen arabera.

19. TAULA: LANORDUAK ARRANTZATU ETA ARRANTZATU GABEKO EGUNETAN

	Arrantzatzen den egunetan		Arrantzatzen ez den egunetan	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
8 ordutik behera	1	1	1	0
8 ordu	0	2	0	0
8 eta 10 ordu bitartean	0	2	0	5
14 ordutik gora	0	1	0	1
Ee	0	2	0	2
Guztira (K)	1	8	1	8




Gauza bera gertatzen da urteko hilabeteekin. Arrantza-sasoiaren arabera, denbora libre gehiago edo gutxiago izaten da. Emakumeak eta 3 gizonak urteko 12 hilabeteetan lan egiten dutela adierazi dute. Gainerakoek, urteko 10 eta 11 hilabeteetan lan egiten dute.

Ordutegiaren zorrotasun edo malgutasunari dagokienez, emakumeak esan du bere lana finkoa dela, ordu zehatz batean sartu eta irteten dela, baina gizonezkoek, ordutegi malgua dutela adierazi dute.

Langile gehienek ez dute zertan beren lanaldia luzatu behar, baina egiten duten gizon batek ordain ekonomikoa edo denbora libre jasotzen du trukean. Gizonezko batek eta emakumeak ez dute jasotzen. Beren lanaldia luzatu behar izaten duten pertsonak diote arrazoi nagusia gehiegizko lana izaten dela.

19. GRAFIKOA: LANALDIA LUZATZEA



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

16. PARTE-HARTZEA

Atal honetan, inkesta erantzun duten langileek enpresen barruko lanaren inguruko hainbat arazoetan nola edo zenbateraino parte hartzen duten aztertuko da. Ondorengo taulan azaltzen diren datuek adierazten dute parte-hartzea nahiko altua dela lanaren hainbat alderdi garrantzitsuetan, hala nola, lanaren plangintzan eta antolamenduan, lana berrikustean edo lanabesak aukeratzekoan. Datu hauen bitarte ondoriozta daiteke enpresek, orokorrean, langileei lanaren inguruko hainbat alderditan esku hartzea ahalbidetzen dietela, eta bestetik, hala gizonezkoek, nola emakumezkoek honelako auzietan esku hartzeko interesa azaltzen dutela.



20. TAULA: PARTE-HARTZEA (%)

	Bai, parte hartzen dut		Parte har dezaket baina ez dut hartzen		Ezin dut parte hartu		Ee	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Lanaren plangintza eta antolamendua	1	8	0	0	0	0	0	0
Lanaren kalitatea gainbegiratzea	1	7	0	0	0	0	0	1
Lanpostuan aldaketak egitea	1	5	0	2	0	0	0	
Erabili beharreko ekipoak/tresnak aukeratzea	1	7	0	0	0	0	0	1
Lanpostuko baldintzak moldatzea	0	7	1	0	0	0	0	1
Lanpostuan laneko arriskuak prebenitzeko jarduerak	1	5	0	2	0	0	0	1
Familia eta lana bateratzeko neurrietarako jarduerak	0	7	1	0	0	0	0	1

GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Langileei dagozkien erabakien inguruan iradokizunak egiteko edo horietan esku hartzeko baliabide ezberdinak daude, hala nola, nagusiekin zuzenean hitz egitea, iradokizunen postontzia, kalitate-zirkuluak, langileen ordezkariak edo bilerak. Inkesta erantzun duten langileek ondoren baloratu duen aukera nagusiekin zuzenean hitz egitekoa da, horrela erantzun baitute guztiek. Adierazi behar da, gizonezkoek nahiko ondo baloratzen dituztela langileen ordezkariak. Nabarmentzekoa, halaber, langile batzuek beren enpresan honelako baliabideak ez daudela esatea.

21. TAULA: BALIABIDEAK (%)


	Nagusiekin zuzenean lan egitea		Iradokizunen postontzia		Kalitate-zirkuluak		Langileen ordezkariak		Langileen bilerak	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Ona	1	8	0	2	0	3	1	5	0	6
Hala-moduzkoa	0	0	0	0	0	2	0	0	0	0
Txarra	0	0	0	2	0	0	0	0	0	0
Ez dago	0	0	1	4	1	3	0	3	0	2
Ed	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0
Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0

GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Beren lanlekuko segurtasuna eta osasuna hobetzeko inoiz iradokizunik egin duten galdetu zaienena, gehienek noizbait egin dutela adierazi dute. 3 dira inoiz iradokizunik ez dutela egin adierazten duten gizonezkoak.



20. GRAFIKOA: IRADOKIZUNAK




GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

17. PREBENTZIOA ANTOLATZEA

Inkesta erantzun duten emakumeak eta 6 gizonezko onartu dute beren enpresan laneko arriskuen prebentzioaz arduratzen den ordezkariaren bat dagoela. Beste bi gizonezko, ordea, beren enpresan horrelakorik ez dagoela adierazten dute.

21. GRAFIKOA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ORDEZKARIA




GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Laneko arriskuen prebentzioaz arduratzen den ordezkariaren ebaluazioari dagokionez, bai emakumearen eta baita gizonezkoen aldetik nahiko ondo baloratuta dagoela sumatu da. Emakumeak eraginkortzat jotzen du irudi hau, 3 gizonezko eraginkor samartzat eta beste bik eraginkortzat.



22. GRAFIKOA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ORDEZKARIAREN ERAGINKORTASUNA (%)



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Laneko segurtasun- eta osasun-batzordea dagoen ala ez galdetuta, inkesta erantzun duten langile guztiek onartu duten beren enpreetan ez dagoela horrelako batzorderik.

18. PREBENTZIO JARDUERAK

Ondorengo faktore hauen bidez aztertuko da atal honetan prebentzio-jarduera: azterketa medikoa, osasun eta segurtasunerako lanpostuko arriskuei buruzko azterlanak egitea eta norbera babesteko ekipoak erabiltzea.

Azterketa medikoari dagokionez, langile guztiek adierazten dute azken hamabi hilabeteetan azterketa medikoa egin dietela, eta honen arrazoia aldizkako azterketa izatea izan dela.

Azterketa medikoa egin ondoren, inkesta erantzun duten hiru gizon eta emakumeari idatziz jakinarazi dizkiete emaitzak, eta gainerakoei, ordea, ahoz.

Emakumezko langileak uste du azterketa medikoa baliagarria dela eta lanarekin zerikusirik duen gaixotasunik ote duen jakiteko beharrezko probak egin dizkiotela; gauza bera adierazi dute 3 gizonek. Adierazi behar da, bi gizonezko baliagarritzat jotzen dutela azterketa medikoa.




22. TAULA: AZTERKETA MEDIKOARI BURUZKO IRITZIAK

	Emakumeak	Gizonak
Alferrikakoa da, denbora galdu baino ez da egitea	0	2
Azterketa mediko orokorra da, eta beti dago ondo, baina ez dut ikusten nire lanpostuaren arriskuekin lortura duenik.	0	3
Baliagarria da, uste dut nire lanarekin zerikusirik duen gaixotasunen bat dudan jakiteko beharrezko probak egin dizkidatela.	1	3
Emakumezko langileen berariazko eta berezko osasunarekin zerikusirik duten alderdiak falta dira.	0	0
Ed	0	0
Ee	0	0
Guztira (K)	1	8

Osasun eta segurtasunerako lanpostuko arriskuei buruzko azterketa lantegiek egin ohi dituzten prebentzio-jardueretako bat da. Inkesta erantzun duten langile gehienek onartzen dute beren lanlekuan osasun eta segurtasunerako lanpostuko arriskuei buruzko azterlanak egiten direla.

23. GRAFIKOA: OSASUN ETA SEGURTASUNERAKO LANPOSTUKO ARRISKUEN AZTERLANA



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Beren lanpostuan osasun eta segurtasunerako dauden arriskuei buruzko azterlanen bat egin dutela onartzen duten langileek adierazten dute bere enpresan gehien aztertu diren alderdiak honako hauek izan direla: zarata, ingurune termikoa, dardarak, laneko jarrerak, esfortzu fisikoak eta mugimendu errepikakorak, makinaren segurtasuna, ekipoak eta materiala, instalazioen segurtasuna eta lanpostuaren diseinua.




23. TAULA: OSASUN ETA SEGURTASUNERAKO LANPOSTUKO ARRISKUEN AZTERLANEAN AZTERTUTAKO ALDERDIAK

	Emakumeak	Gizonak
Zarata	1	2
Ingurune termikoa (tenperatura, hezetasuna)	1	0
Dardarak	0	2
Erradiazioak	0	0
Gai edo produktu kaltegarri edo toxikoak erabiltzea edo arnastea	0	0
Agente biologikoak	0	0
Laneko jarrerak, esfortzu fisikoak eta mugimendu errepikakorrak	1	4
Makina, ekipo eta materialaren segurtasuna	0	5
Instalazioen segurtasuna	1	3
Lanpostuaren diseinua (altzariak, eremua, azalera, argiztapena, etab.)	0	1
Buruaren eta antolaketaren arloko alderdiak (arreta-maila, ordutegia, etenaldiak, erritmoa, estresa, etab.)	0	0
Minusbaliotasunak duten pertsonen egokitzeko aukera	0	0
Gizarte- eta lan-arloko alderdiak (sexu-jazarpena, mobbinga, lanaldi bikoitza, etab.)	0	0
Emakumeen eta gizonen arteko litezkeen gatazkak, ingurune mistoetan.	0	0

GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (5)

Ondorengo grafikoan ikusten denez, modu ezberdinak daude enpresek langileei osasun eta segurtasunerako lanpostuko arriskuei buruzko azterlanen emaitzak jakinarazteko. Jakinarazpen-metodo bakar bat ere ez dago besteak baino hedatuago, zeren bi gizonak ahoz eta idatziz jakinarazi zizkietela esaten badute, beste bik idatziz bakarrik jakinarazi zizkietela diote, eta emakumeari eta beste gizonetzko bati soil-soilik ahoz helarazi zizkieten.

24. GRAFIKOA: OSASUN ETA SEGURTASUNERAKO LANPOSTUKO ARRISKUEN AZTERLANEKO EMAITZAK JAKINRAZTEA



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (5)

Lau gizonetzko eta emakumeak adierazten dute osasun eta segurtasunerako lanpostuetako arriskuen azterlana egin ondoren neurriren bat hartu dela. Lau gizon hauek bat datoz adieraztean hartutako




neurrien artean, instalazio, makina, ekipo eta materialetan egindako aldaketak eta banakako zein taldeko babes-ekipoak aldatu edo berriak ematea daudela. Emakumeak, aitzitik, neurriak prestakuntzan eta informazioan oinarrituta daudela dio.

Banakako babes-ekipoak lanleku askotan erabili ohi diren banakako babes-neurria dira. Hauen eraginkortasuna zein den jakiteko, derrigorrezkoak eta egokia diren aztertu eta kontrolatu egin behar dira.

Inkesta erantzun duten langileen arteko sei gizonezkorentzat da derrigorrezkoa babes-ekipoak erabiltzea. Horientzat, derrigorrezkoa da honako hauek eramatea: eskularruak, oinetakoak (arrisku mekanikoaren kontrakoa), betaurrekoak/pantailak (talken aurka), kaskoa/txanoak, belarri-babesak, arrisku termikoaren aurkako babesa eta erorketak saihesteko gerrikoak eta gailuak. Horietako guztiak adierazten dute ekipo horiek erabiltzen diren kontrolatzen dela eta ekipo hauen beren neurrikoak direla. Horien erdiak (3), hala ere, ekipo hauek emakume haurdunentzat eta minusbaliotasunen bat duten pertsonentzat egokituta ez daudela esaten dute.

25. GRAFIKOA: BABES EKIPOEN ERABILERA




GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

19. PRESTAKUNTZA

Inkesta erantzun duten langileetatik 6 gizonezkoak egungo edo aurreko enpresak bideratu edo eskaintako ikastaroren batean esku hartu dute azken 12 hilabeteetan. Hala ere, emakumeak eta bi gizonezkoak adierazi dute ez dutela inolako prestakuntzarik jaso azken urtean.



26. GRAFIKOA: PRESTAKUNTZA



GUZTIRA: Emakumeak (1) eta Gizonak (8)

Langileen esanetan, jarduera honek hauetakoren bat zuen xede: beren lanposturako prestakuntza hobetu edo eguneratzea (5 gizonezko aitortu dute), laneko arriskuen prebentzioari buruzko ezagutzak hobetu edo eguneratzea (2) eta jarduera berrietarako prestatzea (3).

Prestakuntza-jarduerak helburu ezberdinak izan ditzake. Prestakuntza jaso duten gizonezkoen erdiak adierazi du prestakuntza hori lanpostuaren prestakuntza teknikorako zela, eta beste erdiak, garapen pertsonalerako prestakuntza zela.

20. INDARKERIAZKO JOKABIDEAK LANEAN

Langile guztiak adierazi dute azken 12 hilabeteetan ez dutela lanlekuko inorengandik indarkeria fisikorik jasan. Hala ere, gizonezko batek esan du berarekin lan egiten duen edo duten pertsona batek edo batek baino gehiagok komunikatzeko zailtasunak jarri dizkio(te)la. Gainera, langileen arteko bi gizonezkoek adierazi dute gutxienez astean behin pertsonalki edo profesionalki iraindu edo mehatxatu egiten dituztela.


21. OSASUNERAKO KALTEAK

Inkesta erantzun duten arrantza-sektoreko pertsona guztiak uste dute osasun ona dutela. Guztien arteko gizonezko bat bakarrik egon da bajaran azken hamabi hilabeteetan. Bajaren arrazoia lan-istripu bat izan zen, eta hiru hilabete luzez egon zen bajaran.

Inkesta erantzun duten langileen tabakoarekiko portaerari dagokionez, grafikoan ikus daitekeenez, 5 gizonezko egunero erretzen dute, eta horien arteko bik egunero erre arren, egunean behin baino gutxiagotan erretzen dute. Gainerako langileek ez dute gaur egun erretzen. Egunero erretzen dutenen arteko bi gizonezko egunero 15 zigarro inguru erretzen dute, beste bik 20 zigarro inguru, eta besteak egunero bi zigarro.



27. GRAFIKOA: TABAKOAREKIKO JARRERA



Egun erretzen dutena duela sei hilabete erretzen zutenarekin alderatzean denek onartzen dute zigarkopuru berbera erretzen dutela, ez gehiago, ezta gutxiago ere. Gainera, langile horietatik bi azken urtean erretzeari uzten saiatu dira noizbait azken urtean, et beste bostak ez dira saiatu.

Inkesta erantzun duen emakumeak adierazi du zorabiatu egiten dela sarritan eta egun duen gogoaldarte txarra dela. Gizonezkoek jakinarazi dituzten sintometako batzuk honako hauek dira: gose- edo digestio-arazoak eta begietan arazoak (malko-jarioa, ikusmen iluna...).

24. TAULA: OHIKO SINTOMAK

Sintoma	Emakumeak	Gizonak
Nekez edo gaizki egiten duzu lo	0	0
Uneoro nekatuta zaudela sentitzen duzu	0	0
Buruko mina izaten duzu	0	0
Zorabiatu egiten zara	1	0
Kostata kontzentratzen zara edo arretari eusten diozu	0	0
Kostata gogoratzen zara gauzetaz edo erraz ahazten dituzu	0	0
Estu, larri, haserrekor sentitzen duzu zure burua, gose- edo digestio-arazoak (goragalea, bihotzerrea, digestio astunak...) dituzu.	0	0
Begietan arazoak dituzu (malko-jarioa, ikusmen iluna...)	0	2
Gogo-aldarte goibela	0	2
Nekez edo gaizki egiten duzu lo	1	0

Inkesta erantzun duen pertsona bati arteria-presio altua duela diagnostikatu diote. Azken ez dute beren sexu-bizitzan aldaketarik nabaritu. Seme-alabak izateko arazoei dagokienez, inkesta erantzun duten hiru gizonezkoek adierazi dute azken urtean ez dutela seme-alabak edukitza erabaki, baina gainerako



langileek ez dute galdera honi erantzun nahi izan; baliteke erantzun nahi ez izateagatik edo seme-alabak izateko inolako arazorik ez dutelako eduki izatea.

Emakumea izan da azken bi asteetan sendagaiak hartu dituen bakarra, minaren aurkako analgesikoak, hain zuzen.

Inkesta egin zitzaien pertsoneri galdetu zitzaien ia azken urtean medikuarengana joan behar izan zuten arazo, molestia edo gaixotasun batengatik. Zentzu honetan, emakumeak onartu zuen gutxienez behin joan dela, eta gizonezkoek bitan. Sei gizonek behin ere ez dutela joan behar izan adierazi dute.


25. TAULA: MEDIKUARENGANA JOATEA

	Emakumeak	Gizonak
Behin	1	-
Bitan	-	2
Behin ere ez	-	6

Hala ere, alderdi positibo bat nabarmendu behar da, hots, langile batek ere ez duela uste medikuarengana joan behar izate hori lanpostuari lotutako gaixotasunen batek eragindakoa denik.

Bestalde, azken bi urteetan lan-istripurik izan duten galdetu zitzaien. Gizonezko bakar batek onartzen du istripua eduki izana, eta horren eragilea lanpostua gaizki diseinatuta egotea izan zela. Gainera, langile bati ere ez diote gaixotasun profesionalik diagnostikatu.

28. GRAFIKOA: LAN ISTRIPUA



Bestalde, emakumearentzat lanlekuan ez dago alderdi desatsegini, eta gizonezkoentzat, berriz, honako hauek dira lanpostuko alderdirik desatseginenak: ordutegia (1), monotonia (3), lanpostuan egin beharreko esfortzu fisikoa (2), lanean eduki beharreko jarrera (1), lanpostuko argiztapena (2), dagoen zarata (1), inguruneko tenperatura eta hezetasuna (1), istripu bat izateko arriskua (2), soldata (1) eta pertsonalki aitortuta ez egotea.



26. TAULA: LANEKO ALDERDIRIK DESATSEGINENAK (%)

	Hala-moduz	Nahiko
Lan-ordutegia	1	
Monotonia	3	
Lanpostuan egin beharreko esfortzu fisikoa	2	
Lanean eduki beharreko jarrera	1	
Lanpostuko argiztapena	2	
Lanpostuan dagoen zarata	-	1
Ingurunekeo tenperatura eta hezetasuna		1
Istripu bat izateko arriskua		2
Soldata		1
Pertsonalki aitortuta ez egotea		2

Izan ere, lau gizonezko oso pozik daude lan-baldintzekin; emakumea eta gainerako gizonezkoak, ordea, nahiko pozik.

22. BIZIKIDETZA EGOERA

Emakumea salbu (bakarrik bizi dela), gainerako gizonezko guztiek etxean gutxienez beste hiru pertsonarekin bizi direla adierazi dute.

27. TAULA: ETXEAN BIZI DEN PERTSONA KOPURUA (%)

	Emakumeak	Gizonak
Bat	1	-
Hiru	-	4
Lau	-	3
Bost	-	1
GUZTIRA	-	8

8 gizonetatik zazpi etxean bizi diren seme-alabak dituzte, eta horietatik erdia baino gehiago 18 urtetik gorakoak dira. 15 urtetik beherakoa seme-alabak izatekotan, bikotekideak zaintzen dituela adierazi dute hiru gizonezkoak, bik bikotekidearekin batera zaintzen dute familia eta gainerakoek ez dute galdera erantzun.

28. TAULA: ETXEAN BIZI DIREN SEME-ALABEN ADINAK


	Emakumeak	Gizonak
0 eta 2 urte bitartekoak	-	-
3 eta 6 urte bitartekoak	-	-
7 eta 12 urte bitartekoak	-	2
13 eta 18 urte bitartekoak	-	4
19 urte edo gehiagokoak	-	5

Gainera, gizonezko batek 65 urtetik gorako adindu batekin bizi da, baina honako honek bere burua zaintzen du.



Bestalde, etxeko lanaz arduratzen den pertsona, emakumearen kasuan, bereziki bera da arduratzen dena, eta gizonezkoen kasuan, zazpik esan dute bikotekidea arduratzen dela, eta batek familiako gainerakoekin batera arduratzen dela.

29. GRAFIKOA: ETXEKO LANETAZ ARDURATZEN DEN PERTSONA



Gauzak horrela, ez da harritzekoa emakumeak etxeko lanetan egunero hiru ordu ematea, eta gizonezkoek ordu bete edo hori ere ez. Gorago esan den legez, emakumeak etxeko lan guztiak egiten ditu, eta gizon gehienek laurdenak edo bat ere ez dute egiten.



29. TAULA: ETXEKO JARDUERAK


		Ia guztia □	Erdia	□ ezer ez/Ia ezer ez	EE
EMAKUMEZKOAK	Sukaldari-lanak	1	-	-	-
	Garbitu	1	-	-	-
	Harrikoa egin	1	-	-	-
	Etxea garbitu	1	-	-	-
	Janaria erosi	1	-	-	-
	Arropa ikuzi	1	-	-	-
	Lisatu	1	-	-	-
	Arropa erosi	1	-	-	-
	Medikuarengana joan	1	-	-	-
	Eskolako bilerak	-	-	1	-
	Zaintzak, gaixotasun-egoeran	-	-	1	-
	Mendekotasunean bizi diren pertsonak garbitzea	-	-	1	-
	Mendekotasunean bizi diren pertsonei jaten ematea	-	-	1	-
	Eskolako lanetan laguntzea	-	-	1	-
	GIZONEZKOAK	Sukaldari-lanak	-	2	6
Garbitu		-	3	5	-
Harrikoa egin		-	1	7	-
Etxea garbitu		-	1	7	-
Janaria erosi		-	2	6	-
Arropa ikuzi		-	1	7	-
Lisatu		-	1	7	-
Arropa erosi		-	2	6	-
Medikuarengana joan		-	1	6	1
Eskolako bilerak		-	1	5	2
Zaintzak, gaixotasun-egoeran		-	1	6	1
Mendekotasunean bizi diren pertsonak garbitzea		-	1	4	3
Mendekotasunean bizi diren pertsonei jaten ematea		-	1	4	3
Eskolako lanetan laguntzea		-	1	5	2

Adierazi behar da, gizonezkoen erdiak etxean egiten den lan-kopurua ohikoa dela uste badu ere, beste erdiak ezer gutxi egiten dela onartzen duela.

Denbora libreari dagokionez, emakumeak onartu du batzuetan gustatzen zaiona edo zaletasunetarako denbora baduela, eta gizonezkoek, bere aldetik, batzuetan edo oso gutxitan dutela; hiruk esan dute denbora librea beti dutela.



30. GRAFIKOA: ASTIALDIA



Honako jarduera hauek egin dituzte denbora libre horretan: emakumezkoak, heziketa fisikoa, ikasketak, irratia entzun eta telebista ikusi eta lagunekin egon; gizonezkoek, berriz, irakurri (2), ikuskizunetara joan (1), irratia entzun eta telebista ikusi (5), lagunekin elkartu (5) eta musika entzun (1).

30. TAULA: ASTIALDIAN EGINDAKO JARDUERAK

	Emakumeak	Gizonak
Heziketa fisikoa	1	-
Irakurri		2
Ikuskizunetara joan		1
Irratia entzun eta telebista ikusi	1	5
Beste ikasketa batzuk egin	1	
Lagunekin elkartu	1	5
Musika entzun		1



23. ONDORIOEN LABURPENA

- Kasu gehienetan, pertsona gehienak dira etxera diru gehien ekartzen dutenak, gizonezko kasu batean izan ezik, erdibana ekartzen dutela adierazi baitu.
- Pertsonen ikasketa-mailari dagokionez: emakumezkoak bigarren mailako ikasketak ditu, bi gizonek lehen mailakoak eta 4k unibertsitate-ikasketak.
- Inkesta erantzun duten langileen artean langile autonomo bakarra dago, gainerako pertsonak (emakume 1 eta 7 gizonezko). Inkesta erantzun duten langile guztiek lanaldi osoko kontratu mugagabea dute.
- Ordaintzeko moduari dagokionez, gizonezko bi langilek eta emakumezko langileak soldata finkoa jasotzen dute; beste bi gizonezkoak, ordea, taldearen errendimenduaren arabera soldata aldakorra jasotzen dute, eta 3 gizonezkoak banakako errendimenduaren arabera soldata aldakorra.
- Soldatapeko bi gizonezkoak (guztira 8 pertsonatik) bakarrik jasotzen dute gehigarriren bat. Biek adierazten dute jasotzen duten gehigarri hori duten erantzukizun- eta aginte-mailagatik dela. Beraz, inkesta erantzun duten langileen arteko batek ere ez du arrisku, toxikotasun, nekagarritasun edo gaueko lanagatik gehigarririk jasotzen.
- Inkesta erantzun duen emakumeak arrantza sektoreko administrazio-lanpostua betetzen du. Gizonezkoen artean, 5 bitarteko agintariak dira eta 3 langile kualifikatuak.
- Inkesta erantzun duten langile-taldea osatzen duten 8 gizonetatik 2k ontzia garbitzen dute, eta beste hiru, administrazio- eta kudeaketa-lanetan aritzen dira. Emakumea, bere aldetik, administrazio- eta kudeaketa-lanak egiten ditu.
- Inkesta erantzun duen emakumeak arrasteko arrantza-sektorean lan egiten du. Langile gehienek (gizonezkoak) baxurako arrantzan lan egiten dute. Arraste-arrantzan inkesta erantzun duten bi langilek baino ez dute lan egiten, eta gainerako sektoreetan langile bakarra dago.
- Inkesta erantzun duten langileek denbora luze daramate arrantza-sektorean lanean.
- Datozen hamabi hilabeteetan lana galdu ahal duten edo kontratua berrituko dieten galdetu zaienean, inkesta erantzun duten langile gehienek onartu dute litekeena enpresa horretan jarraitzea dela. Beraz, ondoriozta daiteke sektore honetako lana nahiko egonkorra dela.
- Inkesta erantzun duen emakumezko langilea da ordenagailua eta telefono finkoa gehien erabiltzen duen langilea. Beste bi gizonezkoak ere ordenagailua eta telefono finkoa erabiltzen dute. Langile hauek gehien erabiltzen dituzten lanabesak honako hauek dira: ingurasarea, ezpeletak, txirrikak eta hondoko arraste-sarea.
- Tresna arruntak erabiltzeari buruz eman zaien informazio eta prestakuntzari dagokienez, inkesta erantzun duten 8tik 7k esan du nahikoa informazio eta prestakuntza eman zaizkiela eta



emakumeak adierazi du ez duela faltan bota lehendik erabiltzen zekielako. Ondorengo taulan ikus daitekeenez, gizonezkoek bezala, emakumezkoak nahikoa denbora darama tresnak erabiltzen.

- Inkesta erantzun duten gizonezkoen erdiak lana eten behar izan du momenturen batean, baina batek bakarrik adierazten du horren arrazoa zein izan den: soldaduska.
- Enpresan hartzeko prozesua nahikotzat jo dute 5 gizonezkoek. Batek bakarrik esaten du harrera-prozesua izan bazuen ere, ez zitzaiola nahikoa irudititu. Emakumezko langileak dio ez zuela harrera-prozesurik izan, baina ondo konpontzen dela.
- Langile guztiek adierazten dute azken bi urteetan arrantza-aparailuak ez direla sakonki aldatu.
- Inkesta erantzun duten langileen arteko 4k adierazten dute zubian lan egiten dutela eta 2k bizkarrean. Emakumeak eta bi gizonezkoek, ordea, bulegoan lan egiten dute.
- Udaran eta neguan lanpostuan dagoen tenperaturari dagokionez, emakumezko langileak eta 5 gizonezkoek atsegina dela diote. Inkesta erantzun duten 9 pertsonetatik batek adierazten du lanpostuko tenperatura ez dela atsegina, udaran bero egiten duelako, eta neguan, berriz, hotz.
- Lauk uste dute lanpostuan duten hezetasun-maila nahiko egokia dela, beste hiruk, ordea, gehiegizko hezetasuna dagoela uste dute. Inkesta erantzun duen emakumeak uste du bulegoko hezetasun-maila egokia dela.
- Zarata-maila lanpostuaren araberakoa da. Zenbait langilek oso altua ez dela diote eta beste batzuek, ordea, zarata-maila nahiko altua dela, eta zenbait kasutan lankideekin 3 metrora hitz egitea ezinezkoa dela diote. Emakumezko langileak, berriz, bere lanlekuan zaratarik ez dagoela adierazi du.
- Langileetako batek adierazi du lanpostuan dardarak sumatzen dituela eskuak, besoak edo hankak ez diren beste gorputz-atal batzuetan. Langile honen arabera, makinek sortzen dituzte dardarak.
- Lan-motaren araberakoa da kutsatzaile ezberdinen eragin-maila. Kasu honetan, inkesta erantzun duten arrantza-sektoreko langileek adierazten dute ez dituztela gai edo produktu kaltegarri edo toxikorik manipulatzeko, ezta hauts, gas, ke, edo lurrun kaltegarri edo toxikorik ere.
- Langileek berez lanpostuarenak diren arriskuren eraginpean daudela onartzen dute. Kolpeak dira langileen artean ezkutukoak diren arriskuak bat, eta jarraian, eta taulan agertzen direnen artean, amuekin edo labanekin moztea edo zizt egitea edo ontzitik erortzea.
- Istripu hauen arrazoiak batzuk eguraldia, ura, nahastea... Emakumezkoak, aitzitik, ez du istripu-arriskurik adierazi.



- Aldatu egiten da lanpostu bakoitzaren diseinua. Besteak beste, lantokietako argiztapen egokia bezalako egoera positiboak daude, jarrera deserosoak galarazteko altuera egokiko eremuetan lan egiten da. Hala ere, inkesta erantzun duten gizakumeek hain positiboak ez diren beste egoera batzuk adierazi dituzte, hala nola: lanabes asko gaizki kokatuta egon eta besoa gehiegi luzatu behar izatea, azalera ezegonkor eta irregularretan lan egin behar izatea edo etengabe gehiegizko hezetasunaz lan egin behar izatea.
- Langileen jarrerarik ohikoenak dira ia ibili gabe zutik egotea, eta zutik egotea sarritan ibiliz, edo eserita egotea sarritan altxatuz. Inkesta erantzun duen emakumeak adierazi du bere ohiko jarrera eserita egotea dela, eta ez dela ia inoiz altxatzen.
- Emakumeak onartzen du, lanaldi erdi baino gehiago jarrera berberean egon behar izaten duela eta lanaldi erdian edo laurdenean zehar esku eta besoekin oso mugimendu errepikakorrak egin behar izaten dituela. Gizonezkoek adierazten dute lanaldiaren erdia baino gehiago jarrera berberean egon behar izaten dutela eta esku eta besoekin oso mugimendu errepikakorrak egin behar izaten dituztela.
- Jarrera desegoki hauek hainbat gorputz-ataletan molestiak sortarazten dituzte. Inkesta erantzun duen emakumearengan eragindakoen artean, garrantziaren hurrenkeran: bizkarraren goialdea eta hankak; eta gizonezkoengan: besoak/besaurreak, bizkarraren behealdea eta eskuak/eskumuturrak.
- Orokorrean, inkesta erantzun duten langileek arreta-maila altua edo oso altua mantendu behar izaten dute lanaldi erditik gora. Gainera, gizonen erdiak baino gehiagok lan errepikakorrak eta oso iraupen txikikoak egin behar izaten dituzte, eta emakumeak, berriz, lanaldiaren erdian edo laurdenean egin behar izaten ditu.
- Emakumeak egin behar izaten dituen iraupen txikiko lan errepikakor hauek bost minutu baino gutxiago irauten dute. Gizonezkoen kasuan, ordea, horien ia erdiak adierazten hamar minutu luze irauten dutela.
- Azken hiru hilabeteetan egin behar izan duten lan-kopuruari dagokionez, emakumeak adierazten du oso aldakorra izan dela, eta gizon gehienek (9 gizonetatik 7k), ordea, ohiko lan-kopurua izan dutela.
- Kasu gehienetan lana ez da monotonoa izaten, baina ezin da baztertu bi gizonezkoek adierazten dutela bere lana, sarritan, monotonoa izaten dela eta batek, berarentzat beti monotonoa dela esaten duela.
- Emakumezko langileak beti edo ia beti izaten ditu informazio argi edo nahikoak, laguntza izateko aukera eta nahikoa laguntzaile. Gizonezkoen kasuan, ordea, neurri hauek ez ezik, lana egiteko nahikoa denbora izan ohi dute.
- Lanpostuan akatsen bat egiten denean, honek, normalean, arazo arina sor dezake edo ia ez du ondorioz. Inkesta erantzun duten langileen arteko batek ere ez du uste beren lanpostuan egin daitezkeen akatsek ondorio larriak izan ditzaketarik.



- Inkesta erantzun duen emakumeak egin ditzakeen akatsek, berak dioenez, enpresaren fakturazioari eragin diezaiokete. Gizonezkoen arabera, ordea, akatsen bat egitekotan egon daitezkeen ondorioak dira, bereziki, zigor ekonomikoak edo kalteak instalazioetan, ekipoetan eta materialetan. Aipatu ere, aipatzen dituzte, pertsonen segurtasun eta osasunean kalteak sortzeko aukera.
- Lan egiten duten bitartean bere lankideekin harremanak izatea galarazten edo zailtzen dituzten alderdien artean, hau da, zarata, lankideak urruti edukitzea, enpresak debekatuta edukitzea, babes-ekipoak, edo isolatuak egotea... direla-eta, gizonezkoek adierazten dute ez dela horrelakorik gertatzen. Emakumezkoak, aitzitik, lan-erritmoak lankideekin harremanak izatea galarazten diola adierazten du.
- 3 gizonezko erantzun dute lanpostua betetzeko ez dela beharrezkoa ezagutza bereziak izatea, esperientziarekin nahikoa dela, baina beste 3 gizonezko uste dute erdi- zein goi-mailako unibertsitate-prestakuntza izatea beharrezkoa dela. Emakumeak, bi gizonek bezala, lanpostua betetzeko lanbide-heziketako prestakuntza-ikasketak izatea nahikoa dela esaten du.
- Emakumeak eta gizonek uste dute beren lanpostua enpresan garrantzitsua dela.
- Emakumeak zein gizonezkoen erdiak autonomia osoa dute hainbat alderditan, hala nola, lanen hurrenkeran, lan-metodoan, lan-erritmoan eta etenaldien iraupenean. Nabarmendu behar da gizonezko batek baino ez duela esaten inoiz ez duela autonomiarik.
- Arrantzak ezarri ohi du langile gehienen lan-erritmoa. Adierazten dituzten gainerako arrazoiak, eguraldi-baldintzak eta lortu beharreko goi-mailak dira. Langileen arteko gizonezko batek baino ez du onartzen bere lanean ez dagoela erritmorik.
- Langileen zati handi batek egiten diharduen jarduerak eten egiten ditu egunean behin baino gehiagotan, aurreikusita ez zeuden beste batzuk egiteko. Gizonezkoen beste zati handi batek onartzen du ez duela ia inoiz egiten ari den jarduera eten behar izaten. Etenaldi hauek lanaren garapenean izan ditzaketen ondorioei dagokienez, emakumeak adierazten du kaltegarriak direla, eta gauza bera esaten dute bere jarduera eten behar izaten duten bi gizonezkoak. Bere jarduera eteten duten gainerako gizonezkoek adierazten dute etenaldiek ez dute bere lanaren garapenean ondoriorik.
- Lana eteteari edo langileak behar duenean lanaldian zehar lanlekutik alde egin behar izateari dagokienez, langile gehienek esaten dute ez dutela inolako arazorik hori egiteko. Izan ere, 5 gizakumek esaten dute bere ordezkari jarri gabe egin ahal dute, baina emakumeak eta gizonezko batek onartzen dute, ordezkaria beharko luketela. Nolanahi ere, langileen arteko 2 gizonezkoak ez dute lana eten edo lanean ez egiteko aukerarik.
- Enpresa barruan mailaz igotzeko edo sustatzeko aukerari dagokionez, ikusi da langile gehienek ez dutela inoiz mailaz igo. Gizonezko bik baino ez dute mailaz igo. Kontuan izan behar da, lehenago ikusten zenez, inkesta erantzun duten langileek urte dezente daramatzatela enpresa berean lanean, eta honek esan nahi, arrantza-sektorean beste sektoreetan baino zailagoa dela mailaz igotzea.



- Egungo enpresan mailaz pixka bat igo dutela onartu duten langileek adierazi dute, pilotutako esperientziagatik izan dela. Emakumeak adierazi du ezin izan duela inoiz mailaz igo, ez zaiolako inoiz aukera hori eman, eta beste gizonezko batek onartu du interes faltagatik ez duela mailaz igo.
- Arrantzan lan egiteak dedikazio eta ahalegin handia eskatzen du. Funtsezko alderdietako bat laneko ordutegia eta lanegunak dira. Lan-mota honetan, normalean, ez dago astebururik, ez jaiegunik, ezta oporrik ere. Inkesta erantzun duen emakumeak, aitzitik, ez du larunbat, igande eta jaiegunetan lan egin behar izaten, administrazioan lan egiten dutelako. 3 gizonezkoek, ordea, egin behar dutela adierazi dute. Gainera, langile gehienek gauzez lan egin behar izaten dute.
- Ordutegiaren zorrotasun edo malgutasunari dagokienez, emakumeak esan du bere lana finkoa dela, ordu zehatz batean sartu eta irteten dela, baina gizonezkoek, ordutegi malgua dutela adierazi dute.
- Langile gehienek ez dute zertan beren lanaldia luzatu behar, baina egiten duten gizon batek ordain ekonomikoa edo denbora libreja jasotzen du trukean. Gizonezko batek eta emakumeak ez dute jasotzen. Beren lanaldia luzatu behar izaten duten pertsonak diote arrazoi nagusia gehiegizko lana izaten dela.
- Datuek adierazten dute parte-hartzea nahiko altua dela lanaren hainbat alderdi garrantzitsuetan, hala nola, lanaren plangintzan eta antolamenduan, lana berrikustean edo lanabesak aukeratzekoan. Datu hauen bitarte ondoriozta daiteke enpresek, orokorrean, langileei lanaren inguruko hainbat alderditan esku hartzea ahalbidetzen dietela, eta bestetik, hala gizonezkoek, nola emakumezkoek honelako auzietan esku hartzeko interesa azaltzen dutela.
- Langileei dagozkien erabakien inguruan iradokizunak egiteko edo horietan esku hartzeko baliabide ezberdinak daude, hala nola, nagusiekin zuzenean hitz egitea, iradokizunen postontzia, kalitate-zirkuluak, langileen ordezkariak edo bilerak. Inkesta erantzun duten langileek ondoren baloratu duen aukera nagusiekin zuzenean hitz egitekoa da, horrela erantzun baitute guztiek. Adierazi behar da, gizonezkoek nahiko ondo baloratzen dituztela langileen ordezkariak. Nabarmenezkoa, halaber, langile batzuek beren enpresan honelako baliabideak ez daudela esatea.
- Pertsona guztiek adierazi dute enpresan laneko arriskuen prebentzioaz arduratzen den ordezkaria dagoela. Laneko arriskuen prebentzioaz arduratzen den ordezkariaren ebaluazioari dagokionez, bai emakumearen eta baita gizonezkoen aldetik nahiko ondo baloratuta dagoela sumatu da.
- Azterketa medikoari dagokionez, langile guztiek adierazten dute azken hamabi hilabeteetan azterketa medikoa egin dietela, eta honen arrazoa aldizkako azterketa izatea izan dela. Azterketa medikoa egin ondoren, idatziz jasotzen dituzte emaitzak.
- Emakumezko langileak uste du azterketa medikoa baliagarria dela eta lanarekin zerikusirik duen gaixotasunik ote duen jakiteko beharrezko probak egin dizkiotela; gauza bera adierazi dute 3 gizonek. Adierazi behar da, bi gizonezkoek baliagarritzat jotzen dutela azterketa medikoa.



- Osasun eta segurtasunerako lanpostuko arriskuei buruzko azterketa lantegiek egin ohi dituzten prebentzio-jardueretako bat da. Inkesta erantzun duten langile gehienek onartzen dute beren lanlekuan osasun eta segurtasunerako lanpostuko arriskuei buruzko azterlanak egiten direla.
- Beren lanpostuan osasun eta segurtasunerako dauden arriskuei buruzko azterlanen bat egin dutela onartzen duten langileek adierazten dute bere enpresan gehien aztertu diren alderdiak honako hauek izan direla: zarata, ingurune termikoa, dardarak, laneko jarrerak, esfortzu fisikoak eta mugimendu errepikakorrak, makinaren segurtasuna, ekipoak eta materiala, instalazioen segurtasuna eta lanpostuaren diseinua.
- Modu ezberdinak daude enpresek langileei osasun eta segurtasunerako lanpostuko arriskuei buruzko azterlanen emaitzak jakinarazteko. Jakinarazpen-metodo bakar bat ere ez dago besteak baino hedatuago, zeren bi gizonek ahoz eta idatziz jakinarazi zizkietela esaten badute, beste bik idatziz bakarrik jakinarazi zizkietela diote, eta emakumeari eta beste gizonetako bati soil-soilik ahoz helarazi zizkieten.
- Lau gizonetako eta emakumeak adierazten dute osasun eta segurtasunerako lanpostuetako arriskuen azterlana egin ondoren neurriren bat hartu dela. Lau gizon hauek bat datoz adieraztean hartutako neurrien artean, instalazio, makina, ekipo eta materialetan egindako aldaketak eta banakako zein taldeko babes-ekipoak aldatu edo berriak ematea daudela. Emakumeak, aitzitik, neurriak prestakuntzan eta informazioan oinarrituta daudela dio.
- Inkesta erantzun duten langileen arteko sei gizonetakoentzat da derrigorrezkoa babes-ekipoak erabiltzea. Horientzat, derrigorrezkoa da honako hauek eramatea: eskularruak, oinetakoak (arrisku mekanikoaren kontrakoa), betaurrekoak/pantailak (talken aurka), kaskoa/txanoak, belarri-babesak, arrisku termikoaren aurkako babesa eta erorketak saihesteko gerrikoak eta gailuak. Horietako guztiek adierazten dute ekipo horiek erabiltzen diren kontrolatzen dela eta ekipo hauen beren neurrikoak direla. Horien erdiak (3), hala ere, ekipo hauek emakume haurdunentzat eta minusbaliotasunen bat duten pertsonentzat egokিতa ez daudela esaten dute.
- Inkesta erantzun duten langileetatik 6 gizonetako egungo edo aurreko enpresak bideratu edo eskainitako ikastaroren batean esku hartu dute azken 12 hilabeteetan. Hala ere, emakumeak eta bi gizonetako adierazi dute ez dutela inolako prestakuntzarik jaso azken urtean.
- Prestakuntza-jarduerak helburu ezberdinak izan ditzake. Prestakuntza jaso duten gizonetako erdiak adierazi du prestakuntza hori lanpostuaren prestakuntza teknikorako zela, eta beste erdiak, garapen pertsonalerako prestakuntza zela.
- Inkesta erantzun duten arrantza-sektoreko pertsona guztiek uste dute osasun ona dutela. Guztien arteko gizonetako bat bakarrik egon da bajan azken hamabi hilabeteetan. Bajaren arrazoia lan-istripu bat izan zen, eta hiru hilabete luzez egon zen bajan.
- Inkesta erantzun duten langileen tabakoarekiko portaerari dagokionez, grafikoan ikus daitekeenez, 5 gizonetako egunero erretzen dute, eta horien arteko bik egunero erre arren, egunean behin baino gutxiagotan erretzen dute.



- Egun erretzen dutena duela sei hilabete erretzen zutenarekin alderatzean denek onartzen dute zigarro-kopuru berbera erretzen dutela, ez gehiago, ezta gutxiago ere. Gainera, langile horietatik bi azken urtean erretzeari uzten saiatu dira noizbait azken urtean, et beste bostak ez dira saiatu.
- Inkesta erantzun duen emakumeak adierazi du zorabiatu egiten dela sarritan eta egun duen gogo-aldarte txarra dela. Gizonezkoek jakinarazi dituzten sintometako batzuk honako hauek dira: gose- edo digestio-arazoak eta begietan arazoak (malko-jarioa, ikusmen iluna...).
- Inkesta egin zitzaizen pertsona galdetu zitzaizen ia azken urtean medikuarengana joan behar izan zuten arazo, molestia edo gaixotasun batengatik. Zentzu honetan, emakumeak onartu zuen gutxienez behin joan dela, eta gizonezkoek bitan. Sei gizonek behin ere ez dutela joan behar izan adierazi dute. Hala ere, alderdi positibo bat nabarmendu behar da, hots, langile batek ere ez duela uste medikuarengana joan behar izate hori lanpostuari lotutako gaixotasunen batek eragindakoa denik.
- Gizonezko bakar batek onartzen du istripua eduki izana, eta horren eragilea lanpostua gaizki diseinatuta egotea izan zela. Gainera, langile bati ere ez diote gaixotasun profesionalik diagnostikatu.
- Emakumearentzat lanlekuan ez dago alderdi desatseginik, eta gizonezkoentzat, berriz, honako hauek dira lanpostuko alderdirik desatseginenak: ordutegia (1), monotonia (3), lanpostuan egin beharreko esfortzu fisikoa (2), lanean eduki beharreko jarrera (1), lanpostuko argiztapena (2), dagoen zarata (1), ingurune tenperatura eta hezetasuna (1), istripu bat izateko arriskua (2), soldata (1) eta pertsonalki aitortuta ez egotea.
- Lan baldintzei dagokienez, lau gizonezko oso pozik daude lan-baldintzekin; emakumea eta gainerako gizonezkoak, ordea, nahiko pozik.
- Bestalde, etxeko lanez arduratzen den pertsona, emakumearen kasuan, bereziki bera da arduratzen dena, eta gizonezkoen kasuan, zazpi esan dute bikotekidea arduratzen dela, eta batek familiako gainerakoekin batera arduratzen dela.
- Gauzak horrela, ez da harritzekoa emakumeak etxeko lanetan egunero hiru ordu ematea, eta gizonezkoek ordu bete edo hori ere ez. Gorago esan den legez, emakumeak etxeko lan guztiak egiten ditu, eta gizon gehienek laurdenak edo bat ere ez dute egiten.
- Gizonezkoen erdiak etxean egiten den lan-kopurua ohikoa dela uste badu ere, beste erdiak ezer gutxi egiten dela onartzen du.
- Denbora libreari dagokionez, emakumeak onartu du batzuetan gustatzen zaiona edo zaletasunetarako denbora baduela, eta gizonezkoek, bere aldetik, batzuetan edo oso gutxitan dutela; hiruk esan dute denbora librea beti dutela.



OSALAN

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

ZERBITZU NAGUSIAK:

Dinamita Bidea, z/g
48903 Gurutzeta-Barakaldo. BIZKAIA
Tel.: 94 403 21 90
Fax: 94 403 21 00

LURRALDE ZENTROAK:

C/ Urrundi, 18
01013 Vitoria-Gasteiz. ARABA
Tel.: 945 01 68 00
Fax: 945 01 68 01

Dinamita Bidea, z/g
48903 Gurutzeta-Barakaldo. BIZKAIA
Tel.: 94 403 21 68
Fax: 94 403 21 07

Maldatxo Bidea, z/g
20012 Donostia-San Sebastián. GIPUZKOA
Tel.: 943 02 32 74
Fax: 943 02 32 51

www.osalan.net



ISBN: 978-84-95859-52-5



P.S.N.: 15 euros